

**Ikastola edo eskola publikoa:
euskal nazionalismoaren
hautua**

Txoli Mateos

2000

Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua

Txoli Mateos

2000

1999ko "Euskal Gizartearen Egoera" Sariaren akzesitaren irabazlea



AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. NAZIONALISMOA ETA HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN	9
2.1. Nazionalismoa, nazio-estatuaren integrazio eta desintegrazioa- ko tresna	9
2.2. Hezkuntza sistema, nazionalismoaren eremu gutzizatua	12
2.2.1. Hezkuntza publikoa: estatua eta gizarte zibila	14
2.2.2. Estaturik gabeko nazionalismoaren hezkuntza estrategiak	17
2.3. Euskal nazionalismoaren hezkuntza jardunaren bilakaera.....	19
2.3.1. Bizkaiko Auzo Eskolak: nazionalismoaren nagusitasun politikoa	20
2.3.2. Ikastolaren oldarra eta eskola publikoaren deslegitimazioa.....	23
3. HEGO EUSKAL HERRIKO EGITURAKETA AUTONOMIKOA: ESPARRU POLITIKOAREN ETA HEZKUNTZA SISTEMAREN ERALDAKETA	29
3.1. Alderdi nazionalistak, protagonista politikoak.....	31
3.2. Euskal nazio identitatea: lurraldea eta hizkuntza	34
3.3. Hezkuntza sistemaren norabide berria	38
3.3.1. Eztabaidaren protagonistak.....	39
3.3.2. EAEko eskola publikoaren eraberritzea.....	43
3.3.3. Ikastolaren estatusa hezkuntza legeriaren argitan	47
4. IKASTOLEN PUBLIFIKAZIOAREN INGURUKO GATAZKA	55
4.1. Publikotasunari buruzko diskurtsoak.....	55
4.2. Hezkuntza Sistema Propioaren bila: Ikastola eta Eskola Publi- koa	66
4.3. Hobetsitako irtenbideak: aliantzen eta aurkamenduen ardatzak	77
4.3.1. Ardatz linguistikoa	77
4.3.2. Ardatz ideologikoa eta sindikala	81
4.3.3. Ardatz politikoa.....	86

4.3.3.1. Prozesuaren lehen aldia (1978-1987).	87
4.3.3.2. Prozesuaren bigarren aldia (1987-1993).	91

5. BIBLIOGRAFIA.....	109
-----------------------------	------------

EGILEA	121
---------------------	------------

1. SARRERA

Jakina da gizarte modernoetan hezkuntzaren norabideak gero eta arreta handiagoa jasotzen duela eztabaida sozial eta politikoetan, eta arreta hori areagotu egiten dela nazio gatazkarik duten herrialdeetan. Euskal gizartea eta, zehatzago, euskal nazionalismoaren ibilbidea horren lekuko dira. Izatez, euskal nazionalismoa bere sorreratik bertatik agertu da hezkuntzaren egoeraz kezkatu; baina, Euskal Autonomia Erkidegoan eraketa aurretonomikoa ezarri zenetik aurrera, ikastolaren geroak abertzaleen arteko liskarra eragin zuen.

Egoera politiko berrian, noiz nazionalismo moderatua botere instituzionalaren jabe bihurtu baitzen, funtsezkoak izan ziren aldaketa bi. Alde batetik, administrazio autonomikoak hezkuntza eskumenak eskuratu zituen eta, ondorioz, eskola publikoaren euskalduntze prozesu esanguratsua gertatzen hasi zen. Bestetik, ikastola sareak onespenez instituzional eskerga jaso zuen eta arian-arian sare publikora bil zedin ekimen asko gorpuztu ziren. Hori horrela, ikastola eta eskola publikoa lehiakide bilakatu ziren. Euskal nazionalismoa, nola edo hala, sare bien arteko hautua egitera derrigorturik egon zen, edo -egin ezean- hezkuntza mota bien osagarritasuna justifikatu behar izan zuen. Aukeratu beharra saihetsezina izan zen 1993an ebatzi zen Euskal Eskola Publikoaren Legearen (EEPL) ondorioz; hau da, ikastolek sare publikora biltzea ala ikastetxe pribatu bezala jarraitzea erabaki behar izan zutelarik. Ez zegoen erdibiderik eta abertzale asko urraturik agertu ziren, ez baitzuten hautaketarik egin nahi.

Horixe da idazlan honen helburu nagusia: aztertzea zeren menpe egon den urte horietan zehar -eta EEPLari buruzko eztabaiden testuinguruan batik bat- euskal nazionalismoak ikastolari begira hobetsi zuen jokabidea; baina, kontuan harturik ikastolaz hitz egitean, erakunde eta gogaide abertzaleek eskola publikoaren egoera zutela gogoan; alegia, ikastolari eta eskola publikoari buruzko diskurtsoak eta estrategiak banaezinak zirela.

Ene irudiko, frankismoaren garaian sortutako ikastola sarearen garrantziak bideratu ditu euskal nazionalismoaren hezkuntza estrategiari buruzko azterketen hainbat ideia inplizitu, bai nazionalismoaren garapen historikoari, bai egun hobesten duen hezkuntza jokaerari begira. Horien arabera, abertzaleen jokaera *logikoena* omen da hezkuntza sare publikoa gutxiestea lan politikorako esparru bezala. Baina, 1993ko EEPLaren kariaz geratutakoak, adibidez, koloka jarri zuen ustekera hori. Ikastolak sare pribatuan geratzeak ala sare publikora biltzeak hil ala biziko arazoa zirudien. Harrigarria izan zen hezkuntza arloko eztabaida hutsa omen zenak hartu zuen izaria, eta are harrigarriagoa, nire iritziz, kontuan hartzen bada talde abertzale guztien esanean, *euskal eskola publikoa* eraikitzea zutela helburu.

Hartara, abertzaleen arteko *batasuna* eta *banaketa* eragiten duten aldean analisia hartzen dut hari eroale bezala, jarrera diferenteak eta,aldi berean, komuntasuna azalarazi gura izan ditut eta. Eta batasun/banaketa horren gakoa mota bikoia dela ezartzen dut. Lehena, *publiko* eta *pribatuaren* ulerkerak, eta hori erakunde abertzaleen ikusmolde ideologiko ezberdinek baldintzatua datorrela. Eta bigarrena, baina are

inportanteagoa, mugimendu nazionalistaren baitako ezberdintasun politikoek adierazten dutela, zeren eta ideologikoki planteamendu antzetsu samarra egiten zutenek, zenbaitetan, oso irtenbide diferenteak mahaigaineratu zituzten.

Duda barik, aztergaiaren konplexutasunaz kontziente izan naiz hasiera-hasieratik. Izan ere, nola edo hala prozesu hartan parte hartu zuen edonori galdetuz gero, hamaika arrazoi ezberdin adieraziko lituzke gatazkaren zio bezala: batzuen interes ekonomikoak, besteen eskola publikoarekiko ardura falta edota, sarritan ere, zenbaiten aldetik *benetako* abertzale edota euskarazale bezala jokatu ez izana. Erratzeko arrisku handirik gabe esan liteke abertzale guztiek dutela iritzi jakin bat auzi hartaz. Zer esanik ez, iritzi ugaritasun horrek ere bihurrarazten du erakargarri gai eztabaidatsu honek. Argitu beharra dago, alta, nire interesa ez dela izan ikastoletan edota gizartean *gertatutakoa* azaltzea; nazionalismoak auzi hartaz esandakoa eta proposatutakoa baino; alegia, mugimendu nazionalistaren *diskurtsoak eta jokaerak* dira aztergai nagusia.

Gai horretaz dagoen material bibliografikoa guztiz murrizta da, arestian esan bezala. Oso sarritan, gainera, aurki daitezkeen gogoeta apurrak mugimendu nazionalistaren beraren diskurtsoetako partetzat jo behar dira eta, hain justu, testuinguru horretan aurkeztu ditut behin baino gehiagotan. Ikerketa apur hauetatik landa, administrazio autonomikoak ebatzitako hezkuntza legeriaz gain, erakunde abertzaleek kaleratutako dokumentuak erabili ditut baita, urte horietan zehar, aldizkari eta egunkarietan agertu ziren hainbat adierazpen eta iritzi artikulua ere, zirela erakunde abertzaleenak, zirela mugimendu nazionalistako kideenak. Funtsezkoa da kontuan hartzea prozesuaren ikuspuntu politikoa hobetsi dudala, eta, hortaz, egokiago iruditu zait jendaurreko agiriak aztertzea –eta ez, adibidez, protagonistekin egindako elkarrizketak-, hobeto islatzen baita beraietan sinatzailearen ardura politikoa.

Abertzaleek auzi hartaz esandakoa eta proposatukoa aztertu gura izan dudan neurrian, nazionalismoari *entzuten* saiatu naiz, baina esaten duenaren azpian egon litezkeen zioak aurkitzen ere ahalegindu naiz. Hau da, *testua* eta *testuingurua* aztertu ditut. Testua abertzaleen diskurtsoak osatzen du, esan bezala. Testuingurua berriz, mugimendu nazionalistaren ikuspegi ideologiko eta politikoek, abagune politikoaren baldintzapenek eta hezkuntza sistemaren nolakotasunak marrazten digute.

Edukiak honelaxe daude eraturik: lehenengo kapituluan, nazionalismoaren izaeraz eta hezkuntzari begira garatzen dituen jokaera ezberdinez gogoeta egin eta gero, begiratu azkar bat ematen zaio euskal mugimendu nazionalistak denboran zehar gorpuztu dituen hezkuntza ekimenei. Bigarreanean, Hego Euskal Herriko eraketa aurreatomikoak ekarri zuen egoera politiko eta sozial ezberdina aztertzen da, baita, horren ondorioz, hezkuntza sistemak jaso zuen norabide berria ere. Hirugarrenean, zuzen-zuzenean jo dut aztergai nagusira, alegia, euskal nazionalismoak eskola publikoari buruz -eta, ondorioz, ikastolen publikazioari buruz- gorpuztu dituen mota askotako diskurtso eta ekinbideen aurkezpenera.

Honako idazlana Euskal Herriko Unibertsitatean, 1999an, defendatu nuen doktore tesi baten laburpen egokitua da, eta haren azkenengo kapitulua da aldaketa edo mozketak gutxien jaso duena. Tesiaren zuzendaria Julen Zabalo izan zen, eta harexeri opa gura diot lantxo hau, hainbat arlotan eskaini zidan laguntza eskergagatik.

2. NAZIONALISMOA ETA HEZKUNTZA EUSKAL HERRIAN

Nazionalismoa eta hezkuntza, banan-banan harturik, tradizio handiko gaiak dira soziologian. Baina, elkarren arteko harremanak zehaztu gura direnean, azterketak askoz urriagoak dira, eta urritasun hori areagotu egiten da estaturik gabeko nazionalismoak hezkuntzari begira gara ditzakeen estrategietan sakondu gura delarik. Horixe da, hain zuzen ere, atal honen helburua: errealitate bi horiek harremanetan jarrita, aztertzea zer paper jokazen duen hezkuntzak, lehenik, estatuarekin batera datorren nazionalismoan, eta, bigarrenik, nazio-estatuari kontrajartzen zaion estaturik gabeko nazionalismoaren kasuan. Azkenik, euskal nazionalismoaren hezkuntza jardunaren bilakaerari begiratu bat emateko parada edukiko dugu.

2.1. Nazionalismoa, nazio-estatuaren integrazio eta desintegrazio-ko tresna

Nazionalismoa XVI. eta XVII. mendeetan Mendebaleko gizarteetan ernaltzen hasi zen estatuarekin bat sortu zen. Egituraketa politiko hura ez zen bat-batean agertu; aitzitik, luzea izan zen egun ezagutzen dugun *nazio-estatu* gorpuztu arteko bidea. Honen amaieran, *nazioaren interesak* aldarrikatu ahal izan ziren, eta, estraineko aldiz, gizartea zerbait bateratu kontsideratu zen, eta nazioak haren esentzia adierazten zuen (Breuilly, 1990: 52 eta hur.). Nazioa da autoritatearen iturri bakarra, eta haren ordezkaria den estatua obeditu beharreko agente soil bilakatzen da.

Apurka-apurka indartuz joan zen estatua nazio terminotan legitimatu beharra, estatuari derrigorrezko egin baitzitzaion herritarren leialtasuna irabaztea aurrean zituen exigentziak bete ahal izateko: zergak ezartzea eta armada eratu ahal izatea. Prozesu horri, oro har, *integrazio nazionala* deitu ohi zaio. Beste modu batez esanda, estatu subiranoa *nazionalizatu* egiten da. Xede horrekin, parekidetu egiten dira nazioa eta estatua, eta lehenak subirano izateko legitimitatea ematen dio bigarrenari (Pérez-Agote, 1995: 120).

Estatuak berarentzat erreklamatzeko duen nazio-estatu izaeran nazioa eta estatuko biztanleria parekidetzen dira, eta parekidetasun hori gauzatzeko, herritarren integrazio politika deliberatuari ekiten dio. A. H. Birchek honako pauso nagusiak deskribatzen ditu integrazio nazionalaren gorpuzketan: a) nazio identitatearen sinboloak sortzea, estatu-burua, eta bandera eta himnoa, besteak beste; b) nazio instituzio politikoen ezarpena, populazioaren banaketa nagusiak islatzen dituztenak; c) hezkuntza sistema eraikitzea, umeei nazio identitate sentimentua igorri, historia irakatsi eta –zuzenean ala zeharka- abertzaletasuna sorrarazten diena; eta d) nazio harrotasuna garatzea. Helburu hartara jartzen ditu estatu aparatuek, biztanleria homogeneousatuz eta integrazioarako arriskugarri izan litezkeen mugimenduen sorrera oztopatuz (Birch, 1989: 9-10). Logikoa denez, zenbat eta homogeneousago izan estatuko biztanleria, hainbat eta errazago burutu ahal izango da integrazioa; eta, horrexegatik, gutxiengo kulturalak oztopo izan daitezke integrazio nazionalaren ahaleginean. Horrela, nazio bateratua osatzeko ekinbideak porrot egin dezake estatuak igortzen duen komunitate ideari talde batek beste komunitate ideia bat kontrajartzen dionean.

Talde nazionalista horrek alde biko dinamika kontrajarria eraman behar du. Batetik, nazio kontzeptu *integratzailea* landu behar du, nazio-estatuaz esan dugun modu berean; baina, bestetik, eraikitako estatu baten kontrako mezu *desintegratzailea* garatu behar du, edo gutxienez, haren eraikuntza prozesua zalantzan ipini. Kontraesankorra dirudien arren, integrazio/desintegrazio prozesu hori arazo larregirik gabe gara daiteke estatuaren nazio kontzeptuaren parean beste bat jarritz.

Nazio-Estatuari kontrajarritako estaturik gabeko nazio identitate honi adierazpen politikoa bilatuko zaio, eta bere aldarrikapenaren legitimazioa autodeterminazio printzipioan oinarritu gura izango da. Hau da, nazio bakoitzari eraketa politiko berezia dagokio, autonomia maila diferenteetan gauza daitekeena, estatu propioaren lorpena barne. Horrela, nazionalismoa batasun nazional eta politikoaren arteko kongruentzia erreklamatzeko duen printzipio politikotzat jo behar da (Gellner, 1988: 13). Nazionalismoa, beraz, estatuaren *integrazio* eta *desintegrazio*rako tresna bezala ulertu behar da (Zabalo, 1996: 21 eta hurr); alegia, nazio-estatuaren osaketarako erabilgarri izan zen nazio ideiak haren kontra gorpuztu ziren estaturik gabeko nazionalismoen sorrera ahalbidetu zuen. Azken hauek estatuak ezarri gura duen nazio identitateari beste identitate bat kontrajartzen diote. Kultura, lurraldea eta herritarren borondatea izan ohi dira nazio identitaterako irizpide nagusiak.

Anthony D. Smithek talde etnikoa ipintzen du nazio identitatearen sortzapenean, eta hura ezaugarritzeko, aspektu historiko eta sinboliko-kulturalak erabiltzen ditu. Horrela, talde etnikoak batasun kulturala, oroimen historikoak eta arbasoen mitoa dakartza berarekin, eta ezaugarri batek edo gehiagok diferentziatua egoten da, hala nola, hizkuntzak, erlijioak, ohiturek, edota instituzioek. Kolektibitate horiek historikoak dira zentzu bitan: alde batetik, oroimen historikoak biziraupenerako derrigorrezkoak direlako, eta bestetik, talde etniko guztiak indar historiko berezien emaitza direlako, eta beraz, historian zehar izaeraz aldatzera edo desagertzera ere hel daitezkeelako. Talde etnikoak, hartara, *kategoria etnikoak* izan daitezke beren diferentzialitatearen kontzientziarik ez dutenean, edo *komunitate etnikoak* honako ezaugarriak partekatzen dituztenean: izen kolektibo bat, arbaso komunei buruzko mitoak, oroimen historiko sare bat, kultura komunaren osagai diferentziatzaile multzo bat, lurralde batekiko harremana eta biztanleen arteko elkartasun sentimentua (Smith, 1991: 21).

Smithek, alderantziz irudi balezake ere, ezaugarrien objektibitate txikia azpimarratzen du. Ikuskera nazionalistek, aitzitik, gustukoa dute objektibotasuna defendatzea, baina gakoa ezaugarrien esangura subjektiboan datza: berau indartu edo makaltzen den neurrian, indartu edo makaldu egingo da komunitatearen kohesioa eta kideen autokontzientzia.

Izatez, kulturari dagokionez, eztabaida ugari burutzen da osagai kulturalen balizko objektibotasunaren inguruan, baina, nazioaren nolakotasuna, Walker Connorri jarraituz, taldeak berak bere buruaz egiten duen definizioan datza, eta definizio horretan benetako garrantzia daukana *bakantasuna* azpimarratzea da. Ezaugarri nabarmenek bakantasunaren zentzua indartzen duten heinean bakarrik dute errelevantzia (Connor, 1972: 337.).

Lurralde eta borondate irizpideek azpi politikoagoa dute. Lurraldearen kasuan, nazioa aurretik erabaki den lurralde jakin bateko biztanle orok osatzen du, normalean, baldintza batzuk betetzea derrigorrezkoa bada ere. Hartara, nazio-estatuaren nazionalismoak bezalaxe, estaturik gabeko nazionalismoak lurraldea zehazten du - nazio lurraldea. Hori egitean, lurraldearekiko nolabaiteko kontrola erreibindikatzeko du, hau da, nazioaren ezaugarriak babesteko botere politikoa exijitzen du. Hala ere, nazionalismoaren helburua ez da halabeharrez estaturik eraikitzea. Nolabaiteko autonomia maila nahikoa izan daiteke arriskuan ikusten zen nazioaren geroa ziurtaturik senti dadin, aurretik zegoen estatuarekin apurtu behar izan barik horregatik.

Borondate kontzeptua, azkenik, kultura ezaugarrietan jatorria duten nazionalismoetan erabiltzen da maiz, zeren mugimendu nazionalistak argi utzi behar dio beste kulturakoa den biztanleriari lasai jarrai dezakeela bere bizimodu normalean, beste taldeak boterea edo nolabaiteko botere maila eskuratuz gero ere. J. J. Linzek Europako *estatu zaharretako nazionalismo periferikoen* bilakaeraz burutu zuen azterketak horren guztiaren adibide ematen digu. Europako gizarte industrializatuetan nabaria da populazioaren heterogeneotasuna, eta ondorioz, ez dute zentzunik hizkuntzan, kulturen, erlijioan edota ahaidegoan oinarriturik, ustezko identitate homogeenari egindako deiek. Gainera, autogobernurako aldarrikapenak, edonolakoa izanda ere, lurralde baten zehaztapena dakar berarekin nahitanahiez, eta ezaugarri etniko edo kulturalak *-primordialak*, bere hitzetan- populazio osoaren ondare ez direnez gero, lurraldea eta borondatea bilakatzen dira naziotasunaren irizpide (Linz, 1985).

Horretatik guztitik zera ondorioztatzen da: ezinezkoa dela zehatz-mehatz aurreikustea zein izango den nazionalismoak nazio identitatearen zehaztapenerako erabil dezakeen irizpide nagusia, testuinguruak baldintza jakinak ezartzen dizkio eta. Nazioa -eta nazionalismoak- ez dira, beraz, ez halabeharrez ez nolanahi sortzen; ostera, baldintza historiko eta geografikoen mugatzen dute nazionalismoak egindako definizioa. Horregatik esaten da nazioa *nazionalismoaren eraikuntza* dela:

“Eraikuntza horretan nazionalismoak nazioa sortu du, baina inportanteena da jendeak onartu egiten duela eraikuntza eta, nazioa bere-berea sentituz, bere alde jotzen du su eta gar.” (Zabalo, 1996: 31).

Nazioaren eraikuntza horretan osagai etnikoak – hizkuntza, erlijioa, arraza...- edo zibikoak –lurraldea eta borondatea- erabil ditzake, eta ez dago, beraz, nazionalismo etnikoa eta zibikoa era zurrunez kontrajartzerik. Erakarpen mota ezberdina izanik, definizio bietara jo dezake zirkunstantzien arabera. Hartarako, nazionalismoaren jite politikoa hartu behar da aintzat. Horrelaxe bakarrik uler daiteke sarritan erakusten duen plastizitatea, edo bestela esanda, testuinguru sozialera moldatzeko gaitasuna. Nazionalismoa ezin muga daiteke ideia eta sentimentu multzo soil batera, beroriek bideratzen dituen mugimendu politiko batez ere berba egin behar da, ostera. Nazionalismoaren berezko joera izaten da nazioaren etorkizun politiko, ekonomiko eta kulturala bermatzen duten botere esparruak bereganatzen saiatzea. Mugimenduak eraiki nahi duen nazioaren existentziarako, derrigorrezkotzat jotzen du nolabaiteko botere politiko maila bat eskuratzea (Beobide Ezpeleta, 1993).

Hortaz, nazionalismoak ez dihardu etengabeko oposizioan. Mugimendu nazionalistak hobesten duen botere maila aldaera askok baldintzatzen dute, baina inportanteena da ohartzea, helburu horren bila eremu politikoan ari delarik, praktika horretatik datozen baldintzapen eta ondorio guztiak onartu behar izaten dituela, batzuetan funtsezko printzipioen kontra joz ere, giro horretan mugitzen diren beste indar politikoak bezalatsu. Hori dela eta, mugimendu nazionalistak mugimendu politikoak dira, eta ezin daitezke automatikoki jokaera ideologiko jakin batean lerratu. Nazionalismoa, *berez*, ez da eskuindarra edo ezkertiarra, liberala edo kontserbadorea. Izatez, nazionalismoa zenbait gizarte klase eta taldek erabili dezakete gatazka politikoan. Horrek ez du esan gura, ordea, mugimendu nazionalistak indar homogeneo eta monolitiko direnik. Hiru esparrutan ikus daitezke euren baitako diferentziak: a) nazioaren ezaugarriei dagokien diskurtsoan, b) ezaugarrien erabilera politikoan, eta c) borroka politikoan talde sozial ezberdinekin aurkitzen duten konfluentzian (Apaolaza, 1993: 21).

Bestela esanda, nazio identitatearen ulerkerak eta jokaera politikoak barne banaketa ezartzen dute mugimendu nazionalisten baitan, baina, horiez gain, aintzat hartu beharrekoa da gizarte arlo ezberdinei buruz garatzen diren ikuskera ideologikoak, adibidez, komunismotik eskuin muturrera joan daitezkeenak. Litekeena da, beraz, mugimendu nazionalista jakin baten barruan, azpitalde, edo korronte, edo nazionalismo ezberdinak garatzea, eta horiek guztiak zenbait indar politikotan islatzea, baita euren eraginpean aritzen diren mota askotako erakundeetan ere gorpuztea. Hartara, barne ugaritasuna izaten da mugimendu nazionalistaren bereizgarrietako bat.

Laburbildurik: estaturik gabeko nazionalismoak, euren ibilbidean, nazio identitatea eraikitzen eta derrigorrezkotzat jotzen duten botere politikoa eskuratzen saiatzen dira, eta hori guztia mugimenduaren baitan egon litezkeen ezberdintasun ideologiko eta politikoen kutsaturik agertuko da. Zeregin horretan, garrantzi aparta eman ohi diote hezkuntzari. Baina ez dira bakarrak. Hain zuzen ere, estatuaren osaketa prozesuan baitezpadako tresna izan da hezkuntza sistema, halako moldez non, nazio eraikuntzarako, hezkuntzaren erabilera politikoan aitzindaritzat jo behar baita estatua, dudarik gabe.

2.2. Hezkuntza sistema, nazionalismoaren eremu gutiziatua

XVIII. mendetik aurrera hedatuz joan zen hezkuntza sistemaren sorrera hezkuntzarekiko ardurarekin harremanetan ipini behar da. Ardura horrek gaur egunera arte iraun du eta ez dirudi bere indarra galtzeko zorioan dagoenik, alderantziz baizik. Era hartara, alfabetatze unibertsala eta hezkuntzarako eskubidea balore moderno dira, eta euren beharrez oso gutxitan jartzen da koloka. Aipagarriak dira, zentzu honetan, eskubide honen aldarrikapenak jasotzen duen gizarte kontsentsua talde sozialen aldetik, eta gizarte diferenteetako hezkuntza sistemek erakusten duten homogeneotasun maila. Are gehiago, Mendebaleko gizarte guztietan aspalditik, eta munduan zehar sortu diren estatuetan, berriki, oinarritzko hezkuntzarako eskubidea *betebehar* bihurtu da, herritartasunari loturik doazen gainerako eskubideak ez bezala (boto ematearena, kasu), zeintzuetan eztabaida eta oztopo gehiago agertzen baitira (Bendix, 1974: 90). Estatuak hartzen du bere gain eskubide hori legez bermatzea, eta garrantzitsuena dena, estatuaren beraren ezaugarri bilakatzen da, hezkuntza sistemak

betetzen dituen funtzio sozialek, ekonomikoek eta politikoez, funtsean, gizartearen biziraupena ziurtatzen dute eta. Bestela esanda, herritarren bizi baldintzen eta integrazio soziopolitikoaren babesle da estatua, eta zeregin horri hezkuntza sistema *nazional* baten bitartez ekiten dio (Gellner, 1988: 52).

Luze joko luke hezkuntza sistema modernoan jatorriari buruz soziologian garatu diren ildo ugarien berri emateak. Aipagarriak dira, dena dela, M. S. Archerren azterketak, hezkuntza sistema modernoak tokian tokiko elite ekonomiko eta politikoen arteko botere harremanen emaitzatzat jotzen dituztenak. Talde gatazka horien ondorioz, egungo hezkuntza sistemak deszentralizatuak edo zentralizatuak dira, eta estatuak ez du zeregin bera betetzen eredu bikoitz horretan (Archer, 1979). Beste ikerlari batzuek gehiago azpimarratzen dute estatuaren partaidetza hezkuntza sistemaren sorreran, eta joera hori orokor samarra izan dela baieztatu dute. Haren funtsa zera izan da: klase nagusiak gizarte zibilaren kontsentsua irabazten saiatu dira eta, saio horretan, estatuak bultzatutako hezkuntza publikoak berebiziko zeregina bete du estatuaren boterea legitimatuz (Green, 1990: 76 eta hurr.).

Baina, beste zenbaiten iritziz, ildo horietan gehiegizko protagonismoa ematen zaio modernitatearen alderdi bakar bati, ezberdintasunari, alegia; zeren eta hezkuntza sistema modernoaren eraikuntza identitate komunari buruzko baieztapen tinkoetan oinarritu da (Boli, et al., 1985). Hori horrela, XIX. mendetik aurrera hedatu zen eskola *estatu eskola* eta beronek helarazitako hezkuntza *nazio hezkuntza* bihurtu ziren. Hau da, estraineko aldirik, hezkuntza *denon arazotzat* jo zen (eta, hedapenez, nazioaren arazotzat) eta, hortaz, estatuari ezagutu zitzaion hezkuntzarekiko autoritate nagusia edukitzea, gainerako talde sozialen gainetik; eta, bestalde, haurra, zaindu eta defendatu beharreko ondare publiko ere bilakatu zen (Ramirez / Boli, 1999: 304-305).

Izan ere, nazio-estatuaren osaketarekin batera etorri zen hezkuntza nazioaren aurrerapenerako tresna bezala ulertzea. Horrela, hezkuntza sistema bakar, mailakatu eta koordinatu batean pentsatzen hasi zen, jardun pedagogiko antzetsuekin eta estatu mailan homogeneotutako irakasleriarekin. Eskola curriculumean nazioaren geografia, historia eta literatura funtsezko osagai bihurtu ziren, betiere gizarte berriaren homogeneotasunaren, eta ondorioz, integrazio moralaren lorpenerako. Araceli Serranok dioenez, *lurralde bakarra - kultura bakarra - nazio bakarra - estatu bakarra* lehari *hezkuntza sistema bakarra* gehitu zitzaion, azken horri emanez nazioarekiko identifikazioaren zeregin nagusia (Serrano, 1997: 50-54).

Hezkuntza sistema bakarra eraikitze nahi horretan, estatua bihurtu da, gorago esan bezala, edozein hezkuntza ekimenen babesle eta erantzule, eta, horren ondorioz, gero eta zailagoa da *hezkuntza pribatua* eta *hezkuntza publikoa* bereiztea. Hala ere, zailtasun horretatik harago, gure gizarte modernoetako eguneroko oigia izaten da, hezkuntzaren arduraz berba egitean, estatuari edo gizarte zibilarri, nori egokitu behar zaion eztabaidatzea.

Euskal Herrira etorrita, sarreran diodan bezala, hezkuntza publikoa zer den zehazteak zeresan ugari eman du, eman ere. Esan gabe doa, eskuartean dugun gaian sakondu ahal izateko, baitezpadakoa dela zehatz-mehatz ezartzea zeri deituko diogun hezkuntza publiko eta zeri hezkuntza pribatu. Baina erabaki hori hartu aurretik,

garrantzitsua da eremu teoriko horretan garatu diren hausnarketa multzoari erreparatzea.

2.2.1. Hezkuntza publikoa: estatua eta gizarte zibila

N. Bobbiok adierazitakoari jarraiki, publiko/pribatu bereizketa mendebaldar pentsakera zeharkatzen duten dikotomia nagusietako bat da. Zeharo kontrajarritako mundu bi bezala atzematen dira; batak bestea ez den guztia barnehartzen du, eta ezin da ezer egon ez batean eta ez bestean ez dagoenik. Eremu publikoari dagozkio, estatua eta arlo politikoa bezalako errealitateak; eta, eremu pribatuari, arlo ekonomikoa eta gizarte zibila. Baina zinez da publiko/pribatu dikotomia horren definizio neutrorik egitea. Normalean, dikotomiaren *erabilera axiologikoa* egiten dela diosku Bobbiok, ezen kontzeptu bi horiek kontraposatzen diren heinean, euretako batez egin litekeen balizko onesprenak derrigor dakar bestearen gaitzespena (Bobbio, 1989: 11 eta hur).

Izatez, publikotasunaren eta pribatutasunaren arteko harreman kontzeptualak oinarri ideologikoetan sustaturik daude, teorikoetan baino, zeren eta euren abiapuntua gizaki eta gizartearen izaerari buruzko premisa multzo bat da. Ez da hutsala, beraz, publikoaren eta pribatuaren definizioaren inguruan aurkitzen den desadostasuna, definizio hori, funtsean, bizitza politikoa eta borroka politikoa bera ulertzeko moduaren osagai bat da eta. Definizio politikoa den neurrian, ez da esangura bakarrekoa, eta testuinguru ezberdinetan erabiltzen denean, problema ezberdinak ere adierazten ditu (Benn/Gaus, 1983). Horrez gain, kontzeptu bi horiek egungo Mendebaleko gizartearen marko kulturalaren eta beraren garapen historikoan baizik ezin daitezke ulertu.

Bada, egungo gizarte modernoetan publiko eta pribatuaren artean egiten den bereizketa ez da betikoa¹. V. Pérez Díazek dioskunez, XX. mendearen erdialdetik aurrera estatua eta gizarte zibilaren harremanek ez dute islatu norabide bakarrik; abagune politikoak eta, batez ere, ekonomikoak eragin dute, oster, bietako bat bestearen gaintetik aldizka nagusitu izana. Kontrakoa ematen badu ere, prozesu horrek ez du eragin publiko eta pribatuaren elkarketa, baina ukazina da gizarte industrializatu aurreratuetan publikotasunak esanahi asko dituela eta, beraz, kontzeptu labainkor bihurtu dela. Bestela esanda, estatua eta gizarte zibilaren arteko mugak moteldu egin dira (Pérez Díaz, 1986).

Gorago genioen bezala, gizarte zibila estatuak arautzen ez duen gizarte harremanez osatutako eremu bat dela esaten da. Baina, gizarte zibilaz hitz egiten denean, hiru abiapuntu -eta, beraz, hiru helburu- susta daitezke. Horrela, *estatu ez dena* -alegia, eremu ez-estatala- estatu aurrekoa, estatuaren aurkakoa eta estatu ostekoa izan daiteke. Lehenengo adieran, estatua gizarte zibilaren baitako harremanen arautzaile da, baina ez oztopatzaile. Bigarrenean, gizarte zibilari konnotazio axiologiko positiboa ala negatiboa erants dakioke. Konnotazio positiboan, estatuaren aurkako boterea gizarte zibilean mamitzen da; eta negatiboan, aldiz, gizarte zibilaren indarpenak desintegrazioaren hazia dakar. Azkenik, hirugarren adieran, gizarte zibilak estatuaren botere politikoaren eraispena ordezkatzeko du (Bobbio, 1989: 41 eta hur.).

¹ Azterketa historikorako, ikus (Habermas, 1986).

Hortaz, gizarte zibilaren adiera harreman zuzen-zuzenean dago estatuari buruzko ikuskerarekin. Edozelan ere, marxismoa zein liberalismoa bat datoz baieztean mendebaldar gizartearen garapenak gizarte zibil indartsua ekarri duela, eta hura osatzen duten instituzioek autonomia maila nabarmena erakusten dutela estatuaren aurrean. Honelaxe deskribatzen du S. Ginerrek:

“La sociedad civil puede definirse como aquella esfera históricamente constituida de derechos individuales, libertades y asociaciones voluntarias, cuya autonomía y competición mutua en la persecución de sus intereses e intenciones privados quedan garantizadas por una institución pública, llamada estado, la cual se abstiene de intervenir políticamente en la vida interna de dicho ámbito de actividades humanas”. (Giner, 1987: 56.).

Kontzeptuen erabileratik harago, publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketak eragin soziala dauka, eduki ere. Halaxe dioskue Bennek eta Gausek, nortzuentzat mendebaleko gizarteetako herritarrok zeharo barneraturik baitugu funtsezko ezberdintasun batek banatzen dituela publikoa eta pribatua, eta banaketa horrek gure inguru sozialean garatzen ditugun egintzak baldintzatzen dituela; hots, publikoa eta pribatua ezberdintzeak errealitate soziala arautu egiten duela (Benn/Gaus, 1983: 5-6).

Hartara, eta gehiegi sinplifikatzeko arrisku nabaria dagoen arren, estatua eta gizarte zibilaren arteko harremanak azaltzeko orduan, joera bi nagusitzen direla esan liteke. Batzuentzat, beharrezko ñabardurak eginda ere, banaketak bere horretan dirau; besteentzat, ez dago banaketa argirik eta, beraz, hiru arloz berba egitea hobesten dute. Baina merezi du ohartaraztea bikoiztasun hori ez dela zuzen-zuzenean ideologia politiko jakin batekin lerratzen, ideologia ezberdinen eragina soma baitaiteke alde batean zein bestean. Adibidez, abiapuntu teoriko eta jomuga politiko kontrajarriekin estatuaren eta gizarte zibilaren arteko banaketa argia dagoela aldarrikatzen dutenak kausi ditzakegu; batzuek, estatuaren eraso saihestu nahian, eta besteak estatuaren babesa bilatu guran.

Ikuspegi ezberdin horien isla zuzena hezkuntzaren izaera publikoa zehaztu nahi denean beha daiteke; hau da, hezkuntzaren ardura gizarte zibilari ala estatuari erantsi behar zaion finkatu nahi denean.

Multzo handi bitan bana litezke gizarte modernoetan garatu diren ildo ideologiko nagusiak: liberalismoa eta ezkerria.

Ideologia liberalaren arabera, estatuaren interbentzionismoak giza askatasuna eta ekimena kaltetzen ditu, eta prozesu horretatik *estatismo* burokratikoaren arrisku nabaria eratortzen da. Funtsezko abiapuntua da eskubide kolektiboak ezin daitezkeela eskubide indibidualei kontrajarrita egon eta hortaz, gizartearen ezin daitezkeela giza askatasunaren ginetik egon. Estatua, beraz, ez da gizartearen edota borondate publikoaren ordezkari. Horrela, familiak, Elizak eta edozein erakunde sozialek eskubide osoa daukate beren pentsamenduaren araberrako hezkuntza ekimenak praktikara eramateko. Berdintasunean eta integrazio sozialean eragiten duelakoan, estatuaren hezkuntza interbentzionismoaren alde daudenei zera erantzuten zaie, hezkuntza publikoa sortu zenetik, estatuaren jokaerak ez duela herritarren arteko berdintasunik bermatu; are gehiago, zeharo inefikaz agertu dela beharrezko integrazio soziala eragiten. Labur azalduta, estatuak erakusten duen hezkuntza

interbentzionismoa edo joera *monopolizatzailea* oztopo bat da giza askatasunerako eta merkatuaren berezko legetarako (Migue / Marceau, 1989).

Ezkerraren aldetik egiten diren planteamenduetan joera nagusi bi bereiz daitezke:

- a) *Publikotasun kontzeptu gogorra* dei diezaiokeguna. Hemen publikotasuna estatuari lotzen da bete-betean. Publikoa altruismoari lotua jaino dela esaten da; pribatua, ostera, berekoikeriari eta, funtsean, hezkuntza publikoa ekonomia kapitalistaren desberdintasunak gutxitzeko tresna dela baieztatzen da. Bikoiztasun horrek estatuaren interbentzionismoa legitimatzen du, hezkuntza publikoaren filosofia bultzatzailea gizarte aurrerapena izan baita, hau da, izpiritu kolektiboa indartzea eta gizartearen kohesioa sendotzea. Baina balore horiek dekadentzia nabarian daude egungo gizarteetan, besteak beste, arlo publikoak erakusten dituen gehiegizko burokratizazioa eta inefikazia direla medio. Horrexegatik justifikatzen du liberalismoak hezkuntza publiko eta pribatuaren arteko merkatu lehia irtenbide bezala, baita, aniztasunaren izenean, hezkuntza pribatua interes publikoaren arlokatat jo beharra ere. Azken jarrera horri kritika eginez, eskola publikoaren aldeko politika argia behar-beharrezkoa dela diote, zeren estatuak bakarrik bermatuz gero hezkuntzaren helburu sozialak, bera baita herritar guztientzako eskolaren alde jotzeko baldintzak betetzen dituen bakarra (Gimeno Sacristán, 1996).
- b) *Publikotasun kontzeptu biguna*. Horren arabera, publikoa da komunitatearen interesekoa den edozein zerbitzu. Liberalismoak ez bezala, joera horrentzat hezkuntza ezin daiteke norbanakoaren eskubidetzat jo. Gaur egun, hezkuntza *zerbitzu publiko* denik ez du inork dudatan ipintzen, beste zerbitzu batzuekin gertatzen ez den bezala; alegia, ez dago zalantzarik hezkuntza interes orokorreko arazoa dela. Hezkuntza, beraz, gizartearen ardura da, eta ez estatuarena soilik. Baina gizarte zibila askotarikoa da eta, hortaz, estatuak erakutsi behar duen neutraltasunari uko egiten dio hezkuntza arautzen duenean. Egungo gizarteetan, diosku I. Sotelok (Sotelo, 1996), publikotasuna desagertzen ari da, estatal edo pribatu bilakatuz, eta egoera hori arriskutsua da, hezkuntza publikotasunaren arloari baitagokio, eta ez estatuari soilik, nahiz eta honek hezkuntza bermatzeko betebeharrak argia daukan, batik bat dirulaguntzaren bidez.

Ezkerreko pentsamoldean kokatu beharreko bi ikuspegi horien azpian dagoen irizpide erabakigarria, beraz, hezkuntzaren esparruan estatuak -eta ondorioz, gizarte zibilak- eduki behar duen protagonismoa da. Publikotasun kontzeptu gogorrari eusten dionak estatuari ematen dio gizarte zibilean dauden joera desigualitarioak apaltzeko nolabaiteko aginte moralak; eta publikotasun kontzeptu biguna defendatzen duenak gizarte zibilari eman nahi dio zeregin nagusia, estatuaren joera orojalea eragozteko, baina liberalismoak ez bezala, ez du onartzen merkatu lehia irtenbide lege.

Ezinezkoa da, beraz, publikotasun kontzeptu *desideologizatua* aurkeztea, baina, nahitaezkoa zaigu erabaki bat hartzea. Erabaki hori zenbait irizpidetan susta daiteke. Ikastetxeen fnantzazioa eta kontrola, arestian aipatutako arrazoiengatik, ez dira oso argigarriak eta, beraz, alboratu beharrekoak dira, nire iritziz, nahiz eta askotan

erakunde bati izaera publikoa eransteko erabiliak izan². Kudeantza, jabetza eta irispide motak kontuan harturik, *publiko* izena erantsiko diet estatuak kudeaturiko hezkuntza instituzioei, bai zuzen-zuzenean estatu lurraldean zehar, eta baita gainerako maila administratiboetan ere, hala nola, erregio eta nazio gobernu autonomoetan, herrialdeetan, udaletan, eta abar.

Hein handi batez, bat nator O. Fullatek egindako definizioarekin. Ikerlari honek administrazioaren erantzukizuna jabetza edota kudeantza akademikora mugatzen du, eta beraz,

“Una escuela es pública cuando la propiedad o la gestión, o ambas cosas, pertenecen al Estado, o a la Generalitat, o a las Diputaciones, o a los Municipios; es privada cuando tales cosas son incumbencia de una cooperativa o de unos pocos, ... etc” (Fullat, 1983).

Hezkuntza pribatu izena emango diot, beraz, administratibotik kanpoko gizarte sektorearen baten hezkuntza ekimenari, haren kontrol eta finantzazio maila altuak eduki ditzakeen arren. Ere zeharo zabala da bigarren hau, ikusi bezala. Hartara, estatuaren jardura interbentzionista *laissez faire* delakoan oinarriturik arbuia daiteke, edo, bestelako gizarte ekimenak gauzatzeko helburuz, doktrina ideologikoan, pentsamendu erlijiosoan edota uste nazionalistan oinarriturik, besteak beste. Ideia bultzatzaileez gain, estatus juridiko ezberdinak eduki ditzakete ikastetxe pribatuak. Esate baterako, espainiar hezkuntza legeriara etorriz, sare pribatuaren barruan ikastetxe baimenduak eta kontzertatuak daude.

Eta iritzi eta egoera konplexutasun horri nazionalismoaren eskakizunak eta jokabideak gehitu behar zaizkio.

2.2.2. Estaturik gabeko nazionalismoaren hezkuntza estrategiak

Estaturik gabeko nazionalismoa ere eskolaren beharraz ohartzen da, eta estatuak bezalaxe, hezkuntza sistemaz baliatu gura du nazio eraikuntza gauzatzeko. Horrez gain, ohikoa da nazionalismo mota horrek nazioa eta gizarte zibila parekatzea, eta, saio horretan, mugimenduaren eraginez sortutako hezkuntza sareak legitimatzen saiatzea.

Joera ez da, hortaz, O. Fullaten arabera, estatuak eraikitako hezkuntza sisteman parte hartzea, irakaskuntza pribatuak beti eskaintzen baitu aldarrikapen nazionalistentzako babes hobeak:

“... salta a la vista que la escuela libre o privada disfruta de más posibilidades de convertirse en verdadera *escuela nacional* (...) que la *escuela estatal*. La escuela libre en

² Ikus, adibidez, Bennek eta Gausek aukeran erabiltzen dituzten definizioetako bat: publiko izaera erants dakioke diru publikoz horniturik eta kontrol publikoaren pean dagoen erakundeari, oinarritzko eskola publikoan gertatzen den bezala. Estatuak da dirulaguntzak eta kontrola ezartzen dituen (Benn/Gaus 1983: 26).

su radicalidad sería la escuela frente al dominio del Estado. En este modelo escolar puede fácilmente refugiarse lo nacional". (Fullat, 1983: 66).

Eta ildo antzetsutik dio B. Akzinek estaturik gabeko nazionalismoen jokaera diru publikoz sustatutako eskola sare *paraleloa* eraikitzea izaten dela. Ekimen horren garrantziaz ohartarazten digu honako hau baieztuz:

"... naturalmente que el buen éxito respecto a un sistema separado de escuelas públicas no es lo que convierte a un grupo étnico en una nacionalidad y la falta de tal sistema tampoco demuestra que no exista nacionalidad allí; pero si una red de este tipo se ha establecido, ya no necesitamos buscar más pruebas de una nacionalidad." (Akzin, 1968: 154-155).

Hartara, ideia hedatu samarra da estaturik gabeko nazionalismoaren joera bere eraginpeko hezkuntza bermatzea eta estatuak kudeaturikoa baztertzea dela, eta horixe da, hain zuzen ere, herrialde askotan gertatu dena. Hala ere, horrek ez du esan gura mugimendu nazionalistak *beti* jotzen duenik arlo pribatura, hurrengo puntuetan ikusiko dugunez.

Dena dela, estaturik gabeko nazionalismoak estatuaren eskutik eraikita dagoen hezkuntza sisteman parte hartu ala ez erabaki behar izaten du. Erabaki hori ez da batere erraza, alabaina, ezen gainerako kultura ekimenek ez bezala, eskola sare bat aurrera ateratzeak zailtasun eskergak ditu, eta ez bakarrik ekonomikoak. Zentzu honetan, nire abiapuntua da hezkuntza publikoari begira nazionalismoak har dezakeen estrategia *testuinguru historiko, sozial eta politiko* jakin baten barruan bakarrik uler daitekeela.

Eraketa politiko alternatiboa exijitzen duen nazionalismoaren hezkuntza estrategiaz hausnartzean, faktore asko hartu behar dira aintzakotzat. Publikotasunari buruz zabaltzen duen diskurtsoa, mugimenduaren ezaugarri politiko eta ideologikoak eta, azkenik, hezkuntza sistemaren beraren ezaugarriak dira, nagusiki, kontuan hartu beharrekoak. Aldaera oro elkarreraginean egon daitezke une jakin batean eta, beste batzuetan, euretako bat gailendu eta erabakigarriena suerta daiteke. Eurekin guztiekin, herrialde bateko mugimendu nazionalista jakin baten hezkuntza jardueraren osagaien *puztzea* osa daiteke, baina zaila da baiezte ildo bakarra orokortu denik.

Adibide bi baino ez harturik, Katalunia eta Ipar Irlandako mugimendu nazionalisten hezkuntza jokaera azter daiteke. Lehenean, arian-arian eskuratutako botere instituzionalak ahalbidetu dio eskola publikoaren ardura hartzea; eta, bigarrean, aldiz, Ipar Irlandako gizartearen zatiketa ekonomiko eta erlijiosoak eta nazionalismoaren helburu irredentistek eraman dute mugimendua sare pribatu katolikoan bilatzera babes nagusia.³

Euskal nazionalismoak ere ez du jarrera bera erakutsi historian zehar hezkuntzari begira. Arian-arian zehaztuz joan den nazio identitaterako irizpideek, unean uneko

³ Kapitulu honen hasieran diodan bezala, ez dago estaturik gabeko nazionalismoa eta honek hobesten duen hezkuntza jokaera ardatz nagusi bezala hartzen duen idazlanik. Aipatu Katalunia eta Ipar Irlandako kasuetarako, gaira hurbiltzen dira, beste batzuen artean, honako hauek: Monés, 1981; eta Murray, 1986.

jokaera politikoak eta lortutako botere instituzionalak baldintzatu dute, ordea, neurri handi batez, haren hezkuntza jarduna.

2.3. Euskal nazionalismoaren hezkuntza jardunaren bilakaera

Nazionalismoaren aurrekari izan mugimendu foruzalearen aldarrikapenak Hego Euskal Herrirako eskakizun deszentralizatzaileetan, batetik, eta hezkuntza ofizialaren elebitasunean, bestetik, islatu ziren bereziki. Nazionalismoarekin alderatuz, foruzaleek ez zuten garatu aurrez aurreko aurkamendurik espainiar estatuak kudeatzen zuen eskolarekiko, eta euskarari zegokionez, konbentziturik zeuden posible zela, hezkuntza politika aldatuz gero, euskara eta gaztelania onik aurrera ateratzea. Hortaz, euskararen oinarrituriko ekimen paralelorik ez zuten burutu, nahiz eta inoiz mota horretako adierazpenik egin izan zen (ik. Campion, 1985: 209). Urte horietan jaio zen nazionalismoa hezkuntza arloak sorrarazitako egonezin berberetik abiatu zen, erreibindikazioak bestelakoak izanik ere.

Sabin Arana izan zen hasierako nazionalismoaren aitzindari eztabaida ezina. Nazioaren definizio *objektiboa* eginez, biztanleen borondatearen gainetik ezarri zuen naziotasuna, jaiotzarekin bat eskuratzen dugun izaeratzat jo zuen eta. Nazioa arraza diferentziatuan gauzatzen zen, eta berezkotasun hori historian ere islatzen zen, lege zaharren bidez. Nazio lurraldea izendatu zuen, zazpi herrialdeez osatua, eta helburu politikoak independentzian kokatu zituen. Berarentzat, euskal herria osatzen zuen nazioa (hots, euskal arrazak osatzen zuena) definitzeko, *lotura politikoa* hobetsi zuen. Euskara, adibidez, harresi bat zen haren pentsamenduan, euskaldunak atzeritarrekiko kontaktutik salbatzen zituena. Funtsezkoa, zen, orduan, etorkinek euskara ez ikastea.⁴

Euskarak eskolan nozitzen zuen egoera gogor kritikatu zuen, baina populazio osoaren euskalduntzea baieztapadako jotzen ez zuenez gero, derrigor ondorioztatzen zen eskola publikoari begira ekinbide zehatz eta landurik proposatu ez izana, zenbait adierazpen solte izan ezik. Adibidez, diputazio, apaiz eta udalen ekimen ezaz kexu agertu zen, haur euskaldunek doktrina katolikoa euskaraz ikastea bermatu behar zuten eta. Nazio irizpideen artean arrazak leku nagusia betetzea ere traba izan zen hezkuntza publikora jokaera politikorik bideratu nahi izan zuenean. Eskola mota horri ez zion erantzen euskararen etorkizunaren berme izateko gaitasunik, baina are gutxiago euskal nortasunarena, ezen eskola publikoetako maisu-maistrak, erdaldun izateaz gain, *maketo* ziren asko eta asko⁵.

Era hartara, euskal nazionalismoaren begietara, estatu eskola espainiartasunaren sinbolo zen, baina hura ordezkatzeko ez indarrik ezta asmorik ere ez zuen erakutsi. I. Zabaletak dioenez, Aranaren lehentasuna *eskola abertzaleak* sortzea zen eta irakaskuntzaren hezkuntza, edukiak edota irakasle goaren ezaugarriak bigarren mailako

⁴ "Tanto están obligados los bizkainos a hablar su lengua nacional como a no enseñársela a los maketos o españoles." Bizkaitarra, 16, 1894; in Arana, 1965: 404.

⁵ Adibide andana bat kausi daiteke 1894tik 1895era bitarte Bizkaitarra aldizkarian argitaratutako artikuluetan.

arazoak ziren⁶. Arlo horietan egindako kritika guztiek funtzio instrumentala betetzen zuten, aitzindari nazionalistaren jomuga gorena espainiar gobernua erasotzea baitzen (Zabaleta Imaz, 1997: 244).

2.3.1. Bizkaiko Auzo Eskolak: nazionalismoaren nagusitasun politikoa

Arana hil ostean, nabarmendu egin zen EAJren jaiotzatik bertatik zegoen bikoiztasuna. Alde batean zeuden espainiar estatuarekiko apurketa osoa aldarrikatzen zuten Aranaren jarraitzaileak, hots, independentzizaleak eta tradizionalistak. Beste aldean, euskalerrriakoak zeuden. Lehia politikorako jende prestatua ekarri ez ezik, baliabide ekonomiko inportanteak ere gehitu zizkioten alderdiari. Politikoki, autonomia hobesten zuten, artean independentziari uko egin gabe, ofizialki bederen. Baina, ideologikoki bateraezin izan arren, praktikan osagarri bihurtu ziren sabindarrak eta euskalerrriakoak, elkarren beharra baitzuten (Elorza, 1978:143 eta hur).

Interes hauek guztiak bateragarri egiteari ekin zion Engrazio Aranzadik (*Kizkitza*), orduko nazionalismoaren aitzindari politikoa eta teorilari nabarmenak. Aranarekiko fideltasunetik abiatuz, gizarte baldintzak kontuan hartzeko ahaleginean kokatu ziren Aranzadiren teorizazioak. Aipatu fideltasuna nazioa definitzeko erabili zituen irizpideetan soma daiteke. Horrela, arraza jotzen zuen funtsezko ezaugarritzat, eta berarekin batera, hizkuntza. Baina, haren ustetan, arrazak ez zuen, berez, osatzen nazio bat, eta hizkuntza galtzera ere hel zitekeen, nazioa desagertu gabe haatik (Aranzadi Etxebarria, 1931: 19 eta hur). Nazioak berezko du askatasunerako eskubidea, baita derrigorrezko ere eraketa politikoa independenteaz hornitzea, baina, haren ustetan, inportanteena nazioaren existentzia bermatzea zen. Adibidez, independentziaren aldarrikapenak arriskuan jarriko balu nazioa, baztertu egin beharko litzateke (Ibid.: 29-32). Aranzadiren ahalegin teorikoaren funtsa, diosku I. M. Beobidek, garaiko nazionalismoaren posibilitate errealei buruz hausnartzea zen, sozialki eta politikoki gutxitua zegoen mugimenduak nazioa eraikitze eta boterea lortzeko zituen beharrianak batu nahirik horrela (Beobide Ezpeleta, 1993: 23-24).

Testuinguru horretan ulertu behar da 1916an euskal nazionalistek *Komunio* -Comunión Nacionalista Vasca- izena hartzea. Alderdi interesak denbora batez baztertu ziren, eta lehenasuna nazioaren eraikuntza soziokulturalak hartu zuen. Nazionalismoa ez zen zalantzan ipintzen, baina taktika politikoa egokiago baten beharra plazaratzen zen, besteak beste, aldarrikapen autonomizalean gauzatzen zena.

1917an, nazionalismoak gehiengo erdietsi zuen Bizkaiko Diputazioan, estraineiko aldiz, botere instituzionala erabili ahal izan zuen, orduan. Indar hura baliatuz, saio sendoak egin zituen autonomiaren alde, eta, horrekin batera, hezkuntza publikora bideratutako ekimen inportanteak burutu zituen ere. Luis Eleizalde eta Eduardo

⁶ Horrexegatik zalantzan jarri zuen Azkuek sortutako *Euskal Ikastetxea* nazionalismoaren mesedean ziharduenik. Ik. *Una escuela antipatriótica*, Baserritarra 10, in Arana, 1965: 1322

Landeta izan ziren garaiko nazionalista esanguratsuak, biek ere hezkuntza arloarekin harreman estuak eduki zituztelarik.

Eleizalde, Kizkitzak legez, nazionalitateen printzipioa zerabilen euskal nazioaren existentzia eta nazionalismoaren helburu politikoak legitimatzeko, baina harentzat ez bezala, naziokideen borondateak -alegia, nazioa osatzeko sentimenduak- lehenetsun osoa zeukan. Naziokideak batzen dituen, finean, odola eta historiaz gain, nazioari buruzko asmoak eta oinarrizko elkartasuna direla baieztatu zuen (Eleizalde, 1919a: 8). Hizkuntza, nazioa definitzeko erabateko faktoretzat jotzen zuen, eta, euskal nazioaren kasuan, euskara zen hizkuntza propioa, baina zentzu historikoan ulertu behar zen baieztapen hori, herritar guztiek ez baitzuten ezagutzen (Eleizalde, 1911: 63). Euskal nazionalismoaren orduko helburu nagusia, haren ustez, euskal arimaren berreskurapena zen, eta, hartarako, edozein soluzio politiko izan zitekeen onuragarri.

Landeta Sotari loturik agertzen zaigu, eta orain arte azaldutako jokaera politikoaren muturreko adibide dela esan daiteke. Pragmatismo politikoaren ezaugarri nabarmena, eta nazionalismoa garaiko euskal gizartera moldatu behar zela izan zen etengabe erabili zuen leloa. Nazioa eta estatua banatu beharra izan zuen abiapuntutzat, eta Eleizaldek baino modu arradikalago batez adierazi zuen posible zela -baita desiragarri ere- euskal nazioa espainiar estatuaren barruan eraikitzea, beti bere nortasun eta ezaugarriak salbu zeuden bitartean (Landeta, 1917: 44). Gogoz aritu zen Hego Euskal Herriko lau herrialdeak integratuko zituen autonomia proiektua lantzen. Borondateari, hots, alderdi subjektiboari emandako garrantziak, arrazari kendutako nagusitasunak eta euskarari erantsiak, eta azkenik, gizartearen nazionalizatu beharri buruzko gogoetek marrazten digute, laburbildurik, aipatu bi nazionalista hauen pentsamendua. Osagai horiekin batera, jokaera politikotzat proposatu zuten posibilismoak isla nabaria eduki zuen hezkuntza arloan hobetsi zituzten jardueretan.

Eleizaldek eta Landetak bat egin zuten XX. mendearen hasieran indartzen ari zen hezkuntzaren ahalmenarekiko fede irmoarekin. Batez ere, euskal nazioarentzat oinarrizko eskolak zuen garrantziaz aritu ziren behin eta berriz, Eleizaldek esan bezala:

“... es preciso ganar la escuela primaria, porque con ella lo ganamos todo, y sin ella serán vanos todos nuestros esfuerzos. (...). Hoy por hoy, tiene infinitamente más importancia la composición de un silabario que la de un poema heroico.” (Eleizalde, 1919b: 36).

Edota Landetak adierazi moduan:

“El único problema vital de un pueblo, sea el que fuere; el problema que resume todas las cuestiones de las que pende enteramente el porvenir de un país, es el de la instrucción pública, y señalando más, el de la instrucción primaria.” (Landeta, in Antxustegi Igartua, 1997: 68).

Hezkuntzarekiko baikortasun hura, alabaina, ezkortasun sakon bilakatzen zen Euskal Herriko hezkuntza sistemaren diagnostikoa egitean. Badirudi, zioen Landetak, euskaraz hitz egiten duten umeek ezin dutela fruitu hori dastatu, ezen Irakaskuntza Publikoko Ministerioaren ardura ez da hezkuntza hedatzea, gaztelaniaren irakaskuntza finkatzea baizik, eta politika horrekin uko egiten ari zaio haur euskaldunek hezkuntzarako duten eskubideari. Egoera hura are onartezinagoa zen nekazal inguruneetako umeen kasuan, espainiar estatuak zeharo abandonaturik baitzeuzkan

(Landeta, 1919: 878 eta hur). Eleizalde harago zihoan, eta espainiar estatuak euskal umeen desnazionalizazio politika deliberatuari ekiten ziola baieztatu zuen. Estatuari zuzen-zuzenean egotzi zion oinarrizko eskolak jasaten zuen egoera tamalgarriaren errua, eta ez hainbeste irakasleei -ez irakasle guztiei, bederen- beraien gainetik zegoen euskal nazioa ezabatzeko asmo bezala baino ezin baitzitekeen ulertu zona euskaldun peto-petoetan irakaskuntza gaztelania hutsez ezartzea (Eleizalde 1919a: 871).

Duda izpirik gabe, Landeta zen esplizituena nazionalismoaren zeregina azaltzeko orduan, argi eta garbi, irakaskuntza diputazioen arduraren menpe egon beharra adierazten baitzuen. Esan gabe doa aldarrikapen hori ez dela kasualitate bezala hartu behar. Hain zuzen ere, hezkuntzak gizartean jokatu behar zuen birnazionalizazio funtzioaz oharturik egoteaz gain, nazionalismoak erdietsi nahi zuen botere politikoaren zutabeetako bat hezkuntza sistemaren kudeantza zen. Erran nahi baita, oinarrizko irakaskuntzaren kontrola ahalmen politikoaren osagai bat zen, eta proposatzen ziren helburu autonomizaleek, gehi nazionalismoak eskuratua zeukan botere maila instituzional esanguratsuak, erabat baldintzatu zuten nazionalismoaren jokaera hura. Testuinguru horretan kokatu behar da euskal nazionalismoak hezkuntza publikoaren arloan bideratu zuen estraineko ekimena.

Auzo Eskolak abian jartzeko erabakia 1919an hartu zen⁷. Ekimenaren abiapuntuan, nekazal inguruneetako eskola gabezia zegoen, bateko, eta irakaskuntza publikoak berdinketa sozialean bete beharreko zeregina, besteko. Eskola elebidunak izango ziren, baina haurren ama hizkuntzaren arabera edukiko zuen euskarak ala gaztelaniak erabilera nagusia. 1920tik 1923ra bitarte, horrela, eskola horien eraikuntzari ekin zitzaion, udalen eta auzokide askoren laguntzarekin.

Ezin esan daiteke, alabaina, eskola horiek garapen erraza eduki zutenik, laster batean jaso baitzuten euskal nazionalismoaz besteko indar politiko guztien erasoak. Alde batetik, euskal umeak *desespainolizatzen* ahalegin eskergak eta diru kopuru inportanteak inbertitu izana egozten zioten Diputazioari; eta, bestetik, hezkuntzaren helburua espainiar naziotasunean sozializatzea zela esanez, ardura hura bereziki estatuari zegokiola defendatzen zuten, eta, aldi berean, irakaskuntzaren eredu halabeharrez elebiduna izatea koloka jartzen zuten. Erasoak indartuz joan ziren erreibindikazio autonomizaleak ahulduz zihoazen bitartean, eta Diputazioaren hezkuntza ekimen hari *separatista* izatea ere leporatzera heldu zen (ik. Arrien, 1987: 144 eta hur.). Horren guztiaren ondorioz, eraldatu egin ziren Auzo Eskolen ildo nagusiak: zona euskaldunetako umei nagusiki euskaraz irakatsi beharra ukatuz, Bizkaiko Diputazioak aldatu egin zuen indarrean zegoen ikasketa plangintza, eta euskara irakasgai bezala baino ez erabiltzea erabaki zuen.

Ez zuten denbora luzez iraun Auzo Eskolek nazionalismoaren eragin zuzenaren pean, baina, zenbait arlotan, esperientzia emankor eta oso garrantzitsua islatu zuten. Lehenik, hartu zituzten haur eta irakasle kopuruarengatik: adibidez, 1930ean, diosku Arriek, 5.800 haur eta 148 irakasle zeuden beraietan (1987: 145). Bigarrenez,

⁷ Auzo Eskolei buruz, ikus (Arrien, 1987)

euskararen eta euskarazko irakaskuntzan -testu liburuak sortuz, irakasleen prestakuntza ahalbidetuz,...- eta, ondorioz, euskal kulturaren biziberripenean jokatu zuten zereginagatik. Hirugarrenez, nekazal inguruneetako haurren analfabetismoaren kontrako emaitzengatik. Eta, azkenik, euskal nazionalismoak, estrainekez, bere helburu politikoak hezkuntza publikoan islaturik agertzea lortu zuelako.

II. Errepublikaren garaiko hezkuntza laikoaren inguruko gatazketan, eta nazionalismoak hartu zuen indar mobilizatzailearen testuinguruan, sortu zen Euzko Ikastola Batzak ez zuen eduki Auzo Eskolek besteko garrantzirik. Izaera pribatua, erlijioso eta nazionalista nabarmena eduki zuen ikastola sare txiki hark, zeina, gerra piztuaz bat desegin egin baitzen. Alabaina, frankismoan indar handiz ernaldu zen ikastolaren hazia landatuta utzi zuela esan daiteke.

2.3.2. Ikastolaren oldarra eta eskola publikoaren deslegitimazioa

1936ko gerra amaituta, euskal nazioaren berezkotasuna iradoki zezaketen edozein sinbolo edota adierazpen zurrunki debekatuak eta beren erabilera zigortuak izan ziren. Euskara bizitza publikotik desagertu zen eta, berarekin batera, gainerako osagai guztiak: folklorea, sinbolo politikoak, eta abar. Itzelezko metaketa kapitalistak bigarren industrializazioa deritzona eragin zuen, eta, harekin batera, inmigranteen etorrera gertatu zen, denbora laburrean eta kopuru handian gauzaturik. Etorrinok gaztelania nagusiki erabiltzen zen hiri inguruneetan finkatu ziren arren, hizkuntza honen erabilera-espazioen hazkundera eragin zuten eta, horrez gain, barne migrazio euskalduna zona hauetara ere etortzen zenez, ahuldu egin zen euskararen sustapen soziala. Espazioari begira, hortaz, gero eta nabariago soslaituko dira hizkuntza nagusitasun ezberdineko zonak: industrializatu eta urbanizatutakoetan, euskararen presentzia galdu eta mugatuz zihoan; eta nekazal inguruneetan, harreman pribatu edota erlijiosoetara zokoratuz zihoan gehienbat (Tejerina Montaña, 1992: 118).

Hortaz, A. Gurrutxagari jarraituz, *espazio publikoaren itxiera* izan zen frankismoaren bereizgarrietako bat, eta hartatik egotzia izan zen euskal identitatearen oroigarri izan zitekeen guztia, batez ere lehen urteetan, erregimena liberalizatzen hasi aurretik, alegia. Kontzientzia nazionalistaren biziraupena, horrela, familia, lagun talde eta Elizaren mugen barruan bermatu zen, ezinezkoa baitzitzaion arlo pribatu edota erlijiosotik harago zihoan ezein eremutan birproduzitzea. Esparru publikoa ezin sartuzko eremu bilakatu zen, ez baitzen esparru ofizialetik ezberdintzen (Gurruchaga, 1985: 129 eta hur). Arlo publikotik egotzia izanak, aldi berean, euskara, nazionalismoa, eta sentimentu antifrankistaren arteko elkarketa ahalbidetu zuen, halako moldez non zail suertatu baitzen hiru osagai hauen arteko bereizketa argirik egitea. Eta, bitartean, euskal nazionalismoa eraberritu egin zen.

50eko hamarkadan eremu politikoa eraldatuko zuen ETA erakundea sortu zen. Hasierako diskurtso politikoak kolonialismoaren kontrako borrokan eragina jaso zuen. Denbora pasatu ahala, marxismoari atxikitu zitzaion, 1970era arte, noiz alboratu baitzituen tesi kolonialistak eta borroka nazionala eta soziala uztartu beharra defendatu zuen. Horrenbestez, Euskal Herrian ordura arte paraleloki -eta antagonikoki ere- garatu ziren ikuskera bi, nazionalismoa eta sozialismoa, irmoki elkartu ziren estraineako aldiz. Diskurtso berriak nazio langile klasearen interesak hartu zituen

jokaera politikoaren eragiletzat eta, nagusiki, harexengana bideratu zen erakundearen mezua (Rubiralta Casas, 1997: 283). ETAren ondorengo bilakaeran ondorioz, eremu politikoa erakunde horretan jatorria zuten talde politiko txiki samar eta ugariz bete zen, eta sarritan ere, hauetako zenbait kide alderdi politiko tradizionaletara iragaten ziren, bereziki PCEra eta, neurri txikiago batez, EAJra.

Azken horri dagokionez, belaunaldi gazteen presioz, besteak beste, 60ko hamarkadaren lehen erdialdetik aurrera, frankismoaren kontrako mobilizazioak bultzatzen hasi zen. 1966an dokumentu bat azalarazi zuen non, autodeterminazio eskubideari eustiaz gain, demokrazia politiko, ekonomiko eta kulturalaren helburua azaleratu, Herrien Europa defendatu, eta bertako eta etorkinen arteko integrazioaren beharra aldarrikatu baitzuen (San Sebastian, 1984: 99-100). Motelki bazen ere, nazionalismo tradizionala jarkiera sinboliko hutsa alboratuz zihon, eta sabindar ortodoxiaren oinarriak apurka-apurka modernizatuz, egoera sozial berrira moldatu zen.

Hala ere, ETAren protagonismoa eta eragin soziala ukaezinak ziren. Entzun zitekeen diskurtso politiko bakarra -ezta diskurtso nazionalista bakarra ere- ez zela egia bada ere, haren ekimenak gainerako indar politikoena ilunarazten zuen. ETAk *helburu politiko nazionalisten defentsari* eman zion lehentasuna, eta lehentasun horretatik naziokideen kontzepzio berri bat eratorri zen. J. Zabalok azaltzen duenez, nazionalismoak lurraldea hartzen du bereizketa egiteko; eta, hortaz, nahikoa izango da Euskal Herrian bizitza euskal herritar izateko eskubidearen jabe izateko (Zabalo 1996: 70).

Helburu politikoaren nagusitasunaren testuinguru horretan osaturik, arrazaren bazterketak eta hizkuntzak eskuratutako garrantziak murrizten duten nazio kontzeptu berriak *mugimendu nazionalista osoa* kutsatu zuen, baina, gero eta nabarmenagoa izan zen nazionalismoaren baitako eten ideologikoa. Hala, EAJk komunismoaren menpe jardutea leporatzen zion ETARI; ETAren barruan, aldiz, gero eta gehiago indartu zen jeltzaleak euskal burgesiaren interesen ordezkari zirelako iritzia, eta, beraz, Euskal Herri Langilearen aldarrikapenen etsai bezala jokatzeko zutelako ezaugarripena. Ikuskera ideologikoaren mailako ezadostasunek, eta ondorioz elkarri aurpegiratu zitzaizkion adierazpen biziki garrantzek, alabaina, ez zuten eduki espero litekeen bezain isla zuzenik mugimendu nazionalistaren eguneroko jardunean.

Gorago genioen legez, arlo publikoan, euskararen desagerpena eta gaztelaniaren inposaketa izan ziren ezaugarri nagusiak, eta zeregin hartan su eta gar aritu zen hezkuntza sistema. Euskararen erabilera gogorki zigortu zen irakaskuntzan, eta gerraurrean eskola euskalduntzeko egindako saio herabe guztiak erabat deuseztaturik gelditu ziren.

Eskola publikoari dagokionez⁸, ez da zaila aurreikustea gizarte sektore askorentzat - eta zehazkiago nazionalismoaren begietara- hezkuntza sare honek jaso zuen deslegitimazio sakona. Zilegitasun falta ez zen, hala ere, eskola publikoaren arazo

⁸ Kontuan hartu behar da udal eskolak ere estatu eskola bihurtu zirela; hau da, sare publiko osoa estatuaren kudeatze zentralizatuaren pean jarri zen.

bakarra, harekin batera, estatu administrazioaren utzikeria eta etorkin oldeetatik ondorioztatu zen populazio hazkundera egokitzeko ahalmenik eza ere erakusten zituen eta (Arpal, et al., 1982: 34 eta hur.). Orduko eskola publikoa, ekonomikoki pobre eta maila pedagogikoan zein politikoan atzerakoi izateaz gain, *ezin sartuzko eremu* zen garaiko nazionalismoarentzat. Zalantzarik ez dago orain arte azaldutakoak zeresan handia eduki zuela ikastolaren sorreran eta ondorengo garapen indartsu eta, aldi berean, istilutsuan.

Hego Euskal Herriari dagokionez, 1975/76 ikasturtean Siadeco ikerketa taldeak egindako azterketak ematen dizkigu prozesu honi buruzko estraineko datuak. Idazlan horren arabera, aipaturiko urteetan, ikastolak indar handiz hedatuta zeuden Bizkaian eta bereziki Gipuzkoan, eta gutxiago beste herrialde bietan. Azpimarragarria da ikastolaren hazkunde arina, ezen 1960an 60 ikasle egotetik, 1976an 30.000 ingurukoa izatera iragan zen. Giro abertzaleetan sortu baziren ere, euskaldun izatea ez zen ikastoletako gurasoen ezaugarri orokorra, baina euretako gehien-gehienak euskal lurraldean jaiotakoak zirela esan daiteke, guztiz urria izan baitzen etorkinen kopurua. Jatorri sozialari dagokionez, fenomenoak gehienbat gizarte maila ertainetan eduki zuen arrakasta nagusia (SIADECO, 1977).

Ikastola sarea hedatu eta indartuaz bat, argiro islatu zen nazionalismoaren baitako ikuspegi ideologiko ezberdinak, etengabeko gatazkak eragin zituztenak⁹. Nazionalismo kontserbadoreak, eskuindar liberalismoaren ildoari jarraituz, ikastolen izaera konfesionalari eutsi zion, eta arazorik gabe kokatu zuen ikastola esparru pribatuan, nazionalismo ezkertiarrek adierazitakoaren aurka. Nazionalismo ezkertiarrek, aldiz, ikastolaren izaera akonfesionala aldarrikatzen zuen, *herriarengandik* jaso baitzuen jatorrizko nortasuna. Nazionalismo kontserbadoreak defendatzen zuen gurasoen monopolioaren aurrean, nazionalismo iraultzaileak herri osoaren partaidetza aldarrikatzen zuen, irakasleen eta laguntzaile andanaren jardunari jarraipena eman guran. Hala ere, nazionalismo iraultzailea ikastolaren herri partaidetza erlatiboaz jabeturik agertzen zen, baina hari eransten zion esangura politikoak gainerako problema guztiak bigarren maila batean uzten zituen, M. Ugalderen berbetan ikus daitekeen moduan:

“Euskal ikastetxe estatalik ez dugu, batez ere, euskal estaturik ez dugulako. Gure pribatu jokabidea ez da elite batena, estaduak bete nahi izan ez duen herri jokabide jator baten ondorio garbia baizik.” (Ugalde, 1976: 5).

Duda barik, aipatu aurkamenduok ikastola guztiak *berdinak* ez zirelako ideia indartu zuten, eta euren arteko sailkapenak egitea ahalbidetu zen. Pobreak eta aberatsak, elitekoak eta herrikoiak, aurrerakoiak eta kontserbadoreak, eta abarreko etiketak erantsiko zaizkie ikastolei ordutik aurrera. Baina, hala eta guztiz ere, ikastolaren hazkundera ez zen gelditu, eta nazionalismoak bere-berea sentitzen segitu zuen. Ikastolak arian-arian lortutako finkapen eta onespren sozialaren esangura politikoaz

⁹ Ikastolen baitako gatazka ideologikoaren nondiko norakakoak ikus daitezke in (Fernandez, 1994: 240 eta hur.)

ondo jabeturik, haren defentsan su eta gar aritu ziren gogaide abertzale ezkertiarrek zein kontserbadoreak.

Era hartara, arlo pribatura kasik halabeharrez bideratu zen nazionalismoa gero eta kontzienteago izan zen ikastola *estatuari irabazitako eremu* bat zela, hari aurre egiteko jokaerarako tresna ezin hobea. Ikuspegi nazionalista ezberdinen eragina alboratu gabe ere, gero eta indartsuago sustatu zen ikastola *herriarena* zelako ideia; alegia, ez zegokiola ez arlo pribatuari ezta publikoari ere. Eta ikastolarekiko erabateko atxikimenduarekin batera, eskola publikoaren errefusapena zetorren, M. Heibergek deskribatzen digun legez:

“... uno podía vivir durante bastante tiempo entre los vascos de Elgeta y no ser consciente de que existía la escuela estatal. (...)...la escuela estatal se encontraba considerablemente olvidada. (...). Para muchos, la escuela estatal simbolizaba tiempos anteriores en que la organización de las instituciones locales se hallaba bajo el mando absoluto de aquéllos que eran insensibles, cuando no hostiles, a los intereses del pueblo.” (Heiberg, 1991: 284.

Azaldutako hau guztia aldatzen hasi zen 70eko hamarkadaren amaieratik aurrera. Batetik, testuinguru soziopolitiko berriak; bestetik, euskal nazionalismoaren baitako aniztasunaren areagotzeak; eta, azkenik, eskola publikoak zein ikastolak jasotako aldaketa esanguratsuek abertzaleen hezkuntzari buruzko gogoeta sakona eragin zuten. Hainbat urtetan, horrela, ikastola sareak eta hezkuntza publikoak bete behar zuten zereginaz eztabaidatzen eta elkarren arteko gatazkan aritu ziren gogaide nazionalistak, eta frankismoaren garaian lortutako gutxieneko adostasuna erabat ahuldu zen¹⁰.

¹⁰ Hala ere, jakina denez, ikastolak ez ziren mugatu Hego Euskal Herrira, eta, horrez gain, lurralde horretako nazionalismoak saio sendoak ere burutu ditu eskola publiko elebiduna bultzatu asmoz. Ekimen biak nazionalismoaren ahuldadean eta euskararen egoera zailean garatzen dira. *Seaska* erakundearen baitan bildu dira Iparraldeko ikastola guztiak, eta, Hegoaldekoekin antzekotasun ugari duten arren, gaur-gaurkoz, jardun bateratuagoa erakusten dute. Ikastola, horrela, ez da erabiltzen indar politikoen arteko borroka politikorako tresna bezala, argi baitago ikastola aurrera ateratzeak duela lehentasun osoa. *Ikas Bi* da eskola publiko elebidunetako ikasleen gurasoen elkarte, 80ko hamarkadaren erdialdean sorturik. Zenbaitek dioenez, batetik, ikastolari nolabaiteko beldurrak, oso izaera politiko markatua baitauka, eta, bestetik, euskara hutsezko ibilbide akademikoan konfiantza eskasak motibatu ditu gurasook eskola

publikora abiatu izana. Dena dela, oraingoz bederen, ekimen bi hauen arteko harremana ez da Hegoaldean bezain lehiatsua, hurrengo atalean ikusiko dugun legez. Ipar Euskal Herriko nazionalismoak garatzen duen hezkuntza jardunari buruz, ikus zehatzago (Mateos Gonzalez, 1999: 343 eta hur.).

3. HEGO EUSKAL HERRIKO EGITURAKETA AUTONOMI-KOA: ESPARRU POLITIKOAREN ETA HEZKUNTZA SISTEMAREN ERALDAKETA

Autonomia Estatutua onartu bitartean, 1978ko Otsailean Eusko Kontseilu Nagusia, behin-behinekoa, jarri zen abian. Hura osatzeko lege dekretuak Hegoaldeko lau probintziak barnehartzea ahalbidetu zuen, halaxe erabakiz gero Nafarroako foru instituzioek eta gainerako hiru herrialdeetako Batzar Orokorrek. Azken hauek baizik ez zuten onartu, ordea, Eusko Kontseilu Nagusira biltzea, eta urrutzen hasi zen Nafarroa proiektu hartara batzeko itxaropena.

1978ko Konstituzioaren ebazpena kolpe handia izan zen aldarrikapen nazionalistentzako, autodeterminazioa eta Nafarroa gainerako hiru herrialdeekin batzeko aukera ez baitzuten behar bezala jasotzen. Erreferenduma egin zenean, lau herrialdeetako ezeinetan ere ez zen heldu %50era baiezko bozen kopurua. Horrenbestez, Konstituzioa euskal gizartearen gehiengoak errefusatu zuen, eta, hain zuzen ere, Konstituzioari uko hura izan zen, urte askotan zehar, nazionalismo mota biak bildu zituen konbergentzia esparru nagusietakoa.

Herri Batasuna izeneko hauteskunde koalizioa jarri zen abian, 1978an. Independentziaren helburu politikoa zen sektore ezberdinen arteko lotura argiena, ezen, ideologikoki eremu zabala samarra islatzen zuen. Denbora pasatu ahala, hauteskunde koalizio bezala jaio zen Herri Batasuna nazionalismo ezkertiarren erreferentzia politikoa nagusi bilakatu zen, eta haren baitara bildu ziren eremu politikoan zebiltzaten zenbait erakunde eta politikoki eratu gabeko hainbat sektore nazionalista.

1979ko Ekainean osatu zen Eusko Kontseilu Nagusi berria. Autonomia Estatutuaren onspena lortzea izan zen haren zeregin garrantzitsua. Estatutu proiektuak negoziazio prozesu istilutsua jasan zuen Madrilen, Konstituzioaren edukiaren kontra zihoalakoan. Finean, onetsia izan zen erreferendumaren pean jarriko zen erabateko testua. Beraren abiapuntua da Euskal Herria, nazionalitate den neurrian, autogobernuaz jabetzen dela eta Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen dela, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herrialdeekin, baita Nafarrokoarekin ere, beronek, Konstituzioak ezarritako aukera baliatuz gero, halaxe erabakiko balu. Espero zitekeenez, indar politikoa guztiek ez zuten berdin ulertu testu autonomikoa, eta, indarrean jartzeko, 1979ko Urrian egin zen erreferendumari begira, HBk, gehi EMKk eta LKIk abstentzioa proposatu zuten, gainerako indar politikoa guztiak -eskuin muturrekoak izan ezik- baietzaren alde agertu ziren bitartean. Abstentzioa altua izan zen: hauteseroidaren %41,15ekoa, alegia; baina boza eman zutenetik kasik %90 baiezkoa izan zen. Estatutuak, beraz, hautesleriaren %53,15en onspena jaso zuen.

1982an, Nafarroa eraketa autonomikoa hornitu zen. Prozedurak, Foruaren hobekuntzaren bitartez egin zela medio, ez zuen erreferendumik izan. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan ez bezala, esplizituki baiezten da bertan Nafarroa espainiar nazioaren zati dela eta inolako aipamenik ez da agertzen gainerako hiru herrialdeekin bat egiteko aukeraz. Hego Euskal Herriko alderdi nazionalista guztiak

lege honen kontra azaldu ziren, besteak beste, Hegoaldearen banaketa instituzionala birbaieztan zuten neurrian.

Bitartean, nazionalismo ezkertiarrean garapen garrantzitsuak gertatzen ari ziren. Alde batetik, ETA politiko-militarren sektoreetatik zetorren EIA desegin egin zen eta, handik gutxira, Partidu Komunistaren sektore batekin batera, *Euskadiko Ezkerra-Izquierda para el Socialismo* izena jaso zuen alderdi politikoa osatu zuen. Alderdi berria nazionalismoaren jarrera klasikoetatik aldentzen hasi zen, eta eraketa autonomikoa bultzatu behar zuela erabaki zuen. Beste alde batetik, denbora berean, HBren eta KASen inguruko sektoreek KAS alternatiba ETA-m eta espainiar armadaren arteko negoziatorako tresna bihurtarazi zuten, HBri bitartekari izari hutsa emanez; eta halaxe izan zen defendatua nazionalismo arradikalaren aldetik hamarkadaren azken urteetara arte.

1982ko Hauteskunde Orokorretan PSOEek gehiengo absolutua lortu zuen. Alderdi Sozialistak, aurreko gobernuaren ildoari eutsiz, UCDek bultzatutako LOAParen defentsa bere gain hartu zuen. Estatutuaren gero eta irakurketa murriztagoaren kariaz, zenbait erantzun garatu ziren EAJren baitan. Lehenaren funtsa pragmatismoa izan zen: sozialistekiko elkarlana sakontzea eta garai hobeen zain egotea hobesten zuen. Bigarrenak, ostera, jatorrizko itun politikoaren berriztapena indartu behar zela uste zuen. Horrez gain, Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren aintzindaritzapeko sektorearen aldetik, gobernu autonomikoak nolabaiteko autonomia eduki behar zuela aldarrikatzen zen, alderdiaren disziplina zurrunetik at. EAJren *sektore kritikoa* delako horri *sektore ofiziala* kontrajarri zitzaion, alderdiaren jardunari erabateko lehentasuna eransten ziona. Gatazkaren ondorioz, alderdi nazionalista berri bat osatu zen, EA (Eusko Alkartasuna) izenekoa, Garaikoetxearen gidaritzapean.

1987ko Ekainean hauteskunde deialdi hirukoitza gertatu zen EAEn. Lau herrialdeak kontuan harturik, boto gehien jaso zuen aukera abertzalea bilakatu zen HB. EAJ eta PSE-PSOEn arteko ituna gauzatu zenean, beraz, HB gorenean zegoen. Aldian aldiko deialdi elektoralean eskuratutako boto kopuruaren gorakadakari gehitu behar zitzaion ETA eta PSOEn gobernuaren arteko negoziazio prozesuaren hasiera, zeinak aldaketa politiko garrantzitsuetarako espektatibak sorrarazi baitzituen ezker abertzalearengan. Espektatibak ez ziren gauzatu, alabaina, besteak beste, gainerako alderdi parlamentario guztiak instituzio autonomikoen markotik kanpoko negoziazio politikoaren kontra jarri baitziren. Negoziazio prozesuak aurrera jo ez, eta HBk haren porrotak eragindako desilusioaren ondorioak nozitu zituen.

Gobernu zentrala eta EAJren arteko itunak aurrera jo ez, eta EAJk, EEk eta EAK estraineko koalizio abertzalea gorpuztu zuten, 1991ko Urtarrilean. Iraupen laburrekoa izan zen, haatik, urte bereko Irailean apurtu baitzen euren arteko ituna; agidanez, EAKo zinegotziak HBk aurkeztu zituen independentziaren aldeko udal mozioekin bat etorri zirelako. Alternatiba zaharrera itzuli zen, orduan, EAJ eta, aipatu tirabirak gairatu eta gero, birrosatu egin zen EAJ/PSE-PSOE gobernu koalizioa, Euskadiko Ezkerraren sektore baten laguntzarekin, oraingoan. Alderdi horretan, bestalde, krisi nabaria azaltzen zen. 1990eko hauteskundeetako porrotaren ondoren, 1991n, kide batzuk alderditik egotziak izan eta gero, EuE (Euskal Ezkerra) izeneko alderdi politiko berria jarri zuten abian. Beste alde batetik, EEko sektore ofizialak aukera sozialista

PSE-PSOEekin konpartitu beharra aldarrikatu zuen. Batzeko prozesua 1993 urtearen hasieran amaitu zen, noiz EE-IPS eta PSE-PSOE alderdiek PSE-EE (PSOE) izeneko osatu baitzuten, eta batura horrekin, esparru nazionalistatik desagertu egin zen¹¹.

Hortaz, Francoren heriotzetik 1993ra doazen urteotan, aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren esparru politikoan. Hortik atera daitekeen estraineko ondorioa indar nazionalisten ugaritasuna da, baina zehaztu gabe geratzen zaigu, batetik, zertan dautzan indar politikoen arteko ezberdintasunak; eta, bestetik, noraino diren indar politikook mugimendu nazionalista osoaren isla. Horren guztiaren azterketa da ondoko azpiatalen helburua.

3.1. Alderdi nazionalistak, protagonista politikoak

Alderdi politikoen ezaugarria gizartea eta estatuaren arteko zubi izatea da. Baliabide eskergek eta antolamenduaren egonkortasunak gaitasuna ematen diete iritzi publikoa bideratzeko, eta inportanteagoa dena, gobernuen erabaki politikoak eztabaidatzeko *benetako* eremu bihurtzeko. Izan ere, alderdi politikoei dagokie gobernuak eta parlamentuak osatzea, baita hauteskundeak eratzea ere. Ukaezina da azken hauek egungo bizitza politikoan duten garrantzia, neurri handi batez, jardun politiko aktibitate elektoralarekin parekidetzera gero eta joera handiagoa baitago, baina horrez gain, kontuan hartu behar da aipatu gobernu eta parlamentuen osaketa harreman zuzen-zuzenean dagoela hauteskundeetako emaitzekin. Bada, hauteskundeak alderdi politikoen erronka nagusi bilakatzen dira eta, hautesleen sostengua baitezpadako duten heinean, malgutasun handia garatzen dute proposamenen balizko arradikaltasuna biguntzeko, interes eta kezka multzo zabal eta heterogeneo bati erantzun guran (García Cotarelo, 1985: 88 eta hur.).

Hego Euskal Herriko gizartera etorrira, alderdi nazionalistak jotzen dituzten nazionalismoaren protagonista politiko nagusitzat, alderdi politikoek baitute arlo politikoan eragiteko botererik handiena, eta esparru horretan berebiziko garrantzia dauka hezkuntza sistemaren eraikuntzak. Alabaina, arlo politikoan -eta, ondorioz, hezkuntza arloan- prozesu honetan zehar esanguratsu izan diren -edota nolabaiteko eragina eduki duten- indar politiko batzuetara mugatuko gara: EAJ, EE, EA eta HBra, bi irizpideen arabera bereizirik: taktika politiko eta ikuskera ideologikoa¹².

- a) Taktika politikoari dagokionez, eraketa autonomikoaren legitimitateari emandako sin-esgarritasunak, eta honetatik ondorioztatzen den jokaera politikoak eta aliantza ezberdinek marrazten digute alderdi nazionalisten arteko muga garrantzizkoena.

¹¹ Trantsizio garaia, egituraketa politiko berria eta alderdien gorabeherak sakonki aztertzen dira (Letamendia Belzunce, 1994)

¹² Urte horietan zehar alderdi politiko nazionalistek hobetsi duten jokaera politiko eta sostengatu duten ikuskera ideologikoa aztertzeko honako hauek erabili dituzte: (EAJ-PNV, 1987a), (EAJ-PNV, 1992); (Eusko Alkartasuna, 1987), (Eusko Alkartasuna, 1990a); (Euskadiko Ezkerra, 1985) (Euskadiko Ezkerra, 1988b) (Herri Batasuna, 1988a), (Herri Batasuna, 1991).

Begira diezaiozun, lehendabizi, aipatu urteotan EAJk eramandako ibilbideari, hura baita, zalantzarik gabe, alderdi nazionalisten artean sostengu sozial zabalena eduki duena. Bere jokaera posibilismoak markaturik agertzen zaigu. Haren esanetan, unean uneko indar harremanek ahalbidetu duten subiranotasun politikoaren maila ahalik eta altuenak lortzen borrokatu du alderdiak. Pragmatismo horren eskutik, mota ezberdinetako itunak gauzatu izan ditu; helburu biren bila betiere: Autonomia Estatutuaren garapena eta administrazio autonomikoaren gestioan paper nagusia betetzea. Autonomia Estatutuak bideratu du alderdiaren jarduna azken urteotan eta haren aldeko apustu garbia egin du beti. Estatutua lortu zen unean, espainiar estatuaren eta Euskadiren arteko itun legez aurkeztu zuen. Sakondu eta, aldi berean, garatu beharreko gutxieneko lorpen multzoa zela baieztu zuen.

Diskurtso bikoitz hori etengabe iragarri du, baina alde posibilista gero eta nabarmenagoa izan da. Izan ere, 80ko hamarkadaren lehen erdialdean, zeukan nagusitasun politikoak ahalbidetu zion gobernu zentralak egin nahi zuen Estatutuaren irakurketa murriztaren kontra aritzea. Eszizioaren ondorioz, oster, EAren lehiari aurre egin behar izan zion eta, aldi berean, gestio autonomikoa sakonago legitimatzeari ekin. Ildo horretatik, Estatutua *gutxieneko lorpen* bezala aditu beharrean, eraikuntza autonomikorako funtsezko tresna zela baieztu, eta, handik aurrera, gestio eragingarriaren garrantzia nabarmendu zuen. Horrez gain, 1979tik aurrerako hauteskunde guztietan zehar eskuratutako nagusitasuna galdu izanak bideratu du alderdia PSE-PSOErekiko aliantzak egitera, eraketa autonomikoaren gidaritzat mantentzeko asmoz.

EAJko eta beraren eszizioaren ondorioz sortutako Eusko Alkartasuna hasiera-hasieratik egon da EAJrekiko diferentziak azpimarkatzera behartuta, halako moldez non, aztertzen ari garen urte hauetan zehar, lehia nabaria garatu baita alderdi nazionalista bion artean. Behin eta berriz egotzi izan dio EAJri PSOEren espainiar nazionalismoaren aurrean amore eman izana, besteak beste, Estatutuaren eskumenak murrizten zituzten legeak onartuz. Nazio lurraldearen egituraketa politikoari dagokionez, argiro azaltzen du euskal estatu independentea dela alderdiaren azken helburu politiko, eta berau edozein herrialdek duen autodeterminazio eskubideak legitimatzen duela, ezein estaturen borondatearen gainetik.

Euskadiko Ezkerra izan da, zalantzarik gabe, alderdi nazionalisten artean bilakaera deigarriena erakutsi duena. EAJrekin batera, EE izan zen Autonomia Estatutuaren defendatzaile gartsua hasiera-hasieratik, eraikuntza nazionalerako funtsezko tresnatzat jotzen zuen eta. III. Kongresutik aurrera, EAeko eraketa autonomikoaren zilegitasuna sakontzea eta hartarako beharrezkoa zen egonkortasun instituzionala jo zituen zeregin nagusitzat. Estraineko aldiz EAJrekin jardun komuna eramateko eskaintza egin zuen arren, EE mundu nazionalistatik aldentzen hasi zen gero eta argiago. Konstituzioa eta Estatutuari begirako jarkiera bazter utzirik, horrela, herritarren nazioa eraikitzea eta nazionalitate moderno bilakatzea jo zituen zeregin inportanteentzat.

Herri Batasunak estatu independente baten osaketa argiro plazaratzen du azken helburu politiko bezala. Autonomia Estatutuaren eta Foruaren Hobekuntza Legeak

Hego Euskal Herriko herrialdeen artean ezarritako banaketa gainditu beharrak eta *marko juridiko-politiko* berriaren sorrerak bideratu dute HBren ildo politikoa, baita, ondorioz, instituzio autonomikoei begira garatu duen partaidetzaren jitea ere. Hartara, zenbaitetan emaitza elektoral onak eskuratu dituen arren, onartezintzat jotzen duen Hego Euskal Herriko nazio lurraldearen zatiketa administratiboak eragotzi egin dio instituzio autonomikoen erabilera normalizatua egitea. Instituzioetan garatu duen jardunak eraketa autonomikoaren legitimitaterik eza azalaraztea eduki du helburu nagusizat, hain zuzen ere. Or ohar, eraketa autonomikoari begirako izari deslegitimatzailea gailendu da HBren jardun instituzionalean. Erakunde politiko honen ardatzetako bat EAJk PSE-PSOerekin gauzatu duen itun politika salatzea izan da, behin eta berriz egotzi baitio EAJri PSOerekiko morrontza aldarrikapen nazionalisten kaltean doala.

- b) Ikuskera ideologikoz zera ulertzen dugu: gizakia eta gizartearen arteko harremanak ulertzeko baieztapen multzo bat, gutxieneko barne koherentzia erakusten duena. Globala izaten da; hots, errealitatearen alde guztiak integratu ohi ditu, hala nola, gizartearen egituraketa, botere harremanak, proposamen etikoak, eta abar.

Aztergai ditugun lau alderdi nazionalistak kristau demokraziatik sozialismora bitartean kausitzen dira. Alderdiek beraiek adierazitakoari jarraituz, eskuinetik ezkerrera joanda EAJ da topatzen dugun lehenengo alderdia. Kristau-demokrata dela eta humanismoari eusten diola adierazten du. Haren esanetan, gizakia eta giza askatasuna dira alderdiaren jarduna bideratzen duten printzipio nagusiak. Kolektibismo mota guztien aurka egonik, sozialismoaren kontra dago argi eta garbi. Askatasuna demokraziari lotua ikusten du. Ekonomian zein politikan demokrazia da, hortaz, gailendu behar dena. Hobesten duen eredu sozioekonomikoa *merkatu ekonomia soziala* da, Gizarte Ongizate Estatuarekin bateraezintzat jotzen duena. Arlo politikoan, gizartearen eta estatuaren funtzioak ezberdintzearen aldekoa da, eta bigarrenari subsidiaritate zeregina eransten dio. Pentsakera liberalaren barruan kokatu behar da, hortaz, EAJren ikuskera ideologikoa.

Eusko Alkartasuna sozialdemokraziari eta humanismoari atxikiturik kausitzen dugu. Berdintasun, justizia eta elkartasun printzipioek bideratzen dute alderdiaren jarduna, haren esanetan. Aukera berdintasuna, giza eskubideekiko begirunea edota aberastasunaren birbanaketa jotzen ditu alderdiaren helburu bazterrezintzat. Behin eta berriz baieztan du alderdi moderno eta aurrerazalea dela. Honen eskutik, planteatzen du arlo politikoan demokrazia dela balore nagusia baina, horrekin batera, sistema politikoaren zilegitasuna herritarren ongizatea ziurtatzean datzala. Arlo politikoan zein ekonomikoan, beraz, eragingarritasuna eta berdintasunaren arteko oreka bilatu behar da. Merkatu ekonomia ez du alboratzen, beraz, baina beharrezkoa da aginte publikoaren gutxieneko arauketa. Ongizate Estatutik, horrela, ongizatearen gizarteratzera iragatea hobesten du, estatua eta herritarren arteko zubiak eraikiz.

Euskadiko Ezkerra sozialismoari atxikiturik agertzen zaigu, baina bilakaera nabaria erakutsi zuen ikuskera ideologikoan. Hasieratik leninismotik aldendu beharra eta sozialismoaren lorpena demokraziatik banaezina zela adierazten bazuen ere, hizkera marxista erabiltzen zuen, eta klase gatazka jotzen zuen gizarte aldaketan eragile nagusizat. Hurrengo urteetan gero eta gehiago apaldu zen hizkera marxista hura, eta,

ordainez, sozialismorako bidea jorratu behar zuen jokaera demokratikoak protagonismo handiagoa hartu zuen. Hala, gizarte eraldaketa herritarren borondatearen kontra ezin gauza zitekeela eta, hortaz, gizarte zibilaren baitan hegemonia lortzea baitaezpadakoa zela zioen. Azkenik, sozialismorantzako bide berriak jorratearen alde agertu zen. Herritarren erantzukizuna areagotu eta agente sozial ezberdinen arteko akordio soziala gailendu beharra azpimarratu zuen. Marxismotik sozialdemokraziarantzako hurbilpena gauzatu zuela esan liteke, gero eta gehiago nabarmendu zituelarik politika sozialaren eragingarritasuna eta akordioaren beharra, aurkamenduaren orde.

Herri Batasunak, azkenik, ez du aurkezten gainerako alderdi nazionalistek bezalako sofistikatorik pentsakera ideologikoan ezta hemendik ondorioztatzen diren proposamen sozial eta ekonomikoetan ere, agian, erakunde honen baitako aniztasunaren seinale dena. Helburua, haren esanetan, berdintasuna eta aberastasunaren banaketa dira, beti ere langile eta herri klaseen zerbitzuan. Hala ere, kolektibismo zurrunetik aldentzen da, eskubide kolektiboak eta indibidualak batzearen beharraz ohartarazten duelarik, askatasuna eta demokrazia bateragarri izan behar dira eta. Demokraziari eusten badio ere, zeharo gaitzesten du egungo sistema politikoetan nagusitu den ordekaritzan oinarritutako demokrazia eta, horren orde, demokrazia *eskuhartzailea* aldarrikatzen du.

Taktika politiko eta ikuskera ideologiko ezberdinak aintzat harturik, beraz, diferentzia nabarmenak kausitzen dira alderdi nazionalisten artean. Baina, aurretik iragartzen nuen bezala, diferentzia horiek ez dute isla zuzenik aurkitzen mugimendu nazionalistak -bere osotasunean hartuta- nazioari buruz garatzen dituen diskurtsoetan. Hauetara hurbilduko gara segituan.

3.2. Euskal nazio identitatea: lurraldea eta hizkuntza

J. J. Linzen arabera, nabari-nabaria da beren burua euskal herritartzat jotzen duten gehienentzat (%79,8), *bertan bizi eta lan egitea* dela hobetsitako nazio irizpidea, bestelako ezaugarri primordialen kaltean (Linz, 1985: 212 eta hur). Hori argia da aukera nazionalista guztietan, baina are indartsuago agertzen da nazionalismo arradikalean; alegia, helburu politiko bezala independentzia dutenengan.

Alabaina, egungo nazionalismoaren eta euskararen arteko harremanak sendoak dira, oraindik ere. Indar politikoek egin ditzaketen aldarrikapen publikoak edo ofizialak momentuz albo batera utzita, inguru nazionalistetan euskara da jendeak hobesten duen ezberdintasunaren isla nagusia; osagai objektibo, enpiriko, eztabaidaekin bezala (Tejerina Montaña, 1992: 234). Bestenaz ere, azken hamarkadetakoz nazionalismoaren eta euskararen artean harreman estuak daudela sarritan frogatu ahal izan da ikerketa koalitatiboan zein koantitatiboan bidez, eta berauetatik ondorio nagusi bi azpimarratuko ditugu. Batetik, nazionalismoaren eragina baitezpadakoa dela euskararen prestigio sozialerako eta zabalkundearen bultzadarako (Apaolaza, 1993: 63 eta hur.). Bestetik, usu agertzen den bigarren ideia izaten da euskara ezagutzea, erabiltzea edota ikasi beharra defendatzea estuki lotuak doazela mota guztietako aukera politiko abertzaleekin (Garmendia eta Parra, 1982: 111); eta, zenbait

testuingurutan, hizkuntza arradikaltasuna helburu nazionalisten arradikaltasun politikoarekin batera joaten dela (Apaolaza, 1993: 63).

Egungo nazionalismoa eta euskararen arteko loturak estuak direnik ezin uka daiteke, hortaz, baina harremana ez da hasiera batean pentsa litekeen bezain automatikoa, eta honen froga da, J. Zabalok ohartarazitakoari jaramon eginez, Euskal Herriko nazionalisten kopurua handiagoa dela euskaldunena baino; eta, alderantziz ere, euskararen aldeko jarrerak nazionalista ez direnek ere mantendu -eta mantentzen- dituztela (Zabalo, 1994: 21).

Euskal hizkuntza eta nazionalismoaren arteko harremana automatikoa ez izateaz gain, sinplea ere ez dela gaineratu behar da, ezen euskara ideia eta jarrera ezberdinez osatutako mundu konplexua da; eta ez bakarrik euskal nazionalista ez diren indar politikoak etengabe saiatzen direlako euskararen aldeko oldarra murrizten, proposatzen diren neurriak erdaldunen eskubideen kontra doazelakoan. Nazionalismoaren baitan ere soma daiteke liskarra, ordea. Ezadostasun hauek erakusten digute euskararen aldeko borrokan frankismoaren garaian zegoen mugimendu nazionalistaren baitako gutxieneko ahobatasuna apurtu egin zela eraketa autonomikoa ezarri zen momentutik aurrera. Frankismopeko urteetan euskararen aldeko borroka kanpo izaria adierazten zuen batez ere, baina, azken urteotan, barne izariak protagonismo handiagoa hartu duela diosku A. Perez-Agotek, lehena desagertu ez den arren; hots, botere zentralarekiko gatazka argia zena dibertsifikatu egiten da, erruak, erantzukizunak eta eskubideak era konplexuago batez banatzen direlarik (Pérez-Agote, 1987: 35-39). Hizkuntzari buruzko diskurtso ezberdinak gorpuzten dira, hortaz, nazionalismoaren baitan. Segituan ikusiko ditugu, aurretik Hego Euskal Herriko euskararen egoera sozial berriari begiratu bat emanez.

Legeriari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6.1. artikulua, euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza dela adierazi eta gero, gaztelania eta euskararen koofizialtasuna ezarri zuen lurralde autonomikoan. Honen ildotik ebatzi zen, 1982an, Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Oinarrizko Legea, zeinak, 5. artikuluan, EAEko herritarrek hizkuntza bien ezagutza eta erabilerarako *eskubide* dutela baieztu baitzuen, eta, ondorioz, administrazio autonomikoaren betebeharra zela eskubide horren bermea¹³. Bestelakoa da Nafarroan indarrean dagoen euskarari buruzko legeriaren filosofia. 1982ko Foru Hobekuntzaren Lege Organikoaren 9. artikulua ezarritakoaren arabera, gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra nafar lurralde osoan; eta euskara eta gaztelaniaren koofizialtasuna aurreikusten zen eremu euskaldunean. 1986ko Euskararen Foru Legeak, horrela, euskara eta gaztelania jo zituen Nafarroaren berezko hizkuntzatzat. Era berean, nafar guztiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea zutela ezartzen zuen, baina Foru Hobekuntzaren Legeak ebatzitakoaren ildoari eutsi zion. Bada, hiru hizkuntza eremutan banatu zuen nafar

¹³ Ikus Eusko Legebiltzarra 1991. Argitarapen honek barnehartzen ditu, besteak beste, lege egitasmoaren testua, Hezkuntza eta Kultura Batzordean egondako eztabaidak, Osoko Bilkuran aurkeztutako zuzenketak, eta berauei buruzko eztabaidak eta botaketak; eta Legearen erabateko testua.

lurraldea: alegia, eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu erdalduna¹⁴; eta gaztelania lurralde osoko hizkuntza ofizial bakarra zela adierazi zuen. Hizkuntza politika ezberdinak bultzatuz ere, administrazio autonomiko biek hartzen dituzte euskararen inguruko neurriak, baita hartarako aurrekontu bereziak bideratu ere, eta hauek guztiek, gerora aztertuko dugun hezkuntza arloaz gain, isla edukiko dute bai hedabideetan, bai euskararen irakaskuntzan diharduten erakundeei zuzenduriko dirulaguntzetan, eta bai administrazioaren jarduera orokorrean.

Administrazioaren ekimenek eta euskarak aurreko garaian jasaten zuen jazarpena desagertu izanak euskararen normalizazioaren hastapenetan gaudelako iritzia helarazten dute. Horren arabera, ukaezina da euskararen hedapena, bai hiztun kopuruari begira, baita geografikoki eta betetzen dituen funtzioen aldetik ere. Azken hauen artean, adierazgarria da hizkuntzaren erabilera publikoa, erabilera soziala geldoago doan arren (ik. Garmendia, 1994).

Oker ederra litzateke, alta, hizkuntza egoera bare batean gaudela ondorioztatzea zeren eta hizkuntza gatazka eguneroko ogia da euskal gizartean. Bestela ezin izan litekeela baieztatu dute soziolinguistikan diren adituek, ez omen baitago lurralde bereko hizkuntza bien arteko elkarbizitza armoniko posiblerik. Izan ere, gizakien elebitasunaren inguruko problematika alde batera utzirik, elebitasun sozialak ez du normalean islatzen hizkuntza bien arteko egoera orekatsurik, alderantziz baizik. Euren arteko hierarkia nabarmen bati jarraituz, espazio sozial ezberdinak bete ohi dituzte, eta hizkuntza gainartzaile deritzona lurralde konpakto eta ondo zedarratuan -bereziki lan eta hezkuntza esparruetan- finkatzen den bitartean, hizkuntza menperatuak sakabanaketa eta lurralde trinkorik eza nozitzen ditu, familiara eta harreman pribatueta mugatuz gehienbat (Laponce, 1984: 38).

Gizarteko kideak egoera desigualitario *objektibo* horretaz jabetzen direnean, diosku B. Tejerinak, hizkuntza gatazkaz hitz egin daiteke, eta horrek esan nahi du nolabaiteko talde antolaketa ekiten zaiola egoera aldatzeko asmoz. Hizkuntza gizarte taldeen arteko tirabira iturri eta eztabaidarako gai bilakatzen da (Tejerina Montaña, 1992: 208). Hizkuntza gutxiaren joera autodefentsarako mugak eraikitzea izaten da, hizkuntzaren garapen ziurra bermatu nahi izaten baitu. Hizkuntza gainartzaileak, hortaz, askatasunaz eta berdintasunaz egiten du berba; gutxiak, aldiz, eskusibitatez, mugaz eta pribilegioz. Banaketa naturalen ordean, instituzioen eta legeen laguntza bilatzen du, hesi artifizialak altxatuz (Laponce, 1984: 35 eta hur).

Ikusi bezala, EAEko administrazio autonomikoa mutur bi horien arteko anbiguotasunean mugitzen da. Alde batetik, euskara *euskal lurralde osoaren* hizkuntza dela aitortzen du, eta, ondorioz, etorkizuneko hizkuntza jomugak elebitasuna eta euskararen normalizazioa direla adierazten du; eta bestetik, hizkuntza *herritarren*

¹⁴ Halako bereizketarako irizpideak zeintzuk izan ziren ez dago batere argi, eta erabaki arbitrario samarra izan zela pentsatu behar da. Horrela, hiru eremu hauetako euskararen nagusitasuna diferentia den arren, ezin dira homogeneotzat jo, euskaldunen portzentaia oso ezberdinak dituzten udalerririk barnehartzen baititu eremu bakoitzak. Ikus honetaz (Larrañaga, 1990: 67 eta hur.)

eskubide, baina ez betebeharrak gisa ulertzen du. Laponcek (1984: 157 eta hurr.) deskribatzen dituen *persona irizpide* eta *lurralde irizpide* direlakoan artean, errealitatean lehenari eusten dio, hizkuntza norbanakoen eskubide maila hutsera mugatzen duenean. Nafarroaren kasuan, irizpide bi hauen erabilera are nahasgarriagoa eta, dudarik gabe, euskararentzako kaltegarriagoa egiten da. Nafar administrazioaren hizkuntza politika abertzale guztiek gaitzesten dute gogor, eta nafar lurralde osorako euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen da aho batez.

EAEra etorrira, euskararen aldeko kolektiboek ere kritikatu dute administrazioaren jarrera, epeltzat jotzen baitute, eta euskararen salbazioa arrisku bizioan jartzen dela uste baitute. Normalizazio kontzeptua gainditzeko asmoz, euskarak egoera diglosikoa pairatzen duela mezua zabaltzen dute. Hizkuntzaren onarpen ofizial hutsarekin konforme ez daudelarik, gutxitze prozesua geldiarazi beharra aldarrikatu dute, hizkuntza plangintza erabakigarri baten bidez, euskararen erabileraren arauketa eta batez ere bultzada ofiziala exijituz. Arlo publikora heda dadin, lege, hezkuntza egitarau eta komunikabideetan sakoneko interbentzioak egiteko dagoen premia gorria azaleratzen dute (Urla, 1988). Egonezin horretan ez dira bakarrik kausitzen euskararen aldeko erakundeak; zenbait alderdi nazionalistak, ordea, kritika egiten die gainerakoei, hizkuntza politikan azken hauek plazaratzen dituzten ideiek euskararen etorkizuna koloka jartzen dute eta.

Aztergai ditugun alderdi politiko nazionalista guztien abiapuntua da euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza dela, alegia, *nazio hizkuntza* dela. Diferentziak beha daitezke, ordea, bai hizkuntza helburuetan eta baita berauek erdiesteko bitartekoetan ere¹⁵. Helburuei dagokienez, elebitasuna da onetsiena EA, EAJ eta EErentzat, azken hau izaki elebakartasunaren kontra gartsuen agertzen dena; HBk, aldiz, erabat errefusatzen du elebitasuna helburu bezala markatzea. Bitartekoetan ere antzeko muga bat ezar daiteke: administrazio autonomikoaren hizkuntza jarduerari nolabaiteko onespina -edota atxikimendu osoa, EAJren kasuan, adibidez- ematen diotenean uneoro defendatzen dute herritarren borondatea errespetatu behar dela euskara normaliza dadin, eta HBri -inplizituki edo esplizituki- darabilen hizkuntza arradikaltasunak ekar lezakeen arriskua egozten diote. Hala ere, den-denek adierazten dute euskararen aldeko jarrera gizartean landu behar dela, euskarari buruzko pentsamenduaren zutabea, esan bezala, euskal gizarteari dagokion hizkuntza izatea baita. Hori dela eta, guztiak agertzen dira kexu, adibidez, Nafarroako administrazio autonomikoak indarrean jarritako eremu ezberdinen arteko banaketaz, zeinaren arabera euskara ez baita jotzen nafar guztien ondareztat, eta, nafar herritarrak batu beharrekoan, banatu egiten baititu.

Batasuna da, hain zuzen ere, euskararen bitartez lortu behar dena, eta ez zatiketa, diote alderdi politiko nazionalistek; eta den-denek onartzen dute malgutasuna eta gradualtasuna baitezpadako direla euskararen berreskurapenari begira, inor uxatzearen beldurrez. Halako moldez non, esan bailiteke elebitasuna ala

¹⁵ Hegoaldeko alderdi politiko nazionalistek defendatzen duten hizkuntza politikarako, ikus (Arrieta, 1991), (Berriozabal, 1991), (Gurrutxaga, 1991), eta (Oregi, 1991); denak Jakin aldizkariak Hegoaldeko eta Iparraldeko alderdi abertzaleen hizkuntza politika bilduz atera zuen monografikoan

elebakartasuna helburu bezala hobestea dela alderdi politikoaren arteko diferentzia nabarmenena; eta, J. Zabalok dioenez, proiektu politiko ezberdinen ondorioztat hartu behar da ezberdintasun hori (Zabalo, 1996: 128).

Maila politikotik at eta, zehazkiago, mugimendu euskarazalearen testuinguruan, ahalegin berezia gauzatu da azken hamarkadan hizkuntzaren problema marko hartatik ateratzeko, eremu autonomo bat eraiki guran. Arrazoen artean, nazionalismoaren beraren zatiketa eta euskararen egiazko berreskurapenean legeriak erakutsitako mugak kausitzen dira, besteak beste (Larrinaga, 1996: 166). Euskararen inguruko diskurtso eraberritu honek oinarri zientifikoa aldarrikatzen du euskararen aldeko borroka despolitizatu behar dela adierazteko. Helburua euskararen salbazioa da, eta jardun horretan balore *per se* bilakatzen da, ideologia politiko, banaketa administratibo edota lurralde antolaketarako proiektu nazionalista guztien gaiterako adostasun sozial zabala exijitzen duena (Sarasua Maritxalar, 1997). Makroproiektuetatik mikroesparruetara jaisten den mugimendu bezala deskribatzen digu A. Larrinagak (1996: 165), eguneroko jardueran euskal hiztunen artikulazioa eraiki nahi duena. Komunitate honek trinkotzeko eta kontzientziatzeko erakusten duen gaitasunak baldintzatuko du, hein handi batez, euskararen etorkizuna, maila politikoan gara daitezkeen jarduerak baino.

Testuinguru berriaren seinale diren iritziok, logikoki, alderdi politiko nazionalisten jardunarekin egiten dute topo, ezen saihetsezina da maila politikoan aritzeak dakarren lurraldetasun irizpidea kontuan hartu beharra. Esparru horretan jokatzeko duen neurrian, nazionalismoak *lurralde osora eta biztanle guztiengana* heldu beharra dauka, eta, beharizan honetatik abiatuz, litekeena da hizkuntza aldarrikapenak bigarren maila batean uztea batzuetan, askotarikoak baitira une jakin batean erdietsi nahi dituen helburuak.

Honaiko esandakoa laburbildurik, beraz, lurralde irizpideari eusten dion ikuskera nazionalistak aspaldi honetan lekua irabazi badu ere alderdi nazionalisten eskutik, egungo euskal nazionalismoan gailentzen dena hizkuntza eta lurraldearen elkarketa da. Lurralde irizpideak arrazionalizazioa eta zentzu pragmatikoa dakartza berarekin; hizkuntzak, ostera, diferentziaziorako sinbolo zeregina betetzen du, eta mugimenduak beharrezko duen nazioarekiko lotura afektiboa indartzen du. (Zabalo, 1998: 39 eta hur).

Euskara, horrez gain, nazionalisten arteko elementu banatzaile bilakatu da, baina, zalantzarik gabe, aldi berean, nazionalista guztiak batzen ditu, aldarrikapen teoriko edota abiapuntu bezala bakarrik bada ere.

3.3. Hezkuntza sistemaren norabide berria

Hego Euskal Herrian hainbat urtetan eta indar biziz kaleratu den hezkuntza gatazkan, mota askotako kolektibok hartu dute parte, eta ez bakarrik abertzale direnek. Izan ere, nazio eraikuntzan hezkuntzari erantsi ohi zaion berebiziko zeregina dela eta, hezkuntzaren norabidea, neurri handi batean, nazionalismoaren eta honen kritikoen arteko liskar bezala ezaugarri liteke, eta maiz ere, abertzaleen diskurtsoa euskal

nazionalismoaren kritikoek edo/eta espainiar nazionalistek baieztutakoari erantzunez garatzen da. Noizean behin kritika hauetako zenbait aurkeztuko ditugun arren, azpiatal honetan euskal mugimendu nazionalistaren beraren diskurtsoak eta jarduerak aztertu gura ditugu.

Hezkuntza sistemaren norabide berria aztertuko dugula esatean, eskola publikoaren eta ikastolaren bilakaeraz arituko garela ohartarazi behar da, ikastetxe mota bi hauen izaeran zentratu baita urte hauetako guztietako gatazka nagusia; eta hauexek izan baitira nazionalisten aldetik etengabeko erkaketa eragin dutenak. Ez naiz, beraz, irakaskuntza pribatuaz, zentzu estuan, arituko.

Esan bezala, azpiatal honen funtsezko ildoetako bat ikastetxe mota bi hauen arteko alderaketa den heinean, logikoagoa iruditu zait arreta nagusia oinarrizko irakasmiletan gertatutakoan ipintzea¹⁶. Noizean behin aurkeztuko ditugun datuak, beraz, nagusiki, honen harira ulertu behar dira. Bestenaz ere, gauza jakina da euskal nazionalismoak bestelako hezkuntza maileri buruzko diskurtsoak eta estrategiak ere aurkezten dituela, eta, konkretuki, Euskal Unibertsitatearen eraikuntza ez dela egon - eta egun ere ez dago- haren kezketatik kanpo; baina, duda barik, oinarrizko irakaskuntza izan da orain arte eremu eztabaidagarriena, besteak beste, maila honetan baizik ez baita lortu emaitza esanguratsurik. Alde batetik, administrazioaren eskumenei begira, unibertsitatea, oraindik ere, estatu mailako arauketaren menpe dagoelako; eta, bestetik, oinarrizko irakaskuntzan baino ez delako erdietsi nazionalismoak sare publikoaz besteko hezkuntza ekimen arrakastatsurik ezartzea gizarte mailan, hots, ikastola sarea abian jartzea.

Hezkuntza errealitate bi horien ibilbidera hurbilduko, beraz, betiere Hego Euskal Herriko esparru politikoaren eraldaketan eta ondorioztatu den lege marko berrian kokaturik. Baina horra heldu aurretik, baitezpadakoa zaigu hezkuntzaren norabidearen inguruko auzian parte hartzen dutenen aurkezpen azkar bat egitea.

3.3.1. Eztabaidaren protagonistak

Hezkuntza hizpide dugularik, alderdi politikoekin batera, arlo honetan zuzenean jarduten duten ikuspegi nazionalistako beste erakunde batzuen zeregina aztertu behar da, hezkuntzaren inguruko eztabaida zabal eta istilutsua izan den neurrian, mota askotako plataformak edota interesak biltzen zituzten kolektiboak sortu baitira abagune ezberdinetan¹⁷. Ez dut sakonduko, ordea, beraien osaketari eta ibilbideari

¹⁶ Aintzat hartu behar da oinarrizko eta ertaineko irakaskuntzaren antolaketa ezberdina gauzatu dela, 90eko bigarren erdialdetik aurrerako hezkuntza erreformaren eraginez. Birrantolaketa hau gure aztergai nagusiaren denbora mugetatik kanpo egoteak eragin du, beraz, aipatu izenak erabili izana, egun indarrean daudenen orde.

¹⁷ Ikastolen publikazio prozesuan, aipagarriak dira, esate baterako, honako hauek. 80ko hamarkadaren hasieran sortua, *EEPA* (Euskal Eskola Publikoaren Alternatiba), zenbait euskal ezkertiar indar politiko eta sindikatuz osatua. Oihartzun sozial zabala eduki zuen arren, iraupen labur samarrekoa izan zen. 90eko hamarkadaren hasieran, Euskal Eskola Publikoaren Legearen inguruan plataforma bi sortu ziren: *Sortzen*, eskola publikoetako eta ikastoletako guraso eta irakaslez osatua; eta *Denon Artean*, eskola publikoetako zenbait guraso elkarte, EHUko Hezkuntza Mintegia, LAB eta EILAS sindikatuak eta

begiraturik, nahikoa baita aztergai ditugun erakundeen diskurtsoak aztertzea, haiena berauetan islaturik agertuko direlakoan. Hala ere, plataforma hauetako zenbaitetara itzuliko gara beherago, talde abertzaleen aliantzen erakusle izan baitira.

Hortaz, urte hauetan guztietan, alderdi politikoez gain, oso kontuan hartzekoak dira, batetik, sindikatu nazionalistak, eta, bestetik, ikastoletako ikasleen gurasoen protagonismoa. Talde antolatu hauekin batera, nabarmentzekoa ere deritzot, hezkuntzaren norabidea mugimendu nazionalista osoaren kezka izan den neurrian, nolabaiteko iritzi korronteak ere garatu izanari. Berauek, sigla jakin batzuekiko leialtasun zurrunik erakusten ez dutelarik, mugimendu nazionalistaren zenbait sektoreren pentsakeraren adierazle izan dira. Haien hedapen koantitatiboa neurtzea zaila da; ez, ordea, kokapen politikoa, ezker abertzalearen inguruneetan mugitzen direla esan daiteke eta. Talde antolaketa erakusten ez dutenez gero, alta, ezinezkoa da beraien aurkezpen zehatzik egitea, eta unean uneko eztabaidagaietan azaleratuko ditut jarrera horien elementu nagusiak.

Has gaitzen hezkuntza arloari zuzen-zuzenean, alegia, sindikalgintzari edota arlo politikoa estuki loturik ez dagoen talde bakarraren aurkezpena eginez: *Ikastolen Elkarte*¹⁸. Beherago aztertuko dugun ikastola sareak jasotako hedapena dela medio, besteak beste, dudazina da erakunde hau benetako botere faktikoa izan dela, negoziatzeko ahalmen handia eduki baitu urte hauetan zehar. Mundu nazionalistaren barruan kokatu beharra dagoela ere argi dago, zazpi herrialdeetako koordinazioa erakusteaz gain, erakunde honen adierazpenetan behin eta berriz agertzen baita helburu legez, beste batzuen artean, Euskal Herria nazio izateari dagokion hezkuntza sistema eraiki beharra. Bere burua frankismoaren garaian sortutako ikastolen mugimenduaren oinordekotzat jotzen duelarik, iragana eta orainaldia bategiteko nahia adierazten du; baina, aldi berean, ideologiaren ginetiko diskurtsoa eta imajin modernizatzailea aurkezten ahalegintzen da. Izatez, alderdi politiko nazionalista guztiekin eduki ditu harreman onak, eta denek erakutsi dute harekiko begirunea, diferentziak diferentzia.

Erakunde honen baitako ugaritasuna azpimarratu gura dut, eta horrelako baieztapen biribilik egitea zaila den arren, nire iritziz, ikuspegi moderatua -bai politikoki eta baita ideologikoki ere- eta jardun pragmatikoa nagusitu dira bertan. Ohartarazi behar da, hala ere, ikuspegi moderatua eta jardun pragmatikoa nagusitu direla diodanean, ez naizela baieztan ari *beti* ipini denik administrazioaren esanetara, zenbaitetan

Ikastolen Elkarte partaide zirelarik. Bestenaz ere, eskola publikoaren joan-etorrian, gero eta protagonismo handiagoa hartu dute eskola publikoko ikasleen gurasoen elkarteek, Ipar Euskal Herriko Ikas-Bi elkartearekin harremanak sendotu dituztenak, betiere eskola publikoaren euskalduntze prozesua indartzeko asmoz.

¹⁸ Ikastoletako gurasoek osaturiko erakunde honek Gipuzkoako Ikastolen Federazioan du jatorria. 70eko hamarkadan jaioa, apurka-apurka herrialde guztietako ikastola gehien-gehienak bildu ditu haren baitan, *Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa* izena hartuz, zeina, 90eko hamarkadaren hasieratik aurrera, aipatu izenez ordezkatu baitzuen. Erakunde honi buruzko erreferentziek, beraz, izen ezberdin hauek jasotzen dituzte idazlan honetan, dagozkien daten arabera. Aipamen orokorrak egitean, ordea, *Ikastolen Elkarte* izena erabiltzea hobetsi dut.

aurkamendu gogorrek protagonizatu baititu harekin. Bereziki nabarmendu nahi dut, ordea, Ikastolen Elkartearen jokaera ikastola sarearen biziraupenak bideratu duela, eta horren kariaz, erakunde abertzaleekin jardun komuna gauzatzeko gaitasuna eduki duela.

Sindikatuari dagokienez, hezkuntza arloan diharduten hiru sindikatu abertzaleak hartuko ditut kontuan, hots, EILAS, ELA eta LAB¹⁹. Alderdi politiko nazionalisten aldean, apur bat zailago gertatzen da erakunde sindikalen sailkapen ideologikoa egitea, funtsean, euren baitako aniztasuna dela medio, indefinizio handiagoa erakusten dute eta. Gainera, sindikatuak, oro har, ez dira alderdi politikoak bezain derrigor-tuta egoten planteamendu politiko edota nazio-definizio landurik kaleratzera. Abagune politikoaren eragina jasotzen dute, noski, alderdi politikoek bezalaxe, baina askoz jarrera malguagoa erakuts dezakete. Honen guztiaren adibide da, alderdi nazionalistekin gertatzen ez den bezala, jardun komuna gauzatzeko zailtasun gutxiago eduki ohi dutela.

Jazo ere egiten da, beste alde batetik, eremu politikoan buruz buruko lehiakide diren alderdi politikoetako kideak sindikatu bereko afiliatu izatea. Bestela esanda, alderdi politiko bateko kide izateak ez dakar derrigor aukera sindikal jakin bat egiterik, eta sarritan ere, alderdi politikoek eurek askatasuna ematen diete militantei afiliazio sindikala gauzatzeko orduan. Ordainez ere, erakunde sindikaleko kideen artean jarrera nahikoa ezberdinak azalera daitezke auzi sozial edota politiko baten aurrean, sindikatuen interes nagusiak egitura ekonomikoak eta lan merkatuak sorrarazten dituzten arazoetan baitu jatorria. Baina hura ez da interes bakarra; eta batzuegan nabariagoa da, besteengan baino, arlo ekonomikotik harago doan problematika sozial edota politiko orokorragoa barnehartu nahia euren diskurtso eta jardueretan.

Bat datoz hiru erakunde sindikalok Euskal Herria zazpi herrialdez osaturik ulertzean (hirurek Hego Euskal Herria baino ez diharduten arren) eta autodeterminazio eskubidearen erreibindikazioan. Hirurek ere euskara jotzen dute euskal identitatearen osagai nagusitzat. Euskal sindikalgintza indartu nahia adierazten dute, eta lan harremanetarako euskal esparrua eraiki eta sustatu beharra azaleratu. Funtsean, beraz, antzekotasun handia somatzen da nazio aldarrikapenetan, ez horrela, euskal esparru politikoan diren indarrekiko harremanei begira. Bada, ELA mugimendu nazionalistako kide sentitzen da, baina edozein alderdi politikotik aske diharduela baieztatu du, eta baieztapen horretan bat dator EILASekin; LABek, ostera, ENAMeko kide, eta zehazkiago, KASEko partaide izatea eta sektore horien helburu orokorrekin bat egitea defendatzen zuen aztertzen ari garen denbora tartean. Egintza motari

¹⁹ EILAS 1978an sortu zen, *Eskola Publiko Berria* lemapean, Katalunian hasi eta espainiar estatu osoan indartu zen mugimendu pedagogikoaren ildotik, bigarren atalean azaltzen genuen moduan. ELA ibilbide luzeko sindikatu dugu, 1911n jaio baitzen, orduko EAJren eskutik. LABek, azkenik, 1974an du sorrera data. Aurretik esan bezala, KASEn integraturik egon zen, baina 1978an, EEko kideek bultzaturik, koordinadora horretatik irten zen. 1980an itzuli egin zen, eta sindikatuan zeuden EEko militanteak ELAra iragan ziren. Dena den, sindikatu hauen aurkezpena egitean, ez gara euren ibilbide historikoan zentratuko, 90eko hamarkadan egindako kongresuen edukiak hartu baititut aztergai gisa. Ikus, beraz, (STEE-EILAS, 1994); (ELA, 1990) eta (LAB, 1992a).

dagokionez, beste alde batetik, LABek eta EILASEk *sindikatu soziopolitikotzat* dute euren burua; eta, ELAk, aldiz, gainerako biekin erkatuz gero, eztabaida politiko zabalak saihesteko joera handiagoa erakutsi du, 90eko hamarkadaren azken urteotako bilakaera albo batera utzirik. Ildo horretan, ELA izan da hiru erakundeetatik esparru sindikalaren problematikari estuen loturik aritu dena, behin eta berriz adierazi baitu haren ardura nagusia irakaskuntzako langileen eskubideak defendatzea zela. LAB izan da, ostera, bere jardunean osagai politiko markatuenak erakutsi dituena.

Arlo ideologikoari dagokionez, hirurek diote *klase sindikatu* direla. Horrekin adierazi gura da arlo ekonomikoaren harremanak, eta berauetatik ondorioztatzen den lan merkatuaren egitura, klase ezberdinen interesetan eta berauen arteko aurkamenduan oinarrituak ulertzen dituztela. Hortaz, langileriaren aldarrikapen orokorrekin bat egiten dute, zein sektoretako den bazter utzirik. Abiapuntu hau komuna izanik ere, aztergai ditugun hiru sindikatuok ez dira lerro ideologiko berean kokatzen, eta batzuek ikuskera ezkertiarren eragin argiagoa erakusten dute besteen aldean. Enpleguaren eta aberastasunaren birbanaketa da hiruren helmuga orokorra, baina EILAS eta LAB gizarte sozialistaren eraikuntzaren alde agertzen dira argi eta garbi. Ildo honetatik, Mendebaleko herrialdeetako pentsakera ezkertiarrek jasotako kezka berriak azpimarratzen dituzte, hala nola, sexismoari aurre egiteko konpromisoa edota aldarrikapen ekologistekiko begirunea. ELA hurbilago agertzen zaigu pentsakera sozialdemokratatik, justizia soziala eta berdintasuna oinarritzko balore eragile dituelarik. Aurreko bien -eta bereziki EILASen- aldean, askoz azterketa sozioekonomiko landuagoak aurkezten ditu, Ongizate Estatuaren defentsarako eta lan merkatuak erakusten dituen ezaugarri berrietarako neurri zehatzak eta ustez eragingarriak proposatuz.

Igarri-igarrian dago proposamen landu hauetan ELAk sustatu nahi duen praktika sindikal eragingarria, baina hartarako bestelako ziorik badu, eduki ere, sindikatuaren ikuskera orokorretik harago doana, ezen hura gehiengodun erakunde sindikal bilakatu da Hego Euskal Herrian, eta bereziki indartsu dago EAEn. Euskal Autonomia Erkidegoan, 1990ean egin ziren hauteskundeetan, adibidez, ELAk ordezkari guztietatik % 37,84 eskuratu zuen, LABek %13,15 zuen bitartean. Ezin daiteke alderaketarik egin EILASen emaitzekin, sindikatu honek irakaskuntzan baizik ez baitihardu. Ordainez, EILAS 1980tik aurrera egin diren hauteskunde sindikaletan zehar sindikatu gehiengodun izan da arlo honetan eta bere eragin nagusia eskola publikoan egon da.

Izatez, sindikatuen ordezkariari begiratzuz gero, muga argia kausi daiteke irakaskuntzan sare publikoan eta ikastola sarea aintzat harturik. Ikastetxe publikoei dagokienez, esan bezala, EILASEk du gehiengo nabarmena, gainerako sindikatu guztietatik alde handiz. Aipatu urteko hauteskundeetan, lau herrialdeak barnehartuta, botoen %27,5 jaso zuen, LABek %10,8 eta ELAk %9. Oso bestelakoak izan ziren, ordea, ikastolei egokitu zitzaizkien emaitzak. Hala, 302 ordezkari sindikalen %50 LABenak izan ziren, %43,4 ELArenak eta %4,3 baino ez zen izan aukeraturik EILASEko kide gisa; eta Nafarroan eta Bizkaian, esate baterako, ordezkari bat ere ez zuen lortu. Hortaz, sindikatu bakoitzaren eragin orokorrak ez du isla zuzenik irakaskuntza arlora erantsiz gero, eta arlo honetan ere, guztiz ezberdinak dira ikastolari eta eskola publikoari dagozkion emaitzak. Horrez gain, diferentziak ere beha daitezke lurraldeka, nazionalismoaren eraginari jarraiki, nafar herrialdean agertzen

baitira ahulen sindikatu nazionalistok. Dena den, EILASEk eskola publikoan eta LABek ikastolan, lurralde ordezkariak orekatuagoa dutela esan liteke ELAren aldean, zeinak ez baitu ia presentziarik Nafarroako irakaskuntza sisteman.

Hortaz, alderdiek, sindikatuek eta mugimendu nazionalistako gogaideek osatutako halamoduzko iritzi taldeek jardun dute 1978tik 1993ra bitarteko urte hauetan Hego Euskal Herriko hezkuntza sistemaren norabidea zehaztu guran, baina saio honetan muga argi batekin egin dute topo. Hain zuzen ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa barnehartu zituen eraketa aurreautonomikoak Hegoaldeko herrialdeen artean ezarritako banaketa administratiboak hasiera eman zion ondorengo urteetan gauzatuko zen Nafarroako Foru Erkidegoko eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema bien garapen ezberdinari. Orduetik aurrera, administrazio bien menpeko eskola publikoak eta ikastolak ibilbide diferentea erakutsi dute, besteak beste, euren egoera zehaztuz joan den hezkuntza legeriaren bitartez.

Esanik utzi dut, alabaina, arreta EAEn gertatutakoan ipiniko dudala, lurralde horretako hezkuntza sistemaren bilakaerak eta nazionalismoaren nagusitasun sozial eta politikoak

eragin baitute abertzaleen hezkuntza publikoari buruzko diskurtsoen dibertsifikazioa eta, ondorioz, jarrera kontrajarriak agertu izana eskola publikoari eta ikastolari begira²⁰.

3.3.2. EAEko eskola publikoaren eraberritzea

Lurralde honetako eskola publikoaren bilakaera definitzen duen ezaugarri inportanteena euskarak irabazitako eremua da, gutxika-gutxika hezkuntza sare honen eraberritzea ekarri duena.

EAEko Autonomia Estatuaren 16. artikulua unibertsitatez besteko irakaskuntza arautzeko gaitasun osoa eman zion Eusko Jaurlaritzari, Konstituzioak gobernu zentralarentzat gorde zituen eskumenak izan ezik²¹. Estatuak adierazitakoari jarraiki,

²⁰ Arrazoi ugari tartean direla, Nafarroako euskal nazionalismoan nolabaiteko batasuna kausitzen da administrazioari egoztean euskarazko irakaskuntzaren egoera tamalgarriaren erantzule izatea. 1986ko Euskararen Foru Legea da, zalantzarik gabe, kritika gehien jasotzen duena, haren arabera, euskara eremu euskaldunetan bakarrik baita hizkuntza ofiziala, eta horrek izugarritzko trabak jartzen baitizkio eskola publikoaren euskalduntze prozesuari, eta eragotzi egiten baitu eremu erdalduneko ikastolaren jarduna. Horri guztiari nafar administrazioa nazionalismoaren eskuetan sekula egon ez izana gehitu behar zaio. Horrenbestez, ezin esan daiteke, gaur egun, Nafarroako eskola publiko euskalduna eta ikastola *lehiakide esplizitu* bihurtu direla nazionalismoaren diskurtsoan. Gai hori astiroago aztertu dut beste idazlan batean (Mateos Gonzalez, 1999).

²¹ 80 eta 90eko hamarkadetan zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza sistemaren garapena gobernu zentralak ebatzitako hezkuntza legeriaren menpe gauzatu da. Lege nagusiak 1985eko LODE (Hezkuntza Eskubidea Antolatze Lege Organikoa) eta 1990eko LOGSE (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Lege Organikoa) izan dira, PSOEk bultzatuak biak. LODEk Espainiaren hizkuntza eta kultura ugartasunarekiko begirunean hezi beharra ezarri zuen, eta autonomia estatutuaren hezkuntza eskumenak onarturik zituzten erkidego autonomoei ahalmena eman zien legearen edukiak gara zitzaten. Gobernu zentralari egokitu zitzaizkion, alta, titulu akademikoak

1981eko Urtarrilean eskuratu zituen gobernu autonomikoak hezkuntza arloko eskumenak, eta ordutik aurrera, lege mailako hainbat arautegi kaleratu izan dira, Estatutuak berak dioenez, hezkuntza sisteman elebitasunaren orokortze etengabeari eusteko asmoz. Gobernu autonomikoak, horrela, derrigorrezko eskolatzea amaitu eta gero, ikaslearen aldetik hizkuntza ofizial bien ezagutza praktikoa bermatzeko neurriak hartuko zituelako konpromisoa azaltzen zen aipatu legearen 17. artikuluan. Orduan iragarritako lehen neurri biak ondokoak izan ziren: batetik, Unibertsitate Irakasle Eskoletako ikasketa plangintzaren eraberritzea, bertako ikasleen hizkuntza bien gaitasuna ziurtatzeko helburuz; eta, bestetik, hezkuntza sistemako irakasleak euskalduntzeko bitartekoak ezartzea.

Oinarrizko mailetako euskarazko eta euskararen irakaskuntza 1983an arautu zen. Euskara eta gaztelania derrigorrezko irakasgai ezarri ziren unibertsitatez besteko hezkuntza maila guztietan, eta irakaskuntza elebiduna A, B eta D ereduon arabera sailkatu zen. Laburbildurik, hauexek dira hizkuntza ereduon ezaugarri nagusiak: A ereduon, euskara irakasgai gisa agertzen da, eta jatorriz erdaldun den ikaslea giro euskaldunean jarduteko gutxieneko gaitasunaz hornitzea du jomuga. B ereduon irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz helarazten da. Ikasle erdaldunak euskaraz berba egiteko eta etorkizunean ikasketak euskaraz burutzeko ahalmena erdiestea du helburu. D ereduon, azkenik, irakaskuntzaren hizkuntza nagusia euskara da eta, aurrekoak ez bezala, familia euskalduneko hurrekin garatzeko pentsaturik zegoen hasiera batean. Jatorrizko hizkuntza indartzea eta euskara eskola hizkuntza bilakatzea dira, besteak beste, haren helmuga. Ereduon garapena arian-arian gauzatu behar zenez, X eredu bat aurreikusi zen, gaztelania hutsezkoa, etorkizunean desagertuz joateko pentsatua.

Deigarria izan da, izan ere, hizkuntza ereduok sare publikoaren oinarrizko irakasmaitetan jaso duten bilakaera. X ereduari dagokionez, 1982/83 ikasturtean, ikastetxe publikoetako ikasleen %30,1 hartzen zuen, baina, 1990/91tik aurrera, ez da egon ikaslerik eredu horretan matrikulaturik. A ereduari dagokionez, ikasleen %56,8 biltzen zuen 1982/83an, eta hamar urte iraganik, hots, 1992/93 ikasturtean, portzentaia hau %43,2koa zen. Ondorioz, B eta D ereduon ere aldaketa nabarmena somatu da: 1982/83 ikasturtean ikasleen %12,8 biltzen zuten eredu bi hauek, eta 1992/93an, aldiz, %56,7 zegoen beraietan matrikulaturik. Azken datu hau are esanguratsuagoa da kontuan hartzen baldin badugu D eredu bereziki eskolaurrean hazi dela urtez urte, eta horrek iragartzen digu, denbora pasatu ahala, horixe izan daitekeela eredu nagusia. Ikus dezagun adibide bat. 1985/86 ikasturtetik 1989/90era bitarte, eskolaurreko B ereduak %40,6tik %47,1era igo zuen; D ereduak, oster, %13,2tik

ematea eta homologatzea, Ikuskaritza Gorena, eta estatu osoko irakaskuntzaren oinarrizko edukiak ezartzea. Ikusmolde hori bete-betean errepikatu zen LOGSEren baitan, baina, aurrekoan ez bezala, zehaztuago agertu ziren irakaskuntzaren hizkuntza helburuak, gaztelania eta autonomia erkidego bakoitzeko hizkuntza ofizialak maila berean jarritz.

%24,3ra igo zuen. OHOn, bestalde, B eredia %14,1etik %29,1era iragan zen, eta D eredia %7,4tik %12,1era²².

Eskola publikoan euskarazko irakaskuntza abian jarri zelarik, administrazio autonomikoak eduki zituen arazo larrienetako bat irakasle euskaldun gabezia izan zen. Zenbait maisu-maistrak euren kabuz ekin zioten hizkuntza gaitasun egokia lortzeari; beste batzuk Unibertsitate Eskoletan euskarazko ikasketak buruturik bertaratu ziren; baina gehienak administrazio autonomikoak irakasle goa euskalduntzeko ezarritako plangintzaren bidez euskaldundu dira. Inportanteena *Irale* izenekoak izan da, zeinak hezkuntza sistema osoko -eta batik bat sare publikoko- irakasleak euskalduntze edota alfabetatzea baitzeukan helburu. 1985etik 1990era bitarte, esate baterako, hamazazpi mila irakasle baino gehiagok hartu zuten parte plan hartan, batzuek lanegun osoz, besteek lanegun erdian, beste batzuek uda partean, eta abar. Eta gehien-gehienak, esan bezala, ikastetxe publikoetakoak, irakasmilla ertainetakoak barne. Arlo honetan ere emaitzak ez dira makalak izan. Oinarrizko irakaskuntzari dagokionez, aipatu 1983an, adibidez, nola edo halako irakasle euskaldunen portzentaia %22koa zen. Orduetik aurrera, EGA (Euskara Gaitasun Agiria) jarri zen euskara edota euskaraz irakasteko baldintza bezala, eta, ondorioz, euskalduntzen edota alfabetatzen zebiltzaten irakasle askok aipatu agiria eskuratzea hartu zuten helburutzat. Urte bi geroago -hots, 1985ean-, eskola publikoetako irakasleen %28,2 EGAdun zen; 1988an, kopurua %36,6koa zen, eta 1990ean, %41,81era heldu zen. Aldaketa zinez ohargarria, aintzat hartzen badugu 1976/77 ikasturtean EAeko eskola publikoetan irakaskuntza euskaraz helarazteko gai ziren irakasleen kopurua %5ean jartzen zela. Irakasleen hizkuntza gaitasun egokia ahalbidetzeaz gain, Hezkuntza Sailak mota ezberdinetako egintzak bideratu ditu urteotan zehar euskarazko irakaskuntzaren inguruan eta eskoletako eguneroko jardunean euskara txertatzeko helburuarekin; hala nola, ikasliburu eta ikus-entzunezkoak ekoiztu, edota ikastetxeetako errotulazio elebiduna arautu.

Hala ere, eskola publikoaren euskalduntze prozesua ez da izan ekimen administratibo hutsa, eta aipatu urteotako eskola publikoan euskarak irabazi duen gero eta presentzia handiagoa, administrazioaren zereginaz gain, dudaezineko zorretan dago irakasleen eta ikasleen gurasoen ahaleginekin. Hainbat eskolotako D ereduaren finkapena, adibidez, sektore bi horien presioaren ondorio bezala ulertu beharko litzateke, sarritan Hezkuntza Sailaren planteamendu uzkurak gainditurik ere.

Hain zuzen ere, irakastereduen ezarpen politika izan da -eta oraindik ere bada- EAeko administrazio autonomikoaren eta sektore abertzale/euskarazaleen arteko ika-mika gehienen iturri. Era horretara, Nafarroako euskarazko irakaskuntzak jasotzen dituen

²² Eskola publikoetako euskarari buruzko datuak aurkeztean, 1982/83 ikasturtea hartu dut abiapuntutzat, alegia, Euskararen Erabilpenerako Arauzkotezko Legearen ebazpenaren ostekoa, baina aurretik ere, 1979/80 ikasturtez geroztik, alegia, euskara eta euskarazko irakaskuntzarako urrats apalak ematen hasi ziren, gobernu zentralak kaleratutako Elebitasun Dekretuari jarraiki. Kontuan hartu behar da, halaber, aurkezten ari naizen datu apur hauek 90eko hamarkadaren lehen urteak baino ez dituztela barnehartzen Euskal Eskola Publikoaren Legea ebatzi zen urtea baitugu azterketa honen muga kronologikoa. EAeko sare publikoaren bilakaeraren datuetarako, honako hauek ikus daitezke: (Espartza, 1993), (Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Erakundea, 1990); (EUSTAT, 1994).

errotiko eragozpenak legeriari berari egozten zaizkiola esan dudan modu berean, EA Eren kasuan unean uneko gobernuaren borondate politikorik eza jo ohi da oztopo nagusitzat, zeren eta, euskal erakunde nazionalisten esanetan, legalki, gauzagarri litzateke hizkuntza politika erabat ezberdina bultzatzea. Alta, administrazio autonomikoak, askatasun faltsu baten izenean eta tokian tokiko egoera linguistikoa aitzakia gisa erabiliz, sare publikoaren benetako euskalduntzea eragozten duela salatzen dute erakunde abertzale gehienek; ez guztiek, haatik.

Horrez gain, kontuan hartu behar da euskarazko irakastereduen ezarpen politika jakin batek ondorio zuzenak dituela irakaslearen lan baldintzetan -irakasle erdaldunen kasuan, bereziki-, lanpostua koloka atzeman dezakete eta. Auzi honek are gehiago mikazten du eztabaida, euskal nazionalismoaren eraginpeko ez diren irakasle sindikatuak tartean daudenean batez ere. Mugimendu nazionalistaren baitan orokortzen den jarrera da irakasleen euskalduntzea administrazioaren erantzukizuna dela, baina, logikoki, sindikatuak dira haien lan eskubideez kezkatuen agertzen direnak. Hala ere, J. Mezoren iritziz, zio ugari direla eta, irakasleria guztiz kontziente da euskara ikasteko beharraz, eta horretara bideratzen duen ahalegina eskari sozialaren arabera dela eta, gainera, laguntza eskerga duela zeregin hori bete ahal izateko. Hortaz, irakasle sindikatu gehien-gehienak, abertzale izanda edo ez- bat datoz irakasleen arian ariko euskalduntzarekin, halako moldez non, haren esanetan, Hezkuntza Sailaren hizkuntza politikak ez baitu sakoneko oposiziorik jaso (Mezo, 1996: 586-587).

Izatez, emaitzak ikusita, prozesua nahiko arrakastatsua izan dela esan daiteke, zeren eta zeharo barneratuta dago -bai hezkuntza sarean, bai gizartean-, eskola publikoaren etorkizuna euskaraz garatuko dela, eta, beraz, hezkuntzaren euskalduntze prozesuaren oldarra bigundu edo moteldu gura duten taldeak, halaberrez eta kritika ugari eginez ere, ekidinezineko etorkizun horretara moldatzen ari direla.

Eskola publikoaren euskalduntzeak dakarren problematika zabalari begira hobetsitako jarrerak edozein direla ere, harreman estuan daude aurretik aurkeztu ditudan euskarari buruzko ikuskerekin, batetik; eta bestetik, talde abertzale bakoitzak hezkuntzari buruz duen jarrera eta diskurtso orokorraren parte dira, derrigor. Erran nahi baita, euskal mugimendu nazionalista *osoak* ez du ikusten modu berean eskola publikoaren azken urteotako ibilbidea. Hala, eskola publiko *eraberritu* baten aurrean gaudela iragarri dut nik, eta, izari berri hori frogatu guran, saiatu naiz zenbait datu azpimarratzen, betiere euskarak sare publikoan eduki duen garapenaren inguruan. Euskaraz gain, bestelako aldaerak ere har litezke aintzat eskolaren eraberritze horretan. Horien artean, eta aipatu 1990eko hauteskunde sindikalen emaitzen arabera, esanguratsua deritzogu aztergai ditugun hiru sindikatu abertzaleek sare publikoko langileen botoen %47,3 bildu izanari.

Zaila da, hortaz, eskola mota hori *abertzaleentzako ezin sartuzko eremu* bezala aurkeztea, zeren eta euskal nazionalismoaren erreibindikazioak -euren artean garrantzizkoena, euskara- eskolaren jardunaren parte bilakatu dira, neurri batean bederen. Baina baieztapen hori egitean nazionalismoaren ikuskerekin egiten dugu topo, abertzale guztiek, aldaketa horietaz nola edo hala oharturik agertzen bazaizkigu ere, ez baitute baikortasun eta atxikimendu maila bera erakusten eskola

publikoarekiko. Hortaz, ustezko datu objektiboetatik harago, balorazio *ideologikoa* eta, batez ere, *politikoa* da euskal mugimendu nazionalistak eskola publikoari buruz egiten duena, eta harexeri egin gura diot jaramon, aintzat hartuta ikastola balorazio horren alde bazterrezina dela.

3.3.3. *Ikastolaren estatusa hezkuntza legeriaren argitan*

Ikastolaren arian ariko normalizazioa da hezkuntza sare honi dagokion bereizgarri nagusia. Lehenaldi batean, ikastola sareak eraketa autonomikoaren aurretik zeukan *aparteko* eskola -nolabaiteko errealitate estraofiziala- izatearen kutsua desagertu egin zen, babespen ofizial osoa eskuratzen zuen heinean. Bigarrenaldian, presio eskerga jasan zuen hezkuntza sistemaren antolaketa normalizatuaren parte izan zedin, eta bere burua irakaskuntza pribatuan ala publikoan kokatzera beharturik geratu zen.

EAEko Estatutuak bilduko zituen hezkuntza eskumenak artean zehaztu gabe zeudelarik, lurralde horretako eraketa aurreautonomikoko organo gorena zen Eusko Kontseilu Nagusiak *Ikastolen Titularitate Publikoaren Arautegia* onetsi zuen 1979ko Urrian. Zabal hedaturik zegoen eta ikasle kopuru esanguratsua biltzen zuen ikastola sareari behin-behineko irtenbidea eman zitzaion horrela, arazo ekonomikoak koloka jartzen ari baitziren ikastola askoren biziraupena²³. Arautegi horren arabera, halaxe erabakiko zuten ikastolek beren titularitatea eta ondareak administrazio autonomikoari igorri behar zizkioten. Horrez gain, administrazioak ezarritako arau orokorretara -matrikulazioari, eskola postuen plangintzari edota kontrol ekonomikoari zegozkienetara, besteak beste- moldatu beharra zuten.

Ondorio praktiko askotan, beraz, ikastola gehienak zentro publiko bezala arituko ziren, baina, juridikoki, hirugarren sare bat osatu zuten, ikastetxe *publiko ez-estatal* bilakatu baitziren; hots, zentzu estuan publiko edo pribatu ziren ikastetxeetatik bereizirik. Ikastolak, halaber, *ikastola* bezala mantendu ziren eta, adibidez, barne antolamenduak eta euren arteko koordinazioak bere hartan jarraitu zuten oso-osorik. Egoera bitxia zen hura, dudarik gabe, eta ordutik aurrerako urteetan administrazio autonomikoa ikastolen erabateko estatus juridikoa ezartzen saiatu zen. Saio hori ez da izan norabide bakarrekoa; administrazioaren baitako indar politikoaren arteko oreka ezberdinak, ordea, baldintzatu du hein handiz.

²³ Gorago ikusi bezala, frankismoa amaituta ez zen gelditu ikastolen hazkuntza, alderantziz baizik. Izan ere, 1975etik 1982ra jazo zen ikastoletako ikasleen kopuruaren gehikuntza nabarmenena. Hartara, 1975/76 ikasturtean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastoletan 33.371 ikasle zeuden matrikulaturik, eta aipatu arautegia indarrean jarri zenean, alegia, 1979/80 ikasturtean, kopuru hura 51. 146ra heldu zen; eta 1981/82 ikasturtean 63. 754 ikasle zeuden ikastetxe hauetan. Urte horietako ikastolen azterketa koantitatiboa aurki daiteke, besteak beste, in (Garagorri eta Egilior, 1983: 38 eta hur). Datu absolutuetan, aipatu urteotan gertatu zen hazkuntza inportanteena, baina 80ko hamarkadan zehar gertatutako jaiotze tasaren itzelezko beherakada aintzat harturik, ikastola sareak ez du eskola publikoak beste ikaslerik galdu. Izatez, irabazi ere egin ditu haren aldean. Bada, 1982/83 ikasturtean, EAEko ikasleen %50 oinarritzko irakaskuntzako ikastetxe publikoetan zegoen, baina, 1992/93an, %40ra baizik ez zen heltzen. Ikastolei dagokienez, ordea, 1982/83 ikasturtean ikasleen %12 biltzen zuten, eta 1992/93an kopurua %20koa zen. Ikastoletako ikasleak era ezberdinez banatzen ziren lurraldeka. Araban, ikastolek OHOkko ikasleen %10 barnehartzen zuten; Bizkaian %13; eta Gipuzkoan, azkenik, %37,5.

Autonomia Estatutua indarrean jarri osteko lehen legealdian, EAJk, nagusitasun politikoa zeukanak, EIKE (Euskal Ikastolen Erakundea) izeneko proiektua bultzatu zuen 1983ko Uztailan. Proiektuaren alde zein kontra aritu zirenek erabili zituzten argudioetan, urte hauetan guztietan ikastolaren publifikazioaren inguruan gorpuztu den eztabaidaren zenbait puntu nagusi kausi ditzakegu. Lege horren zioen adierazpenean, ikastolari herri ekimen izatea ezagutzen zitzaion, euskarak eta euskal kulturak pairatutako jazarpenari -edota, kasurik onenean, utzikeriari- emanikako erantzunaren fruitu. Lege hura ikastolaren egoera atipikoa bere onera ekartzera eta marko juridiko egokia eskaintzera zetorrela zioen, ezen ikastola bultzatu zuten gurasoek ez zuten aukerarik eduki hezkuntza pribatua edo publikoa hautatzeko. Ikastolei men eginez horrela, haiek bilduko zituen nortasun juridiko propioaren entitate sortzen zen, EAEko administrazioaz bestekoa, baina Hezkuntza eta Kultura Sailari erantsia. Ikastolei hiru urteko epea eman zitzaion EIKEren baitara biltzeko, eta bestela erabakiz gero, sare pribatuari zegozkion hitzarmenen arabera jardungo zuten. Hala ere, trantsizio egoera zela ohartarazten zen, eta Euskal Eskola Publikoa eraikitzeko iraganbidean markoztatzen zen, beraz, ikastolaren izaera juridiko berri hura. Ikastolen Elkarteak erabateko adostasunik erakutsi ez zuen arren, une hartan lor zitekeen irtenbiderik onena jo zuen EIKE, ez baitzuen uste artean posible zenik ikastola eta eskola publikoa bilduko zituen sare bakarra egitea.

Proiektua errefusatu zutenen aldetik, ostera, EAJri sare publiko paraleloa egin gura izatea aurpegiaratu zioten. Komunitate bikoiztasuna areagotzea eta euskara ghetorra zokoratzea izango ziren ondorioak, euren esanetan. Beraz, Euskal Eskola Publikoaren bidea jorratu beharrean, haren eraikuntzarako eragozpenetat jo zuten EIKE²⁴. Legea EAJren bozekin aprobaturatu zen Eusko Legebiltzarrean, oposizioko alderdi politikoko guztiek gaitzetsi arren. Alabaina, gobernu zentralak errekurtsioa jarri zion EIKEren legerari, Konstituzioaren aurkakoa zelakoan, eta indargabeturik geratu zen. Urte batzuk geroago, 1986an, Epaimahai Konstituzionalak arrazoia eman zion Eusko Jaurlaritzari, baina legea ez zen inoiz praktikan jarri.

Arestian esan bezala, 1985ean ebatzi zen LODE hezkuntza legea. Hark hiru ikastetxe mota bereizi zituen: publikoak, pribatuak eta pribatu kontzertatuak (hots, jabetza pribatukoak baina dirulaguntza publikoz hornituak). Azken horiek, aginte publikoarekin adostu behar zen hitzarmenaren arabera, legeak ezarritako jarduerara baldintzetara egokitzen ziren, adibidez, ikasleen irispiderako arauak, irakasleen ordainketa ordezkaria eta zuzendaritza organoak ezartzen zituztenetara. Kasuan kasuko administrazioak, ordainez, irakaskuntzaren doakotasun osoa bermatu behar zuen eta, hartarako, administrazio zentralak ezarritako zuten urtero eskola unitate bakoitzari zegokion modulo ekonomikoa. Ordutik aurrera, ikastolek lege honek ezarritako *ikastetxe pribatu kontzertatu* gisa jardun zuten, baina egoera *atipikoak* bere hartan segitu zuen, nola edo hala, hirugarren sare bat osatzen jarraitu baitzuten. Gorago aipatu barne antolamendu eta koordinazioaren jarraipenaz gain, administrazio

²⁴ Legea 1983ko Abuztuaren 6ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara. EIKEren defendatzaileen (alegia, Eusko Jaurlaritza eta EAJ, eta neurri apalago batez, Ikastolen Elkarteak) eta kontrako iritzien bilduma aurki daiteke Jakin aldizkariak egindako monografikoan (Jakin, 1983).

autonomikoak berak halaxe tratatzen zituen ikastolak, esate baterako, dirulaguntzak bideratzeko orduan²⁵.

EIKE legeak ezarritako irtenbidearen kontra, Euskadiko Ezkerrak lege proposamen bat landu zuen, Eusko Legebiltzarrean aurkezteko asmoz. Bertan, EIKEn integratzeari uko egin ziezazioketen baina sare pribatua geratu nahi ez zuten ikastolei sare publikoarekin bategiteko aukera eskaintzen zitzaion. Proposamenaren testuan, beraz, administrazio autonomikoak ikastetxe horien doakotasuna bermatzen zuen eta, ordainez, euren titularitateaz jabetzen zen. Azpimarratzekoa da aipatu proposamenak ikastolen hizkuntza erduei eutsi beharra adierazten zuela eta, halaber -esplizituki baieztan ez zuen arren- aditzera ematen zuela ikastola gisa, hots, irakasleak eta ikasleak sare publikoko gainerako ikastetxeetan sakabanatu gabe, jarraituko zutela (Euskadiko Ezkerra, 1983a). Espero zitekeenez, proposamena tramite parlamentarioan aurrera egin ezinik gelditu zen, bozkatua izatera heldu barik, alegia.

Ikastolek, beraz, antzetsu jarraitu zuten 1987ra arte, noiz osatu baitzen EAJ eta PSE-PSOEren arteko estraineko gobernu koalizioa. Ardura banaketa egin zenean, Hezkuntza Saila Alderdi Sozialistari egokitu zitzaion, eta R. Rekalde Hezkuntza sailburuak Ikastolen Elkartearekin negoziatzera jo zuen. Hartueman haietatik, 1987ko Abenduaren 18an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Ikastolen Elkartearen arteko hitzarmena sinatu zen. Testuak zati bi ditu: politikoa eta ekonomikoa²⁶. Zenbaiten iritziz, akordioaren eragile nagusia arlo ekonomikoan premia larria zuten arazoei aurre egitea izan zen eta, beraz, ez zuen aldaketa esanguratsurik ekarri (Basurco, 1995: 201-202). Izatez, ikastolak oso-osoan finantzatzea ezarri zen; hau da, euren kostu errearen arabera eta ikastetxe publikoentzat erabilitako irizpide beretsuekin²⁷. Baina hitzarmenaren testu politikoak kontuan hartu beharreko zenbait ñabardura garrantzitsu azaldu zituen. Lehenik eta behin, *ikastola* izenak zein ikastetxe mota barnehartzen zuen zehaztu gura izan zen; argi eta garbi utziz, horrela, trataera mota hura Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen Federazioen baitan zeudenek bakarrik jasoko zutela; hots, etorkizuneko Euskal Eskola Publikoarekin bategiteko borondatea azaldu zutenek²⁸. Bigarrenik, alde biek onartu zuten Euskal Eskola

²⁵ Hain zuzen ere, ustezko pribilegiozko trataera horretaz kezu agertzen dira, behin eta berriz, zenbait talde eta alderdi politiko urte hauetan zehar, ezarritako modulo ekonomikoak errespetatzen ez direla argudiatuz.

²⁶ Hitzarmenaren testu osoa ikus daiteke, adibidez, in (LAB, 1988: 6-7).

²⁷ Ikastolen *gainfinantzazioa* izango da, horrenbestez, aztertzen ari garen prozesuaren azken aldia gai eztabaidatuenetako bat, auzitan baitzegoen sare publikora biltzeari uko egingo zioten ikastolek administrazioari itzuli beharko zioten ala ez ikastetxe publiko gisa jasotako dirulaguntza estra hura. Ikastola sarearen urte hauetako finantzazio politikari buruz (ik. Mezo, 1996: 308 eta hur.).

²⁸ Ñabardura hori egiteko bazegoen ziorik, egon ere, zeren berriki sortua zegoen EIB (Eusko Ikastola Batza), sare pribatua aritzea hobetsi zuten ikastolen elkartea, alegia. Hamar mila ikasle barnehartzen zituen ikastola hamarkada batek osatu zuen sare hau, eta egun ere horrela antolaturik segitzen dute. Ikastola sare horren ibilbidea ez dugu idazlan honetan aztertuko, publikazioaren inguruan sortutako gatazkatik at egon baitzen. Hain zuzen ere, talde abertzaleak, ikastolaren etorkizunaz eztabaidatzen dutenean, Ikastolen Elkartek barnehartzen dituen ikastetxez aritu ohi dira, EIB sareaz inolako aipamenik egin gabe.

Publikoa arautzeko egitasmoaren beharra, baita honek edukiko zuen filosofiaren gutxieneko ideia batzuk aurreratu ere; beste batzuen artean, hezkuntza sistema sare bitan antolatzea eta etorkizuneko euskal eskola publikoa ikastetxe batzuen irenstean ez oinarritzea. Bestela esanda, euskal eskola publikoa ikastola eta sare publikoaren arteko bategitearen emaitza izango zela adierazten zen.

Hurrengo urtean, lege mailan islatu ziren emandako urrats berriak. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema birrantolatzeko asmoz, 1988ko Ekainaren 29an *Ikastolak eta Herri-Eskolak biltzeko Legea* ebatzi zen²⁹, eta abiaburu bi adierazi zituen: batetik, orduko hiru hezkuntza sareak kontuan harturik, sare publikoa eta pribatu bakarra osatu beharra; eta, bestetik, ikastola gehienek ikastetxe publiko bilakatu nahia baieztu izana. Hezkuntza markoa sare bitan birrantolatzea, hartara, sare publikoak eta ikastola sareak bategiteko prozesuan zetzan, emaitza Euskal Eskola Publikoa izaki. Helmuga honetan, eztabaida soziala bultzatuko zela agintzen zen eta, bertan, Ikastolen Federazioak parte hartuko zuela, gainerako hezkuntza agente sozialekin batera. Iraganbide hartan, alegia, ikastolak ikastetxe publiko bete-betean izatera iritsi arteko denboran, Hezkuntza Sailari ikastola bakoitzarekin itunak sinatzeko ahalmena ematen zitzaion, 1987ko Abenduaren 18ko hitzarmenean adierazitakoari eusteko asmoz. Filosofia mailako helburuak albo batera utzita, aipatu legearen oinarri-oinarrian ikastolaren jabetzaren igorpena ezartzen zen. Ikastolaren titularrak, horrela, EAEko Administrazioari -Oinarrizko Irakaskuntza Orokorretik gorako ikasketak bakarrik burutuz gero- eta tokian tokiko udalari -gainerako kasuetan- igortzen zioten instalazioen eta ondasun higiezinaren jabetza. Ordainez, Hezkuntza Saila 1987ko Abenduaren 18 aurretiko zorren kitapenez kargutzen zen, baita irakasle eta irakasleez besteko soldaten gastuez ere. Eskola publikoekin erabilitako irizpideen gaindikako kostuaz ere arduratzen zen, argi utzirik ikastolen eta Hezkuntza Sailaren borondatea zela balia bideok irakaskuntza publiko osoaren laguntzarako erabilgarri izatea. Aurreikusten zen eskola sistemaren birrantolaketa indarrean jarrikerik, ikastolek, behin-betiko integrazioari uko eginez gero, hitzarmena betetzeko erabilitako dirulaguntza administrazio autonomikoari itzultzeko konpromisoa adierazten zuten. Administrazioak, bere aldetik, 1987ko Abenduaren 18ra arte ikastolak edukitako lerro kopurua eta hizkuntza ereduak errespetatuko zituela agindu zuen. Ildo beretik, ikastolaren kudeatze organoen ahalmenek eta ikastolen ordura arteko marko legalak -alegia, EAEko ikastetxe kontzertatu estatusak- berdin jarraituko zutela esaten zen.

Markoa Espainia mailan ebatzitzeko hezkuntza legeari zegokion, ikusi bezala, eta 1990eko LOGSEk ez zion aldaketa esanguratsurik ekarri ikastolen egoera juridikoari, aurreko LODEk azaldutako filosofia berari eutsi baitzion; hots, hezkuntza zerbitzu publiko bat dela ezarri, espainiar hezkuntza sistema ikastetxe publiko, pribatu eta pribatu kontzertatuez osaturik ulertzen zuen. Nolanahi ere, EAEko ikastolen %90 bat egokitu zen legearen esanetara; eta, gainerakoak ikastetxe pribatu edo pribatu kontzertatu bezala aritu ziren handik aurrera.

²⁹ 1988ko Abuztuaren 6ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara. Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzu Nagusiak liburu modura kaleratu zuen, lege-liburu bildumaren barruan. Ikus (Eusko Jaurlaritza, 1988).

Legealdia amaitzeaz zegoela, Hezkuntza sailburuak Euskal Eskola Publikoaren Lege Zirriborroa kaleratu zuen, agidanez, alderdi politiko gobernukideen artean adostu barik. Euskal Eskola Publikoaren titulartasuna EAEko administrazioari egokitzeaz gain, haren kudeaketari, euskalduntzeari, helburu pedagogikoei eta abarreko arloei buruzko gogoeta egiten zen bertan, baina hitz bat ere ez zen agertu ikastolak sare publikoarekin bategiteko bidez³⁰. Horrenbestez, Euskadiko Eskola Kontseiluak, zirriborroari buruz azaleratu zuen diktamenean, onartu egin zuen sare publikoa zela lehenbailehen arautu beharra zuena eta orduko hezkuntza sareen balizko antolaketatik harago zihoala. Hala ere, ikastola sareari eman beharreko irtenbide juridiko egokia aurkitzeak prozesu hura erabat baldintzatzen zuela adierazi zuen, Euskal Eskola Publikoaren Legeak hezkuntza sistema osoa arautu behar baitzuen. Eskola publikoaren birrantolaketa sare publikoa eta ikastola sarearen arteko bategitean zetzala baieztu zuen, eta, hartara, Hezkuntza Sailari ikastoletako irakasleen etorkizuneko funtzionario estatusa eskuratu ahal izateko neurriak aurreikus zitzala aholkatu zion, adibidez³¹.

Hauteskunde autonomikoen ostean, EAK, EAJk eta EEk osatu zuten gobernuan, Hezkuntza Saila EAren ardurapean geratu zen, baina koalizio haren iraupena laburregia izan zen emaitza esanguratsurik ekar zezan. Bada, 1991n, LOGSE indarrean jarri eta handik urtebetera, osatu zen berriro EAJ eta PSE-PSOEren arteko gobernu koalizioa, gorago aipatzen genuen EEren partaidetza murriztarekin. Aurreko legealdian bezala, Hezkuntza Saila PSE-PSOEren ardurapean geratu zen, baina haren eta Ikastolen Elkartearen arteko harremanak nabarmen gaiztotzen hasi ziren. F. Buesa Hezkuntza sailburuak eginkizun nagusitzat hartu zuen EAEko hezkuntza sistema arautuko zuen legea aurrera ateratzea. Helmuga horrekin adostu zuten hiru alderdi politikoek *Eskola Itunerako Akordio Politikoa*, 1992an.

Sinatzaileen aburuz, herritarrek hiru hezkuntza sare egotea, eta hark zekarren trataera juridiko-administratibo berezia, gai inportanteenak zirela iritzi arren, ikastolen egoera ez zen hezkuntza sistemaren arazo bakarra. Era hartara, dokumentuak egokitu beharra zuten alde nagusiak azaleratu zituen: hezkuntzaren finantzazioa, LOGSEk ezarritako ikastetxeen birdefinizioa, ikastetxeen jardueraren autonomia, hizkuntza politikaren irizpideen zehaztapena eta ikastolaren konfluentzia prozesua burutzea. Azken honi zegokionez, hezkuntza sistemaren normalizaziorako oinarriak ezarriak zeudela baieztatu zen, eta, beraz, hura sare bakar bitan eratuko zela eta trantsizio egoerari amaiera emango zitzaioela, horrela. Ikastolei konfluentziari buruzko erabakia hartzeko epea amaitzen zitzaielarik, zegozkion neurriak hartuko zirela ohartarazten zen, sare pribatuko gainerako ikastetxeek bezalako trataera jaso zezaten (ik. EAJ-PNV/ PSE (PSOE) / EE, 1992).

Dudaezineko garrantzia eduki zuen delako akordio politikoak, estraineiko aldiz bazterturik geratu baitziren EAEko alderdi politiko nagusi bien artean ordura artean izandako desadostasunak, zenbaitetan agerian eta beste batzuetan ahopeka garatu

³⁰ Ikus aipatu lege zirriborroa in (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 1989).

³¹ Delako diktamena liburu modura argitaratua izan zen. Ikus (Euskadiko Eskola Kontseilua, 1989).

zirenak. Akordiorik eza, funtsean, ikastolari eman beharreko irtenbideari zegokion, arazo hura baitzen -itunaren sinatzaileek eurek aitortzen zuten- hautsak harrotzen zituen gai nagusia.

Hartara, aipatu dokumentuak iragarritako bidea hurrengo urtean bete zen, 1993ko Otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen ebazpenarekin Ikus (ik. Eusko Jaurjaritza, 1993). Eskola Itunak esan bezala, legeak hezkuntza sistemaren erabateko antolaketa zuen helburu, eta hainbat alde barnehartu zuen³².

Ikastolen estatus juridikoari begira, legearen zioen adierazpenetan, azaltzen da ikastolak Konstituzio-aurreko aldiaren sortutako ikastetxeak direla eta maiz botere publikoak konpondutako zailtasun ekonomikoekin jardun dutela. Ikastola askok 1988ko Konfluentzia Legeak ezarritako itunei eutsi diete. Egun, ikastolek askatasuna daukate sare publikoarekin bategiteko edo ikastetxe pribatu gisa behingoz geratzeko, hezkuntza sistema, horrela, behin betiko eta *anbiguotasunik gabe* sare publikoan eta pribatuan oinarri dadin. Horrenbestez, Erabaki Gehigarrietan hiru hilabeteko epea eman zitzaion ikastolei euren hautua gauza zezaten: epe horretan aukerarik adierazi ezik, konfluentziari uko egiten ziotela ulertuko zen. Aurreko arautegietan ez bezala, Ikastolen Elkartea ez zen agertzen ikastolen egoera negoziatzeko interlokutore bezala; aldiz, ikastola bakoitzak *banan-banan* hartu behar zuen unean uneko erabakia, inolako tartekaritzarik gabe.

Delako legearen barnean ikastolaren estatus administratiboari buruzko hausnarketak bete zuen lekua zeharo murrizta izan zen. Izatez, ezein artikuluk ez zuen gai hura mamitzat, eta erabaki gehigarrietara mugatu zen ikastolarentzat aurreikusten zen

³² Agian, eztabaidatuena hezkuntza sistemaren euskalduntzea (irakastereduen ezarpena eta irakasleen hizkuntza perfilak) eta ikastetxe publikoen autonomiaren ingurukoak izan ziren. Gai hauek eta beste batzuek hezkuntza arloan piztu zuten eztabaidaren zenbait ildo agertzen dira Euskadiko Eskola Kontseiluak Euskal Eskola Publikoaren Legeari egindako diktamenean (Euskadiko Kontseilu Nagusia, 1993).

egoera berria. Baina, esan bezala, horixe izan zen EAEko gizartean eta bertako mugimendu abertzalearen baitan iskanbila gehien sorrarazi zuena.

4. IKASTOLEN PUBLIFIKAZIOAREN INGURUKO GATAZKA

Azken urteotako euskal nazionalismoa eta eskola publikoa harremanetan jartzeak *ikastolaren publikazioa* deritzon prozesuaren azterketa dakar, ezinbestean. Izen hori jartzen diot ikastolak sare publikoarekin bategiteko jaso duen etengabeko presio eta ekinbide multzoaz osatutako prozesuari. Mota askotakoak izan dira ahaleginok, bai administrazioaren aldetik eta baita mugimendu abertzalearen aldetik ere. Iraganbide hau bultzatzeko zio nagusietako bat eraketa politiko berritik ondorioztatutako eskola publikoaren eraldaketa izan da. Euskal mugimendu nazionalistak eskola publikoaz egiten duen balorazioa ideologikoa eta politikoa dela esan dut, eta gauza bera gertatzen da ikastolaren etorkizuna hizpide delarik.

Eztabaida, maiz adierazi bezala, ez zen aipaturiko legearen inguruan bakarrik gorpuztu. Hain zuzen ere, 1979tik 1993ra doazen hamalau urte horietan zehar, abertzaleen hezkuntza diskurtsoaren errotiko galdera *zer egin ikastolarekin?* izan da. Galdera horri emandako erantzunetan, apurka-apurka bereiziz joan dira ikuskera nazionalistak, eta frankismoaren garaian lortutako adostasun handia ahuldu egin da. Hala eta guztiz ere, adostasunaren ahuldadeak ez du ekarri euskal mugimendu nazionalistaren erabateko apurketarik hezkuntzaren zeregina irudikatzen orduan; denak abertzale diren neurrian, nolabaiteko komunitasuna ere kausi baitaiteke euren artean. Adostasunak eta desadostasunak itzelezko konplexutasunez gurutzatu dira elkarrekin prozesu honetan zehar, eta zinez zail suertatzen da, sailkapen erabakigarriak egiteko asmoz, ildo edota gai bakarraren arabera lerratzea ikuskera nazionalista guztiak.

Hiru zatitan bereiziko ditut ikastolaren publikazioa deitu dudana prozesu honen inguruan euskal mugimendu nazionalistak garatu dituen ekimenak. Lehenik eta behin, abertzaleek publikotasunari buruz iragarri dituzten diskurtsoak ikusiko ditugu; gerora, gogoeta egingo dugu eskola publikoa eta ikastolaren arteko osagarritasuna ulertzeko eraz; eta, finean, diskurtsoetatik harago joanda, edota hauekin batera, mugimendu abertzalearen baitan hobetsi diren irtenbide diferenteen ondorioz, arian-arian gorpuztutako era askotako aurkamendu eta aliantzen zioez hausnartuko dugu.

Nolabait esanda, beraz, *eszenario* bera dut aztergai, baina *foku* ezberdinak erabiliz, alde bat edo bestea nabarmenduz arituko naiz.

4.1. Publikotasunari buruzko diskurtsoak

Ohikoa da ikastolen publikazio prozesuaren sakoneko eztabaida publikotasun eredu kontrajarri biren arteko gatazka izan dela baiezte eta, sarritan, prozesu horretan parte hartzen duten taldeek eurek sustatzen dute irakurketa hori.

Hala ere, publikotasun kontzeptu jakin bat sostengatzeari garrantzirik kendu ezin zaion arren, hori baino konplexuagoa da esku artean dugun aztergaia. Izan ere, ikuskera ideologikoen publikotasunari buruz egiten duten irakurketaz ohartarazten genuenez, nazionalismoak berezko ekarpena egin diezaioke kontzeptu horri, indarrean dagoen estatua eta eraiki gura duen nazioa bereizteko asmoz, azkenari gizarte zibilaren izaria

emanez eta haren eraginez sortutako hezkuntza ekimenak legitimatu nahian. Horrez gain, eta euskal nazionalismora etorrira, nabaria da publikotasunari buruzko diskurtsoak errealitate batek kutsaturik aurkezten zaizkigula: ikastolarena, alegia, zeina hamarkada batzuetan zehar sare publikotik bereizirik garatu baita. Hori dela eta, ezinezkoa izan da -eta oraindik ere bada- hezkuntzaren publikotasun kontzeptu ezberdinetan sakontzea ikastola kontuan hartu barik.

Publikotasunari buruzko diskurtso jakin batek, horrela, ikastolaz -eta, ondorioz, egungo eskola publikoaz- pentsatzen dena iragartzen digu, eta, hark baldintzaturik, eztabaidaren protagonista guztiak agertzen zaizkigu, beraiek, normalean, esplizituki adierazi ez arren. Horrez gain, zenbait taldek publikotasunari buruz erakusten duten pentsamendua ez da beretsua prozesu honetan zehar, ezen bestelako aldaerek ere hartzen dute parte, hala nola, protagonisten arteko hurbilpenak eta urruntzeak, eta erakunde bakoitzaren unean uneko indarrak edota sostengu sozialak, abagune politiko jakin bat iradokitzen digutenak. Aintzat hartzekoak dira hauek guztiak, baina, logikoa denez, publikotasunari buruzko diskurtsoen funtsa ikuskera ideologikoan datza gehienbat³³. Begibistakoa da euskal mugimendu nazionalistaren baitako unean uneko eta denboran zeharreko ugaritasun ideologikoa. Hori kontuan hartuta, hezkuntzaren izaera publikoari buruzko diskurtso askotarikoa aurkitzea espero genezake. Izatez, publikotasunaren eta hezkuntzaren arteko harremanei buruzko azalpenean agertzen zitzaizkigun jarrera gehien-gehienak euskal nazionalismoak garai honetan garatutako hezkuntza diskurtsoetan islaturik daude³⁴. Oro har, bat datoz den-denak hezkuntza *zerbitzu publiko* bat delako ideiarekin, baina, abiapuntu beretsuarekin, batzuek gizarte zibilaren hezkuntza eskubideen defentsa aldarrikatzen dute; besteek, administrazioari eransten diote zerbitzu publiko horren bermea; eta, azkenik, erdibide batean geratzen direnak ere badaude, hots, publikotasuna gizarte zibilari atxikitzen dioten arren, honetatik ondoriozta daitekeen jarrera pribatuzalea gaitzesten dutenak.

Gizarte zibilaren hezkuntza protagonismoa azpimarratzen duten multzoan EAJtik HBra doan esparru zabal bat aurkitzen dugu. Beraiekin batera, Ikastolen Elkarte dago; eta zenbait intelektualek, hezkuntza sistemako partaidek eta, oro har, gogaide abertzalek osatutako nolabaiteko iritzi korronteak ere badaude.

Jarrera liberaletatik hurbilen daudenak EAJ eta Ikastolen Elkarte dira; lehena, batez ere. Hala ere, biek baieztan dute esparru publikoa administrazioaren eragin zuzenetik harago doala. EAJren kezka, horrela, hezkuntza askatasunaren bermea da. Hezkuntza sisteman agertzen diren gainerako eskubide guztiak hezkuntza askatasunaren menpe daudela dio, eta horrexek legitimatzen duela, erakunde

³³ Gogora dezagun, honen harira, lehenengo atalean esandakoa publikotasunaz hausnartzean; alegia, auzi honen inguruko diskurtsoak *normatiboak* direla, gizakia eta gizartearen arteko harremana ulertzeko era jakin batetik abiatzen baitira. Hemendik ondorioztatzen nuen hezkuntzari erants dakioken balizko izaera publikoa ikuskera ideologiko bakoitzaren emaitza dela.

³⁴ Lehenik eta behin, liberalismoak eta ezkerak osatutako multzo nagusi bi bereizten nituen eta, gerora, ezkerren baitako jarrera bi aztertzen nituen: publikotasun kontzeptu gogorra eta publikotasun kontzeptu biguna.

publikoak ez ezik, gizarte ekimenez sortutako ikastetxeak ere egotea, ikastetxe publikoen baldintza berdinetan, haatik. Bigarren motako ikastetxe hauentzat ere doakotasuna ziurtatu behar da, ezen, eskola publikoa herritar guztion diruari esker sostengatzen baldin bada, logikoa da zenbait herritarrek euren seme-alabentzat nahi duten ikastetxe mota modu askez hautatzeko eskubidea edukitzea eta, horretarako, derrigorrezkoa da faktore ekonomikoa oztopo ez izatea. Ikastetxe pribatuentzako doakotasuna bermatzen bada, eta ikastetxe publikoei pribatuek duten autonomia maila bera onartzen bazaie, eskola publiko/pribatuari buruzko eztabaida antzua dela dio EAJk.

Beldurrik eta konplexurik gabe onartu behar da, orduan, hezkuntza sistemaren aberastasuna eta, eskola publikoa administrazioaren beraren eskolatzat hartu beharrean, gizarte ekimenetik sortuak ere babestu behar ditu botere publikoak. Gizarte zibilaren protagonismo gero eta handiagoa eransten dio demokrazia sakontzeari eta, testuinguru horretan, agente publikoek duten zeregin nagusia hezkuntza arloan sortutako ekimenei laguntza eskaintzea da. Dena dela, hezkuntzaren kudeaketaz eta erabakitzeko gestio organoei buruz hitz egitean, EAJk gizarte zibilaren ekimena, funtsean, gurasoen jardunera murrizten du. Proposatzen duen Euskal Eskolaren ereduak, hortaz, ekimen pribatua eta plangintza soziala orekatu behar ditu, baina oinarria, betiere, gurasoen borondatearekiko begirunea izan behar da³⁵.

EAJren publikotasun kontzeptua antzetsua izan da urte hauetan guztietan; Ikastolen Elkartearen diskurtsoari, berriz, nolabaiteko bilakaera somatzen zaio denbora pasatu ahala, egin dituen batzar nazionaletatik ondorioztaturiko txostenetan beha daitekeenez. Hasiara batean, euskal mugimendu nazionalistaren baitan, oro har, frankismoaren garaian nagusitu zen ezaugarripenetik abiatu zen, baina eragin hori apalduz joan da eta pentsamolde liberalarena jasoz amaitu du. Aztertzen ari garen prozesuaren lehen urteetan, *herri ekimena* nabarmentzen du ikastetxe bati izaera publikoa erantsi ahal izateko, ikastolen publikotasuna aldarrikatu guran (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 1988).

Ikastolak sare publikoarekin bategiteko administrazioaren saioak indartzen direlarik, alta, gizarte zibila eta administrazioaren esparruak bereizten hasten da. Eskola estatalek, dio, ez dute barnehartzen arlo publiko osoa, eta eskola publikoa ulertzeko tradizio bi daudela ohartarazten du: lehena, herrialde anglosaxoietan garatu dena, eta bigarrena, napoleondar antolakuntzaren eragina islatzen duena. Azken honekin batera datorren hezkuntza monopolioaren kontra agertuz, eredu *sozio-publikoari* atxikitzen dio, eta eraketa hiperburokratikoak dakarren eredu politiko-publikotik aldentzen da; ezen, publikoa, gaineratzen du, askoz hobeto mamitzen da hezkuntzaren baitan, gizarte zibilaren eragina eta partaidetza handiagoak diren neurrian (Ikastolen Elkartea, 1991: 45 eta hur.). Erakunde honen esanetan, partaidetza berri honek titulartasun berri baten bila joan beharra eragiten du, eta definizio hau zehazteari ekin zion 1992ko Batzar Nazionalan.

³⁵ (EAJ-PNV, 1987b/ EAJ-PNV, 1990) eta (Zarraoa, 1990).

Han onarturiko txostena euskal nazionalismoaren eraginpeko inguruneetan gai horri buruz egin diren ekarpen landuenetariko bat jo daiteke, nire ustez. Zuzenbidezko Estatu Soziala deritzonaren ezaugarripenetik abiatuz, estatuaren zeregina gizarte entitateak ordenatzean datzala baieztatu da, haien jarduera interes publikokoa den heinean. Estatu interbentzioa sakontasun diferentekoa izan daiteke, baina, edozein dela ere, estatuak ez du zurgatzen interes orokorreko xedeen lorpena; aitzitik, publiko/pribatu dikotomia lausotu egiten dela adierazten du. Zail suertatzen da, horrela, zenbait erakunderen ezaugarripena publiko/pribatu ardatz horren inguruan egitea. Horren harian, hezkuntza arloan ere botere publiko eta gizartearen elkarreragina somatzen dela gehitzen du, eta hortik ondorioztatzen da egungo ikastetxeek ere egoera berria euren titulartasunean islatu behar dutela, gizarte dinamika errealari erantzun nahi baldin badiote. Titulartasun berri horri *elkarbanatua* deitzen dio Ikastolen Elkarteak. Azpimarratzekoa da, halaber, azken dokumentu honetan proposatzen den *lehiakortasun zintzoari* ekiteko beharrezkoa, zeren, haren ustez, formula *nibelatzaileek* eta burokratikoek kale egin dute jada (Ikastolen Elkarteak, 1992: III., IV. eta V. atalak). Bestela esanda, garai berrietara moldatzeak eta administrazioaren tutela zuzenetik aske ibiltzeak dakarten ikastetxeen arteko merkatu lehia sortzea hobesten du, eta horrexek erabaki behar du, azken batean, ikastetxeen etorkizuna.

Alderdietara itzuliz, Eusko Alkartasunaren diskurtsoa, logikoa denez, EAJrena baino apur bat gehiago hurbiltzen da publikotasun kontzeptu bigun delakora. Alderdi modura eratu zenean, irakaskuntza pribatuari ala publikoari buruzko eztabaida alboratzeko beharra adierazi zuen, auzi zaharkitua irizten zion eta. Euskal gizartearen etorkizunerako benetan garrantzia zuena, ordea, ikastetxe publikoak zein pribatuak garai berrien eskakizunetara egokitzea zen. Egokipen horren zutabeetako bat irakaskuntza askatasuna zen, beraren bidez bakarrik ziurtatzen baitzen herritarren borondatean oinarritutako hezkuntza askotarikoa. Herritarrek eskubide osoa dute hobesten dituzten printzipio ideologiko, filosofiko edota erlijiosoen arabera heziak izateko eta, hartarako, behar-beharrezkoa da ikastetxe mota guztien arteko analogia; alegia, ez dago hezkuntza askatasunik zenbait ikastetxe gainerakoak baino garestiagoak baldin badira edota baldintza hobeagoak badituzte. Beraz, administrazioaren erantzukizuna da, dagokion finantzazioaren bidez, hezkuntza askatasuna bermatzea, azken hau, hezkuntzarako eskubidearen osagarri baita, eta biek, banaezineko pareta osatzen baitute. Gizarte zibilarengandik eratorritako hezkuntza ekimenak ez dira bakarrik administrazioak bermatu beharreko jardunak, positiboak direla ere adierazten du, funtsean, gizarte askotarikoa islatzen dute eta (Eusko Alkartasuna, 1987: 5.2.1. eta 5.2.2. atalak).

Kutsu liberaleko diskurtso hau pixka bat apaltzen da gerora. Hartara, ikastetxeen jabetza, pribatua zein publikoa izanik ere, EAK arlo publikoari eransten dio irakaskuntza. Hartara, ikastetxe publikoak diru publikoz hornitutakoak direla baieztatu du, eta eragiketa horren zilegatasuna justifikatzen du, haiek zerbitzu publiko bat eskaintzen baitute. EAJk eta Ikastolen Elkarteak bezala, aginte publikoak gizarte zibilaren hezkuntza ekimena bermatu behar duela dio, administrazioa ez baita hezkuntzarako eskubideen jabe, horren erabilpenaren bermatzaile baizik. Hala ere, sare bakarrekoak eta, beraz, eskaintza bakarraren partetzat jotzen ditu ikastetxe

guztiak. Horrek esan nahi du, besteak beste, autonomia maila bera eta -bereziki-plangintza orokor baten barruan sartzen direla ikastetxe pribatuak zein publikoak³⁶.

ELA ere publikotasun kontzeptu bigunetik hurbil dago, nahiz eta ezin esan daitekeen gai horri buruzko gogoetak leku handirik betetzen duenik hezkuntzari buruzko sindikatu horren diskurtsoan. Esplizituki baieztan du sindikatuaren jardunak ez duela zerikusirik irakaskuntza pribatuaren defentsarekin, edota sare publikoarekiko aurkamenduarekin, eta hau dena, nire iritziz, ezkerreko nazionalismoak egindako kritikei erantzun bezala ulertu behar da. Izatez, ELAren iritziz, hezkuntza sistema ondo finkaturiko sare publikoan eta pribatuan -edota gizarte ekimenekoan- oinarriturik dagoela onartu behar da. Administrazio autonomikoak, horrela, sare bien jarduera ziurtatu eta arautu behar ditu, besteak beste, sare pribatuaren finantzazioaren gaineko kontrol eragingarri baten bidez³⁷.

Logikoa denez, alderdi politiko abertzaleetatik Herri Batasuna da publikotasun kontzeptu gogorrari tinkoen eusten diona, nahiz eta haren diskurtsoa ez den beretsua izan ikastolen publikazio prozesu osoan zehar, azken urteetan kontzeptu bigunera hurbildu zela esan daiteke eta. Bada, larregi teorizatu gabe ere, oso kritiko agertzen zen hasiera batean jarrera pribatuzaleei begira (Herri Batasuna, 1986). Jarrera horri eusteko arrazoiak mota bikoak dira, nire iritziz. Lehena, euskal erakunde ezkertiarrekin konpartitzen zuen ezaugarria zen; hots, tradizio marxistaren eta beronen hizkeraren eragina; eta, bigarrena, arian-arian lortzen ari zen indar politikoa, zeinak, epe laburrean, autogobernua lortzeko espektatiba handiak eragin baitzizkion.

Begibistakoak dira aldaera biok 1988an azaleratutako txostenean, non publikotasuna pribatutasunari kontrajarri baitzion. Eskola publikoaren alde agertu zen dokumentu hartan, eskola publikoak herriko ikasle guztientzako aukera berdintasuna ziurtatzen baitu, hezkuntza pribatuak diruaren truke *bere eskola* egiten duen bitartean. Behin eta berriz adierazten du eskolak herri xehearen zerbitzuan egon behar duela, eta hori egitean, hezkuntza ekimenak kontrajarritako eredu bikoitz bezala aurkezten ditu, eta ekimen pribatuaren zilegitasuna koloka jartzen du. Honekin batera, ñabardura garrantzitsu bat, publikotasunaren kontzeptu gogorraren alde zegoelako ideia indartzen duena; hots, eskola publikoa Euskal Herriko Gobernu Nazionalaren pean aritzen den eskola litzatekeela baiezte (Herri Batasuna, 1988b: 11-13).

Era horretako aipamenik ez da berriz ikusi indar politiko honen adierazpenetan. Izatez, lausoago agertzen da publiko/pribatu bikoiztasun hau 1992ko txostenean. Ezkertiar pentsakeran, oro har, apaltzen ari da aipatu dudana hizkera marxista hura; baina, batez ere, oso abagune politiko ezberdinean aurkitzen dira bai HB eta baita ikastolen publikazio prozesua bera. Gorago esan bezala, iragarrita daude Euskal Eskola Publikoaren Legearen nondik norakoak, eta ikastolak sare publikoarekin bategiteko

³⁶ Ikus (Eusko Alkartasuna, 1990b: 16-18); eta (Eusko Alkartasuna Legebiltzar Taldea, 1993: 4.717-4.718).

³⁷ Ikus "ELA por la Escuela Pública y Privada Vascas de calidad", in (Herria 2000 Eliza, 1989: 31).

saio administratiboak itzelean indartu dira. Horiei, HBk pairatzen duen bakartze politikaren eragina gehitu behar zaie. Horren guztiaren ondorioz, Herri Batasunak, Ikastolen Elkartek bezalaxe, ahalegin teoriko berezia egiten du publikotasunaren definizio berria zehaztu guran, segituan ikusiko dugunez. Ikastolen Elkartearen planteamenduekiko nolabaiteko hurbilpena somatzen den arren, diferentzia nabarmenak ere azaltzen dira. Bada, publikotasun kontzeptua birdefinitu beharra da HBren abiapuntua, zeren eta banaketa sinplista deritza publikoa administrazioaren pekoa eta pribatua gainerako guztia definitzeari, azken honen barruan mota askotako ikastetxeak daude eta. Parekidetasun hau publikotasunaren kontzeptzio zaharkitua dela dio, baina kezka, logikoa denez, ez da teorikoa, politikoa baizik, eta argi eta garbi adierazten du: gaia horrela planteatzeak zaildu egiten ditu eskola publiko bakarraren alde daudenen arteko adostasuna eta elkarlana, ezen publikoa estatuarekin identifikatzen baldin bada, estatua errefusatzeko duen jende asko eskola publikoaren aldeko borrokatik at uzten da (Herri Batasuna, 1992: 15).

Publikotasunaren *definizio taktikoa* proposatzen du, nolabait esatearren, baina ohartarazi behar da HBk arazo honen inguruan egiten duen jauziaz. Esan bezala, balizko Gobernu Nazional bati buruzko teorizaziorik ez da agertzen. Horrez gain, administrazioaz hitz egiten duenean, ez da udalez mintzo, esate baterako; alegia, maila lokaleko administrazioa eskema honetatik kanpo geratzen da. Are gehiago, txosten honetan, ikastetxeen jabetza udal botereen pean egotea, eta ez gobernuarenean, proposatzen du. Horrenbestez, estatua eta egitura politikoa autonomikoa etengabe ordezkatzen ditu diskurtsoan, Euskal Autonomia Erkidegoko eraketa politikoren zilegitasunik eza baita haren abiapuntu politikoa. Ikastolen Elkartek bezalaxe, gizarte ekimena goraiatzeko du administrazioaren joera zurgatzailearen kontra, baina diferentzia nabarmen bat ageri da, argiro erakusten diguna HBren ikuskera ideologiko ezkertiarra: eskolan *herri erakundeen partaidetza* indartu beharra adierazten da. Horren harira, Ikastolen Elkartearen publikotasunari buruzko diskurtsoetik aldenduarazten duen beste gai bat ikastetxeen titulartasunaren ingurukoa da. Ikastolen Elkartek -izendatu gabe, haatik- hobetsitako titulartasun elkarbanatua delakoaren kontra jartzen da, eta *titulartasun soziala* proposatzen du. Izena gutxienekoa dela esanez, euskal gizartean garatutako hainbat esperientzia errealek horixe erakusten dutela jotzen du inportanteena; hots, posible dela zenbait titulartasun egotea, administrazioaren monopolio ez direnak (Ibid.: 16-17).

Publikotasun kontzeptu bigunerako garapena apur bat argiago geratzen da 1993an, Euskal Eskola Publikoaren Legeari egindako zuzenketa eskeetan, non, estraineiko aldiz, publikotasuna -administrazioari atxikitzeaz gain- gizarte zibilari lotua dagoen kontzeptua dela baitio (Herri Batasuna Legebiltzar Taldea, 1993: 4.685).

Herri Batasunarekin batera, ezker abertzalearen baitako zenbait erakunderen eta gogaideren iritziak azaldu dira urteotan zehar, publikotasunari buruz gogoeta eginez. Nabari-nabaria da guztietan ikastolen esperientzia administrazioaren jardunetik harago doan ekimen gisa ulertu nahia. Adierazpenak -itxarotekoa zenez- ugaltu egin ziren Euskal Eskola Publikoaren Legearen egitasmoa iragarri zen momentutik aurrera. Ildo honetatik, esan liteke iritzi korrante bat dagoela publikotasunaren definizio *ad hoc* bat egiten duena. Erran nahi baita, sinesmen inplizitua da hezkuntza publikoa legitimatutako dagoela pribatua baino, eta hemendik kezka nagusi bat eratoritzen da:

publikotasunaren alde jotzeak, hots, eskola publikoaren alde egiteak, ikastola baztertea edo gutxiestea ekar lezake. Hori dela eta, ondo zehaztu behar da zertan datzan hezkuntza publikoa eta, berriro ere, *herri ekimenari esker* sorturikoa dela aldarrikatzen da. Horixe da publikotasunari dagokion berariazko ezaugarria, eta, horren haritik, *herritar* izenlaguna erabiltzea hobesten da; herriaren sostenguarekin eta herriaren mesedean aritzea baitira edozein hezkuntza ekimenen onespenerako oinarrizko baldintza. Hartara, ikastola, *berez*, publikoa da. Are gehiago, zenbaitentzat, gerora ere ikusiko dugunez, administrazioaren kudeaketa duen eskola baino publikoagoa da, ezen, funtsean, publiko izateak herritarren eskakizunei erantzutea badakar, komunitate eskolarraren inolako partaidetzarik errazten ez duten administrazioaren eskolak eremu pribatukotzat jo beharko lirateke³⁸.

Posible da publiko/pribatu dikotomiaz horren kezkatu agertzen ez denik ere topatzea, eta pentsakera hori ezker abertzalearen baitan ere kokatu beharra dago. Teorikoki landurik baina, nire iritziz, oso hedaturik ez dagoen pentsamolde honen abiapuntua marxismoa eta estatuaren zaharkitasuna da, eta, beraz, ezker eta administrazioa ez direla gai berritasunik eskaintzeko. Ahalmen hori *herri erakundeei* dagokie, ordea, zeintzuek *pribatu itxura* hartzen baitute, arlo pribatua malguagoa baita arlo publiko-instituzionala baino. Hala ere,

“... argi dago erakunde horiek ez dutela logika pribatuaren barruan jokatzeko, hau da, ez dutela etekinik bilatzen, ez eta txokokeriarik edo interes pribaturik defendatzen. Estatuaren logikak errotik errefusatu du edozein funtsezko berritasun. Berriak, ondorioz, pribatuaren moztarria aukeratzen du, eta modu honetara, denborarekin, kontsistentzia hartzen du. Soilik bigarren momentu honetan ahalegintzen da Estatu bere barruan integratzen, Estatuaren logika, beraz, askoz ere zurrunagoa eta kontserbadoreagoa da pribatua baino.” (Agirre, 1991: 88).

Arlo publikotik eta arlo pribatutik aldendu gura da, hortaz; lehena kontserbadorea baita eta bigarrenak interes pribatua bilatzen baitu. Baina, funtsean, pribatutasuna askatasunari lotzen diote. Paradoxikoki, muturreko ezkerreko pentsakera atzematen denak arlo pribatuaren defentsa argiagoa egiten du liberalismotik hurbil dagoen jarrerak baino. Bada, inportanteena ez da hezkuntzaren balizko izaera publikoa, izaera *propioa* baizik. Hori dela eta, eskola publikoa -alegia, administrazioaren ardurapeko eskola- euskal herriaren bultzadapean sortutako hezkuntza ekimenek ordezkaturia izatera deitua dago, azken horiek osatzen baitute etorkizuneko euskal eskola. Ezker abertzalearen gainerako jarreretan ez bezala, badirudi oraingo honetan muzin egiten zaiola publikotasunaren aldeko korrante sozial indartsuari, neurri batean bederen, halako moldez non ez baita somatzen besteetan ikus daitekeen publiko/pribatuaren arteko horren tentsio handirik³⁹.

Are argiago azaltzen da J. Apalategirenean publikotasunaren inguruko tentsiorik eza. Auzitan dagoena, haren iritziz, ez da hezkuntzaren izaera publikoa edo pribatua,

³⁸ Ideiok han-hemenka agertzen dira prentsa artikulua eta bestelako idazlanetan zehar sakabanatuak. Ikus, besteak beste, (Auzmendi, 1992), (Orella Unzué, 1992), (Txapartegi, 1992) eta (Gorostiaga, 1993).

³⁹ Iritzi honen ildotik doaz, besteak beste, (Agirre, 1991), (Agirre, 1993); eta (Xamardo González, 1993a).

hezkuntza sistema propioaren eraikuntza baizik. Euskal Herriak burujabetasuna eskuratu eta gero erabakiko da zein eredu jarraitu, orain arte ez baita egon benetako aukerarik eskola ereduez apusturik egiteko (Apalategi Begiristain, 1994: 69, 317-318).

Honaino ikusitakoaren arabera, zalantzarik ez dago ezkerreko euskal nazionalismoak erakutsi duela konplexutasun handiena publikotasunari buruzko diskurtsoetan eta, halaber, publikotasunaz hausnartzeko saio ugariak. Izan ere, kasik mota guztietako diskurtsoek eduki dute lekua bertan. Gorago aipatutakoez gain, publikotasun kontzeptu gogorretik hurbilago dagoen pentsakerarik ere kausi daiteke haren baitan. Harekiko atxikimenduak han-hemenka agertzen zaizkigu, baina, oraingoan, sindikatuen diskurtsoetara mugatuko naiz eta, beherago, gogoeta egingo dut Euskadiko Ezkerrak defendatutakoaz.

LAB eta, batez ere, EILAS dira publikotasun kontzeptu gogorraren eskutik nabarmenen ibili diren ezkerreko erakunde abertzaleak. LABen abiapuntua da hezkuntza zerbitzu publiko bezala antolatu behar dela, korrante neoliberalen oldarrari aurre eginez, onartezina baitzaio politika neoliberalak dakarren zerbitzu publikoen pribatizazioa. Bestalde, irakaskuntza arloan ezarri den ikastetxe pribatuekiko kontzertu politika ere salatzen du, sare pribatuaren gero eta finantzazio maila altuagoa eragiten ari da eta. Pribatutasuna bazter utzi gura du LABek etorkizuneko irakaskuntza eredia irudikatzean, eta *jarrera pribatuzale* deitzen dituenak kritikatzeko dituen behin eta berriz. HBren ildo beretik, esaten du *euskal eskola nazionala* euskal instituzioen eta gobernuaren eskuetan egongo dena dela (LAB, 1989: 3-4). Hala ere, errazkeria deritzo eskola publikoa administrazioaren jabetzakoa dela baieztari, zeren eta ahaztu egiten da euskal gizartean zerbitzu publikoa eskaintzeko *bokazioa* duten ikastetxeak aspalditik daudelako errealitatea. Ikastolaz ari da LAB, zalantzarik gabe, aipatzen ez duen arren.

Publikotasun kontzeptu gogorra eta, aldi berean, nazionalismoaren hezkuntza ekimena defendatu nahi horretan, aitortu egiten du publikotasun kontzeptuak eztabaida sozial asko sorrarazten duela. Haren iritziz, hezkuntza publikoak honako ezaugarriak eduki behar ditu: nazio ikuskera, euskalduntasuna, ugaritasun ideologikoa eta laizismoa, besteak beste (LAB, 1997: 22-23). Logika hutsari jarraituz, aspektu kontrajarriak biltzen ditu, gorago aipatutako aldaera politikoen isla, nire ustez. Izan ere, ikuskera ideologikoari zein garapen historikoari begiratuta oso hurbil daukan EILAS sindikatuari⁴⁰ kritikatzeko dizkio pedagogismo itsu baten eskutik, publikotasun kontzeptu abstraktuari eustea eta koordenada politikoen baloraziorik ez egitea (LAB, 1989: 9).

Izatez, EILASen diskurtsoa antzetsu samarra izan da urte hauetan guztietan. Publikotasunaren kontzeptu gogorrekiko erabateko atxikimenduan datza, 70eko hamarkadan Espainian eta, batez ere, Katalunian, eskola publikoan lanean zeuden

⁴⁰ Gogorazi behar da, hezkuntzari buruzko protagonistak aurkeztean esandakoa; alegia, LAB Irakaskuntza 1986 arte ez zela sortu; eta ordura arte sindikatu honetako irakaskuntzako afiliatu asko EILASeko kide zirela. Hau da, LABek berak duen ikuskera ideologikoaz gain, EILASen eta LAB Irakaskuntzaren jatorria berbera den neurrian, logikoa da sindikatu biok publikotasunari buruzko pentsakera antzetsua sostengatzea.

sektore ezkertiarrek bultzatutako tradizioaren ildotik. Urte horietan, jada, hezkuntza pribatizatzearen kontra teorizatu zen. Hezkuntza zerbitzu publikotzat jotzen zen, ordea; hau da, irakaskuntzaren burokratizazioan jausi barik, baina erabat errefusatu zen estatuari subsidiaritate zereginik eranstea, funtsean, irakaskuntzaren erantzukizun nagusia gurasoen eskuetan jarri nahi zelako susmoa baitzegoen (Otano, 1978: 16).

Denbora pasatu ahala, iritzi landuagoak eskaini zituen sektore honek publikotasunaren inguruan, euskal gizartean garatzen zen hezkuntza gatazkak kutsaturik. Horrela, zerbitzu publikoa eta publikoari eskaintzen zitzaien zerbitzua bereizi behar zirela esaten zuen. Lehenaren bereizgarri administrazioak derrigor eskaini eta guztiok erabil dezakegun zerbitzu izatea da. Guztiongana irits dadin, eta ezberdintasun ekonomikoek oztopa ez dezaten, diru publikoz finantzatu egin behar da. Baina horrek ez du esan nahi diru publikoz finantzatutako zerbitzu guztiak publiko direnik, zeren eta zerbitzu publiko baten jardueraren printzipioak ez datoz bat enpresa irizpideekin, alegia, lehiakortasunarekin eta errentagarritasunarekin. Honen haritik, kritika gogorak egiten dizkio Ikastolen Elkarteak proposaturiko titulartasun elkarbanatuari, funtsean, erakunde horrek duen pribatizazio asmoa mozorrotzeko saio bat besterik ez baita, haren ustez (STEE-EILAS, datarik gabe).

LAB bezalaxe, neoliberalismoak helarazten duen arlo publikoa inefikaziaren, burokratismoaren eta kalitaterik ezaren eremu delako iritziaren kontra agertzen da EILAS. Adierazpen ofizialen zein gogaideen iritzien bitartez, etengabe azaleratzen du eskola publikoaren aldeko konpromisoa. Ez du atsegin publikoaren eta pribatuaren arteko mugak lausotzea, uste baitu, era horretara, joera pribatuzalearentzako estalki publikoa erdietsi gura dela.

Eskola publikoa eta estatala parekidetzearen kontra agertzen da eta, sarritan, hezkuntza diskurtsoan Hego Euskal Herriko lau herrialdeak barnehartzeko ahalegina egiten du. Hala ere, bigarren maila batean uzten du indarrean dagoen banaketa administratiboak lekarkeen eragozpena euskal eskola publikoaz *gaurdanik* berba egin ahal izateko. Erran nahi baita, ez zaio somatzen HBk eta LABek benetako eskola publikoa etorkizuneko eraketa politiko berrira proiektatzeko erakusten duten joera, ezta hezkuntza publikoaren kudeantza administrazio autonomikoaz besteko instituzioen pean uzteko ere. Zenbaitetan, ezin argiago mintzo da EILAS honen inguruan:

“... para nosotros el hecho de ser público conlleva que la titularidad en todos sus aspectos (académica, patrimonial, laboral, estatutario) correspondan a la Administración pública y más concretamente al departamento de Educación pues es necesario que todos los centros tengamos el mismo titular y las mismas normas de juego para lograr una única red escolar. El que unos centros dependieran de los Ayuntamientos, otros de las Diputaciones y otros del Departamento de Educación no nos ayudarían en este camino.” (STEE-EILAS, 1989: 8).

Publikotasunaren funtsezko ezaugarriak -demokratikoa izatea, ugaritasun ideologikoa biltzea, eta kontratazio eta sarrerako irizpide publikoak erabiltzea- eskola publikoak baino ez ditu betetzen. Azkenean, beraz, ikuspegi honen hari eroalea da publikotasuna administrazioaren ardurapeko eskolari dagokiola, eta honi baino ez zaiola benetako gaitasunik ezagutzen berdintasun sozialaren bilaketan (Lozano, 1993).

Azkenik, Euskadiko Ezkerra ere agertzen da publikoa eta estatala parekidetzearen kontra. Publikotasun kontzeptu gogorretik kontzeptu bigunerako iraganbide nabarmena egiten du eta, honekin batera, denbora pasatu ahala, administrazio autonomikoaren ardurapeko eskola legitimatzeko nahi argia erakusten du. Hasiera batez, ideologia marxista zela medio, irakaskuntza pribatuaren desagerpena ere hobestera heldu zen, burgesiaren eskola zelakoan, eta hezkuntzak klase borrokan betetzen zuen zeregina agerian utzi behar zen eta⁴¹.

Alderdi bezala eratzeko egin zuen kongresuan zera baieztu zuen: hezkuntza, zerbitzu publiko den heinean, ekimen pribatutik harago doan erantzukizuna dela. Ikastetxe pribatu/publiko dikotomiaren aurrean, eskola publikoaren alde egin zuen, baina gizartea izanik hezkuntza kudeatzen eta kontrolatzen duena. Hala ere, publikotasuna ez zion gizarte zibilari eransten, administrazioari baitagokio herritar guztientzako irakaskuntza antolatzeke gaitasuna. Ez edozein administrazio motari, ordea, argiro errefusatzen baitzuen eskola publikoa udalen edota diputazioen pean jartzea. EILAS bezalaxe, ez zen ados agertzen, hortaz, hezkuntzaren demokratizaziorako baldintza bezala bestelako maila administratiboan ardurapean ipintzen zutenekin, hots, Herri Batasunarekin. Euskal eskola publikoaren titulartasun juridikoa, beraz, Autonomia Erkidegoari eransten zion. Publiko izateak, orduan, esan nahi zuen doakoa, laikoa, hezkuntza komunitateak kudeatua eta ideologikoki anitza zela (Euskadiko Ezkerra, datarik gabe: 251 eta hur.). Oraingoan, ez da irakaskuntza pribatuaren desagerpena proposatzen, baina kezka nagusia administrazioaren ardurapeko eskola eta haren ezaugarriak dira, dudarik gabe.

Dokumentu berantago batean, ikastola eta eskola publikoarekin sare publiko bakarra osatzea hobesten zen, hezkuntza pribatuaz ezertxo ere adierazi gabe⁴². EEK erakutsi zuen bilakaera ideologikoaren ondorioz, alta, kexu agertzen zen, geroago, eskola *sozializatuaren* ordeaz, eskola *estatizatu*a eraiki izanaz, gizarte zibilari hezkuntza arloan eduki beharreko protagonismoa kendu zitzaizolakoan (Euskadiko Ezkerra, 1989b: 3). Erabat desagerturik zegoen publiko/pribatuaren arteko tentsioa. Are argiago esanda:

“La educación constituye un derecho fundamental de la ciudadanía y en las sociedades modernas tiene la consideración de servicio público”. (Euskadiko Ezkerra, 1990: 2).

Egin ditzagun, bada, orain arte publikotasunaren inguruan azaldu ditugun ideia nagusien bilketa eta kokapen orokor bat. Arestian esan bezala, publikotasunari buruzko diskurtsoez gogoeta egitean, ikuskera ideologikoa da dudaezineko gakoa.

⁴¹ Era honetako ideiak kausi daitezke in Altadiil/Arregi/Agirre, 1980.

⁴² Dokumentu hau Euskadiko Ezkerraren eraginpeko Arnasa aldizkariaren 6. zenbakian agertu zen. 1979ko lege gordailua du baina ez du argitarapen datarik erakusten, nahiz eta, alearen zenbakia aintzat harturik, argi dagoen berantagoa dela. Dena den, Euskadiko Ezkerra osatzeko kongresuaren edukiak biltzen dituen liburua datarik gabe ere dagoenez, nahasketarik ez sortzeko, bibliografia aipamenetan aldizkariak erakusten duen lege gordailuaren urtea errespetatzea erabaki dut. Ikus, beraz, (Euskadiko Ezkerra, 1979).

Hemendik zera ondorioztatzen da: batetik, ezkerreko nazionalismoak, oro har, joera pribatuzaleak gaitzetsi eta publikotasun kontzeptu gogorrari gartsuki eustea; eta, bestetik, ikuskera ideologiko moderatuari atxikitzen diotenek gizarte ekimenaren - edota gizarte zibilaren- zeregina azpimarratzea.

Hala ere, ikusitakoaren arabera, prozesu honetako protagonistak atxikimendu ideologikoaren *continuum* baten arabera kokatzeak (mutur batean jarrera liberalak eta bestean ezkerrekoak jarriz) ez du arazoa erabat argitzen. Aztergai ditugun talde abertzale guztiak barneharturik, azpimarragarria da nazionalismo osoak konpartitzen duela publikoaren onuragarritasunari buruzko ikuskera, eta, hartara, talde moderatuen aldetik ere, izaera publikoa eransten zaie gizarte ekimenei. Erran nahi baita, publikotasuna legitimatuago agertzen zaigu pribatutasuna baino, halako moldez non esan bailiteke inork ez duela huts-hutsean defendatzen irakaskuntza pribatua, besterik gabe. Halaxe ikus daiteke bai liberalismotik hurbilen daudenen jarreretan, eta bai publikotasunaren aldeko korrante sozialaren eragina gutxien jasotzen duten ezkerren mezuetan.

Horren harira, nabarmendu beharreko hirugarren ideia da erakunde eta gogaide abertzale *guztiak* bat datozela hezkuntza publikoa eta estatu hezkuntza parekidetzearen kontra. Adostasuna erabatekoa da puntu honetaz, baina diferentziak sortzen dira *publiko* zer den ezarri gura denean eta, auzi honetan, abertzaleen helburu politikoaren arradikaltasun mailak muga esanguratsu bat marrazten du. Era hartara, HBk, LABek eta ezker abertzalearen zenbait sektorek, eraketa autonomikoak ustez duen gobernu zentralarekiko menpekotasuna dela medio, joera handia erakusten dute hezkuntza publikoa etorkizuneko zerbait bezala ulertzeko. Nazionalismo moderatuak, aldiz, etengabe plazaratzen du Autonomia Estatutuak ahalmen nahikoak ematen dituela hezkuntza publikoa antolatzeko. Ikusmolde honetan EA, EAJ, ELA eta EE -urteak pasatu ahala, gero eta nabarmenago- sartu beharko liriateke. Alde bietatik at geratzen dira Ikastolen Elkartea eta EILAS sindikatua. EILASenean, aldaera ideologikoa funtsezkoa izan delako, auzi politikoaren gainetik, normalean; eta horrelaxe ulertu behar da, nire iritziz, prozesu osoan zehar publikotasunari buruzko diskurtso antzetsua garatu izana. Ikastolen Elkartearen ardura nagusia, bestetik, ikastola sarearen biziraupena izan delako eta, gehienbat horrek eraginda, publikotasunari buruzko zenbait diskurtso plazaratuz joan delako.

Ikastolen Elkartearen jardunak, bateko, eta publikotasuna zerbait desiragarri delako usteak, besteko, azkenengo ideia bat azaltzeko bide ematen didate, maiz aipatua, bestenaz ere. Labur esanda, publikotasunaren aldeko jarrera argia erakusten duten abertzale askori zail egiten zaiela sare publikoari, besterik gabe, izaera publikoa eranstea, hamarkada askotan zehar ikastetxe mota horrek deslegitimazio sakona jaso baitu nazionalismoaren begietara. Berriro ere, nazionalismo arradikala dugu alde honen eragina argien erakusten duena. Eta, harekin batera, Ikastolen Elkartea kausitzen dugu. Diskurtso gehienetan somatzen da, horrela, jomuga ezberdinak egonda ere, ikastolaren ezaugarripena, zeinari nazionalista askok ez baitie izaera publikoa kendu gura. Euskal hezkuntza sisteman ikastola eta eskola publikoa osagarri direla baieztan da, horrela.

4.2. Hezkuntza Sistema Propioaren bila: Ikastola eta Eskola Publikoa

Euskal mugimendu nazionalistaren baitan, *hezkuntza sistema propioaren* eraikuntzari ekin beharra izan da urte hauetako guztietako funtsezko aldarrikapena. Kontzeptuak berak adierazitakoari jarraiki, argi dago aldaketa inportante bat gertatu dela abertzaleen hezkuntzari buruzko ikusmoldean frankismoaren garaian nagusitu zenarekin erkaturik, ezen, orduan ez bezala, euskal nazionalismoa jabeturik agertzen zaigu ikastola ez dela kontuan hartzeko hezkuntza errealitate bakarra. Ikastolaren eta eskola publikoaren balizko osagarritasunari buruzko gogoeta derrigorrezko bilakatzen da, horrela, 80 eta 90eko hamarkadetan zehar; eta, ondorioz, ikastolaren eta eskola publikoaren ulerkera berriak sortzen dira.

Ikastolari buruzko pentsakera eskola publikoaz uste denaren pean dago, eta alderantziz; eta kontuan hartzeko funtsezko datua eraketa autonomikotik eratorritako egoera soziopolitiko berria da. Maiz aipatu bezala, euskal nazionalista guztiek ez dute era berean interpretatzen delako aldaketa, eta, hartara, batzuek egoera zeharo diferente batean gaudelako iritziari eusten diote, eta besteak etengabe saiatzen dira zenbait esparrutan -hezkuntza barne- gauzak sakonki aldatu ez direlako mezua helarazten. Beraz, zenbaitentzat, egungo euskal gizarteak ez du kasik zerikusirik iraganarekin; beste zenbaitek, aitzitik, gura baino antzekotasun gehiago dagoela baieztzen du. Hala, eraketa autonomikoari erantsitako zilegitasun politikoak eragin argia dauka eskola publikoari atxikitzen zaion egokitasunaz eta, ondorioz, ikastolari kendutakoaz. Hau da, frankismoan eskola publikoak ez zuen jasotzen gizarte onespén sendorik, baina administrazioaren jardunak erabat babesten zuen, eta, ordainez, nazionalismoak bete-betean defendatzen zuen ikastola, eskola publikoaren kaltean. Egoera politiko berrian, ordea, eskolak atxikimendu soziala⁴³ eta ikastolak onespén instituzionala irabazten dute eta hezkuntza mota biak nolabaiteko lehiakide bihurtzen dira nazionalismoaren begietara, orduan. *Bata ala bestea* aukeratu behar da, esaten dute, horrela, ahots abertzale batzuek, frankismoan egindako hautaketa birpentsatu beharra ekarriz.

Hezkuntza sistema propioaren eraikuntzari begirako diferentziak ulertzeko gakoa egoera soziopolitiko berriari buruzko irakurketa dela esan dut, baina ez da hori, noski, esplizituki azaleratzen den zioa. Izatez, eskola/ikastolaz berba egitean haizatzen diren gaien artean hiru nagusitzen dira: euskara, euskal gizartearen integrazioa eta gizarte sektoreen partaidetza. Zer esanik ez, lehenengo biek harreman estua dute nazionalismoak, orotara hartuta, eraikitzen duen nazio identitatearekin; eta hirugarrenean, ostera, nabariago agertzen zaizkigu talde bakoitzaren ikuskera ideologikoa, publikotasunari buruzko ideiak eta esparru horren inguruan dauden elkarren arteko mesfidantzak. Hiru osagai horien inguruan bilduko ditut nazionalismoak hezkuntza sistemaren ulerkerari buruz sostengatzen dituen ideiak, galdera bati erantzun nahirik, alegia, nazionalismoak zein punturaino jotzen dituen lagungarri ikastola eta eskola publikoa bere hezkuntza helburuetarako. Edo, bestela esanda,

⁴³ Nazionalismoaren jardunetik harago, EAEko eskola publikoak irabazi duen atxikimendu sozialaren adibide dira haren alde eratan diren jaiegunak, nora milaka pertsona bertaratzen baitira. Zer esanik ez, pentsaezina dirudi holakorik gertatu ahal izanak frankismoaren garaiko eskola publikoaren alde.

euskal hezkuntza sistema propioak erakutsi beharko lituzkeen ezaugarrietatik abiatuz, nolako lekua ematen zaien ikastolari eta eskola publikoari.

Esan bezala, hezkuntzaz -eta, bereziki, ikastolaz- hausnartzean, lehenengo muga ikastolaren iraganak eta orainaldiak zehaztua dator. Nazionalismoak, inolako salbuespenik gabe, begirunez eta -maiz ere-harrotasunez hitz egiten du ikastolaz, batez ere aztertzen ari garen prozesu honetako lehenengo urteetan. Adostasuna erabatekoa da ikastolaren iraganari begiratzen zaionean, hots, ikastolek frankismoaren garaian bete zuten zereginaz berba egiten delarik, ikastolaren publikazio prozesuan hura sare publikoan integratzea sutsuki defendatu dutenen aldetik ere, Euskadiko Ezkerraren inguruko Arnasa aldizkaritik hartutako aipu honetan beha daitekeenez:

“El movimiento de ikastolas es uno de los más importantes logros en la historia de la lucha del pueblo vasco por la recuperación de su personalidad. Su historia es toda una épica de lo que puede conseguir un pueblo bajo la opresión más brutal y al margen y en oposición al poder establecido y a sus instituciones.” (Altadil, et al., 1980: 41).

Inolako dudarik ez dute erakusten abertzaleek ikastolaren sorreraren beharrianaz, sare publikoak zeuzkan hutsuneak eskergak baitziren. Ikastolarekiko hurbiltasun txikien dutenek ere ez dute koloka jartzen hasierako ikastolaren egokitasuna. Egoera berrian goraiatzen ez dutelarik, edota haren beharrian bukatutzat ematen duten arren, ikastolaren sorreraren zilegitasuna ederto finkatua dago mota guztietako ingurune nazionalistetan, eta euren burua esplizituki abertzaletzat jotzen ez dutenen artean ere⁴⁴.

Hutsuneen artean, euskararen egoera jo ohi da garrantzizkoena. Denek onartzen dute, hortaz, ikastolak balazta erabakigarria jarri ziola euskararen galerari. Euskararekin batera, frankismoaren garaiko eskola publikoan ez bezala, berrikuntza pedagogikoaren aldeko lan sakona egin izana ere atzematen da sorreraren arrazoi eta justifikazio bezala. Eta, azkenik, herri mugimendu zabal baten ekimen izana ere onartzen zaio. Herri partaidetzari esker sortua eta mantendua izan zela baieztatu da, nahiz eta arlo honetan ñabardurak igarri erakundeen artean, batez ere frankismoaren azken urteetako garapena aintzat harturik.

Horrela, EA, EAJ eta Ikastolen Elkarteak dira ikastola gizarte ekimenaren emaitza izana indartsuen azpimarratzen dutenak. Ikastolen Elkarteak, gainera, ikastolaren jardunaren bereizgarritzat partaidetza demokratikoa jotzen du, ederto islatu ahal izan denez urte askotan zehar garatutako eredu ideologiko askotarikoan, betiere Euskal Herrian errotoak dauden ideia eta balore politikoekiko zein erlijiosoekiko begirunez (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 1988: 7 eta hur.).

Ugaritasun ideologikoa nabarmendu beharrean, ikastolak arlo publikoari nolabait loturik edota abertzaletasunarekiko harreman estuetan jaio zirela adierazten da beste sektore nazionalista batzuen aldetik. Eraketa autonomikoa indarrean jarri arte, zioen EEK, ikastolak publiko eta pribatuaren arteko esparruan egon dira (Euskadiko Ezkerra, 1979: 136); eta ELAk sare ezberdin bat osatzea ez dela izan ikastolen mugimenduaren

⁴⁴ Lehenen adibide bezala, ikus (Onaindia, 1988: 26). Bigarren artean, ik. (Otano, 1978: 55).

helburua baieztatu zuen, nolabait ere, halaberrez ekin baitzion irakaskuntza publikotik kanpo lan egiteari (ELA, 1992). Ugaritasun ideologikoaren kontuarekiko urruntasuna are argiago agertzen da, adibidez, HBren inguruneetan. Ikastolak hezkuntza sistema propio baten ernemuina, *gurea* izango zen eskola bat izan nahiarekin sortu zirela esaten da. ETArekin batera piztu zen mugimendu nazionalistaren eragin zuzenaren emaitza izaki, milaka abertzale ikastolaren aldeko lanean jarri izanaren ondorio izan zirela baieztatu da (Erkizia, 1985: 35).

Adibide horietan beha daitekeenez, erakunde edota korrante nazionalista bakoitzak bere desioen arabera interpretatzen du ikastolaren sorreraren zergatia, eta iraganaz egiten duen irakurketak oraindirako proposamenaren nolakotasuna iradokitzen du. Era hartara, frankismoaren garaiko eskola publikoan *hutsuneak* zeudelako iritzian adostasun argia dago, baina ezker abertzalearen baitan, oro har, eta Ikastolen Elkartearen ere soma daitekeen ideia da zeregin hori bukatu gabe dagoela; edo bestela esanda, ez zaiola inola ere ikastolaren sorrerari subsidiaritate funtziorik atxikitzen. Gehienbat sektore horien aldetik, orduko eskola publikoaren ezin sartuzko eremu izatea azpimarratzen da, *bunker*, *kolonizazio tresna*, *espainolismoaren gotorleku* eta abarreko izenlagunak erantsiz. Ikastolaren nolabaiteko historia idilikoaren beste aldea, hortaz, frankismoaren garaiko eskola publikoaren erabateko deslegitimazioa da.

Ikastolaren sorreraren inguruko adostasuna koloka jartzen hasten da ikastolaren kudeantzan parte hartu duten gizartearen eta lan arloko sektoreen arteko harremanen jitea zehazten denean. Logikoki, sindikatuak dira ikastolaren ibilbidea ilunarazten dutenak. ELA ozenki mintzo da honetaz. Ikastola pertsona eta kolektibo askoren lanaren emaitza izan zela onartzen du, baina ez da ahaztu behar langileek egindako ekarpena, lan baldintza eskasak jasan behar izan dituzte eta. Ikastolen mugimenduaren sorrerari goraipamenak egiten zaizkionean, hortaz, kexu agertzen da langileen militantzia gutxiesteko joera egoten baita, gurasoena eta *herriarena*, oro har, aipatzen den bitartean (ELA, 1992). Askoz ere gogorrago agertzen zaigu EILAS, erabateko mesfidantza adierazten baitu: ikastolaren kudeatzaileek langileen egoerarekiko erakutsi dituzten jardunak kritikatzeko, eta gaitzesten du, bestalde, Ikastolen Elkarteak irakasleen funtzionarizazioaren kontra kaleratu duen ustezko asmo aurrerazalea, ezen uste baitu gurasoen sakon-sakoneko nahia muga legalak saihestea baizik ez dela (STEE-EILAS, 1989: 11). LAB sindikatuak ere, zenbaitetan, langileriarekiko jarrera kontrolatzaile eta paternalista erakutsi izana aurpegiratzen dio Ikastolen Elkarteari, baina kritikak ez dauka EILASenak besteko garraztasunik (LAB, 1989: 9).

Sindikatuaren kezka horiez gain, eta gizarte partaidetzaren historia egitean, nabari-nabaria da erakundearen ikuskera ideologikoaren eragina ikastolaren baitan. Ustezko izaera berdintzailea zalantzan jartzen da: zenbat eta ezkertiarago izan erakunde nazionalistak, hainbat eta gehiago nabarmentzen dituzte ikastolaren sorreran parte hartu duten jarrera klasistak, baina salaketa horrek kutsu ezberdina jasotzen du, berriro ere, ikastolari erantsi nahi zaion azken helburuaren arabera. Adibidez, 80ko hamarkadaren hasieran, EEren inguruko sektoreek ikastolari zegokion izaera elitistaz hitz egiten zuten, ikastolaren *borondatea* herri mailetara heltzea zen arren. Borondateatik harago, ikastola ertain eta goi mailentzako instituzioa zela baieztatu zuten eta, horrenbestez, diskriminazioa eragiten zuela zioten, biztanleriaren parte bati

ezinezkoa baitzizaion bertaratzea (Altadil, et al., 1980: 51-54):). Era hartara, ikastolen mugimenduak eduki duen *herri* izaera dela medio, izkutaturik, edo bigarren maila batean, geratu dira barne desadostasun ideologikoak, berauen gaintetik garrantzi handiagoa hartu baitu kanpo erronkari erantzuteak; erregimen frankistaren hezkuntza politikari aurre egiteak, hain zuzen ere (Gurrutxaga, 1981). Baina, beste batzuentzat, tamalgarria izan da ikastolaren baitako aurkamendu ideologikoak gorpuztu izana. T. Erkiziak 1970-77ko ikastolen baitako gatazkei buruz egindako azalpena har daiteke honen adibidetzat. Gurasoen titularitatea zela medio, diosku, irakasleen kontrol ideologikoa eta *jauntxokeriak* ahalbidetu ziren; eta, ondorioz, langileen klase kontzientzia indartzearekin batera, *langilekeriak* ere garatu ziren, eta jarduera biek ikastolen mugimenduaren batasuna kaltetu zuten (Erkizia, 1985: 36).

Bada, euskal nazionalismoa, oro har, baturik agertzen da ikastolaren sorreraren beharizanaren inguruan, eta banaturik, ordea, ikastolaren sorreraren azken zioei zein haren ibilbideak erakutsitako hezkuntza langileen eta gizarte maila ezberdinen eskuhartzeari begira. Ezkerreko nazionalismoak sarritan nabarmentzen du ikastolan zenbait aukera ideologiko egon dela, eta ikastolaren sorreraz ez ezik, 80 eta 90eko hamarkadetan zehar behin eta berriz agertzen zaigun ideia da ikastolari eustea, eskola publikoaz ezberdindurik, hezkuntza *elitista* sustatzea dela, ezkerreko ikuskeraren bilakaerak erantsitako zenbait ñabardura gehituz, alta. Hartara, ikastolak ez dira jotzen maila burgesen ikastetxetzat, eta sektore sozial ugari bertaratu izana onartzen da. Hala ere, etengabeko kexuak azaltzen dira, hezkuntza pribatuarekin batera, ikastolak, bereziki -baina ez bakarrik, beherago ikusiko dugunez- kuoten bidez, ateari ixten baitzizio populazio marginatuari, zeinaren ardura eskola publikoak hartzen baitu⁴⁵. Ikastolak eskuratu duen prestigio soziala, bada, bertaraten diren ikasleen gizarte mailak ematen die, eta ez da ahaztu behar ikastolan matrikulatzeak *distintzio kutsua* dakarrela, eskola publikoak inola ere ez dakarrena (STEE-EILAS, 1989: 17).

Baina, adierazi bezala, ez da hau ezkerreko nazionalismoaren diskurtso bakarra; aitzitik, zenbaitentzat, ikastolarekiko areriotasunak, eta zehazkiago, jarrera *españolistek* zabaldu dute ikastolak pribilegiozko hezkuntza helarazten duelako ideia (Rodríguez, 1996: 46). Dena dela, ukazina da ezkerreko abertzaleen aldetik ikastolen arteko ezberdintasunak azaltzeko ahalegina soma daitekeela. Era hartara, aipatutako EEz gain, LABek, HBk eta EILASEk ere nolabaiteko bereizketa egiten dute ikastolen artean, aurrerazaleak eta joera pribatuzalekoak daudela esanez. EE eta EILAS dira ikastolak bereizteko saio sendoena egiten dutenak. Ikastolen baitan elkarbizitzan aritu dira hainbat urtetan irakaskuntza eredu pribatuaren aldekoak eta irakaskuntza publikoaren eredia defendatzen dutenak (ik. Gurrutxaga 1981: 26). EILASen aburuz, gorago aipatutako distintzioaren bila joateak eragotzi izan du eskola publikoaren aldeko joera indartsurik garatu izana (STEE-EILAS, 1989: 17). Beste erakunde bietan,

⁴⁵ Honen inguruan zenbait datu eskaintzen ditu J. Lozanok: nolabaiteko ezintasun psikiko edota fisiko dituen ikaslearen %75ek eskola publikoan ikasten du. Halaber, ijito populazioaren ikasle guztiak, inolako salbuespenik gabe, eskola publikoetakoak dira (Lozano, 1992: 18). Hala, irakaskuntza pribatuarekin erkaturik, eskola publikoak ustez nozitzen dituen utzikieriaz eta baliabide ekonomikoaren urritasunaz kexu agertu ohi dira ezkerreko abertzaleak.

LABen eta HBn, aldiz, joera pribatuzaleen arriskuaz ohartarazteaz gain, behin eta berriz beha daiteke ikastola proiektu bateratu batean mantentzeko desioa⁴⁶.

Edozelan ere, lehenago esan bezala, ikastolaren baitako harremanen ulerkera ez da aldatzen den bakarra; ostera, egoera berri honetan, ezkerreko nazionalismoaren begietara, oso indar ezberdinez bada ere, ikastolek ez dute osatzen frankismoan islatzen zuten proiektu eztabaida ezina, gizartearen erabateko atxikimendua jasotzen zuena. Horrelaxe ulertu behar dira, adibidez, EEren adierazpenak, non esaten baita ikastolek islatzen dutela

.. una clara expresión del esfuerzo de una parte de la sociedad por el mantenimiento-recuperación de la lengua. (Euskadiko Ezkerra, 1989b: 2).

Eta, neurri batean horren ondorioz, ikastolak ez dira, aurreko garaian bezala, eskola publikoari zeharo kontrajarritako errealitate bat. Eskola publikoak ezaugarripen berria jasotzen du nazionalismoarentzat, bereziki ezkerreko nazionalismoarentzat. Diskurtso berrian parte hartzen duen funtsezko elementua euskara da. Eskola publikoan ematen ari diren euskararen aldeko urratsek -diosku, adibidez, HBk- eragotzi egiten dute hura frankismoaren garaikoa bailitzan hartzea (HB, 1986: 15).

Izatez, euskal nazionalismoaren eraginpeko erakunde guztiek uste dute hezkuntza sistemak berebiziko garrantzia duela euskararen berreskurapenean, eta denak agertzen dira kezkatu hezkuntza sarean eramaten den hizkuntza politikaren emaitzez. Bada, euskal mugimendu nazionalistak, orotara hartuta, zalantzan jartzen du 1982ko Euskararen Erabilera Arauzkotzeko Legearen helburuak betetzen ari direla, nahiz eta, espero zitekeenez, batzuk askoz baikorrago agertzen diren besteak baino. Zalantzarik gabe, A irakastereduak biltzen du kritika gehien, frogatutzat ematen baita eredu honetan eskolatutako haurrek ez dutela lortzen hizkuntza ofizial bien ezagutza⁴⁷. Ezkerreko nazionalismoaren gaitzespena erabatekoa da: EEk, EILASek, HBk eta LABek A ereduaren desagertzea bultzatzen dute; EAJk eta EAK hobetu beharra defendatzen dute, eta Ikastolen Elkarteak zenbait jarrera erakutsi ditu, beheago ikusiko dugunez. Beraz, euskara euskal hezkuntzaren zutabe izan behar dela denek adierazten dute, baina batzuentzat ikastola da euskararen gordailu ezin hobe; beste zenbaitentzat, berriz, eskola publikoak du gaitasun gehien zeregin hori betetzeko; eta besteek, azkenik, hezkuntza sare osoaren euskalduntzeari ematen diote garrantzia.

Logikoki, zenbat eta bizikiago defendatu eskola publikoa, hainbat eta ozenago aldarrikatzen da hezkuntza sare honek euskararen berreskurapenean bete dezakeen

⁴⁶ Ideia hau erakunde bi horien adierazpenen funtsezko mezua da. Ikus, adibide gisa, Antxon Izagirre HBko kideak esandakoa (Larrun, 1991: 12)

⁴⁷ Izatez, administrazio autonomikoak berak aitortzen du, zeharka bada ere, D ereduko ikasleek bakarrik lortzen dutela, bere gehiengoan, euskaraz zein gaztelaniaz pareko gaitasuna. Hala ere, eta beste arrazoi batzuk tartean ere direlarik, Konstituzioaren aurkako dela baieztatu du A eredu eskatzen duten gurasoei uko egitea, gaztelania hizkuntza ofiziala baita Espainia osoan (Zabide, 1990: 238, 244-245).

zeregina. Horrela, EILAS sindikatua da alde hau indar handienez azpimarratzen duen erakundea, betiere sare publikoko irakasleek jokatu duten zeregina goraiatuz. Neurri apalagoz, HBk eta LABek ere defendatzen dute eskola publikoaren eragina euskararen aldeko ahaleginean. *Gustatu ala gustatu ez* gisako sarrera berbak erabilita -zenbait sektore abertzalek abiapuntu hau nekez onartzen dutela iradokituz-, euskararen etorkizuna, estraineko aldiz, eskola publikoari lotua atzematen da, hura baita, datu absolutuak kontuan harturik, irakasle eta ikasle euskaldun gehien biltzen duen hezkuntza sarea. Sarritan, horrela, Ezker Abertzalearen ingurune batzuentzat euskara da eskola publikoa legitimatzen duen osagai bakarra. Ez da hau, alabaina, egia osoa, beherago ikusiko dugunez.

Eskola publikoaren aldeko jarrerak biguntzen diren heinean, euskararen berreskurapen zeregina hezkuntza sistema osoari eransten zaio eta, inplizituki, hortaz, ikastolak, sare publikoa eta sare pribatua maila berean jartzen dira. Ildo honetatik doaz, besteak beste, EA (1990b) eta EAJ (Zarraoaren bidez kasu honetan; ik. Zarraoa, 1990). Alderdi nazionalista biok gainerako taldeek baino indar handiagoz azpimarratzen dute ekimen sozialeko ikastetxeetara -alegia, hezkuntza pribatura-euskararen irakaskuntza ziurtatzeko laguntza administratiboak bideratu beharra.

Eta, azkenik, Ezker Abertzalearen zenbait sektore eta Ikastolen Elkartea dira eskola publikoaren ustezko izaera euskaldunaz mesfidatien agertzen direnak. Lehenek, D ereduaren bermatzaile nagusia ikastola dela uste dute. Are gehiago, mugimendu euskarazalearen bitartez hedatu den hizkuntza teoria multzoari eutsiz, ikastola euskal hiztun komunitatearen benetako eremu trinkotzat hartu behar dela esaten da, diferentzia politikoan gaineratik euskararen batasunari eusten dion neurrian (Arrieta, 1991: 41). Ikastolak, horrela, *hizkuntzaren sinbolo* dira, euskal hiztunen autokontzientziaren adierazpen, euskararen lurraldetasuna ziurtatzen dutenak. Ikastoletan euskaltasuna eta euskara garatzen dira; beste ikastetxe guztiak, aldiz, gurea edo *osoa* ez den giza sistemaren kultura garatzeko antolatu dira (Apalategi Begiristain, 1994).

Ikastolaren Elkarteak gai honetaz adierazitakoa eskola publikoari begira erakusten duen konfiantzarik ez orokorraren isla dela esan daiteke. Horrenbestez, euskararen arloan dituen bete gabeko zereginak oraindik ere asko izatea eskola publikoari berari egozten dio. Zentzunik gabetzat ere jotzen du baldintzapen hau alboratzea etorkizuneko euskal eskola publikoaren eredia taxutu nahi denean (Ikastolen Elkartea, 1991: 28 eta hur). Deigarria da kritika horren oinarria ez dela nolabaiteko hizkuntza arradikaltasuna, ezkerreko nazionalista batzuen kasuan ikusi bezala, ezen, administrazio autonomikoaren hizkuntza politikaren inguruan etengabeko kritikak isuri eta gero, 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Legearen esanetara jarri zen, alegia, ezarritako hiru ereduaren onarpen esplizitua egin zuen (ik. Ikastolen Elkartea, 1992: VI. atala).

Aipatutako mesfidantza orokorra ez dagokio bakarrik Ikastolen Elkarteari. Honen ildotik, azaldu behar da eskola publikoari, oro har, euskararen normalizazioan zeregin garrantzitsua onartzen zaion arren, ezin esan daitekeela hezkuntza sare horrek erabateko zilegitasuna erdiesten duenik mugimendu nazionalista osoarentzat. Zerbait falta du beti eskola publikoak nazionalismoaren helburuetara molda dadin. Nola edo

hala, ikastola Euskal Herriak duen *berezko hezkuntza* dela aldarrikatzen da, eskola publikoaz bereizirik.

Horrenbestez, EAK, adibidez, ikastola hezkuntza *autoktonoa* dela dio. Mota askotako oztopoei aurre eginez, eta euskal lurralde osoan zabaldurik, hezkuntza eredu berri bat taxutu du ikastolak (Eusko Alkartasuna, 1990b: 10). Ikastolen Elkarteak, bestetik, ikastola euskara eta euskal kulturaren zerbitzuan egon dela eta badagoela kontuan hartuta, hura Euskal Eskola Publikoaren jatorri eta funtsa dela ondorioztatzen du (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 1988: 7 eta hur.). Euskalduntasuna ez da baldintza nahikoa euskal hezkuntzaz hitz egiteko orduan, eta, beraz, *Euskal Eskola Nazionalaren* oinarriak zeintzuk izango liratekeen zehaztu gura du. Euskaraz gain, hezkuntza edukiak ere aintzat hartu beharrekoak dira, eta esparru horretan -baiezten du- ikastolek argi eta garbi erakusten dute, ageriko zein izkutuko curriculumaren bitartez, Euskal Herriaren iragana orain eta geroarekin lotzeko asmoa (Ibid.: 39). Eskola publikoak ustez frogatu ez duena, gainera liteke. Orokorrean, ikastola eskola publikoa baino *hobea* dela azaltzen du Ikastolen Elkarteak; besteak beste, gizarte zibilaren eskuetan baitago. Ezin argiago esanda:

“Las ikastolas están más cerca de la sociedad moderna que viene, que el modelo actual, caduco y desfasado de la escuela pública transferida (...). La ikastola lleva 30 años de adelanto a la caduca escuela pública napoleónica.” (Campos, 1991).

Hau da, nazionalismoaren sektore askorentzat zaila da ikastolari atxikitu zaion hezkuntza propioa delako jitea ahaztea eta, besterik gabe, eskola publikoari eranstea. Publikotasunaren definizioek eduki lezaketen eraginaz gain, deigarria da nazionalista askok, eskola publikoa izenaren orde, eskualdaturiko edota transferitutako eskolaz hitz egiten dutela, nolabaiteko kanpokotasuna edo arrotasuna erantsi nahirik hezkuntza sare publikoari⁴⁸. Euren diskurtsotik zera ondorioztatzen da; transferitutako eskola, ez dela *gure* eskola -Euskal Herriaren eskola-, euskal lurraldearen parte batean bakarrik indarrean dagoena baizik. Euskal nazioak behar duen eskola oraindik ere eraiki gabe dagoela baiezten da, eta, ondorioz, ezker abertzalearen ingurune batzuetan, eskola publikoa eskola *espainiarra* delako iritziari eusten zaio:

“Ikastolak eskola zaharra gainezkaten du eta guztiz loturik dago Euskal Herriaren birreraikuntzarekin. Herri Kolektiboek egindako apostuaren emaitza izanik, eskola espainiarra krisi nabarian ipini du hemen.” (Agirre, 1991: 89).

Zenbaitetan bakarrik, diodan berriro, zeren eta beste batzuetan nabari-nabaria da baieztapen horrek sorrarazten duen asaldura. Eskola publikoa ikastola bezain espainiarra -edota euskalduna- dela argudiatzen dute azken hauek, marko administratiboari edota finantzazioari begiratuta, aginte beraren pean daude eta (Fernandez Urbano, 1993). Eskola publikoa, beraz, *geure eskola* da, ez baitago espainiar eremuan. Eta, bereziki, ez da espainiarra borondate argia dagoelako horrelakoa izan ez dadin. Ezker Abertzaleak Euskal Herria Espainia ez dela aldarrikatzen duen modu berean, dio adibidez F. Urkidik (Urkidi, 1993), euskal

⁴⁸ Horrela, HBk 1988an, artean, *eskola estatale*i buruz hitz egiten zuen EAEko sare publikoaz aritzean (Herri Batasuna, 1988); eta berriki, F. Rodriguezek, adibidez, izen bera erabiltzen du (Rodriguez, 1996).

lurraldean dagoen eskola publikoa bertakoa eta euskalduna dela defendatu behar du⁴⁹. Euskara salbatu ez ezik, *bertan* dagoen eskola publikoa *bertan* bizi diren euskal herritar guztien eskola izatera deitua dago.

Hasiera batean, eskola publikoari izari espainiarra atxikitzea helburu nazionalisten arradikaltasun mailarekin harreman estuan dagoela pentsa daitekeen arren, tentu handiz aurrera liteke hipotesi biribilik horren inguruan, auzi honetan beha daitezkeen jarrera kontraposatu biak Ezker Abertzalearen baitan aurkitzen baitira. Sakoneko argudio nagusi bat haizatzen dute euren jarrera justifikatzeko: integrazioaren beharra, baina kezka ezberdinek eraginik kasu bakoitzean. Eskola publikoaren espainiartasunetik abiatzen direnentzat, honela, ikastolak euskal lurraldean zehar dauden egoera administratibo guztien arteko integrazioa bermatzen du; bera da euskal eskola bakarra, euskal lurraldearen trinkotzerako baitezpadakoa dena. Bigarrenek, aldiz, ardura berezia adierazten dute euskal herritarren arteko integrazioaren beharraz, kasu honetan, normalean, Hego Euskal Herriko eskola publikoa delarik hizpide. Esan bezala, zeharo ezberdindurik aurkezten diren jarrera biok nahasturik agertzen zaizkigu sektore nazionalista berean, baina horrek ez du ezabatzen arestian esandakoa, hots, nolabaiteko iritzi korronte bi kausi daitezkeela gai horren inguruan, eta biak ezkertiar nazionalismoaren eraginpeko pertsona edo kolektiboai dagozkiela.

70eko hamarkadaren amaieratik aurrera, eskola publikoa eta ikastola aldi berean aritzeak eragin zitzakeen integrazio arazoez jabeturik agertzen zaizkigu abertzaleak, bereziki ikuskera ezkertiarren aldetik. Garaiko eztabaidei jarraiturik, etorkinek egiazko integratorako eduki zezaketen zailtasuna da kezka ohikoena, eta, funtsean, euskal herritar guztiak barnehartuko lituzkeen hezkuntza sarearen egokitasunaz hausnartzen da. Zalantzarik ez dago, euskal nazionalismoari nola edo hala loturik dauden zenbait ikuspegientzat, komunitate bikoiztasuna apurtzeko gaitasuna duen bakarra eskola publikoa da (Otano, 1978: 21); (Altadil, et al., 1980: 56).

Ikastolak etorkin eta bertakoen bikoiztasuna indar dezakeelako ustea urte batzuetan mantentzen da. Eredu politikoan buruz buruko lehiakide diren Herri Batasunaren eta Euskadiko Ezkerraren aldetik, kasu, kezka bera azaltzen da, oso era ezberdinean bada ere. Bigarrenaren ardura nagusia da ikastolak, aparteko hezkuntza sare bat osatuz gero, euskaldunen eskola bihurtuko direla eta, ondorioz, eskola publikoak, erdaldunen eta bereziki etorkinen seme-alabena (Euskadiko Ezkerra, 1979: 137). Herri Batasunak egonezin bera azaltzen du, eta etorkin eta bertakoen arteko bereizketa gaindituko lukeen sare publiko bakarra aldarrikatzen du, ikastolari uko egin gabe, haatik (Herri Batasuna, 1988b: 29-31).

Hortaz, gorago aipatzen nuen ikastolaren balizko elitismoa ez dut hartzen oraingoan hausnarketaren gai nagusi bezala. Auzian dagoena, ordea, nazio integrazioa da; alegia, balizko kultura komunitateen arteko elkarbizitza, eta beronetan ikastolak eta

⁴⁹ Nork manten ditzake, EILASeko kide batek galdetzen duenez, Gipuzkoako eskola publikoetako B eta D ereduak haur kopurua sare horretako ikasleen %80a izanik, eskola publikoaren espainoltasuna eta euskalduntzeko ezintasuna? (Etxaniz, 1993).

sare publikoak bete dezaketen zeregina. Ildo horretatik joanda, ikastolak euskal haurrak -eta, ondorioz, euskal gizartea- banatu egiten dituelako iritziak badu nolabaiteko tradiziorik euskal nazionalismoaren sektore batzuen baitan, ikastolari bereizte borondaterik egozten ez zaion arren, bederen aztertzen ari garen prozesuaren lehen urteetan. Desiatu gabeko ondorioa litzateke ikastolak eragin lezakeen banaketa soziala, baina emaitzak ukaezinak dira eta abertzaleak deseroso sentitzen dira errealtate horretaz.

“Ikastola ez da euskaldunen ghetto bat, ez da autoktonoen ekintza pribatu bat. (...). Gurasoen artean %10-11 dira etorkin. Gutiegi, halere, populazio osoan %30 direlarik.” (Torrealdai, 1981: 12).

Eskola publikoaren jardueraren tankera aldatzen den neurrian, zentzunik gabe geratzen da ikastola eta eskola publikoaren arteko antzinako lehiari ekitea. Are gehiago, eskola publikoak ikastola ordezkatu behar du. Ikastolarekin gertatzen zen modu berean, hezkuntza sare publikoaren erabateko gorespina egiten da kasu honetan, eta inolako diskriminaziorik sortzen ez duen esparru bezala aukeztera jotzen da. Gutxi batzuen bano ez den ikastolari kontrajartzen zaio, horrela, euskal gizartearen aniztasun ideologikoaren biltzaile den -eta beraz, denei zabalik dagoen- eskola publikoa. Hartara, azken urteetan integrazioa sakondu beharrari buruz plazaratu diren ideiak ez daude jatorri geografikoan oinarritutako komunitate bikoiztasunarekin harremanetan. Abertzale direnek eta ez direnek osatutako balizko komunitateak ekartzen dira hizpidera oraingoan.

Ikastola ez da nazionalismoaren gordailu, ezta eskola publikoa espainiaritasunarena ere. Hori dela eta, kritika egiten zaie, hezkuntza nazionalaren bermetik abiatuz, ikastolak zerbait aparteko bezala eusten saiatzen direnei; funtsean, *herria* euren parametroetatik baizik ez dutelako definitzen, ondoko aipuan argi agertzen denez:

“La diferencia fundamental que existe hoy entre la ikastola y la escuela pública no consiste en que las primeras sean las depositarias de la cultura y la esencia del nacionalismo, y las segundas el modelo español de escuela transferido aquí, como algunos pretenden. No, lo que distingue sobre todo a la escuela pública del resto es ser eso, pública, es decir, abierta a todos sin ningún tipo de discriminación (económica, ideológica...). (...) Aquéllos que insisten en mantener a las ikastolas como algo aparte, que sean conscientes, entre otras cosas, de su cuota de responsabilidad si contribuyen al mantenimiento de dos comunidades en Euskadi y, sobre todo, que no olviden que nadie tiene la exclusiva de ser, él sólo, el 'pueblo de Euskadi'.” (Martí, 1993).

EILASeko kide den J. Lozano harago ere omen doa, nire ustez, baieztan duenean, ikastetxe bat nazionalistatzat hartzeak, euskal gizartearen aniztasunari uko egiteaz gain, diskriminazio ideologikoa ere badakarrela, sare pribatuko ikastetxe batzuek euren burua katolikotzat jotzen dutenean gertatzen den bezalaxe (Lozano, 1992). Sindikatu honen muturreko jarrera adierazten dute iritzi horiek nazionalismoaren muga-mugan daudela esatera ausartuko nintzateke, baina nolabaiteko euspina jasotzen dute ezkerreko sektore abertzale batzuen diskurtsoan. Dena den, *berezko* hezkuntza sistemaren aldarrikapenak eskuratzen duen oihartzun zabala ezin saihas dezaketelarik, hezkuntza *propioa* hezkuntza *publikoa* dela baieztan dute (Lozano, 1993). Hortaz, sare publikoak -eta ez ikastolak- islatzen du euskal gizartearen berezkotasuna.

lido antzetsutik doaz EEren gogoetak, agian, *publiko* eta *propio* kontzeptuen arteko tentsio apalagoa adieraziz. Alderdi horrentzat, eskola propioa herritar gehienak ordezkatzeko dituen eskola da, eta, horrekin batera, euskara da bertako eskola *euskal eskola* bihurtarazten duena:

“Una escuela que asuma el euskera como lengua que va a impregnar su desarrollo y que, además, sea generada participativamente por esta sociedad a la que debe responder, va a ser 'per se' la ESCUELA VASCA.” (Euskadiko Ezkerra, 1989a: 12).

Hala ere, eskola propioa dagoeneko eraikita dagoela dio, ezen Autonomia Estatutuaren ebazpenaz geroztik (alegia, hizkuntza eta hezkuntza eskumenak garatzen hasi ziren heinean), *euskal hezkuntza sistema* ere osatzen hasi baitzen (Ibid: 4). Horrenbestez, hezkuntza sistema propioaren aldarrikapenak eduki lezakeen azpi nazionalista arradikala desaktibatzen da, eskola propio eta euskalduna eraketa autonomikoaren eskutik garaturiko hezkuntza sistema dela adieraziz⁵⁰. Ikusi bezala, ahots diferenteak agertzen zaizkigu eskola publikoaren izaera propioa edota bertakotasuna defendatzen dituen pentsamendu lerro horretan. Batzuegan nabariagoa da kezka nazionalista, eta hortik letorke euren egonezina eskola publikoaren ustezko espainiaritasunaren aurrean. Beste batzuegan, aldiz, publikotasunerantzako joerak gainerako arazo guztiak ilunarazten ditu, edo bigarren maila batera eramaten ditu, baina, hala ere, nazionalismoaren eraginez finkatu den hezkuntza propioa eraiki behar delako ideia ez da erabat errefusatzen, eta, haren kutsapena dela medio, dagoeneko oinarriak ipinita daudela erantzuten dute. Hala ere, bi-biei nabaritzen zaie hezkuntza sistema propioaren eraikuntzaren aldarrikapenean ikastola legitimatu nahia baino ez dagoelako susmoa.

Eskola publikoari espainiar izatea egozten diotenengan ere kausi daiteke ideia eta sentimentu ezberdinen nahasmena. Horrela, batzuek, komunitate bikoiztasuna saihestu guran integrazioaren alde egindako deiak erabat engainagarriak direla diote, ustezko aurrerazaletasunaren azpian, Euskal Herriaren berezko eskola den ikastolaren kontrako jarrera baino ez baitago (Xamardo González, 1993b). Eta, besteek, kasu honetan publikotasunaren aldeko oldar sozialaren eraginez, behin eta berriz azpimarratzen dute ikastolaren nahia *guztion* eskola izatea izan dela eta oraindik ere badela (Rodríguez, 1996: 90).

Era horretara, gutxi dira herritarren integrazioaren beharrari muzin egiten diotenak. Izan ere, honaino azaldutako iritzi anabasa alde batera utzirik, erakunde abertzale guztiek azpimarratzen dute hezkuntzak, oro har, bete behar duen integrazio funtzioa; eta ezein erakundek ez du esaten EAEko eskola publikoa *espainiarra* denik. Horretarako zioak ugari dira, eta batzuetaz mintzatzeko aukera edukiko dugu beherago, baina aipa ditzadan, momentuz, euretako batzuk, hala nola: sare

⁵⁰ Frankismoaren garaian euskararen berreskurapenerako sortu zen ikastolak, bada, ez du zentzurik egoera demokratiko berrian, dio M. Onaindiak. Planteamendu antifrankistetan aztoraturik geratu den mugimendu honek, aitzitik, aldarrikatu egin beharko luke Eusko Jaurilaritza euskarazko irakaskuntzaren erantzule izatea (Onaindia, 1988: 26-27).

publikoaren euskalduntzea, batetik; eta herritarren integrazioa sendotu beharrak gizartean jasotzen duen onespén handiaz ondotxo jabetzea, bestetik.

Edozein modutan, eskola publikoak eta ikastolak bete dezaketen integrazio zereginetik harago, abertzale gehien-gehienengan somatzen den kezka hezkuntza eredu propioaren eraikuntzarako zutabeak zehaztea da. Zenbaitentzat, horrela, ikastolak euskal nazioari dagokion hezkuntza eredu izateko baldintza guztiak betetzen ditu, dudarik gabe. Argi eta garbi kontraposatzen dira hezkuntza sare biak. Euskal Herriari propio legokiokeen hezkuntzak ez du zerikusirik estatuak ezarritako eskolarekin, eta, beraz, eskola publikoak aukera bi baino ez ditu: ikastolen proiektura biltzea ala gutxika-gutxika desagertzea. Horrenbestez, ikastolarekin batera datorren hezkuntza eredu *berria* kontrajartzen zaio eskola publikoaren *zahartasunari* (Agirre, 1992), (Xamardo, 1993b).

Berritasunaz gain, iraganari lotuak aurkezten dira ikastolak, gorago ikusi bezala. Are gehiago, ikastola irakaskuntza *eredu alternatibo* bezala gauzatu dela esaten da, eskola publikoari alternatiba ekarri baitio berarekin, euskal lurralde osoan garatzeko eduki duen gaitasunagatik, batez ere; hots, euskal lurraldetasunari eusten diolako, eta nazio hezkuntza izateko borondate argia erakusten duelako. Adibide bat ipintzeko, Herri Batasunarentzat, Euskal Herrian betidanik egon dira hezkuntza proiektuak sortzeko ekimenak, eta ekarpen historiko horiek bizirik mantendu dituzte Euskal Hezkuntza Sistema Propioaz hornitzeko beharrezana eta exigentzia (Herri Batasuna, 1992: 5). Ikastolaz ari da HB, zehazki aipatu gabe, haatik.

Paradoxikoki, indar politiko hau da adierazpen ofizialetan zehar ikastola eta eskola publikoaren osagarritasuna gartsuen defendatzen duena. Eta HBk eskaintzen du, hain zuzen ere, hezkuntza sistemaren eraketa berriari buruzko pentsamolde abertzalea zeharkatzen duen tentsioaren adibide argi bat. Horrenbestez, arestian aipatzen genuen *bata ala bestea* aukeratu behar horretan, urraturik agertzen zaizkigu ezkerreko abertzale asko, ez baitute hautaketarik egin gura. Eskola publikoaren bilakaerak kezka nazionalista askori nahiko egokiro erantzuten diela nabarmen erakusten duen arren, ezinezko zaie ikastola alboratzea, nazionalismoaren bereizgarri diren hainbat aldarrikapenen origarri eta bilgune dela atzematen da eta. Urradura hori, diogun berriro, ez dute sakontasun beraz sentitzen abertzale guztiek, eta zenbaitek arazo handirik gabe irudikatzen dute ikastola eta eskola publikoaren osagarritasuna. Eta, azkenik, beste batzuek, ikastola eta eskola publikoaren balizko osagarritasunak ekar lezakeen tentsioaren aurrean, eskola publikoaren aldeko erabateko apustua egiten dute. Diskurtso hauek guztiak ikastolari eman beharreko irtenbideen justifikazioaren oinarrian ikusi ahal izan ziren.

Era hartara, auziari emandako irtenbideak hobestean, parte hartu zuten, batetik, publikotasunari buruzko pentsakerak; eta, bestetik, hezkuntza sistema propioaren osaketan, ikastolari eta eskola publikoari emandako zereginaren inguruko gogoetak. Baina diskurtso horiekin batera, beste hainbeste aldaera dira aipagarri: abagune politikoak euskal alderdi nazionalistei ezarritako baldintzak; sindikatuak eta Ikastolen Elkartearen arteko iskanbilak; abertzale ez ziren alderdien ekinbideak, eta abar. Aurreikus litekeenez, mota askotako jokaerak osatu ziren eta leku batera edo bestera bideratu zituzten jarduera nazionalistak. Eta ugaritasun horrekin batera, sinesgaitza

badirudi ere, aztergai ditugun erakunde nazionalista askok euren arteko jardun komunari ere eutsi zioten. Horixe da ondoren azaltzen saiatuko naizena; alegia, zeintzuk izan ziren euskal mugimendu nazionalistaren baitako taldeen arteko komuntasuna eta desadostasuna erraztu eta eragotzi zituzten funtsezko gakoak.

4.3. Hobetsitako irtenbideak: aliantzen eta aurkamenduen ardatzak

O. Fullaten arabera, egungo gizarte modernoetan jendeari ez dio axolarik irakaskuntza pribatu edo publiko izateak, eragingarri izateak baizik (Fullat, 1983: 27-28). Abiapuntu ezin desegokiagoa litzateke hau eskuartean dugun ikastolen publifikazioaren azterketan, zeren eta, maiz adierazi bezala, prozesu honek benetako *gatazka* eragin zuen, bereziki azkenengo urteetan. Horren frogatzat Hego Euskal Herriko hedabideetan gai honen inguruan azaldu ziren ehunka iritzi artikulua, erreportaia eta elkarrizketa har daitezke, euren eztabaidagunea ez baitzen izan, inola ere, ikastolak ala eskola publikoak, zeinek helarazten zuen hezkuntza *hobea*. Ez zen, beraz, hezkuntzaren balizko eragingarritasuna jende askoren kezka eta haserrea piztuarazi zituena. Izatez, egun ere, -hots, delako prozesua, teorikoki bederen, amaitutzat eman daitekeenean- dudaezina da eskola publikoko D ereduaren ala ikastolaren artean aukeratu beharrak hamaika buruhauste dakarkiela abertzale askori. Hautaketa ondo asko hausnartu ostean egiten da sarritan, eta ez bakarrik zalantzak eduki ditzaketelako ikastetxe mota bi hauetako zeinetan lortuko den euren seme-alabentzako euskalduntze egokiaren bermeaz. Hau da, euskararen inguruan zein den eragingarriago ez da funtsezko gakoa. Alde hau baztertu gabe, nire ustea da, ordea, eskola publikoaren eta ikastolaren balorazio ideologiko eta politikoa dela, nagusiki, abertzaleak batera ala bestera bideratzen dituen gaur egun. Egungo euskal nazionalistentzat, horrela, ez da hutsala irakaskuntza publiko ala pribatuaren artean egin beharreko hautua, eta zenbaitentzat ere, kontzienteki egindako aukera *militante* bilakatzen dela esan liteke.

Denboran atzera egiten badugu, ikastolaren publifikazioaren inguruan gorpuztu zen gatazkaren azalpenaren gakoak beretsuak direlakoan nago. Erran nahi baita, erakunde abertzaleen artean gauzatu ziren aurkamendu eta aliantzen funtsa, bakoitzaren ikuskera ideologikoak eta jokaera politikoak eragin zuten, eta hauek aintzat harturik lerratuko ditut euskal erakunde nazionalisten jardunak. Honekin ez dut esan gura euskara ez dela egon presente auzi honetan. Duda barik, ostera, gai errepikari izan da urte hauetan guztietan. Hezkuntza gatazkan euskarak eduki duen protagonismoaren froga bat baino gehiago ikusi ahal izan dugu ikastola eta eskola publikoaren balizko osagarritasunaz gogoeta egitean. Hala ere, euskarari begirako pentsamolde jakin batek ez du eduki zio ideologikoen eta politikoen besteko garrantzirik erakunde abertzaleen jokaeretan. Edozein modutan, honetaz guztiaz sakonduko dugu segituan, aipatu hiru ardatz horiek -hizkuntza, ikuskera ideologikoa eta jokaera politikoa- aintzat hartuta.

4.3.1. Ardatz linguistikoa

Dagoeneko esanik utzi dut eraketa autonomikoa indarrean jarri zenez geroztik, euskararekiko atxikimenduan euskal nazionalista guztiak bat datozen arren, euskara

euren arteko elementu banatzaile ere bilakatu dela. Euskarari buruzko ikuspegiok, horrela, isla zuzena dute hezkuntza sistemari eransten zaizkion hizkuntza helburuetan, eta horiek lortzeko proposatzen diren neurrietan ere. Nire ustez, ez batzuek ezta besteek ere ez dute muga zurrunik marraztu abertzaleek hobetsitako irtenbideetan. Adibide bat baino gehiago ekar liteke honen kontura.

Irakaskuntzaren helburuei dagokienez, EAk, esate baterako, hezkuntza sistemaren helburua *elebitasuna* bermatzea dela baiezten du (Eusko Alkartasuna, 1990b). HBk, aldiz, eskolak ikasle *euskaldunak* lortu behar dituela aldarrikatzen du behin eta berriz. Ondorio praktikoetara joanez, alta, ez dira horren mezu ezberdinak. Batetik, pentsatu beharra dago ikasle euskalduna, egungo euskal gizartean, elebidun dela derrigor. Eta, bestetik, HBk berak, 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak ezarritako helburuekin -alegia, derrigorrezko eskolatzea amaituta, ikasle guztiek hizkuntza ofizial biak ezagutzea- bat etorri, berehalako xede bihurtzea eskatu du behin baino gehiagotan, administrazio autonomikoak irakaskuntza euskalduntzeko benetako *borondaterik ez duela* gehituz (Herri Batasuna, 1992: 11). Jakina, EA eta HBren mezuen azpian elebitasun eta elebakartasunaren helburu orokorrak daude, eta, are azpiago, proiektu politiko ezberdinen eragina. Gorago ere mintzatu naiz honetaz. Bestela esanda, eskolak euskarari begira bete behar dituen helburuen oinarri-oinarrian ikuspegi politikoen arradikaltasun maila islatzen da.

Helburuak albo batera utzita, hezkuntza sistemaren euskalduntzeari begira proposatu diren neurriei begiratzen badiegu, antzeko zerbait gertatu dela esan daiteke. Azaldurik geratu dira irakastereduen ezarpenaren inguruan talde abertzaleen artean sortzen diren desadostasunak. Baina, neurrien balizko arradikaltasunak ez du muga zehatzik jartzen euskal erakunde nazionalisten artean ikastola eta eskola publikoaren artean egin beharreko hautu horretan. Jar dezagun beste adibide bat honen harira.

Ikastolen Elkartek jarrera ezberdin samarrak plazaratu ditu irakastereduen auzian. 1991n, esate baterako, gogoeta sakonak egin zituen euskarak nazio hizkuntza estatusera heltzeko aurkitzen dituen oztopoez. D eredua argi eta garbi defendatu zuen orduan, euskal haurrak euskalduntzeko irakasteredu eragingarri bakarra zela adieraziz (Ikastolen Elkartea, 1991: 20 eta hur.). Urte bat geroago, alta, 1982ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak ezarritako hiru ereduen onarpen esplizitua egin zuen (Ikastolen Elkartea, 1992: VI atala). Irakastereduei buruzko ikuspegiaren aldaketa horrek ez dio eragotzi Ikastolen Elkarteari urte hauetan guztietan tinko defendatu izana ikastola sarearen biziraupena. EILAS, aldiz, zurrunago agertu da administrazio autonomikoaren hizkuntza politikari eginiko kritikan: adibidez, irakastereduen kontra argudiatu du, besteak beste, Hezkuntza Sailak tokian tokiko egoera soziolinguistikoa erabiltzen duela hezkuntza sistemaren benetako euskalduntzeari ez ekiteko aitzakia gisa (STEE-EILAS, 1990: 14 eta hur.). Errepikatu beharrik ez dago, alabaina, nolako indarraz eutsi dion EILASek ikastola sare publikora biltzeari.

Ikusten denez, sarritan uste izaten denaren kontra, irakaskuntzaren euskalduntzeari buruzko ikuspegien arradikaltasunak ez ditu halabeharrez bideratu erakunde abertzaleak ikastola hobestera edo eskola publikoa baztertzerara. Hain zuzen ere, EILAS sindikatuak eskaintzen du adibiderik onena abertzaleen jardunen gako prozesu honetan euskara ez dela izan azaltzeko. Eskolaren euskalduntzearen

defendatzaile sutsua izanik, inolako zalantzarik ez du azaldu urte hauetan guztietan zehar ikastolak hartu behar zuen hautuaz⁵¹. LAB, esate baterako, oso hurbil egon da EILASetik administrazio autonomikoaren hizkuntza politikaren salaketa egiteko orduan; ikastolen publikazioaren inguruan, aldiz, desberdin jokatu zuen, eta azken erabakia hartu behar izan zenean, ikastola sare pribatuan geratzearen alde agertu zen.

Ikus dezagun, ordea, erakundeetatik aparte, auzi honen inguruko eztabaidan parte hartu duten zenbat gogaide abertzalek adierazitakoa. Argi utzi dut gorago nazio identitatea zehazteko euskarak erdietsi duen nagusitasuna. Espero zitekeenez, beraz, abertzale askorentzat, prozesu honen sakon-sakoneko gakoa euskal hizkuntzaren etorkizunaren bermea izan da. Hona hemen adibide bat:

“Politikoki, inori ez zaio itzurtzen Euskal Eskola Publikoaren inguruan jokatzeko ari denaren garrantzia. Hamabost urte dira Franco hil zela, eta oraindik euskararen alde historia osoan inoiz sortu den mugimendurik zabalena eta sakonena, Ikastolen mugimendua, bere *statusa* finkatu gabe dago. Eta zorionean, behinolako "Escuela Nacional" haien izaera ahantziz, ikastetxe publiko askok euskarazko irakaskuntzari gogotik heldu diolarik, zerk eragozten du sare bakar publiko euskaldunaren sorrera?... Badakit mota eta maila ezberdinetako arazoak daudela arazo handi honen baitan, baina huts egiteko beldur handirik gabe esango nuke, oinarri-oinarrian hizkuntzarena dela faktorerik determinatzaileena. Estatu Espainiarrak, Estatu hedakor guztiek bezala, ezin du onartu bere jabegoko lurralde batean hizkuntz komunitate diferente baten erakuntzarako zutaberik garrantzitsuenetakoa den irakaskuntzaren gizarte-funtzioa eskumenetik gal dakion.” (Arrieta, 1991: 39).

Ez dago batere argi, alabaina, *politikoki jokatzeko ari zena* euskaraz helarazitako irakaskuntzaren antolamendu kontu hutsa zen. Bederen, abertzale guztiek ez dute era berean ulertu gatazka hori. Izatez, aipatu berben iluntasuna alde batera utzita, planteamendu linguistikoen arradikaltasunak ez du muga zurrunik zehaztu gogaide abertzaleen artean ikastola edo eskola publikoa hobesteko orduan. Hiru pentsalariren jarrerak har ditzakegu baieztapen honen erakusle gisa. Euskararen berreskurapenari begira hirurek duten kezka nabarmena hezkuntza sistemak eduki behar duen antolamendua da; hots, euskarazko irakaskuntza bermatzea jotzen dute helburutzat. Era hartara,

... *euskalduna* da hitz sustantiboa; *publikoa*, aldiz, adjektiboa da.” (Iztueta, 1993: 168).

Oinarri-oinarriko planteamendu honekin bat etorrira ere, zenbait irtenbide plazaratu dute hirurek ikastolen publikazioaren auzian. Jaione Apalategirentzat, ikastolak bakarrik bermatzen du *euskal irakaskuntza*, eta etorkizunerako uzten du Euskal Herriko hezkuntza sistemaren erabateko antolaketa (Apalategi Begiristain, 1994: 317-318). Ondorio praktikoetara joanez, beraz, ikastola sarea bere horretan mantentzea hobesten duela esan liteke.

⁵¹ EILASen inguruko jendea, oro har, sumindurik agertzen da ikastola sare pribatuan geratzearen aldekoek euskararen mesedean doalako argudioa erabiltzen dutenean. Alde batetik, jatorrizko haur erdaldun gehienak eskola publikoetara doazen heinean, sare horretan ikusten baitute euskalduntzearen erronka; eta, bestetik, euskarazale guztien indarrak sare publikoaren baitan bilduko balira, euskararen aldeko ahalegina eragingarriagoa litzatekeela uste baitute (ik. Etxaniz, 1993).

Joxe M. Odriozolarentzat, beste alde batetik, ikastolen mugimendua euskaltasunaren inguruan dagoen gune trinkoena da, eta baturik mantentzearen beharra nabarmentzen du. Hala ere, inolako dudarik ez du azaltzen ikastola sare pribatuan geratzeak dakarren arriskuaz. Ikasle gehien duen sarea publikoa dela aintzat harturik, ulertezintzat jotzen du ikastolak saihebideta hartu eta *erreserba gisa* mantentzea, sare publikoan baitago euskalduntzearen erronka nagusia (Odriozola, 1993: 26-30).

Paulo Iztuetak, azkenik, ikastolari euskararen berreskurapenean bete duen gidaritza onartzen dio, baina, Odriozolaren antzera, ez dio irtenbiderik ikusten *euskara* sare pribatuan geratzeari, nahiz eta guztiz ziurtaturik ez duen ikusten sare publikoan. Hartara, ondorioztatzen du, pribatizazioak jadanik *impassean* gauzkalako eta PSOEk eta honen hariko alderdi estatalek bultzatzen duten Euskal Eskola Publikoaren ereduak euskalduntasunetik deus ez duelako, geratzen den bide bakarra ikastola guztien eta sare pribatu nahiz publikoetako lerro euskaldunetan dihardutenen arteko batasuna bultzatzea da, plangintza komun baten eskutik (Iztueta, 1993: 144-146).

Dudaezina da urte hauetako guztietako gogoeten gakoetako bat euskararentzako *sare egokienaren* bilaketa izan dela, baina, neurri handi batez, diskurtso hori, kasu gehienetan, alde aurretik egindako hautuaren *gehigarri* bezala aritu dela esatera ausartuko nintzateke. Bestela esanda, aukera egiteko orduan, ikastola eta eskola publikoari begirako mesfidantza eta atxikimendua izan dira eragile inportanteenak. Ikastolaz mesfidati direnek itsu-itsuan baieztzen dute eskola publikoan -eta ez beste inon- dagoela euskararen etorkizuna. Eta gauza bera alderantziz. Horrela, ikastola sare publikoarekin bategitea begi onez ikusi ez dutenek indar handiz salatu dute Euskal Eskola Publikoaren Legea (EEPL) ikastolak burutu duen hizkuntza normalizazio zereginaren aurkako eraso bat izana (Idiazabal, 1993). Eta, ikastola sare publikora biltzeko egokitasuna defendatu guran, eskola publikoaren euskalduntze prozesuari buruzko datuak azaleratzen direnean, garrantzia ere ken dakieke ustezko datu objektiboek, zeren eta

“Ez da (...) aski egitura bera 'euskaratzea', hezkuntzak baditu eta, hizkuntzaz gain, beste hainbat betekizun.” (Hezkuntz Mintegia, 1993: 75).

Diogun berriro, euskarari buruzko diskurtsotik harago joan behar da, nolabait esatearren, talde abertzaleen artean gauzatu diren adostasun eta desadostasunen funtsaz jabetzeko.

Ostera, euskararen aldeko erreibindikazioak banaketa argi samarra ezarri du abertzale eta ez-abertzaleen artean, eta, ildo honetatik, euren arteko aurkamenduan funtzio sinboliko inportantea bete duela esan liteke. *Argi samarra* izan dela diogu, kontuan hartu behar delako ikastolen publifikazioaren azken aldian PSE-PSOE eta EAJren arteko gobernu koalizioa indarrean zegoela, eta, beraz, euren arteko balizko desadostasunak askoz izkutuago garatu zirela. Hala ere, dudarik ez dago, adibidez, *Eskola Ituna* sinatzeko egon zen oztoporik handiena euskararen trataerari buruzko iritzi diferentziak izan zirela. Geroago -alegia, EEPLren testua adosteko orduan- alderdi biek onartu zuten ezinezkoa izan zela aurreko legeriak ezarritakotik harago joatea, eta beste momentu baterako utzi behar izan zutela eskola publikoko euskararen presentziari buruzko arau multzo berri baten erabateko osaketa.

Era hartara, alderdi bi hauek gobernukide izateak apaldu egin du, hein batez bederen, adierazitako aurkamendua, baina ezin izan du erabat ezabatu euren arteko liskarra; halako moldez non, EEPL ebaztear zegoela, EAJko zenbait sektore ere kezkatu agertu baitziren PSE-PSOEek, euskarari muzin eginez, adierazitakoaz⁵². Ikastolen publikazio prozesuan euskarari erantsitako zeregina euskal nazionalista eta ez-nazionalisten arteko elementu banatzaile izan zelako beste froga bat zerak eskaintzen du, alegia, auzi honetan, ñabardurak ñabardura, UA, PSE-PSOE eta PP bat etorri zirela euskarari ustez emandako gehiegizko garrantzian⁵³. Eta halaxe atzematen zuten erakunde abertzale gehienek, Alderdi Sozialistari *euskarari beldur izatea* eta PPren zein UAren planteamenduekin ados egotea egozten zizkiotelarik. Hala, PPrenzentzat, adibidez, EEPLren testuan, hezkuntza euskalduntzearen zerbitzuan jartzen zen, eta ez alderantziz. Haren esanetan, lege egitasmoak ez zuen bermatzen hizkuntza ereduak aukeratzeko. UArentzat, delako legearen funtsezko helburua, besteak beste, gizartearen euskalduntzea zen eta, ondorioz, eskola publikoa ikastola bihurtaraztea⁵⁴.

EAJtik EILASera, euskal talde nazionalista guztiek azpimarratzen dute, ordea, hezkuntzaren euskalduntzea baitezpadakoa dela eta euskal herritarren arteko integrazioaren mesedean joango dela. *Euskal Eskola* eraiki nahi dute denek, inolako salbuespenik gabe. Baina batzuek derrigorrezkotzat jotzen dute *publiko* izenlaguna eranstea, gorago ikusi bezala. *Ardatz ideologikoa* dei dakiokkeenaren ildotik aztertuko ditut ondoren euren artean egondako unean uneko bereizketak eta adostasunak.

4.3.2. Ardatz ideologikoa eta sindikala

Hasiera batean, bederen, erraz samarra iduri lezake aldaera ideologikoak auzi honetan eragin duen erakunde nazionalisten arteko muga marrazteak. Hartarako, dudaezineko erakusletzat har litezke publikotasunari buruzko diskurtsoak. Euskal eskolaren izaera *publikoa* nabarmenduz agertu zaizkigu, horrela, ikusi ditugun ezkerreko talde abertzaleak, alegia, EE, EILAS, HB eta LAB. Bigarren multzo batean EA, EAJ eta Ikastolen Elkartea leudeke, zeintzuek *Euskal Eskola* eraiki beharra azpimarratzen baitute; eta, azkenik, nolabaiteko erdibidean geratzen da ELA sindikatua. Alderdi politiko eta sindikatu abertzaleen ikuskera ideologikoaz gain, ez da ahaztu behar euskal mugimendu nazionalistaren sektore ezkertiarretan itzel indartu

⁵² "Los padres están hartos del debate lingüístico.", edota "Que los alumnos adquieran conocimientos en euskera o en castellano no deja de ser accesorio." bezalako baieztapenak egin zituen F. Buesa Hezkuntza sailburuak (ik. El Correo español, 1993/I/3, 12. or.). Hurrengo legealdian ere, Hezkuntza sailburu honek antzeko adierazpenak egiten jarraitu zuen: "Lo que importa al ciudadano es tener un sistema de enseñanza; el euskera no es un problema de la enseñanza; es algo accesorio." (El Correo español, 1997/II/3). EAJren eraginpeko Deia egunkarian M. Atxagak egindako iruzkin ugariak aipatu egonezina adierazten dute. Ikus, esate baterako, *Trumoi lehorrak politikan* (Deia, 1993/II/13, 8. or.).

⁵³ Ñabardurak egin beharko lirakekeela diot, PSE-PSOE, gobernukide zenez gero, ez baitzen EEPLren kontra azaldu, baina, esan bezala, zenbaitetan argi eta garbi adierazi zuen euskara bigarren mailako arazo zela.

⁵⁴ Adierazpen horiek Alderdi Popularrak eta UAk egin zituzten legearen zuzenketa-eskeetan, 1993ko Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialaren 71. aleak bildutakoak.

dela urte hauetan irakaskuntza *publikoaren* aldeko jarrera, eta beronek *pribatu* kutsua eduki lezakeen guztiaren arbuio sendoa eragin duela. Jarrera honen indarrak kexu agertzen zaizkigu ezkerreko abertzale batzuk, haien ustez, ikastolaren biziraupena koloka jartzen baitu:

“En las ikastolas el complejo (...) es el de ser privado, porque en este país el ser privado, sólo crea complejos en el campo de la enseñanza (...) ... por desgracia, los acomplejados vemos la privacidad de las ikastolas como algo transitorio, no tanto por la premura de levantar una auténtica escuela pública vasca como porque estando en la 'privada' nos sentimos realmente mal.” (Bernaola Lejarza, 1993).

Abertzale honen hitzek aipatu egonezina adierazten dute, baina ez dute ondo islatzen errealitatea, nire ustez. Maiz azaldu dut ezkerrek, oro har, arlo publikoari eransten dion zama moral eskerga: publiko den guztia bultzatu behar da, arlo pribatua berekoikeriaren eremu da eta. Funtsezko ideia hori gizarte arlo ezberdinetara eramaten denean, batera ager dakizkiguke ezkerreko abertzaleak, zerbitzu publikoen pribatizazioa gaitzetsiz, kasu; baina, hezkuntza hizpide delarik, publikotasunari buruzko pentsakera honekiko komuntasuna ahuldu egiten da, bestelako aldaerek hartzen baitute parte.

Era hartara, ikastolen publikazioaren inguruko gatazkan sortu diren aurkamendu eta aliantzen ulermenerako, nire iritziz, aipatu diferentzia ideologikoak esanguratsuagoak izan dira euskararen inguruko jarrerak baino. Alabaina, haiek ere ez dira erabatekoak izan jarrera jakinik defendatzeko orduan. Adibide bakarra jarrita, ideologikoki oso hurbil dauden EILAS eta LAB sindikatuek irtenbide ezberdinak hobetsi dituzte auzi honetan, gorago azaldu bezala.

Edozein modutan, eta sakontasun ezberdinez izan bada ere, aipatu lau erakunde abertzaleen ikuskera ezkertiarrek nolabaiteko komuntasuna ekarri die EAJk, EAK eta Ikastolen Elkartek ustez defendaturiko jarrera pribatuzaleak kritikatzeko. Bereizketa hori nabarmen agertu zen EIKE proiektua eztabaidatu eta, haren ondorioz, EEPA plataforma osatu zenean. Ikastolaren Elkarteari, horrela, kritika gogorak egin zizkioten ezkerreko talde abertzale guztiek, hari egotziz jardun pribatua baina diru publikoz finantzatua gauzatu nahi zuela (Euskadiko Ezkerra, 1983b) eta Jakin, 1983). Hain zuzen ere, EIKERI begirako jarrerak argi eta garbi banatu zituen euskal nazionalismo kontserbadorea eta ezkertiarra. Alabaina, ikastolaren jarraipena ez zen koloka jartzen; aitzitik,

“La alternativa de escuela pública vasca se plantea programáticamente en ciertos sectores de la izquierda intentando una normalización que no suponga pura oficialización; un carácter público que no sea simple estatualismo.” (Arpal, et al., 1982: 53).

Baina, ordutik aurrera, ardatz ideologikoa ez da izan horren erabakigarri, sekula garrantzirik galdu ez duen arren. Bateko, EEren garapen ideologikoak, eta, besteko, abagune politikoaren beraren bilakaerak, lausotu egin dute aipatu komuntasuna.

Bada, EE eta Ikastolen Elkartearen arteko areriotasuna apaldu egin zen, lehena, publikotasun kontzeptu gogorra bigunduz, sozialdemokraziara hurbildu zen neurrian. Hein batez, bederen -gorago aztertu bezala-, HBk publikotasun kontzeptu bigunerantzako gauzatu zuen hurbilpenak ere 80ko hamarkadan zehar Ikastolen

Elkartearekin eduki zituen diferentziak 90ekoaren hasieran apaldu izana erraztu zuen, baina handik ez zen etorri, adibidez, EArekin edota EAJrekin jardun komunik eramatea. Erran nahi baita, askoz inportanteagoa izan zen erakunde bakoitzaren jokaera politikoa, zeina, besteak beste, abagune politikoarekiko harreman estuetan egon baita. Eta horrexek ere ulertarazten digu, halaber, 90eko hamarkadaren hasieran, Euskadiko Ezkerra PSE-PSOera hurbiltzen zen heinean, haren eta Ikastolaren Elkartearen arteko giro mikatza sortu izana. Behin eta berriz, hortaz, ardatz ideologikoak eragindako harremanek ardatz politikoa dei diezaiokegunera garamatzate. Hala eta guztiz ere, aldaera politikoak zeresan handiagoa eduki izanak ez du esan gura erakunde abertzaleek atxikitu dituzten ikuskera ideologikoak ezabatu egin direnik. Aitzitik, delako ardatz ideologiko horren eragina presente egon da publikazio prozesuaren momentu guzti-guztietan eta, are gehiago, zenbait talderen jokaeran funtsezko eragilea izan da, segituan ikusiko dugunez.

Nola edo hala, ardatz ideologiko honen arabera azter genezake harreman gatazkatsu beste multzo bat, alegia, Ikastolen Elkartearen eta sindikatu abertzaleen artean gauzatu dena. Oro har, hiru erakunde sindikalek legitimitatea kendu zioten Ikastolen Elkarteari ikastola osoaren ordezkari bailitzan agertzeko, langileen eskubideak eta euren benetako partaidetza bazter uzten zituen heinean. Aurreikus litekeenez, tirabira gogorrenak ELAk eta, batez ere, EILASek protagonizatu zituzten. Sindikatu abertzaleen aurkezpenean esanik utzi dugu ELAren jardunaren osagai nagusia bere alde sindikala izan dela eta EILASen kasuan, berriz, alde ideologikoa nabarmendu dela. Alde bi horiek itzelean gaiztotu zuten Ikastolen Elkarte eta sindikatu horien arteko harremana.

EILASen eta Ikastolaren Elkartearen artekoari dagokionez, bereziki txarra izan da prozesu osoan zehar, elkarrekiko deskalifikazioz bete. Ikastolen Elkarteak ikastolaren etsaitzat jo du EILAS eta, are gehiago, erakunde abertzaleez besteko ezaugarritu du zenbaitetan, CCOO eta UGT sindikatuak osatutako multzo berean sartuz. Ikastolaren Elkartearen esanetan, hiru sindikatu hauek oztopatu egiten zuten euskal eskola publikoaren eredu berria abian jartzea⁵⁵. Horren gogor hitz egin gabe ere, baina sarritan era inplizituan, Ikastolaren Elkarteak behin eta berriz egotzi izan dio EILASi ikastola askotako giro nahasiaren erantzule izatea. Errepikatu beharrik ez dagoela uste dut EILASek Ikastolen Elkarteari bizkarreratu izan dizkion kritikak, maiz aipatu baititut dagoeneko: laburbildurik, euskal eskola publikoa eraikitze borondaterik eza. EILASen ustez, Ikastolen Elkarteak sare publikoan egotearen abantaila ekonomikoak baino ez zituen baliatu nahi, eta bere jarrera indartzeko, eskola publikoa desprestigiatzeari ekiten zion.

ELArekiko eta, batez ere, LABekiko harremana ez da horren gatazkatsua izan, edo, bederen, ez da azaleratu argi eta garbi. Izatez, Ikastolen Elkarteak ekarpen ideologiko interesgarriak egin izana onartu dio noizbait LABi (Larrun, 1985: 15); logikoki, publikotasunari buruzko diskurtsoan, ikastolen mugimenduaren defentsa atzeman dion neurrian. Duda ezina da, horrela, Ikastolen Elkarte eta LABen arteko balizko

⁵⁵ Ikus I. Etxezarretak esanikakoa in Larrun, 1991: 14-15.

harreman txarren eragilea alde sindikal-ideologikoa izan dela. 80ko hamarkadako une batzuetan, batez ere, mesfidantza nabaria somatu zitzaion sindikatuari: esate baterako, 1987ko Abenduko hitzarmena sinatu ostean, ikastolaren kudeaketa paritariorantzako aurrerapausorik eman ez izanaz kexatzeaz gain, argiro mahaigaineratu zuen hartutako konpromiso guztiek sare publikoa eta ikastolaren arteko *benetako* hurbilpena ahalbidetu behar zutela, eta, beraz, gogor salatu zuen bermerik gabeko diru publikoaren balizko erabilera. Dokumentu berean, administrazioak zein Ikastolen Elkarteak egindako planteamenduei aurre egiten zien, besteak beste, Ikastolen Elkarteak ez baitzuen helburu ideologiko argirik (LAB, 1988).

Baina 90eko hamarkadaren hasieratik aurrera, nabarmen lausotu zen Ikastolen Elkartearekiko aurkamendua. LABen beraren esanetan, aldaketarako zio nagusia izan zen ikastoletako gurasoen erakundeak ere beraren interesgunea aldatu zuela, eta ordura arteko lehentasuna zuen finantzaziotik ikastolen izaeran sakontzera iragan zela, ikastolaren izaera publikoa eta euskalduna nabarmenduz. Jarrera horrek kontsentsu zabala ahalbidetu zuela gaineratzen zuen, baita, ahalegin horretan, ENAMen inguruko sektoreek berebiziko zeregina jokatu zutela ere (LAB, 1991). Ikus daitekeenez, LABentzat, interes sindikal hutsen ginetik, lehentasun osoa eduki zuen ikastolaren aldeko mobilizazio politikoak, eta honek, berriro esanda, jite berria hartu zuen 90eko hamarkadaren hasieratik aurrera, batez ere. Aurretik ere ikusi dugu, honen harira, EILASi leporatzen ziola auziaren funts politikoaz jabetu ez izana, eta, ondorioz, ikastolekin obsesionatuta egotea eta arazoan azalean geratzea (LAB, 1992b: 13).

ELAk, aldiz, jardun sindikalari eman zion garrantzi nagusia, aldaera guztien ginetik, halako moldez non, EEPL ebaztear zegoela, argi eta garbi baieztu baitzuen haren interes nagusia ikastoletako langileen eskubideen defentsa zela (Larramendi, 1993). Hori dela eta, kritika bat baino gehiago egin zizkion Ikastolen Elkarteari, sindikatuekin ez zuela negoziatzen edota interes ekonomiko hutsek eraginda aritzen zela esanez.

Honaino esandakoa laburbilduz, beraz, ardatz ideologikoak eta sindikalak zeresanik eduki dute, eduki ere, prozesu honetan zehar euskal talde nazionalisten artean gauzatu diren harremanetan. Hala ere, guztiz erabakigarri izan ez delako frogatzat zera errepika dezakegu, EEPLk ezarritakoari begira hiru sindikatuok ez zutela jarrera bera defendatu, alegia. LABena eta EILASena behin baino gehiagotan azaldu dut. ELAk, aldiz, askoz indefinizio handiagoa erakutsi zuen. Haren ustez, ikastoletako langileek tokian tokiko egoera aztertu eta gero, euren interesen mesedean joan zitekeen irtenbidea bultzatu behar zuten eta, esan gabe doa, sare publikoaren bategitea zen irakasleen baldintza onenak eskaintzen zituena. Ezker Abertzalearen baitan, oro har, erabat desprestigiaturik egon den funtzionario figuratik aldendu nahi izan zuen, baina, ikastola sare pribatuan geratuz gero, lanpostuak koloka egon zitezkeela ohartaraziz, etorkizuna ziurtatzea aholkatu zien afiliatuei (ELA, 1992).

Euskal nazionalista batzuek -sindikalki eratu gabeak, logikoa denez- ulertezintzat ez ezik, guztiz salagarritzat jo zuten ELAren irtenbide hau, irakasleen baldintza materialen hobekuntza sindikatu abertzale gisa zegokion ikastolaren aldeko apustuaren ginetik jartzen ari baitzen (ik. Herrero / Zalakain, 1993). Hain izan zen erabatekoa jardun sindikalaren pisua non, EEPLren kontra eratu zen Denon Artean plataformara biltzeari

uko egin baitzion ELAk, ekimen hartaz Ikastolen Elkartea baino ez zela profitatuko adieraziz.

Zenbait abagunetan delako ardatz ideologikoa edota sindikala guztiz erabakigarri izan ez direlako beste froga bat da EILASek aipatu plataforman parte hartu izana, barne eztabaida askorekin izan bazen ere. Hala, urte hauetan guztietan buruz buruko aurkamendua garatu zuten Ikastolen Elkartea eta EILAS plataforma bereko kide izan ziren, beste talde batzuekin batera. Ardatz politikoaren arabera baino ezin uler daiteke prozesuaren azkenaldian suertatu zen talde abertzaleen bilketa hura.

Eta une horretan ez ezik, prozesu osoan zehar ere aurki daitezke ardatz ideologikoa eta sindikala ardatz politikoak zeharkaturik. Honen erakusle LABen adierazpenak direla esan dut gorago, baina badago, egon ere, era berean uler daitekeen beste adibide aipagarri bat, Gasteizko Tokieder Ikastolako guraso talde batena, alegia. Hain izan zen gogorra ikastola honetako barne aurkamendua, non birritan banatu baitzen urte gutxitan. Luze joko luke aurkamendu hura zertan zetzan zehatz-mehatz azaltzeak, baina istiluen hari eroalea beretsua izan dela esan liteke. Agidanez, arazoak irakasleak alde batean eta guraso gehienak bestean ipini zituen. Lehenek, Arabako hezkuntza sare publikoan integratu, gurasoen intrusismoari uko egin eta langileen askatasun ideologikoa errespetatu beharra aldarrikatzen zuten; gurasoek, aldiz, ikastolaren proiektuari atxikitzea exijitzen zuten baitezpadako baldintza bezala, eta, ondorioz, gurasoen partaidetza sendoa ikastolaren norabidean, irakasleei leporatuz, horrela, interes gremialista eta korporatibisten eskutik aritzea. Baina hemen aurkamenduari buruz gurasoek emandako azalpena interesatzen zaigu, 1982an sare publikora iragatea hobetsi zuten irakasleen kontra:

"Ese es el tema. Un proyecto, fruto de la lucha contra casi todo, llevado a cabo por un colectivo que se ha dotado de los órganos y los criterios pedagógicos que la experiencia de estos años ha revelado más idóneos para la viabilidad de una enseñanza íntegramente en euskara en un territorio como Alava, se encuentra cuestionado en su totalidad. Y ello por un sector que defiende, en lo más profundo, intereses gremiales, de casta, íntimamente conectados con los planteamientos políticos y educativos de la administración. No se trata de una tercera vía, sino del enfrentamiento antagónico en un momento dado entre el *Estado* (representado por la administración vascongada) y los *disidentes* y un movimiento popular de carácter nacional y liberador. De ahí su virulencia y el apoyo que los escindidos encontraron en los medios de comunicación, sindicatos, *trabajadores de la enseñanza*, partidos e instituciones políticas regionales." ⁵⁶

Aurkamenduan datzan azpi sindikal ukaezinetik harago, adierazpenok nabarmen uzten dute ikastolaren etorkizunari buruzko eztabaidan proiektu politiko ezberdinak zeudela jokoan; edo, agian hobe esanda, zenbait abertzalek horrelaxe ulertu zutela gatazka hura. Ikus dezagun segituan, urte hauetan zehar ikastolari eman beharreko irtenbideak proposatzeko orduan, nola birkokatzen digun delako ardatz politikoak euskal mugimendu nazionalistaren jarduna.

⁵⁶ Jakin badakit ikastola horren ibilbidearen historia jasotzen duen dokumentu luze hau 1994an Tokieder ikastolako guraso talde batek egin zuela; baina, bertan ez da ez egileen izenik ezta datarik ere agertzen. Hori dela eta, bibliografia aipamenetan (Tokieder, datarik gabe)- erabiltzea hobetsi dut. Aipu hau 24. orrialdean dago.

4.3.3. Ardatz politikoa

Zalantzarik gabe, nire iritziz, ikastolen publikazioaren inguruko auzia hoberen bereizten duena *gatazka politiko* izana da. Zaila da, ordea, noren arteko gatazka izan den zehaztea eta, batez ere, hezkuntza sistemaren antolamenduari begira talde bakoitzak hobetsi duen jokaeran aldaera politikoak nola eragin duen azaltzea.

Lehenengo arazoari dagokionez, gorago ere esanik utzi dut ikastolen publikazioa abertzale eta ez-abertzaleen arteko tirabira iturri izan dela. Ez naiz, oraingoan, hezkuntza sistemaren eta euskararen arteko harremanen inguruko jarrerez mintzo, ikastolari erantsi zaion esangura politikoaz baizik. Bada, urte hauetan guztietan zehar, ikastolarekiko gero eta distantzia handiagoa -eta ondorioz, arian ariko mesfidantzasomatu ahal izan zaizkie euskal nazionalismoaren kritikoei, eta, EEPL ebatzi berri zegoela, batek baino gehiagok kexua adierazi zuen ikastola *euskal arazo* bilakatu izanaz; alegia, Euskal Herriak urtetan eduki dituen arazo endemikoetako bat, arau demokratikoak onartzen ez diren neurrian, irtenbiderik ez duena (Bezunartea, 1993).

Paradoxikoa bada ere, iritzi hau bat dator, hein handiz, zenbait abertzalek adierazitakoarekin, nortzuentzat inolako dudarik ez baitago ikastolaren biziraupena euskal arazo ezaugarritzean, hots, euskal nazioari dagokion arazo dela baieztean. Abertzale orok ez dute, ordea, berdin irudikatzen ikastolaren etorkizuna. Luze mintzatu naiz honetaz euskal mugimendu nazionalistak publikotasunaz sostengatzen dituen diskurtsoak eta ikastola eta eskolaren arteko balizko osagarritasunaren inguruko usteak aurkeztean. Iritzi anabasa hartatik ateratzen nituen ondorioetako bat zen abiapuntuan gutxieneko komunitasuna kausi zitekeela. Erran nahi baita, guztiek aldarrikatzen dute Euskal Herriarentzako *Hezkuntza Sistema Propioa*, baina esangura ezberdina eranstean diote horren eraikuntzari. Ikastolaren publikazioaren auzia noren arteko gatazka izan den galdetzean, beraz, argi dago erantzuna: abertzale eta ez-abertzaleen artekoa izateaz gain, abertzaleen arteko aurkamendu politikoa ere islatu duela, neurri handi batez.

Aldaera politikoak eragindako ezberdintasunen analisisian hiru dira, nire ustez, hartu beharreko aldeak. Lehena, esparru politikoaren eraldaketa eta hemendik ondorioztatu diren abagune diferenteak. Bigarrena, mugimendu abertzalearen baitan beha daitekeen ugaritasun politikoa, bereziki nazio askapenari begira hobetsiz joan diren taktika politikoaren arabera aztertua. Eta hirugarrena -aurreko biek harreman estuetan dagoena- euskal mugimendu abertzalearen baitan gertatu den errotiko bereizketa ekarri duena: alderdi politiko nazionalista baten aldetik gobernu ardurak eskuratu izana urte hauetan zehar. Faktore hauek guztiek prozesu honetako partaideen arteko zenbait aliantza eta aurkamendu gorpuztu, eta, ondorioz, unean uneko irtenbide diferenteak kaleratu izana eragin dute. Ikusten denez, azterketa kronologikoa egitea dut helburu, eta, hartarako, aldi bitan bereizi dut prozesua. Eraketa aurreautonomikotik EAJk eta PSE-PSOEk osatu zuten estraineko gobernu koaliziora arte heltzen da lehena, eta ordutik EEPLren ebazpena arte, 1993an, doa bigarrena.

4.3.3.1. Prozesuaren lehen aldia (1978-1987).

Lehen aldian, funtsezko banaketa bat kausi daiteke mugimendu nazionalistaren baitan. Alde batean EAJ zegoen, nagusitasun politikoari esker, administrazio autonomikoaren kudeatzaile bilakaturik; eta, berarekin batera, Ikastolen Elkarte, zeina biziki indartsu sentitzen baitzen, ikastola sareak lortutako hazkunde esanguratsua eta abertzaleek harekin adierazitako atxikimendua zirela medio. Erakunde biok izan ziren urte hauetan zehar ikastolaren norabidearen dudaezineko protagonistak. Harreman gozoak garatu ziren euren artean, eta horren adibide bezala arian-arian ebatzitako hezkuntza legeria har liteke. Gorago ikusi bezala, kaleratu ziren legeen edota egitasmoen oinarri filosofikoa EAeko hezkuntza sistemaren antolamendua trantsiziokotzat jotzea izan zen, etorkizunerako uzten zelarik euskal eskola publikoaren erabateko ordenamendua. Bitartean, beraz, ikastola aparteko sare bezala, baina administrazioaren babes osoz, mantentzea defendatu zuen EAJk. Noski, jardun honetan bat etorri zen bete-betean Ikastolen Elkarte, zeinaren interes nagusia ikastola sarearen biziraupena baitzen. Adibide modura ulertu behar da, EIKE proiektua eztabaidatu zenean, Ikastolen Elkarte izana haren alde egin zuen erakunde abertzale bakarra.

EAJri dagokionez, hezkuntza arloan hartu zuen jokaera ulertzeko, funtsezkoa deritzot garai hartan zerabilen jardun orokorrak jabetzeari. Arestian ikusi bezala, diskurtso politikoaren ardatza Autonomia Estatutua bete gabe zegoela zen eta, ondorioz, botere zentralarekiko menpekotasunaren salaketari ekiten zion behin eta berriz. Hemendik etorri zen PSOEk eta gobernu zentralak ustez eramandako politika antiautonomikoaren kontra indar biziz borrokatu izana. Nabarmen agertu zen alde hori aipatu EIKE proiektuaren defentsan azaleratu zituen argudioetan. Berauetako bat zera izan zen, eskola transferitua estatu mailako arauketaren menpeko zela, eta, beraz, sakonki aldatzerik ez zegoela, besteak beste, sare publikoko irakasleen lekualdaketak estatu mailan egiten baitziren. Ikastola *transferitutako bidean* sartzeak, horrela, haren nortasuna galtzeaz gain, Espainiako Legeriaren babesean aritu beharra ekarriko zuen (ik. Jakin, 1983: 70-72).

Nagusiki, eraketa autonomikoa amaitu gabeko proiektu atzemate horretan markoztatu beharko litzateke EAJk ikastola sareari emandako babes instituzional eskerga. Nagusiki, diot, eta ez bakarrik. EAJren ikuskera ideologikoak eskola publikoaren defentsa gartsurik ez zuela ekarriko albo batera utzirik, kontuan hartzeko beste alde bat da alderdiaren kontrol maila hezkuntza sistemaren barruan. Batetik, berriro EIKE proiektua hizpide hartuta, ez da ahaztu behar administrazio autonomikoaren kontrola ere aurreikusita zegoela bertan; eta, beste batetik, hezkuntza eskumenak lorturik zeuden arren, ez zegoela modurik estatu mailako irakasle funtzionarioen etorrera eragozteko, artean zehaztu barik baitzeuden eskola publikoetako irakasleen hizkuntza perfilak. Erran nahi baita, 80ko hamarkadaren lehen erdialdean nazionalismo kontserbadoreak, nagusitasun politikoa zuen arren, ez zuen *guztiz* kontrolatzen sare publikoaren norabidea. Honen harira, ez dirudi sare honetako irakasleen eta Hezkuntza Sailaren artean harreman onik gauzatu zenik urte hauetan, haiek burututako greba inportante batek baino gehiagok erakusten duten moduan. L. Otanoren arabera, sare publikoko irakasleak zein gurasoak jabeturik zeuden EAJ ez zegoela oso kezkatu ikastetxe horien egoeraz. Argi ikusten omen zuten, horrela,

... (d)el trato discriminatorio en que se encuentra la enseñanza pública, que no es asumido por la Administración autónoma como la red escolar pública vasca, sino que se reserva esta condición a las ikastolas quedando los actuales centros públicos como *los centros transferidos del Estado*. (Otano, 1983: 46).

Hortaz, alde batean EAJ eta Ikastolen Elkartea zeuden, eta bestean, idazlan honetan aztertzen ari garen mugimendu abertzalearen gainerako erakundeetatik, EE, HB eta EILAS⁵⁷. Prozesuaren hasieran ardatz ideologikoaren arabera banaketa ukaezina egon zela esan dut gorago, eta geroago ez zela horren argi islatu. Ardatz politikoaren arabera, antzeko zerbeit gertatu zen, talde bakoitzaren jardunaren azalpenerako gakoak berdinak izan ez arren. Erran nahi baita, ezkerreko talde abertzaleak EEPA izeneko plataforman bildurik agertu izanaren arrazoia denek sostengatzen zuten ikuskera ideologiko ezkertiarra izan zen; hala ere, ardatz politikoaren eskutik, talde guztiek ez zuten abiapuntu bera. Logikoa denez, EILAS sindikatua neurri handi batean bazterturik utzi behar dut azterketa honetan, haren jardunaren gako nagusia, maiz esan bezala, ikuskera ideologikoaren defentsa izan baita, eta ez, horrela, alde politikoa. Zail suertatzen da, gainera, orduko EILASen jokaera politikoaren ezaugarripen zehatzik egitea. Hori dela eta, EE eta HBra mugatuko naiz oraingoan, baina kontuan hartuta, dena dela, neurri handi batean, hiru erakundeok batera agertu zirela EAJrekiko oposizio lana eginez.

Agian, betekizun horretan Euskadiko Ezkerrak eraman zuen protagonismo nagusia. EAJren hezkuntza asmoen kontrako iritziak plazaratuz, saio ugari, parlamentarioak barne, egin zituen EEk bere hezkuntza pentsakera azaleratzeko. Izatez, urte horietako EEren jardun politikoaren ildoetako bat EAJrekiko areriotasuna izan zen. Bada, lehen aldi honen hastapenean jadanik, argi eta garbi agertzen zen ikastolak sare publikoarekin bategitearen beharrianaz, baina saio hori kontu handiz egin behar zela adierazten zen, eta ez zenbait ezkerreko taldek proposatzen zuten berehalako integrazioaren bidez. Bide hori ikastola gutxi batzuek baino ez zutela hobetsiko aurreikusiz, egoera horretatik ondoriozta zitekeen arrisku nabaria atzematen zuen, zeren eta EAJk, etorkizuneko Eusko Jaurlaritzaren bidez, ikastola gehienak kontrolatzeko aukera edukiko baitzuen (ik. Altadil /Arregi /Agirre, 1980: 59). Hala, ikastola sare pribatuan mantentzeak EAJren hegemonia politikoaren mesedean zihoala baieztu zuen:

Todos (...) sabemos lo hegemónica que es la ideología del nacionalismo burgués en la sociedad civil y ni qué decir tiene en la sociedad ikastolera. Por ello, el tema de las unificaciones de las ikastolas y escuelas estatales en una única red lleva consigo el tema de la hegemonía. El PNV no es tan hegemónico en el mundo de las escuelas estatales, por

⁵⁷ Salbuespen gisa utziko dut ELA. Aipatu dudan indefinizioa aintzat hartuta ere, prozesuaren azken urteetan sindikatu honen jokaera nagusia ikastola sare publikoan integratzea izan zen, gorago esan bezala. Badirudi, alabaina, lehen aldi honetan hurbilago egon zela EAJ eta Ikastolen Elkartearen planteamenduetatik, edo, bederen, halaxe salatu zuten geroago beste talde abertzaleek, ELAri pribatizazioaren bidea amorrutik biziz defendatu izana egotziz (LAB, 1989: 9). Gainera, kontuan hartu behar da EAJren eszisia eta ondorengo EAren sorrera beherago aztertuko dugun bigarren aldi gertatu zela. Halaber, gogorarazi behar dut LAB Irakaskuntza ez zela 1986ra arte sortu, eta sindikatu honetara bildu ziren irakaskuntzako langile asko ordura arte EILASeko kide zirela.

ello no le resulta interesante la unificación por cuanto ello conlleva disputa y pérdida de hegemonía. (Euskadiko Ezkerra, 1979: 138).

Ikastola eta sare publikoa banaturik egotearen aurka agertzen zen, baina hastapenean ez zuen, esan bezala, berehalako integrazioerik proposatzen. Eskola publikoan euskarazko irakaskuntzaren alde emandako aurrerapausoak onartu arren, artean halako batuketarako baldintza ez objektiborik ez subjektiborik ez zegoela baieztu zuen (ik. Gurrutxaga, 1981: 28-29).

Hala ere, aipatu EAJrekiko lehiak gain, Euskadiko Ezkerraren urte hauetako jardun politikoaren beste ildo bat autonomia sakontzearen alde egindako apustua izan zen eta, horrexek bideraturik, gero eta argiago defendatu zuen ikastola sare publikora biltzeko egokitasuna, betiere hezkuntzak nazio eraikuntzan bete zezakeen zeregina nabarmenduz. Bada, PSOEek EAEren administrazioaren eskumenak murrizteko erakusten zuen jokaera zentralistari etengabeko kritikak egin zizkion, baita hezkuntza eskumenak sakonki garatu beharra aldarrikatu ere (Gurrutxaga, 1983a). Are gehiago, EEren helburua Euskadiren autogobernua zela adierazten zuen, eta ez deszentralizazio administratibo hutsa. Baina, testuinguru politikoak aldatu ezean, bide bakarra ikastolak sare publikoarekin bategitea ikusten zuen, euskal agintarien menpe jarri behar baitzen hezkuntza sistema bateratua (Letamendia, 1982: 19-20).

EIKE proiektuaren kontra erabili zituen argudioetako bat izan zen Autonomia Estatutuak ahalbidetu egiten zuela sare publikoak nazio eraikuntza bideratzea, eta ikastola ezin gera zitekeela saio horretatik aparte (Euskadiko Ezkerra, 1982). Argiro aitortu zuen EEk ikastolaren instituzionalizazioari buruzko iritzia aldatu izana, gero eta konfiantza handiagoa jartzen ari baitzen Eusko Jaurlaritzaren jardunetik ondoriozta zitekeenaz (Gurrutxaga, 1983b); eta, zer esanik ez, Ikastolen Elkarteak gogor kritikatu zuen EEren aldetik horren denbora gutxitan jarrera aldatu izana, koherentzia falta iritzi baitzion (ik. Campos, 1983).

Euskadiko Ezkerraren aipatu zenbait oinarrizko planteamendurekin bat agertzen zen Herri Batasuna, eta horrela ulertu behar da EEekin batera agertu izana EEPA plataforman; funtsean, EAJren hezkuntza asmoen kontra zihoana. *Euskal Eskola Publiko Bakarra* izan zen plataforma haren lema nagusia, eta, logikoa denez, ez zen Ikastolen Elkartearen gogokoa izan. EEekin erkaturik, alta, HBren jardun politikoaren ildo nagusia ez zen izan autonomia sakontzearen alde egitea, eraketa autonomikoaren mugak salatzea baizik. Euskadiko Ezkerrak bezalaxe, EAJri EIKE proiektua alderdiaren kontrola gehitzeko asmoz bultzatzea egozten zion. HBren esanetan, Madrilgo gobernuak deszentralizazioa baino ez zion transferitu Gasteizkoari; ez, ordea, hezkuntza arautzeko autonomiarik. Gasteizko gobernu *erregionalistak* ahalmenik ez zuen eskola publikoa eraikitzeko, ez baitzuen kontrolatzen eskola transferituetako irakaslegoa. Ondorioz, eskola transferituekiko zabarkeria nabarmentzen zen haren jokaeran, eta ikastolak bereganatzen saiatzen zen, sare paraleloa sortu ahal izateko (ik. Jakin, 1983: 82 eta hur.).

Joera kontraposatu bi atzematen zituen, beraz, ikastolaren norabidea zehaztean; bata, ikastola eta eskola transferituaren arteko konbergentzia bultzatzen zuen; besteak, aldiz, ikastolen ghettoa sakondu nahi zuen. Lehenengo bidea zen, HBren

ustez, *Eskola Nazionalaren* eraikuntza bermatzen zuena, eta, hartarako, behar-beharrezkotzat jotzen zuen eskola transferituaren eta ikastolaren arteko batasuna indartzea. Eskola mota biok sare bakarrera bildu beharra behin eta berriz defendatu zuen, eskola transferituan baitzeuden haur gehienak, eta, ikastolak, bestalde, euskarazko irakaskuntza bermatzen baitzuen. Ikastolen geroa, hartara, sare publikoan baino ez zuen aurreikusten. Estaldurarik gabe adierazten zuen HBk nolako zailtasunak ekar liezazkiokeen berari jarrera hark bere gogaideei begira:

“Ez dago ukatzerik berdinparatze honek zenbait beldur sortzen dizkigula. Lehenik eta behin, administrazioaren eskuetan zerbait uzteak beti dakarkigulako mesfidantza. Eta arrazoi guztiaz, gainera; zeren eta administrazioa ez da izan, ez lehen eta ez orain, herrikoia. Bestetik, aipaturiko administrazioa oraindik ere madrildarren eskuetan dagoenez gero, gure mesfidantza gehitu egiten zaigu.” (Herri Batasuna in *Jakin*, 1983: 88).

Hala ere, gehitzen zuen, herri bat nola osatu eta nola euskaldundu jotzen zuen apustuaren gakotzat, eta, beraz, kontraesanak eta beldurrak gainditu beharra zegoen. Baina, ikastola desegin gabe eraiki behar zen delako sare bakarra, zeren eta

Ikastolak suntsitzea astakeria litzateke. Areago, Alderdi abertzale batentzat barkaezina. Baina ikastolak 'ghetto' gisa mantentzea ere, sozialistak garen abertzaleontzat suizidioa, geure buruaren urkamena bilakatzen zaigu. (Herri Batasuna in *Jakin*, 1983: 87).

Ikastolen Elkartearen jarrerekin kritiko agertzen zen HB urte horietan, jarrera pribatuzalea atxikitzeaz gain, EAJren planteamendu eta interesetara moldatzen baitzen eta Autonomia Estatutuaren ahalmen murrizak zalantzan jartzen ez baitzituen (Ik. Herri Batasuna, 1986: 7-8). *Marko juridiko-politiko*a aldatzea zen, horrela, onesten zuen irtenbide bakarra, hark baino ez baitzuen bermatzen euskal nazio *osoari* zegokion eskolaren eraikuntza (ik. Erkizia, 1985). Hortaz, EE baino harago zihoan PSOEn egindako kritiketan; HBren aburuz, Alderdi Sozialistak espainoltasuna indartu eta antieuskalduntasuna berpiztu nahi baitzituen eta, hartarako, ustezko bi komunitateentzako eskola bana eraikitzea bilatzen baitzuen. Eta saio horretan bat egiten zuen EAJren interesekin (Herri Batasuna, 1986: 2).

Hala, EAJrekiko areriotasunaren ondorioz, EE eta HB baturik agertu ziren, hein batez bederen, ikastola sare bereizi bezala mantentzearen kontra, eta hortik ere etorri zen Ikastolen Elkartearikiko harreman egokirik garatu ez izana. Baina, ikusi bezala, abiaburu politikoak erabat diferenteak ziren, eta horien eragina ere soma daiteke ikastola sare publikoarekin biltzeari bakoitzak eransten zion esanguran. Erakunde bien arteko ezberdintasuna sakondu, eta harreman politikoak gaiztotu ere egin ziren bigarren aldi batean, esparru politikoan gertatutako aldaketak zirela eta; ondorioz, hezkuntzari erantsitako esangura politiko gero eta dibergenteago gertatu zen.

Honaino ikastolen publikazio prozesuaren lehen aldia. Berarekin erkaturik, bigarrenean gertatu ziren abertzaleen arteko aurkamendu eta aliantzen azalpena egitea askoz konplexuagoa da, ordea.

4.3.3.2. Prozesuaren bigarren aldia (1987-1993).

Konplexutasun horri argi apur bat eman nahirik, lehenik eta behin gatazkan parte hartu zuten erakundearen egoera berriaren aurkezpen arin bat egingo dut, atalaren hasieran azaldutakoa gogoraraziz. Ondoren, arian-arian azaleratu ziren gaien arabera nola kokatu ziren ikusiko dugu, eta, finean, EEPLren inguruan, erakunde bakoitzak hobetsitako irtenbideak aztertuko ditut. Hain zuzen ere, delako legea prozesuaren gaindia edo inflexio puntu bezala ulertu behar da, zeren eta, aurreko urteetan kaleratutako diskurtso eta jarreretatik harago, EEPLk ezarritakoari jarraiki, ikastolarentzako irtenbide jakin bat -ekar zitzakeen ondorio guztiekin eta anbiguotasunik gabe- defendatu behar izan zen. Ez zen egon erdibidetarako lekurik, edo bederen, inoiz baino zailago izan zen indefinizioari atxikitzea, eta euskal nazionalismoa nolabaiteko bidegurutzeari aurkitu zen.

Erakunde abertzaleen egoerari dagokionez, aintzat hartu beharreko lehenengo datua EAJk nagusitasun politikoa galdu izana da, 1986an nozitutako barne eszizioaren ondoren. PSE-PSOErekin gobernatzeak eta, horrez gain, Hezkuntza Saila Alderdi Sozialistaren esku geratzeak aurreko urteetan ikastolaren norabidean atxikitutako protagonismoa jeitsiarazi zioten. Nolabait esanda, ageriko eszenatokitik desagertu, eta pertsonaia ikusteaz bilakatu zen, nahiz eta rol izkutua jokatzeko segitu, Ikastolen Elkartearekin halamoduzko negoziazioak burutuz, adibidez.

Baina Hezkuntza Saila haren ardurapean egon ez arren, EAJ ez zen libratu oposizioko talde abertzaleen kritiketatik. Hartara, eta indar ezberdinez izan bazen ere, talde horiek ez zuten mugatu gura Hezkuntza Sailaren jarduna PSE-PSOErenera, eta, aldiz, gobernu osoa egiten zuten hezkuntza sistemaren inguruan garatutako ekimen instituzionalen erantzule. Ezkerreko nazionalismoak, beraz, aldatu egin zuen bere kritiken erdigunea: EAJ aurreko aldirian, baina -ñabardurak ñabardura- gobernu koalizioa prozesuaren azken urteetan. Ohartarazi beharra dago, horrela, Hezkuntza Saila PSE-PSOEren ardurapekoa izan zen neurrian, urteotako gatazkan Alderdi Sozialistak irabazitako protagonismoa. Handik aurrera, abertzaleen diskurtsoaren osagai inportante bat Alderdi Sozialistaren jokaera salatzea izan zen eta, horren ondorioz, ikastolen publikazio prozesuaren azken urte hauetako gatazka, hein handi batez, abertzale eta ez-abertzaleen artean ere garatu zela esan liteke. Beste alde batetik, oposizioko talde abertzaleen multzoa askoz dibertsifikatuago agertzen zaigu. Euretako zenbaitek jardun komuna gauzatzeko prestutasunik erakutsi bazuten ere, ezin esan daiteke administrazioaren hezkuntza politikari begira *guztiek* konpartitu zutenik gutxieneko adostasunik.

Alderdi nazionalistetatik hasita, lehenik eta behin, indar politiko berri baten sorrera kausitzen dugu -Eusko Alkartasuna, alegia-, zeinaren jokaera EAJrekiko lehiak zeharkaturik egon baitzen. Bigarren lekuan, kontuan hartu behar dira abagune politiko ezberdinak HBn eragindako aldaketak, oso denbora laburreran gailurrean egotetik -1987ko hauteskundearen emaitzak eta negoziazio prozesua bitarte- PSE-PSOEek bultzatutako eta gainerako indar politikoek babestutako bakartze saioak nozitzera iragan baitzen. Alderdi Sozialista izan zen, horrenbestez, HBren diskurtso politikoaren erasoaren erdigune. Eta, hirugarrenik, Euskadiko Ezkerrak eramandako jokaera politikoaren iraupen falta hartu behar dugu aintzat, EAJrekiko edota PSE-PSOErekiko

areriotasun eta kidesun harremanak aldian-aldian ordezkatzuz ibili baitzen, finean, esparru abertzaleetik desagertu arte.

Honetaz guztiaz mintzatu izan naiz dagoeneko, baina azpimarragarria da aipatu datuok ikastolen publikazio prozesuaren inguruan eduki zuten eragina. Hartara, lehenengo aldiko oposizio talde abertzaleen protagonismoa nagusiki EEri ematen nion, baina, azken urteetan, HBk eta bere inguruko sektoreek izan zuten, duda barik, zeresan handiena. Izatez, Euskadiko Ezkerra, EAJ bezalaxe, pertsonaia ikustezin samar bilakatu zen, baina EAJk ez bezala, ezin esan daiteke ikastolaren norabidean eraginik eduki zuenik. Alde batetik, arian ariko indar politikoaren galerak, eta, bestetik, euskal nazionalismoaren funtsezko aldarrikapenetatik aldenduz joateak, Euskadiko Ezkerraren diskurtsoan ikastola gero eta mundu arrotzago bihurtu izana eragin zuten, halako moldez non, 90eko hamarkadaren lehen urteetan, ikastolaren publikazioari begirako EEren alternatibak kasik diferentziarik ez baitzeukan Alderdi Sozialistak kaleratutakoarekin.

Har ditzagun hizpide sindikatu abertzaleak. Espero zitekeenez, LABek HBren ildo beretsutik segitu zuen. Hala ere, nire ustea da, erakunde bi horien diskurtso ofizialen arteko antzekotasunetik harago, HBren baitako militanteek edota gogaideek, oro har, ugaritasun handiagoa erakutsi zutela ikastolari eman beharreko irtenbideak azaleratzean. Horrela izan zela pentsatu behar da kontuan hartzen badugu, adibidez, HBko zenbait kide edota gogaide EILASeko afiliatu zirela prozesu hau garatu zen urteetan zehar. EILAS sindikatuak, halaber, PSE-PSOE hartu behar izan zuen bere jopuntuan, eta maiz kritikatu zion publikazio prozesuaren aurrean eramandako jardun politikoa, baina, nagusiki, antzera jarraitu zuen EAJrekiko eta Ikastolen Elkartearekiko areriotasunean. HB eta LABekin ez zuen, zenbaitetan, harreman gozori eduki, baina, normalean, eta batez ere iritzi publikoari begira, ez zien sekula kritika espliziturik egin. Besteak beste, oraintsu aipatutako datuak, alegia, HBko gogaideak sindikatu honetako kide izateak, azal lezake jarrera zehur hau. ELA izan da, nire iritziaren arabera, eragin gutxien -bederen, agerikoa- eduki duen sindikatu, nahita geratu baita eztabaida politikotik at. Dena dela, EILASena bezalaxe, Ikastolen Elkarteak izan da haren kritiketako erdigune nagusia.

Aipa dezagun, finean, Ikastolen Elkartearen azkenengo urteetako ibilbidea. Daturik azpimarragarriena PSE-PSOErekiko erabateko areriotasuna izan zen eta, horren ondorioz, HB eta LABenganako hurbilpena. Aurkamenduak ez zuen, dena den, EAJtik aldenduaz; aitzitik, hura izan zen, abertzaleen artean, EAJrekiko harreman hobekak garatu zituen. Edozein modutan, zinez zail suertatzen da zehaztea zertan zetzaten harremanok, gorago esan bezala, isilpeko samarrak izan baitziren, eta halaxe izan ziren gainerako erakunde abertzaleen aldetik kritikatuak.

Laburbildurik, lehen aldiko gatazkak EAJ eta Ikastolen Elkarteak, alde batean; eta ezkerreko euskal nazionalismoa, bestean, ipini zituen; bigarren aldiko aurkamenduaren hari eroale nagusietako bat, berriz, PSE-PSOEri aurre egitea izan zen, eta horrela ulertu behar da EAJ eztabaidaren partaidea esanguratsu izan ez izana; edo, bederen, partaidetza berezi samarra eduki izana; horrez gain, aurreko aldiarekin erkaturik, askoz banatuago agertzen zaizkigu azken urteotan oposizioko nazionalismo moderatua eta arradikala.

Urte hauetako gatazka politikoaren nondik norakoen erakusle gisa, bi eztabaidagai hautatu ditut. Lehen, ikastolaren *integrazioa versus baterakuntza* dei dakiokena da; eta, bigarrena, *normalizazioa versus borroka* izendatu dut. Kontrajarritako pare bi horien inguruan lerraturik agertzen zaizkigu talde abertzaleak, era askotako adostasun eta desadostasunak gauzatuz.

Eskuartearen dugun aztergaira hurbilduz gero, harrigarri ere irudi lezake ikusteak zenbat bider eta zelako indarraz kontraposatu ziren integrazioa eta baterakuntza kontzeptuok ikastolari eman beharreko alternatibari buruzko diskurtso nazionalistan. Eta are harrigarriagoa da kontzeptuon erabileraren azpian asmo politikoa baizik ez zela egon oharrea, zeren -abertzale izanda ala ez- gatazkan egon ziren ikuspegi politiko ezberdinetatik *batek ere ez* zuen baieztu ikastolaren integrazioa bultzatu behar zenik.

Egin beharreko lehenengo galdera da ia diferentzia sakonik dagoen kontzeptu bien artean. Baterakuntzaren bidez, badirudi errealitate biren elkarketaz hitz egiten dela, euretako ezeinek nortasunik edo jatorrizko izaerarik galdu gabe. Integrazioarekin, aldiz, bietako batek berezko zuen zerbaitek galtzen duela iradokitzen da. Ezin esan daiteke euskal talde nazionalistek saio sendorik egin zutenik kontzeptu biok bereizteko, baina azaldu dudan moduan ulertu behar delakoan nago, argi eta garbi ikusten baita ikastola sare publikoan integrazioa ikastolaren kontra joatea bezala atzematen zutela abertzaleek. Balizko integrazioari ukoan, horrela, bildurik ikus ditzakegu euskal nazionalista guztiak PSE-PSOEn kontra, azken honi egotziz, baterakuntza bilatu ordez, ikastolaren desagerpenaz obsesionatuta egotea. Alderdi Sozialistak halako susmoa indartzeko aukera bat baino gehiago eman bazuen ere⁵⁸, deigarria da administrazio autonomikoak ez zuela sekula erabili integrazio kontzeptua ikastolak sare publikoarekin bategiteari buruz hitz egiteko orduan, F. Buesa sailburuaren unean uneko adierazpenak aintzat hartuta ere. Alde batetik, jabeturik baitzegoen integrazio kontzeptuak, ikastolari erantsita, abertzaleen artean -EAJ barru zelarik- sorrarazten zuen asalduraz. Eta, bestetik, hezkuntza legeria guztiak ikastola sarearen baterakuntza prozesuaz hitz egiten baitzuen, eta ez, ordea, integrazioaz. Hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak Ikastolen Elkarteari egin dizkion kritiketako bat horixe izan da, baterakuntza gura zuela esan, baina haren bila joan ez izana, alegia. *De facto*, beraz, administrazio autonomikoak ere bazter utzi zuen integrazio kontzeptuaren erabilera, nire iritziz, etekin politiko gutxi ekar diezaiokelakoan. EEPLk ezarritakoaren ondorioz, sare publikora iragango ziren ikastolak gainontzeko ikastetxe publikoak bezala arituko zirela tinko defendatu bazuen ere, adierazpenetan nolabaiteko zuhurtzia somatu ahal izan zitzaion, salbuespenak salbuespen, eta baterakuntza ikastolaren kontrako neurri bezala ez zela ulertu behar argitu zuen⁵⁹.

⁵⁸ "Dagoeneko ez da ikastolez zertaz hitz egin beharrik" esan zuen, adibidez, F. Buesa Hezkuntza sailburuak 1993ko Maiatzaren 27ko prentsan, hots, EEPL ebatzi eta gero. Honen harira, "Ikastolekin sartzeko eszefinikazioan urrunegi" joan eta "etengabe probokatzen" aritu izana kritikatu zion Ikastolen Elkarteak Buesa Hezkuntza sailburuari (Iban, 1993: 25). Buesaren adierazpenek J. Egibar EAJko kidearen kritikak ere jaso zituzten, *probokazio nabarmentzat* jo baitzituen. Horren ondorioz, Hezkuntza sailburuak atzera egin zuen, bere berbak txarto ulertuak izan zirela adieraziz. Esan gura zuena, baieztu zuen, ikastola sarea *formalki* desagertu egingo zela baino ez zen.

⁵⁹ Ikus, adibidez, J. L. Avila Hezkuntza sailburuordearen adierazpenak in Iban, 1993: 23.

Kontzeptuon erabileratik harago, zinez zaila litzateke baieztezea EEPLk ikastolari zabaldu zion bideak integrazioa ala baterakuntza erraztu zuen. Denbora gehiago iragan beharko da sare publikoarekin bategin zuten ikastolen norabideaz gogoeta sustatuagorik egin ahal izateko. Oraingoz, behintzat, ikastola horiek ez dira desagertu sare publikoan; hau da, ikastetxe bakoitzeko irakasleak eta ikasleak ez dira sakabanatu gainerako eskola publikoetan zehar⁶⁰. Hain zuzen ere, EEPL ebatzi ostean, ikastola sare publikora iragatearen defendatzaile izan ziren ezkerreko abertzaleek, adibidez, behin eta berriz esan zuten publikatutako ikastoletan ez zitzaiola hasierako filosofiari uko egin, eta, beraz, hizkuntza perfilek, proiektu pedagogikoek eta jardun ereduak beren hartan jarraitzen zutela baieztu zuten (Madariaga, et al., 1994). Eta, era berean, sare publikora ez biltzea hobetsi zutenentzat, legeak ez zuten ikastolen *integrazio*rik lortu, eta horrelaxe frogatuko luke, adibidez, 1995ean osatu zen *Ikasbatuaz* elkarteak⁶¹. Ezinezkoa da, beraz, auzi honetaz erantzun teorikorik -edo, nahi bada, zientifikorik- ematea, integrazioa versus baterakuntza delako eztabaida normatiboa -hots, politikoa- izan baita, oinarri-oinarrian.

Halaxe erabili dute euskal nazionalista gehienek PSE-PSOeri ikastolaren integrazioa bultzatzen zuela kritikatu diotenean, harekiko aurkamendua, batzuetan, eta mesfidantza, besteetan, azaleratuz. Usteko integrazioari kontrajarritako baterakuntza kontzeptua, hortaz, arma politiko gisa erabili da nagusiki abertzaleen aldetik. Abertzale gehien-gehienak batera agertu direla esan dut, eta horixe frogatzen saiatu naiz ikastolaren eta eskola publikoaren osagarritasunari buruzko diskurtsoak azaldu ditudanean. Hala ere, baterakuntza kontzeptua ez da izan esangura bakarrekoa; aitzitik, eta esan dudanez, hain da kontzeptu labainkorra, non desadostasun handiak ekarri baititu abertzaleen artean hura *benetan* bultzatua zen ala ez erabakitzeak. EILASek, adibidez, baterakuntzaren kontra egotea egozten zion Ikastolen Elkarteari⁶², eta honek, berriz, baterakuntzarako baldintzarik ez zegoela adierazten zuen. Azken adibide bat jarririk, EAJk guztiz bideragarri ikusten zuen ikastolen baterakuntza, urrats hori askatasunez emanez gero (EAJ-PNV, 1990: 7), baina HBk behin baino gehiagotan kritikatu zion jarrera hori, PSE-PSOerekiko akordioari loturik egotean, eskola publikoa eta ikastolaren baterakuntza prozesuaren oztopotzailetzat jotzen baitzuen EAJ (Izagirre, 1989). Teorikoki, gehienak zeuden baterakuntzaren alde, baina zenbaitengan nabaria zen baterakuntzari zioten beldurra, funtsean, integrazio huts bihur zitekeelakoan. Bestenaz ere, beldur hori aspaldikoa dela esan liteke eta, nola edo hala, azaleraturik geratu da Hezkuntza Sistema Propioari buruz abertzaleek

⁶⁰ Honako azalpenok eman zituen Avila Hezkuntza sailburuordeak sare publikoarekin bategingo zuten ikastolen etorkizunari buruz: "Nabarmendu behar da administrazio publikoek onartutako pertsonala, irakasle zein ez irakasle asunituko dituztela, dagokien mailan; gainera, aurretik ematen ari ziren lerro eta mailak ematen jarraituko dute, eta autonomia zabalez garatu ahal izango dute beren aktibitatea, 1/1993 legearen barruan. Horrekin batera, irakasleen mugikortasun eskubidea errespetatu beharko den arren, 1996ko abuztuaren 31 arte bermatzen da beren irakasleen permanentzia." (J. L. Avila, in Iban, 1993: 23).

⁶¹ Elkarte honen baitara bildu ziren, hasiera batean, sare publikora iragandako 21 ikastola; gutxi gora behera, publikatu zirenen erdia. Ikus honetaz (Zugadi, 1995).

⁶² Adibide ugari jar daiteke honen inguruan. Ikus, besteak beste, (Nogales, 1992).

eraikitzen dituzten diskurtsoetan⁶³. Nabarmen agertzen da beldur hau HBk adierazten duenean:

Ikastolak eta eskola transferituen bategitea, status juridiko berri bat gauzatzearen ondorio gisa baino, berez helburua den zerbait aurkezteko arriskua dago. (...). Administrazioak oraingo ereduaren luzapen huts gisa inposaturiko edozein formula arbuatuko dugu, ez bait du balio izango dagoen gatazka konpondu eta Eskol eredu Berri bat eskaintzeko. (Herri Batasuna, 1992: 25):).

Honaino iragarritako lehenengo eztabaidagaia, *integrazioa versus baterakuntza* ziharduena. Ikus dezagun, bigarrenean, nola kokatu ziren indar abertzaleak *normalizazioa versus borroka* delako pareari begira.

1989an EEPLren zirriborroa agertu zenez geroztik, hezkuntza sistemaren eta bizitza politikoaren normalizazioa parekidetzeko joera egon zen erakunde abertzale eta ez-abertzale guztien aldetik, baina, logikoki, abiaburu zeharo ezberdinek bideraturik. Nire iritziz, erabateko garrantzia eduki zuen gai honek EEPLri begira hobetsi ziren irtenbideen ulermenerako. Bigarren eztabaidagai honetan, banaturik agertzen zaizkigu nazionalismo moderatua eta arradikala, baina ñabardura asko eginda, zeren eta jarrera ezberdinak zeuden nazionalismo moderatuaren barruan. Alde batetik, erantzukizun administratiboak zituena zegoen, alegia, EAJ. Bestetik, erantzukizun administratiboen bila ari zena aurkitzen zen, hots, EE. Eta, azkenik, gobernu autonomikoari begira oposizio jarduna garatzen zuena aipatu behar da, hau da, EA. Hau guztia kontuan hartuta ere, multzo nagusi bitan sailka daitezke erakunde abertzaleek urteotan erakutsi zituzten jokaerak: lehenean, administrazio autonomikoa sustatzen zutenak zeuden, eta bigarrenean oposizioko nazionalismoa zegoen, jarrera moderatuez eta arradikalez osaturik.

Aztertzen ari garen denbora tartean, EAJren mezu *ofiziala* izan zen ikastolaren normalizazioa (alegia, hirugarren sarearen desagertzea) mesedegarri izango zela euskal gizartearentzat. Esan zutenez, ikastolek, zorionez, paper inportantea bete zuten, baina heldua zen ordua egoera bitxi hari amaiera emateko. Ez zuen arazo handirik adierazteko, EEPL Alderdi Sozialistarekin egindako akordioaren fruitu zen neurrian, zenbait aldetan galtzaile irten zela, baina, oro har, onuragarri eta beharrezkotzat jo zuen emandako pausoa⁶⁴.

⁶³ Ikus, horren harira, A. Perez-Agotek elkarriketatutako abertzale baten iritzari egiten dion iruzkina: "Desde luego, en el conflicto sobre escuela pública-ikastola, los que abogan por la ikastola como solución para el desarrollo de la EGB, tienen en la cabeza el miedo a la continuación del control de la escuela 'por Madrid'. Para I-1 no es clara la identificación de la ikastola con la escuela privada y de la escuela pública con la pública, para él, sobre la 'ikastola' existe mayor posibilidad de 'control vasco' y la 'escuela pública' significa meterse en la 'red central', sujetarse a la 'política de Madrid', que puede cambiar (...); y aún reconociendo el peligro de que por el 'sistema ikastola' puede crearse una red de enseñanza privilegiada por la ayuda institucional autónoma, su veredicto final es claro: 'deshacernos de las ikastolas es demasiado riesgo'." (Pérez-Agote, 1987: 41-42)).

⁶⁴ "Normaltasunera etorri beharra" defendatu zuen, adibidez, L. M. Bandres EAJko kideak (Egin, 1993/II/10).

Dagoeneko aipaturik utzi dut Euskadiko Ezkerrarenean gero eta joera handiagoa somatu ahal izan zela ikastola frankismoaren testuingurura mugatzera eta, beraz, eraketa autonomikoa indarrean jartzearen ondorioz, mugimendu hura esanguraz husteru (ik. Onaindia, 1988: 26-27). Derrigorrezkotzat jo zuen hezkuntza sistemaren antolamendu berriari ekitea, iraganalditik zetozen oztopoak, behin-behinekotasuna eta lehia zaharrak gainditu ahal izateko. Hezkuntza sistemaren mesederako ez ezik, esparru sozial eta politikoarentzako ere onuragarri izango zela baieztu zuen (Euskadiko Ezkerra, 1990: 2); eta EAJk azaldutako pragmatismo politikoa berdinduz eta gaindituz, harremanetan ipini zituen ikastola sarearen desagertzea eta euskal gizartearen egoera politikoaren normalizazioa. Hona hemen adibide bat:

Las ikastolas han sido importantes para este país, pero han cumplido su función, y hoy son una rémora para la vida normalizada. (...). La existencia de tres redes no es una riqueza, sino síntoma de que todavía queda mucho por solucionar en la vida política de este país⁶⁵.

Bigarren multzoan oposizioko euskal nazionalismoa sartu dut, esan bezala. Aztergai dugun ardatz politikoaren eragina, logikoa denez, alderdi politiko abertzaleetan nabaritu da nagusiki. Bistan da, adibidez, alderdiez besteko erakundeen eta gogaideen ikuspegietan abagune politikoarekiko lotura askoz nasaiagoa izan dela, eta, orduan, alde ideologikoaren eskuhartze handiagoa edota planteamendu politikoen arradikaltasun maila altuagoa gertatu dela.

EA dugu garai honetako oposizioko nazionalismo moderatuaren alderdi politiko bakarra, EuE nahita utzi baitut azterketa honetatik kanpo. Dagoeneko, adierazirik utzi dut EAren ibilbide politikoa EAJrekiko lehiak zeharkaturik egon zela eta, ildo horretatik joanda, HBren helburu politikoetara hurbildu zela, hein batez bederen. Ez, ordea, haien bila hobetsi duen taktika politikoan. Gauza berbera baiez liteke ikastolen publikazioaren inguruan eramandako jokaerari buruz.

Oro har, hezkuntza sistemaren erabateko antolaketan indar politiko guztien arteko kontsentsua lortzea aldarrikatu bazuen ere (ik. Eusko Alkartasuna, 1990b: 19-20:), ezin esan daiteke jardun komuna gorpuzteko prestutasun handirik erakutsi zuenik. EAJ bezalaxe, sare bakar bi -pribatua eta publikoa- ezartzearen alde agertu zen eta, ondorioz, etorkizuneko Euskal Eskolaren eraikuntzan ikastolak bete duen berebiziko papera behin eta berriz goraiatu zuen arren, ez zuen defendatu ikastola sare bereizi bezala mantentzea. Hala ere, argiro jarri zen EEPLren kontra, eta alderdi politiko biren

⁶⁵ Adierazpen horiek J. Letamendia eta X. Markiegi EEko kideek egindakoak dira. Ik. 1992ko Apirilaren 9ko prentsa. Aipatu berbak, zehazki, Egin egunkarian jasoak daude (1992/IV/9, 42. or.). EEren diskurtso hau PSE-PSOErenarekin bat etorri zen, F. Buesak esandakoari, adibidez, begiratzen badiogu: "Las leyes de Educación son el ajuste de cuentas con el pasado." (ik. Diario Vasco, 1993/II/14, 6. or.). Alderdi honek, horrela, oposizioko nazionalismoari aurpegiratu zion euskal gizartearen normalizazio politikoa oztopatzea eta barne zatiketa indartzea: "La dicotomía entre escuela vasca y escuela española surge de quienes quieren crear dos comunidades." (M. Huertasen adierazpenak, 1993ko Otsailaren 20ko prentsan). Izatez, PSE-EEren inguruko sektoreek EEPLren ebazpenaren ostean ere, legearen defentsa sutua egin zuten. EAEko gizartearen normalizaziorako, modernizaziorako eta aniztasunaren onarpenerako erabakigarri izan zela esan zuten, eta euskal nazionalismoaren ikuspegi baztertzaileren kontra lortutako arrakastatzat jo behar zela baieztu. (Cuadernos de Alzate, 1994)

arteko akordioaren emaitza hutsa zela esan zuen (Eusko Alkartasuna Legebiltzar Taldea, 1993: 4.412). EAJren barne kontraesanak agerian uztea bilatu zuen etengabe eta, helburu horrekin, lehentasuna PSE-PSOEkiko akordioari ematea aurpegiratu zion, nahiz eta ondo jakin EAren planteamenduekin ados eta legearekin deseroso zegoela. EAJrekiko aipatu lehiak eta EAren diskurtso politikoa ezaugarritu duen Autonomia Estatutuaren eskumenak sakontzearen aldeko jarrerak eragin zuten delako legeari uko egin izana, Euskal Herriak behar zuen Hezkuntza Sistema Propioaren eraikuntzarako oztupo bat zela uste baitzuen. EAK Alderdi Sozialistaren lorpenetat jo zuen EEPL, haren funtsa espainiar estatuko hezkuntza sistemarekin parekidetzea baino ez baitzen, baina, honekin batera, behin eta berriz adierazi zuen EEPL ez zela *Buesaren legea*, hainbat abertzalek esatea gogoko zuten bezala, gobernu osoarena baizik, horren bitartez, EAJren eskuhartzea nabarmendu guran:

Es gravísima la responsabilidad del PNV, que cede ante el estatalismo homogeneizador y uniformista en un aspecto fundamental para la pervivencia del país, como es la consolidación de un sistema educativo propio (Oliveri, 1993).

Ikastolen Elkartarekin, beste alde batetik, ez zuen, normalean, harreman txarrik eduki. 90eko hamarkadaren hasieran, adibidez, egokia iruditu zitzaion erakunde hark egindako proposamena, ñabardura batzuk gehituz, hala nola, proiektuak eduki zitzakeen zailtasun legalak edota Euskal Herriko herrialdeetan erritmo diferenterik aurreikusi ez egitea (Eusko Alkartasuna, 1990b: 15). Baina prozesuaren azkenaldian, gero eta gehiago gaiztotu ziren harremanok, agian Ikastolen Elkartek EAJrekin negoziatzeari eman zion lehentasuna zela medio. Hortaz, erakunde hari egotzi zion, adibidez, alde ekonomiko eta materialak baino ez negoziatu izana⁶⁶.

Gorago aipatu *normalizazioa versus borroka* delako eztabaidaren arabera, EA erdibide batean geratu zela baieztatu daiteke. Hori dela eta, ez zen bat etorri ez EEPL bultzatu zutenekin, ez lege hark ikastolari eskaintzen zion irtenbidea *erabat* errefusatu zutenekin. Ez zuen alternatiba argirik plazaratu, eta ikastola sare pribatuan geratu ala publikora biltzeko aukera zehatzik hobetsi ez zuenez gero, bere gogaideei askatasunez erabakitzea aholkatu zien. Hala ere, gobernuaren kontrako oposizio zereginari irmoki eutsi zion eta, honen ondorioz, parte hartu zuen, adibidez, Denon Artean plataformak EEPLren kontra deituriko manifestaldian.

Neurri batez behintzat, antzeko zerbait gertatu zen ELA sindikatuarekin. Sindikatu honetan alde politikoak eduki duen garrantzi txikia kontuan hartuta ere, autogobernua sakontzearen alde agertu zen etengabe, eta Hezkuntza Sailari gobernu zentralaren esanetara aritzea egotzi zion, Eusko Alkartasunak bezalaxe (ik. ELA in Herria 2000 Eliza, 1989: 31). Hortaz, ezin esan daiteke EEPLren alde agertu zenik, baina nabarkiro jarri zen hiru hezkuntza sare mantentzearen kontra. EAren antzera, errefusatu egin zuen lege hura gobernuak bakar baten -alegia, PSE-PSOEn- erantzukizuntzat jotzea, ezberdintasunak ezberdintasun, legeak ez baitzukeen aurrera egingo alderdi bien jarrerak beretsuak izan ez balira (ik. Larramendi, 1993). Beste aldetik, Ikastolen Elkartarekiko jarrera kritikoa agertu zuen adierazpen guztietan, eta baterakuntza atzeratzen saiatzea eta ekonomikoki bideragarri ziren ikastolen etorkizunaz baino

⁶⁶ Ikus, esate baterako, I. Oliveriren adierazpenak 1993/X/11ko Diario Vasco egunkarian.

arduraturik ez egotea leporatu zion. Gorago ere adierazirik utzi dut erakunde honetan alde sindikalak edukitako paper nagusia, nondik ondorioztatu baitzen inolako jardun komunik garatu ez izana EEPLren kontra jarri zirenekin. Dena dela, oro har eta alde sindikalari emandako garrantzia zela eta, ikastola sare publikora biltzearen alde askoz argiago agertu zen ELA EA baino.

Ikastolen Elkarteaz mintzatu behar dugu segituan. Alderdi politiko ez denez, apur bat zailago gertatzen da esparru politiko nazionalistan eduki zuen jokaera zehatz-mehatz kokatzea. Izatez, gorago azaldu bezala, ikastolen publikazioaren lehenengo aldian EAJrekin lerratu zen, neurri handi batean, baina aztertzen ari garen azkenengo urteotan Ezker Abertzalearen planteamenduetara hurbildu zela esan dut ere. Nolabaiteko anbigutasun honen eskutik, Ikastolen Elkarteak mota askotako adierazpen politikoak egin zituen. 1988an, adibidez, ikastolaren *normalizazio* prozesuaren oztopo nagusia estatu mailako legeria zela esan zuen (ik. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 1988: 11); eta 1991n, berriz, hezkuntza sistemaren antolaketari irtenbidea topatzeko, Eusko Jaurlaritzak eskumen nahikoak zituela baieztu zuen (ik. Larrun, 1991: 19).

Bere ibilbidearen bereizgarri izan den jardun pragmatikoaren arabera, hortaz, mezu arradikal samarra eta jokaera eragingarria elkartu zituen aldi berean, halako moldez non, aipatu *normalizazioa versus borroka* delako eztabaida horren arabera, normalean, EA eta ELA bezalaxe, erdibide batean geratu zela esan bailiteke. Bada, HBren ildo beretik, lurralde zatiketa gaindituko lukeen Euskal Eskola Nazionalaren eraikuntzaren alde agertu zen (ik. Ikastolen Elkarteak 1991), baina, horrekin batera, behin eta berriz adierazi zuen indar politiko guztiekin hitz egiteko prest zegoela. Eta halaxe egin zuen, betiere ikastola sarearen bideragarritasuna ziurtatu guran. Ahalegin berezia garatu zuen, horrela, EAJrekin akordioak lantzeko eta gainerako alderdi nazionalistekin harreman on samarrak mantentzeko. Arestian esan bezala, Euskadiko Ezkerra izan daiteke salbuespen bakarra, baina kasu honetan ere, ez ziren beti aurrez aurre egon⁶⁷. EEPL gauzatzen zihoan neurrian, gaiztotuz joan ziren PSE-PSOE eta Ikastolen Elkartearen arteko harremanak, eta erakunde honek, zenbait arazotan, Alderdi Sozialistarekin inolako konponbiderik ez zuela ikusten aitortu zuen (ik. Iturria 1990: 28-29).

Elkar ulertezinek gaindia eduki zuten legearen ebazpenaren garaian, noiz Ikastolen Elkarteak uko biribila eman baitzion legeari eta *Denon Artean* plataformaren baitara bildu baitzen orduan, zenbait ezkerreko talde abertzalerekin batera. Legea ebatzi ostean, EAJrekin negoziatzen jarraitu zuen, aurreko denboraldian bezala, era horretara EAJ PSE-EEren ardurapeko Hezkuntza Saitetik bereizi guran. Finean, alta, azken erabakia hartzeko unea heldu zenean, Ikastolen Elkarteak *intsumisiora* deitu zien ikastolei; alegia, sare batera zein bestera biltzeko asmorik ez adieraztera

⁶⁷ Gorago ere mintzatu gara honetaz. Harreman aldakor hauen beste adibide batzuk gehi litezke. Esate baterako, 1991ko Urtarrilean osatu zen estraineko hiruko gobernu koalizioa txalotu zuen, EE barne zelarik (ik. Iñaki Etxezarretaren adierazpenak in Larrun, 1991); eta, aldiz, kritika bortitzak egin zizkion EEri, ikastolaren desagerpenaz obsesionaturik zegoela egotziz (ik. Confederación de Ikastolas de Euskal Herria, 1991). Orokorrean, alta, denbora pasatu ahala, gero eta txarragoak izan zirela esan daiteke.

(logikoki, sare pribatua hobesten zen horrela). Hura ikastolek proposaturiko bidea ez zela, baina orduko marko legalak beste biderik uzten ez ziela baieztu zuen azkenik⁶⁸.

Diferentziak diferentzia, EAJ, EE eta PSE-PSOEn diskurtsoak mutur batean ipin ditzakegu, eta hari zuzen-zuzenean kontraposaturik, Ezker Abertzalearena aurkituko dugu beste muturrean, honena ere guztiz homogenea izan barik, ikusiko dugunez. LAB eta HB erakundeen aldetik, 1989an EEPLren zirriborroa agertu zenetik, harreman estu-estuetan jarri ziren EAEko hezkuntza sistemaren birrantolaketarako saioak eta Ezker Abertzalearen helburu politikoekiko aurkakotasuna. Hartara, lege zirriborroari egoera politikoa finkatzea eta Hego Euskal Herriaren zatiketean beste urrats bat eman gura izatea, edota sakoneko arazo politikoa estali nahi izatea, kritikatu zizkieten PSE-PSOEn eta EAJri, besteak beste. PSE-PSOEn bereziki irakaskuntzaren auziari bukaera ematen saiatzea aurpegiatu zioten, horren bitartez, EAEko -eta, ondorioz, Hego Euskal Herriko- gizarteari normaltasun itxura eman guran (ik. Herria 2000 Eliza, 1989: 32-35).

Euskal Eskola Nazionalaren eraikuntza Ezker Abertzalearen proiektu politikoaren zati bazterrezintzat jo zuten aipatu erakunde abertzale biok, eta ikastolari esangura politiko eskerga erantsi zioten. Horrela, ikastolaren existentzia ez zen frankismoaren garaia heredentzia hutsa, Alderdi Sozialistak esandakoaren kontra, baizik eta

“.. una realidad fruto de la incapacidad de los Estatutos vascongado y navarro para dar una solución real y válida al problema de la enseñanza. El PSOE necesita ocultar esa realidad por cuanto se convierte en un elemento discordante y desestabilizador de su proyecto de acomodar a Euskal Herria en el Estado español.” (Izagirre, 1989).

HB eta LABen ustetan, ikastolak eta euskararen aldeko ekimenak oztopo bat ziren PSOEn Hego Euskal Herrian zeraman estrategiarako, zeinaren funtsa euskal gizartearen espainolazioa besterik ez baitzen, ustezko normalizazioaz mozorroturik (LAB, 1989: 5). Ardura nagusia, hortaz, Alderdi Sozialistari egotzi zioten, baina EAJren erantzukizuna ere nabarmentzen saiatu ziren, zeren eta

“... PNVren utzikeriak eta interes pribatuzaleak, egoera 'normalizatuan' eskola publiko estatalaren eta pribatuaren arteko aukera egitera beharturik egotera eraman gaitzake, Euskal Herriak eskatzen duen Euskal Eskola Nazionalaren kaltean.” (Herri Batasuna, in Herria 2000 Eliza, 1989: 34).

PSE-PSOEn kontra garatutako diskurtso honek, bada, EAJren kolaborazionismoa eta, horrekin batera, administrazio autonomikoaren botere politikorik eza salatzea eduki zituen etengabeko osagarri urte hauetan guztietan zehar (ik. Arrieta, 1991: 41). Era hartara,

“Vascongadasen zein Nafarroan konstituzio-markotik eratorritako euskal instituzioek ez daukate Berezko Euskal Hezkuntz Sistemaren eraikuntzari itxaropenezko erantzun egokia emateko behar diren oinarri politikoak.” (Herri Batasuna, 1992: 5).

⁶⁸ Ikus 1993ko Maiatzaren 16ko prentsa.

Ikastolaren eta eskola publikoaren norabidea zehazteko entsaiatu diren hezkuntza proiektuak onartezintzat jo ziren, sostengu gisa zeukaten eraketa politikoak inolako zilegitasunik ez zeukan neurrian. Euskal Herriaren desnazionalizazio nahia atzeman zitzaizen, oro har, eta marko juridiko-politikoaren aldaketaren testuinguruan kokatu zuten ezker abertzaleko erakundeek ikastola eta eskola publikoaren etorkizuna. Baina, logikoa denez, honi buruzko irakurketak jite ezberdina jaso zuen abagune politikoaren arabera. Era hartara, 80ko hamarkadaren amaieran, ETA eta gobernu zentralaren negoziazioen menpe jarri zuten zuzen-zuzenean hezkuntza sistemaren antolaketaren erabateko irtenbidea (ik. Herri Batasuna, 1988: 31; LAB, 1989: 2).

Gerora, alta, jeitsi egin zuten hezkuntza gatazkari erantsitako irakurketa politiko maila, baina, nola edo hala, ikastolak sare publikoarekin bategitearen azpian legokeen normalizazio politikoaren asmoen kontra jarri dira betiere. Hona hemen, adibidez, 90eko hamarkadaren hasieran esandakoa:

“PSOEk aurkeztu eta PNVk kontzertuaturiko oraingo lege proposamenak, estatutuak indarrean dirauen hamabi urteen ondoren, gizartearen aurrean normaltasun eta legebidezkotasunezko ikuspegia eskaintzeko beharrezana dauka kari, dagoen gatazkaren eta hezkuntza beharrezan eta premien tamainako eredia (...) eskaintzeko borondatea baino.” (Herri Batasuna, 1992: 26).

Hortaz, ikastola zazpi herrialdeetan hedaturik egonik, lurraldetasuna bermatzen zuela eta administratibotik kanpoko hezkuntza sare autonomo bakarra zela zioten. Hori dela eta, onartezintzat jo zuten ikastolen mugimenduaren balizko deuseztapena. Hala ere, gorago ikusi bezala, Ezker Abertzalearen sektore askotan eskola publikoaren aldeko jarrerak gero eta indar handiagoa zeukan neurrian, HB derrigortuta egon zen jende multzo horren ikuspegia barnehartzeko eta, ondorioz, ikastola eta sare publikoa jo ziren borroka gunetzat, ondoko aipuan beha daitekeenez:

“La colaboración y coordinación puede y debe estar garantizada entre todos los sectores euskaltzales y progresistas, estamos en una red escolar u otra. Y es más, la existencia de un movimiento de ikastolas autónomo de la Administración será en muchos momentos un apoyo importante para la actual Escuela Pública y viceversa. Como no nos fiamos de la Administración actual, resulta necesario y complementario luchar desde dentro y desde fuera.” (Erkizia, 1993).

Era horretara, ikastolak normalizazio politikoaren kontra berez eduki zezakeen eragina nolabait apalduz joan zen Ezker Abertzalearen protagonista politikoen ikuskeran, eta eskola publikoa ere barnehartu gura izan zen borroka politikorako eremu gisa, sare bien osagarritasuna aldarrikatuz. Are gehiago, eskola publikoen eta ikastoletako *zenbait sektoreren* elkarketarako gunea eraikitzeak premia larria zuela esan zen (ik. Izagirre, 1992).

Esan bezala, ezkerreko abertzale asko agertu ziren diskurtso horrekin ados, baina ezin esan daiteke Ezker Abertzalearen gogaide *guztiengan* somatu ahal izan zenik halako aldaketarik. Segituan aztertuko dugun ikuskera horren arabera, ikastola eta eskola publikoa buruz buru aurka ari diren errealitateak dira, eta administrazioaren kezka nagusia ikastolak dakarren boterea bereganatzea da:

“...en todos los sectores privados que defiendo, siempre existe un contrapoder público, que lejos de ser complementario es claramente competidor. Unas veces real, como el sistema educativo erdaldun y/o pseudoeuskaldun, otras ficticio.” (Bernaola, 1993).

Eskola publikoarekiko mesfidantza hori zela eta, ikastolari eustea hobesten zen, bestela den-dena gal baitzitekeen. Konponketa zaila atzematen zitzaion, beraz, ikastola eta eskola publikoaren arteko elkarketari, baina, esan denez, ikastolari eutsi beharra defendatzen zen, zeren eta

“... ikastoletan argi eta garbi geratu dena zera dugu, ikastolek euren proiektua EUSKAL-HERRIko marko geografikoan kokatzen dutela. Marko orokor honetatik aparteko egoera bat finkatzea eta horri Euskal Eskola Publikoa deitzea atzerapausu arriskutsu bat izango litzatekeela uste dugu, alde batetik egoera administratiboa eta politikoaz aparte, beste esparru batetan ere (irakaskuntzan) Euskal-Herriak jasaten duen zatiketa legeztatuko bait litzateke, eta bestetik Komunitate Autonomikoko ikastola eta eskola transferituen egoera normalizatuz, arrisku bizian geldituko bait lirateke hainbat urtetan euskal irakaskuntzaren ezaugarri izan diren faktore bi: elkartasuna eta konbatibitatea.” (Fernandez / Gorostiza, 1990: 68).

Era hartara, normalizazioa *tranpa* bezala erabiltzea salatu zuten, ezen, funtsean, ikastolen mugimenduaren desagerpena baino lortu gura ez zelako susmoa nagusitzen zen (Basurko, 1993: 25). Estatu administrazioaren joera, baieztan du F. Rodriguezek, ikastolak islatzen dituen joera *ezberdintzaileak* berbideratu eta normalizatzea izan da (1996: 77). Sektore hauen aldetik, askoz gartsuago plazaratu zen EEPL Euskal Herria eta estatuaren arteko gatazkan markoztatze beharra. Horren arabera, ikastola Euskal Herriak estatu espainiarrari egindako erresistentziaren emaitza zen, eta EAJK, PSOEek eta EEk bultzaturiko legeak gune hori suntsitzea besterik ez zuen bilatzen. Haien esanetan, *boteredunek*, Nazio-Estatuaren aginduz, eskuetatik ihes egiten zien indar bat desegin nahi zuten (ik. Hezkuntz Mintegia, 1993: 73-74). Horrenbestez, ikastolak sare publikoarekin bategitearen kontra agertzen ziren su eta gar, zeren eta

“... gaur egun Euskal Herrian erakunde herritarrak instituzio publikoetan integratu behar direla (ikastolak sare publikoan, esate baterako) defendatzeak likidazio bikoitza dakar argi eta garbi: autonomia galtze subitokoak dakarren edozein mugimenduren akaboa batetik, eta bestetik, Estatuak dakar, Euskal Herriaren subiranotasunaren zapaltzailea den Estatu espainiarra.” (Agirre, 1991: 88).

Honaino azaldutakoaren arabera, aurreikustekoa da Ezker Abertzaleak, bere osotasunean hartuta, ez zuela irtenbide eta aliantza beretsurik hobetsi EEPLri begira. Hain zuzen ere, haren baitan hiru jokoera gorpuztu zirela esan daiteke.

Lehena HBk eta LABek islatu zuten. Eskola publikoaren defendatzaile izan ziren biak eta, aldi berean, ikastolen mugimenduari tinko eutsi nahi izan zioten. Horrenbestez, doikuntza zailak egin behar izan zizkioten euren diskurtsoari, gogaideei begira unean uneko jokoera justifikatzeko orduan.

Biotatik, HBk merezi du arreta gehien. Batetik, LABek baino eragin sozial handiagoa daukalako, eta bestetik, haren izaera zabala dela medio, askoz ageriago somatu ahal izan zirelako barruko desadostasunak, HBren diskurtso politikoa, neurri handi batez, Ezker Abertzale osoaren diskurtsoaren ordezkari baitzen. Ikastolen publikazioaren auzian ezkerreko nazionalismoan zeuden muturreko jarrera biak bildu ziren bertan: a) edozeren gainetik, ikastola sarea mantendu nahi zutenak eta, beraz, ikastolen

Elkartetik hurbil zeudenak; eta b) nagusitasun osoa ikastola sare publikora biltzeari ematen ziotenak, eta, ondorioz, EILASen planteamenduekin bat zetozenak.

HBk, horrela, aurre egin behar izan zion bere gogaideen jokaera kontraposatu bi horien elkarketa gauzaezinari; hemendik hezkuntza diskurtsoa kaleratzeko orduan, mutur batetik bestera etengabe ibili izana. Ikastola eta eskola publikoa ez zituen aurkeztu gura izan buruz buru ari ziren errealitate gisa, eta, esplizituki eta sarritan, uko egin zion hezkuntza sareen arteko balizko gatazkari, gorago ikusi bezala. Bategitearen beharra ez zuen sekula zalantzan jarri, eta gainera, sozialki aldarrikatutako gaia zela ere aitortu zuen. Hala ere, ezin esan daiteke eskola publikoaren defendatzaile gartsua izan zenik. Begibistakoa da eskola publikoak ez zeukala irabazirik HBrentzat konfiantza osoa. Halaxe ulertu behar da, nire iritziz, eskola publikoaren aldaketa kualitatibo sakona ipini izana benetako baterakuntzarako baitezpadako baldintza gisa (ik. Herri Batasuna, 1992: 25).

Erakundearen barne aniztasuna gordetzea gura izan zuten diskurtsoetatik harago, EEPLri begira HBk hobetsi zituen aliantza eta irtenbideen azalpenerako gako nagusia aldaera politikoa izan zelakoan nago. Esan dudanez, ikastolen publikazioaren auzia zela eta, etengabeko ahaleginak burutu zituen prozesua euskal nazioaren eraikuntzarako behar ziren tresna politiko gabezia markoztatzeko. Asmo horrekin, talde abertzaleen arteko adostasuna lantzen saiatu zen, eta EAJri koldarkeria eta PSE-EErekiko morrontza leporatzearekin batera, elkarlana ere proposatu zion zenbaitetan⁶⁹. Ikastolen batasunari eustea auzi politikotzat jo zuen neurrian, Ikastolen Elkarteak eduki zuen hurkoen, eta erakunde horrekin garatu zituen harreman onenak prozesuaren azken uneetara arte, jarrera pribatuzaleak edukitzea egotzi zion arren. Ikastolen Elkarteak haren alternatiba oinarritzat hartu izana erabili zuen argudio nagusi bezala, nahiz eta indarreko legeriarekiko fideltasun handiegia atzeman zion (ik. Herri Batasuna, 1992). Baina, aldi berean, ezinezkoa izan zitzaion EILASen kontra buruz buru jarri, oso kontziente baitzen, nire ustez, sindikatu horren diskurtsoak erakundearen gogaide askorengan zeukan atxikimenduaz. Sare publikoko sektore aurrerazale eta euskarazaleekin batera lan egin beharra defendatzeak ekarri zion, adibidez, EILASekin batera *Denon Artean* plataforman parte hartzea.

Era hartara, egoeraren irakurketa politikoak eta hemendik eratorritako ikastolen batasuna defendatu izanak ez zioten jardun errazik ekarri HBri ikastolak egin beharreko hautuaz proposamenak egiteko orduan. Nolabait esanda, bere jarrerak ekar zitzakeen ondorioak saihestu gura izan zituen behin eta berriz, erakundearen barruan somatu ahal izan ziren ikuspegi biak elkartu guran. Era hartara, EEPL ebatzi aurretik, eztabaida ez zela haren edukietara mugatu behar zioen; osteraz, eskola ereduaz hitz egin beharra aldarrikatu zuen. Alde batetik, egokitzat jo zuen sare bi baino ez egotea, baina ez zuen onartzen Buesak egindako eskola publikoaren diseinua. Ikastolen Elkartearen antzera, bada, hiru sareak mantentzearen alde agertu zen. Legea ebatzi ostean -alegia, ikastolek sare pribatua ala publikoa hautatzeko unea heldu zenean- amore ez ematea aholkatu zion, eta batean edo bestean sartzeko erabakirik ez hartzea.

⁶⁹ Ikus, esate baterako, 1993ko Otsailaren 4ko prentsa.

Hala ere, horrelako gomendioak, praktikan, sare pribatuan geratzea zekarren, zeren, EEPLk ezarritakoa gogoratzen badugu, ikastolei emandako epea bukatuz gero, sare publikoarekin bategiteko erabakirik adierazi ezean, sare pribatura biltzea hobesten zutela ulertuko zen. Ondo asko ohartarazi zuen HBk erabaki hura abagunearen ondorio zela:

“Pribatua izatea, pribatuaren bidea hartzea ez da Ikastolentzat helburu bat gaur egun, koiuntura honetan bide bat baizik (...), ikastolek duten izaerari eta nortasunari eutsi ahal izateko formula juridiko bat besterik ez da.”⁷⁰

Ustez koiuntural hutsa zen erabaki haren defentsan su eta gar aritu zen Herri Batasuna EEPL ebatzi osteko hileetan, ikastolei sare pribatuan geratzeko erabakiaren aldeko deiak eginik, betiere eginkizun horrek zeukan azpi politikoa nabarmenduz. Pozik agertu zen HB ikastolak tinko mantentzen ari baitziren euren arteko batasunean, alegia, sare publikora iragateari ukoan. Jarrera hura zela eta, EAJ urduri jartzen ari zen HBren ustez, ezen beraren kide eta gogaide askori, ikastolaren alde egonik, ulertezin egiten zitzairen euren alderdiaren jarduna, ikastolen arteko banaketa bultzatzen baitzuen eta ikastola boteretsuen eta sistema pribatuaren aldeko apustua egiten zutenen alde baino ez baitzegoen⁷¹.

Espero zitekeenez, HBk prozesuaren azken aldian hobetsitako irtenbideak alde bat baino ez zuen poztu; alegia, eskola publikoaz erabat mesfidati zen korrontea. Ez guztiz, ordea; abertzale hauentzat, Ikastolen Elkarteak bultzatutako hezkuntza ereduak bakarrik berma baitzezakeen nazio eskola. Korronte honek erabat errefusatu zuen EILASen jokaera, Ikastolen Elkarteari aurre egitea eta ikastolaren desagerpena baino ez baitzuen bilatzen eta, ondorioz, euskal nazionalismoaren aldarrikapenen kontra jartzen baitzen buruz buru. Ezin argiago ikus daiteke salaketa hau ondoko aipuan:

“Nos gustaría saber, de una vez, si para el STEE una ikastola es equiparable a un colegio de monjas. Si esto no es así, los análisis habría que hacerlos teniendo en cuenta la existencia de tres proyectos educativos: el regulado por las normas del Estado, el privado y el popular y nacional de las ikastolas. (...)... el STEE está actuando de avanzadilla del PSOE (...) Lo que verdaderamente nos preocupa es que estas tesis puedan ser compartidas por algunos sectores de base de este sindicato y de la izquierda abertzale, atenazados todavía por el viejo y caduco discurso, supuestamente antagónico, de lo público y lo privado.” (Muinarbe, 1991).

HBren jarduna zuzen-zuzenean kritikatu gabe, kasu honetan, bistan da zenbaiten egonezina Ezker Abertzalearen diskurtso homogenezorik ezaren kariaz. Nola edo hala, EILASekiko konplizitatea salatzen zuten, baina, beste batzuetan, esplizituki izan zen gaitzetsia HBren jokaera hezkuntza publikoari begira, ez omen baitzeturren Ezker Abertzalearen printzipioekin bat. Desadostasun hori ederto geratzen da islaturik, ikastolen publikazioa amaitu berri zegoelarik, ondoko berbetan:

“Para Tasio Erkizia, a la escuela nacional, objetivo del mañana (no encajable en el marco jurídico actual), se debía llegar mediante la escuela pública euskaldún, nacida de la

⁷⁰ HBren adierazpenak dira hauek, 1993ko Maiatzaren 1eko Egin egunkaritik hartuak.

⁷¹ Ikus T. Erkiziaren adierazpenak, 1993ko Martxoaren 14ko prentsan.

confluencia de las redes: las ikastolas de un lado y las escuelas transferidas de otro. Ahora bien, ¿qué tipo de escuela pública era esa que, cabiendo en el marco jurídico señalado por la Constitución y el Estatuto de Autonomía, pudiera servir en su evolución para llegar a la Escuela Nacional? ¿No existe aquí una contradicción? Por las mismas razones que se argumenta que el estatuto de autonomía no constituye un paso intermedio para el reconocimiento de la soberanía, sino precisamente su negación, ¿no habría que admitir que la famosa Escuela Pública Euskaldún en vez de camino provisional para la escuela nacional se configura también como su negación?” (Tokieder -datarik gabe-: 52).

Deseroso sentitu ziren sektoreok Herri Batasunak eta LABek ustez eduki zuten jarrera anbigua zela eta, ikastolaren kaltean zihoalakoan⁷².

Deserotasun honek bazuen, eduki ere, sustapen errealik, zeren dudarik ez dago HBk kide edota gogaide asko eskola publikoaren aldeko benetako militante izan zirela, eta, zer esanik ez, erakundeak hobetsitako irtenbideak ez zituen batere poztu hauek ere. Ulertezin egin zitzaizen HBk sare pribatua hautatzea ikastolaren irtenbide gisa, erakunde berak, beste arlo batzuetan -adibidez, osasungintzan- indar handiz ari zenean zenbait instituziok sustatutako sare pribatuak desegitearen alde, publikoaren mesedean (Artola, 1993).

Sare publikora, dudarik gabe izan zen sektoreok atxikitu zuten lema. Haien ustez, euskararen aldeko grinak ez zuen HBk hobetsitako bidea justifikatzen, ezta orduko eskola publikoaren antolamenduak ere, ikastolak zituen hainbat ezaugarri salbu geratuko baitziren sare publikoarekin bateginez gero. Arriskutsua zen, baieztu zuten, pribaturako urrats hura, zail ikusten baitzen etorkizunean atzera egin ahal izatea. HBk defendatzen zuen ikastolen arteko batasunaren orde, horrela, euskal eskola publikoaren aldeko ahaleginak biltzearen onurak nabarmentzen zituzten, eta ikastolak omen zekarren Euskal Herri osoko hezkuntza ereduari garrantzia kentzen zioten.

Ardatz politikoaren eragina askoz apalago agertu zen ikuspegi hauetan. Ezkerreko abertzale izanda ere, alde batetik, ez zuten abagune politikoarekiko lotura esturik somatzen, eta bigarren maila batean uzten zuten ikastolak sare publikoarekin bategiteak zekarren tirabira politikoa. Nire iritziz, sare publikora iragatea ez zuten atzematen administrazio autonomikoaren arrakasta bezala. HBk bai, ordea. Beste alde batetik, sare publikoa ondo ezagutzen zutela pentsatu behar da, eta, ildo honetatik, EAEko eskola publikoaren eraldaketa esker ga aintzat harturik, asebeturik ikusten zituzten Ezker Abertzaleari zegozkion aldarrikapen asko, euren artean, irakaskuntzaren arian ariko euskalduntzea. Eta, azkenik, sektore hauetan pisu handia eduki zuen ardatz ideologikoak, eta horrexek eragin zien sare pribatuan jarraitu nahi zutenekiko mesfidati agertzea.

⁷² Izatez, eskola publikoarekiko mesfidantza ez da desagertu. Bada, HBko militanteek, egun ere, berdin har dezakete parte Ikastolen aldeko jaietan zein Eskola Publikoaren aldekoetan, baina hau ez da ezkerreko abertzale guztien gogoko. Adibide bakarra jarrita: 1997ko Apirilaren 27an egin zen *Eskola Publikoaren aldeko Festan* parte hartzeko deialdia egin zuen HBk. Bertan PSE-EEren ordezkariak ere, besteak beste, egon zen. Handik egun batzuetara, zenbait abertzalek euren egonezina adierazi zuten. Onartezintzat jo zuten HBk festa hartara deitu izana, eskola publikoa frantziarra edo espainiarra baitzen, baskongadoz mozturrotuta agertzen bazen ere bigarren kasuan. Mingarria zen, euren esanetan, HBk PSOErekin bat egin izana deialdi hartan (Xamardo / Zalakain, 1997).

Aipatu ditudan hiru alde hauek ulertaraz diezagukete EILASek hobetsi zuen jokaera ikastolen publikazioaren inguruan. Ereku nazionalistan egindako sailkapenaren arabera, hirugarren multzoan sartu dut hura -alegia, oposizioko nazionalismo arradikalean- baina zinez zaila da sindikatu hau Ezker Abertzalearen jokaeran zehatz-mehatz kokatzea. Zalantza sortzen zaigu, horrela, LABek ez bezala, sindikatuak ez baitu bere burua Ezker Abertzaleko kideztat erreklamatzeko. Hala ere, abertzale denik ere ez du esaten, eta nik erakunde abertzaleekin batera aztertu dut. Non koka genezake, orduan, ezkertiar eta abertzaleetat jo dudan erakunde hau? Ezkerreko nazionalismoan, bai; ez, ordea, ENAMen eraginpean. Dena dela, kontuan hartu behar da erakunde sindikal batez mintzo garela, eta, beraz, alderdi politiko batekin erkaturik, askoz ere planteamendu politiko zabalagoak kaleratu ohi dituela. Baina, horrez gain, aintzat hartzekoa da aipatu erakunde abertzale guztietatik hurbilen eduki duena HB izan dela eta ez da ahantzi behar indar politiko honetako irakaskuntza arloko kideak LABkoaz gain, EILASeko afiliatu ere izan daitezkeela; eta, *de facto*, Ezker Abertzalearen gogaide asko sindikatu horretako kide direla. Hain zuzen ere, zaila da publikazioaren azken urteetan kaleratutako hainbat iritzi EILASeko kideei, estu-estuan, eranstea ala gorago aipatzen genituen Ezker Abertzalearen -edota HBren- inguruko gogaideen uste bezala hartzea; sarritan, euren arteko mugak ez baitira egon batera zehazturik.

Era hartara, HBren baitan, EILASen planteamenduetatik hurbil egon diren kideen egonezina somatu ahal izan dugu, baina gauza bera esan liteke EILAS sindikatuak egindako zenbait gogoeten harira. Baterakuntza lantzeko orduan, *HB-LAB sindromea* gainditu beharra defendatu zuen afiliatu batek, oztopotzat jotzen baitzuen erakunde haiekiko begirunea, Ikastolen Elkartearen menpe ari baitziren. Hala eta guztiz ere, mota horretako adierazpenik ez du sekula azaldu publikoki EILASek⁷³.

Maiz azaldu dudan moduan, aztergai dugun auzi honetan sindikatuaren jardunaren erabateko eragilea ikuskera ideologikoa izan da, eta, ondorioz, gutxiespena erantsi die aldaera politikoei, baina jokaera hori ezin izan du eroso garatu. Rekalde Hezkuntza sailburuak EEPLren zirriborroa kaleratu zuenetik jadanik, EILASek adierazi zuen diskurtso nagusiak Hezkuntza sailburuarena eta Ikastolen Elkartearena zirela eta ez ziola oniritzen ez bati eta ez besteari ere. Aitzitik, hezkuntza arloko ezkertiarren jardun komunean jarri zuen itxaropena ikastola eta eskola publikoaren arteko baterakuntza bultzatzeko orduan (ik. Herria 2000 Eliza, 1989: 29-30). Beste alde batetik, uneoro agertarazi zuen ez zuela inolako konplizitatearik Alderdi Sozialistaren ardurapeko Hezkuntza Sailarekin, sare publikoarekiko baterakuntzaren alde egiteak ez baitzekarren derrigor haren tesiekin bat etortzea (ik. Nogales, 1992: V).

⁷³ Izatez, eskola publikoarekiko mesfidantza ez da desagertu. Bada, HBko militanteek, egun ere, berdin har dezakete parte Ikastolen aldeko jaietan zein Eskola Publikoaren aldekoetan, baina hau ez da ezkerreko abertzale guztien gogoko. Adibide bakarra jarrita: 1997ko Apirilaren 27an egin zen *Eskola Publikoaren aldeko Festa* parte hartzeko deialdia egin zuen HBk. Bertan PSE-EEren ordezkariak ere, besteak beste, egon zen. Handik egun batzuetara, zenbait abertzalek euren egonezina adierazi zuten. Onartezintzat jo zuten HBk festa hartara deitu izana, eskola publikoa frantziarra edo espainiarra baitzen, baskongadoz mozturrotuta agertzen bazen ere bigarren kasuan. Mingarria zen, euren esanetan, HBk PSOErekin bat egin izana deialdi hartan (Xamardo / Zalakain, 1997).

Onartezintzat jo zen EILASen eta haren diskurtsoarekin bat etorri zirenen aldetik *Buesaren alde egotea* egotzi izana:

“... se confunde a Buesa con todos los que dentro de la escuela pública luchan contra el mismo Buesa.” (Martí, 1993).

Izatez, Hezkuntza sailburu horren jarduna sarritan salatu zuen, besteak beste, ikastolaren etorkizunari buruzko hainbat alde ez zituelako argitzen eta, EEPL ebatzi barik zegoenean ere, ikastola sare publikora iragatea baino ez baitzuen gura. Tentu handiz hitz egin zuen ikastolak sare publikoarekin bategitearen ondorioez, ikastolaren hizkuntza ereduaren desagerpena ez zuela ekarri behar adieraziz, esate baterako. Honen harira, gainerako talde abertzaleen antzera, gogor kritikatu zuen PSE-PSOE, berau euskararen beldur zela egotziz. Administrazio autonomikoak integrazio hutsa gura izatea leporatu zion, benetako baterakuntzaren ordez (ik. STEE-EILAS, 1992: II).

Baina sindikatuaren eta beraren inguruneen kritiketako erdigunea EAJ eta, bereziki, Ikastolen Elkartea izan ziren. Lehenari eskola publikoaz arduratuta ez egotea egotzi zion; eta bigarrenari, sare publikoaren abantaila ekonomikoak besterik ez bilatzea. Arazo nagusiak, nire iritziz, HBri buruzko jarreraren eduki zituen. Alde batetik, ondo jabeturik zegoen HBk emandako aldaketaren azpi politikoaz. Horrelako azalpenak eman zituen, adibidez, Lozano EILASeko kideak HBk Ikastolen Elkarteari adierazitako atxikimenduz:

“Si en épocas anteriores se ha colocado, en su mayoría, en terrenos críticos, llega ahora al consenso con la Federación (...). No es un paso que se dé como resultado de un debate interno y que suponga una modificación teórica de su línea. Es una medida práctica. Mientras el autodenominado *bloque democrático* busca el aislamiento de HB, el acuerdo con la Federación supone conectar mejor con un sector dinámico y con capacidad de movilización, y tender puentes de actividad conjunta con el PNV y EA.” (Lozano, 1991: 16).

Aldi berean, gogor kritikatu zion HBri Ikastolen Elkarteari eskainitako babesa. Barne sektore batzuek, horrela, sindikatua HBren planteamenduetatik desmarkatu nahi izan zuten: Ikastolen Elkartearen politikari uko egiteaz beldur zela egotzi zioten,

“... porque meterse con esta organización es un tabú, ya que es quien patrimonializa el sentir 'profundo y esencial' de la sociedad vasca y quien discrepe con ellos o es un españolazo o lo que es lo mismo no está a favor del euskara, de Euskadi, etc.... es un monaguillo del PSOE, hace juego a la derecha española,... etc.” (J. N., 1991: 5).

Hala ere, nire iritziz, funtsean, sindikatuaren gogaideen balizko harrera txarraz ere beldur izan zen EILAS, eta, *de facto*, ez zuen sekula HB, agerian edota *era ofizialean*, kritikatu. HBk bezalaxe, sare bietako pertsona aurrerazale eta euskarazaleen ahaleginak biltzearen onurak nabarmendu zituen, baina hark ez bezala, sare publikoaren izaera herritarra eta euskalduna indartzeko helburuz.

Argi eta garbi adierazi zuen EAEn hezkuntza sare bi baino ez zirela egon behar, eta ikastolak sare publikoarekin bategiteak *denon mesederako* izango zela. EILASen diskurtsoarekin bat etorri ziren, horrela, Ezker Abertzalearen zenbait sektore, eta, sarritan, gorago esan bezala, diferentziatuezin bilakatu ziren. Hona hemen adibide bat:

“Con la confluencia ganaremos todos; aunque algunos pierdan su silla y su parcelita de poder en la Confederación. Son éstos y no otros los interesados en seguir denostando la actual Escuela Pública y en acusarla de inmovilismo y españolidad (...). Su vocación por lo privado es clarísima en aquellas zonas, euskaldunes o no, en las que compiten, nariz con nariz, con centros públicos de EGB y Enseñanzas Medias en los que existe modelo D y nula sospecha de españolidad. Aquí ya no hacen falta, pero si es el euskara y la vertebración del país lo que mueve sus esfuerzos aún queda mucho por hacer en Nafarroa e Iparralde. Centremos pues ilusiones e interés en las regiones hermanas.” (Fernandez Urbano, 1993).

EAEko eraketa autonomikoari legitimitaterik eman gabe ere -alegia, *normalizazioa versus borroka* delako eztabaidaren testuinguruan lehenengoari atxikitu barik-, ez zen somatu HBren diskurtsoan besteko tentsio politikorik. Era hartara, bertako sare publikoaren eraldaketak ikastolaren zeregina, nola edo hala, bukatutzat jotzera eramán zuen.

Hala ere, ezkerreko nazionalismoak, osotasunean hartuta, jardun komuna garatzeko prestutasuna erakutsi zuen, eta ikastolarentzat hobetsitako irtenbidetik harago, EEPLren kontra jarri ziren sektore hauek guztiak, Ikastolen Elkartearekin batera. Emaizak ez ziren makalak izan, eta horren adibidetzat har liteke, EEPL ebaztear zegoelarik, *Denon Artean* plataformak Bilbon deituriko manifestaldira hogei bat mila pertsona bertaratu izana.

EEPLk, beraz, EAJ alde batean, eta oposizioko talde abertzale guztiak bestean ipini zituen; baina, legeak ebatzi osteko hiru hileetan zehar -alegia, ikastolek azken erabakia hartu behar izan zutenean-, ikaragarri mikaztu zen giroa, eta inoiz baino argiago azaldu ziren auzi honetaz erakunde bakoitzak zituen planteamenduak.

Arian-arian berotzen ari zen giro nahasi hartan botaketari ekin zioten 114 ikastolek, zeintzuek 70.000 ikasle biltzen baitzituzten. Ikastolen %56ak, ikasleen %64a barnehartzen zuenak, sare pribatuan geratzea hobetsi zuen; eta %36a, ikasleen %25arekin, sare publikora bildu zen. Gainerako %8an, ikasleen %11a biltzen zuena, sare publikora iragateko erabakia hartu arren, ezin izan zen hura gauzatu, kooperatiba izaki, kideen heren biren aldeko botoak behar ziren eta. Azken datu hau prozesuaren gogortasunaren erakusle gisa har daiteke, ezen ikastola hauek, elkar ulertu ezinaren ondorioz, epaitegietara jo zuten erabateko irtenbidearen bila, eta, ebazpenaren zain, beraietako batzuk bikoiztu ere egin ziren⁷⁴.

Izatez, zinez mingarria izan zen gertatutakoa. Egundoko aurkamenduak eta elkarrekiko deskalifikazioak suertatu ziren hile gutxiren epean, eta, dudarik gabe, oraindik ere zauri asko sendatu gabe daudela esan daiteke. Hain izan zen gogorra, ezen, behin baino gehiagotan azaleratu zen iritziak edo iruzkinak zioenez, hura EAJren eszisiotik aurrera abertzaleen artean ezagututako banaketa bortitzena baitzen.

⁷⁴ Ikastola hauen baitako aurkamenduak luze jo dute, jo ere. Beasain eta Elorrioko ikastoletan, adibidez, 1997ko Uztailean arte ez zen argitu sare publikoan eta pribatuan geratu ziren ikastetxeei zegokien azpiegituraren banaketa. Era horretara, ikastola hauen erabateko estatusa ezartzeak alternatiba kontraposatu bien defendatzaileak aurrez aurre jarri zituen berriro ere, denbora askotan zehar; eta, Ezker Abertzalearen gogaideen artean, bereziki, egonezin ugari sortu zituen. Ikus, adibidez, Madariaga /Gutierrez/ Zugadi, 1994.

Ezkortasun itzela igarri zen abertzale askoren adierazpenetan, indartu zen zatiketa giroa gaitzetsiz, betiere.

Ikastoletan ez ezik, gauza jakina da erakunde politiko eta sindikal abertzale *guztietan* egon zirela barne eztabaida eta tirabira ugari. Dena den, nire aburuz, gatazkak eragindako urradura gehien nozitu zuena Ezker Abertzalea izan zen, honaino ikusi den bezala, euskal nazionalismoak egin behar zuen hautuaren azalpenerako aldaera guzti-guztiak haren baitan bildu ziren eta. Horrenbestez, ikuskera ideologikoaren eta jokaera politikoaren arteko lehia hartan, bateraezin bilakatu ziren eskola publikoaren defentsa eta ikastola sareari eutsi nahia. Oraindik ere posible da HBko gogaide batzuei entzutea ikastolen publikazioaren ukoari askoz *gogorrago* ekin behar izan zitzaiola; eta alderantziz ere, hots, *herabeegi* aritu zela eskola publikoaren alde.

Arestian nioenez, ikastolen publikazioaren *eszenarioan* euskal nazionalismoaren jardunera bideratu dut *fokua*, baina beste batzuk ere erabil zitezkeen, auziaren beste alde batzuk nabarmentzeko. Gizarte arazo orotan jazotzen den bezalaxe, tokian tokiko ikastolak harturiko erabakiaren zioak ugari izan zirela pentsatu behar da. Ikastetxearen bideragarritasun ekonomikorik ezari zitzaion beldurra, konparazionera, inportantea izan zela ondoriozta daiteke, ikastola *txiki* gehienen joera sare publikora iragatea izan zela aintzat hartzen badugu. Erran nahi baita, erakunde abertzaleen mezu ideologiko eta politikoez gain, aztertzekoa litzateke zeintzuk izan ziren erabakietan parte hartu zuten bestelako gakoak eta zein neurriraino eragin zuten haiek gogaide abertzaleen jarduna hautua egiteko orduan. Baina honek guztiak luzeago mintzatzea mereziko luke.

5. BIBLIOGRAFIA

- Agirre, J. (1991). "Publikoa, pribatua eta herritarra", *Larrun*, 10, 85-90 orr.
- Agirre, J. (1992). "De la ikastola a la nueva escuela pública vasca", *Egin*, 1992/V/12, 9. or.
- Agirre, J. (1993). "Lo transferido y lo propio", *Egin*, 1993/II/19, 7. orr.
- Akzin, Benjamin (1968). *Estado y Nación*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
- Altadil, Julio/ Arregi, Natxo/ Agirre, Pablo (1980). "Las ikastolas, situación actual y perspectivas", *Arnasa*, 4, 39-84 orr.
- Antxustegi Igartua, Esteban (1997). "Eleizalde: politika abertzalea. Pedagogia gisa", *Tantak*, 18, 55-74 orr.
- Apalategi Begiristain, M. Jasone (1994): *Euskal Erakuntza eta Hololinguistika*. Doktore Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaratu gabe).
- Apaolaza, José Miguel (1993): *Lengua, etnicidad y nacionalismo*. Bartzelona. Anthropos.
- Arana Goiri, Sabino (1965): *Obras Completas*. Buenos Aires: Sabindiar Batza.
- Aranzadi Etxebarria, Engracio de "Kizkitza" (1931): *La Nación Vasca*. Bilbo. Imprenta Verdes.
- Archer, Margaret (1979). *Social Origins of Educational Systems*. Londres: Sage Publications.
- Arpal, Jesús / Asúa, Begoña / Dávila, Paulí (1982). *Educación y sociedad en el País Vasco*. Donostia: Txertoa.
- Arrien, Gregorio (1987). *Educación y Escuelas de barriada en Bizkaia*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Arrieta, Joxe Agustin (1991). "HBren Hizkuntz Politika", *Jakin*, 62, 30-52 orr.
- Artola, Juan Bautista (1993). "Publikoa, pribatua eta 'popularra'", *Egin*, 1993/V/11, 7. or.
- Auzmendi, Jose Mari (1992). "Eskola Publiko Berria sortzen", *Larrun*, 15, 49-53 orr.

- Basurco, Félix (1995). "La normalización de la ikastola y la escuela pública vasca", In Dávila, Paulí (bil.): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 193-220 orr.
- Basurco, Felix (1993). "Euskara: Hezkuntz-sistemaren hezurdura", *BAT*, 10, 23-35 orr.
- Bendix, Reinhard (1974). *Estado nacional y ciudadanía*. Buenos Aires: Amorrortu.
- Benn, Stanley I. / Gaus, Gerald F. (1983). "The Public and the Private: Concepts and Action", In Benn, Stanley I. / Gaus, Gerald F. (bil.): *Public and Private in Social Life*. Londres. Croom Helm, 3-27 orr.
- Beobide Ezpeleta, Ignacio M. (1993). "Nacionalismo vasco: Nación y Poder", *Estudios de Deusto*, 41: 1, 10-98 orr.
- Bernaola Lejarza, Iñaki (1993). "Ikastola, sin complejos", *Egin*, 1993/5/16, 11. or.
- Berriozabal, Roman (1991). "EAJren Hizkuntz Politika", *Jakin*, 62, 11-27 orr.
- Bezunartea, Ofa (1993). "Las ikastolas, un modelo de 'problema vasco'", *El Correo Español*, 1993/V/17, 28. orr.
- Birch, Anthony H. (1989). *Nationalism and National Integration*. Londres: Unwin Hyman.
- Bobbio, Norberto (1989). *Estado, gobierno y sociedad. Por una teoría general de la política*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.
- Boli, J. / Ramirez, F./ Meyer, J. W. (1985). "Explaining the Origins and Expansion of Mass Education", *Comparative Education Review*, 29, 145-170 orr.
- Breuilly, John (1990). *Nacionalismo y Estado*. Barcelona: Pomares-Corredor.
- Campion, Arturo (1985). "Discurso en las Fiestas Euskaras de Irun el día 27 de Setiembre de 1903", *Obras Completas*. Iruñea: Mintzoa, 181-210 orr.
- Campos, Antonio (1983). "Contradicciones de E.E. sobre la Escuela Pública Vasca", *Diario Vasco*, 1983/V/30.
- Campos, Antonio (1991). "Ikastolas, escuelas públicas del País Vasco", *Egin*, 1991/VI/8, 12. or.
- Confederación, de Ikastolas de Euskal Herria (1991). "Deba; !bien por la ikastola!", *Egin*, 1991/X/5, 16. or.
- Connor, Walker (1972). "Nation-building or Nation-destroying?", *World Politics*, 24, 319-355 orr.

- Cuadernos, de Alzate (1994). "La Escuela Pública Vasca y la construcción nacional", *Cuadernos de Alzate*, 20, 9-63 orr.
- EAJ-PNV (1987a). *Nacionalismo para el 2.000. Bases políticas y programa*. Asamblea Nacional Extraordinaria, Zestoa.
- EAJ-PNV (1987b). *Euskal Eskola*.
- EAJ-PNV (1990). *Hezkuntza egitaraua*.
- EAJ-PNV (1992). *Batzar Nagusia. Balantze. Txostenak*.
- EAJ-PNV/PSE (PSOE)/ EE (1992). *Acuerdo Político para el Pacto Escolar*.
- ELA (1990). *7. Kongresoa*. Bilbo: 1990eko Maiatzak 26, 27.
- ELA, (Irakaskuntza Federakundea) (1992). *Ikastoletako langileon eztabaidarako lan-materiala*.
- Eleizalde, Luis (1911). *Raza, Lengua y Nación Vascas*. Bilbo: Ed. Elexpuru.
- Eleizalde, Luis (1919a). *La lucha por el idioma propio*. Bilbo: Bilbaína de Artes Gráficas.
- Eleizalde, Luis (1919b). "El problema de la Enseñanza en el País Vasco", In Eusko Ikaskuntza (bil.): *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo: Eusko Ikaskuntza, 865-874 orr.
- Elorza, Antonio (1978). *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937 (De los 'euskaros' a Jagi-Jagi)*. Donostia: Luis Haranburu Ed.
- Erkizia, Tasio (1985). "Ikastolak. Historia eta etorkizuna", *Larrun*, 1, 35-41 orr.
- *Erkizia, Tasio (1993). "¿Tiene que desaparecer el movimiento de ikastolas?"*, Egin, 1993/V/13, 7. or.
- Espartza, Patxi (1993). "Irakaskuntzaren eboluzioa", *Jakin*, 77-78, 67-78 orr.
- Etxaniz, Pilar (1993). "Eskola Publikoaren mamua", *Egin*, 1993/V/12, 7. orr.
- Euskadiko Eskola Kontseilua (1989). *Euskadiko Eskola Kontseiluak Euskal Eskola Publikoaren Lege-Zirriborroaz egindako diktamena*.
- Euskadiko Eskola Kontseilua (1993). *Dictamen del Consejo Escolar de Euskadi en relación al Proyecto de Ley de Escuela Pública Vasca*.
- Euskadiko Ezkerra (1979). "Unificaciones entre ikastolas y escuelas estatales: hacia la escuela pública vasca", *Arnasa*, 6, 133-142 orr.

- Euskadiko Ezkerra (1982). "Ez dugu guk horretarako burrukatu", *Hitz Irakaskuntza*, 3, 4. orr.
- Euskadiko Ezkerra (1983a). "Proposición de ley de Integración de las Ikastolas en la Escuela Pública", *Hitz Irakaskuntza*, 13, 40-45 orr.
- Euskadiko Ezkerra (1983b). "Crítica de E.E.P.A. al documento "No hay condiciones para una escuela pública vasca" de la Federación de Ikastolas de Gipuzkoa", *Hitz Irakaskuntza*, 11, 13-15 orr.
- Euskadiko Ezkerra (1985). *2º Congreso. Resoluciones.*
- Euskadiko Ezkerra (1988b). *Programa. 3. Biltzar Nagusia, Maiatzak 27,28,29. Donostia.*
- Euskadiko Ezkerra (1989a). *Escuela vasca. 2ª ponencia. Conferencia Nacional de Educación.*
- Euskadiko Ezkerra (1989b). *La autonomía de la escuela pública. 3ª ponencia. Conferencia Nacional de Educación.*
- Euskadiko Ezkerra (1990). Propuesta del modelo educativo de carácter público. Hemendik. Documento informativo.
- Euskadiko Ezkerra (datarik gabe). *Resoluciones. Congreso Constituyente de Euskadiko Ezkerra-Izquierda para el Socialismo.* Usurbil .
- Euskal Herriko Autonomi Elkartearen Administrazioa (1990). *Euskal irakaskuntza: 10 urte.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusi.
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa (1988). *Ikastola. Izaera eta egitura.* Zarautz.
- Eusko Alkartasuna (1987). Ponencias. Congreso Constituyente.
- Eusko Alkartasuna (1990a). *II Congreso. Ponencias.* Bilbo.
- Eusko Alkartasuna (1990b). *Euskal Eskola.*
- Eusko Alkartasuna Legebiltzar Taldea (1993). "Euskal Eskola Publikoari buruzko zuzenketa-eskeak", *Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala*, 71, 4711-4735 orr.
- Eusko Jaurlaritza (1988). *Ikastolak eta herri-eskola biltzeko legea.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritza (1993). *Euskal Eskola Publikoaren Legea.* Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- Eusko Legebiltzarra (1991). *Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- EUSTAT (1994). *Irakaskuntzaren estatistika*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Fernandez, Idoia (1994). *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Fernandez, Idoia / Gorostiza, Mikel (1990). "Instituzionalizatze urratsak eta administraritzarekin harremanak (1980-1990)", *Tantak*, 4, 63-69 orr.
- Fernandez Urbano, Juanjo (1993). "Ganar todos", *Egin*, 1993/5/4, 7. orr.
- Fullat, Octavi (1983). *Escuela pública, Escuela privada*. Bartzelona: Ed. Humanitas.
- Garagorri, Xabier / Egilior, Edurne (1983). "Desarrollo y situación actual de la enseñanza en las ikastolas", In Siguán, Miguel (bil.): *Lenguas y educación en el ámbito del Estado Español*. Bartzelona: Universidad de Barcelona, 35-83 orr.
- García Cotarelo Ramón (1985). *Los partidos políticos*. Madril: Sistema.
- Garmendia / Parra (1982). "Análisis explicativo", In Pérez-Agote / Garmendia / Parra / (bil.): *Abertzales y vascos. Identificación vasquista y nacionalista en el País Vasco*. Madril: Akal, 47-119 orr.
- Garmendia, M. Carmen (1994). "El proceso de normalización lingüística en el País Vasco: datos de una década", *International Journal of the Sociology of Language*, 109, 97-107 orr.
- Gellner, Ernest (1988). *Naciones y Nacionalismo*. Madrid: Alianza.
- Gimeno Sacristán José (1996). "Los retos de la educación pública. Cómo lo necesario puede devenir desfasado", *Cuadernos de Pedagogía*, 248, 59-67 orr.
- Giner, Salvador (1987). *Ensayos civiles*. Bartzelona: Nexos.
- Gorostiaga, Koldo (1993). "Publikotasuna", In Felix Basurko, Paulo Iztueta (bil.): *Euskal Eskola Berria*. Donostia: EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Saila, 178-194 orr.
- Green, Andy (1990). *Education and State formation*. New York: St. Martin Press.
- Gurruchaga, Ander (1985). *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Bartzelona: Anthropos.
- Gurrutxaga, Xabier (1981). "Por una ikastola pública. Por la unificación de la red educativa", *Hitz Irakaskuntza*, 1, 26-31 orr.

- Gurrutxaga, Xabier (1983a): "Gauzak garbi, hobe da eta...", *Hitz Irakaskuntza*, 10, 21-23 orr.
- Gurrutxaga, Xabier (1983b). "Rectificar también es de humanos", *Hitz Irakaskuntza*, 11, 39-41 orr.
- Gurrutxaga, Xabier (1991). "EEren Hizkuntz Politika", *Jakin*, 62, 77-107 orr.
- Habermas, J. (1986). *Historia y crítica de la opinión pública*. Mexico: G. Gili.
- Herri Batasuna (1986). "Eskola euskalduna eta publikoa", *Hausnartzen*, 4, Monografikoa orr.
- Herri Batasuna (1988a). *Negoiazioa*. *Hausnartzen*.
- Herri Batasuna (1988b). "Eskola Nazionalerantz. Eskola publiko eta euskalduna", *Hausnartzen*, Monografikoa.
- Herri Batasuna (1991). Urrats Berri. 2. Oinarrizko Txostena: Batasunean gorantz. Hacia un proyecto común de los abertzales y de la izquierda.
- Herri Batasuna (1992). "Euskal Eskola Publiko Berria", *Hausnartzen*. Irakaskuntza, Monografikoa.
- Herri Batasuna Legebiltzar Taldea (1993). "Euskal Eskola Publikoari buruzkoa. (Zuzenketa-eskeak)", *Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala*, 71, 4.684-4.687 orr.
- Heiberg, Marianne (1991). *La formación de la nación vasca*. Madril: Arias Montano.
- Herrero, José Luis / Zalakain, Jexusmari (1993). "Etica, profesores e ikastolas", *Egin*, 1993/V/11, 7. orr.
- Herria Eliza 2000 (1989). "Posicionamientos políticos ante la escuela pública vasca", *Herria 2000 Eliza*, 106, 29-40 orr.
- Hezkuntz Mintegia (1993). "Euskal Eskola eta hitzarmen politikoa", *Tantak*, 9, 73-101 orr.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (1989). *Euskal Eskola Publikoaren Lege-Zirriborroa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia.
- Iban, Amagoia (1993). "Ikastolak iparraren bila", *Argia*, 1.439, 22-26 orr.
- Idiazabal, Itziar (1993). "Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalkuntza: zenbait gogoeta", *Bat*, 10, 11-21 orr.
- Ikastolen Elkarte (1991). *Euskal Eskola*. Lizarra.

- Ikastolen Elkarte (1992). *Ikastolen II. Batzar Nazionala*. Iruñea.
- Izagirre, Antton (1989). "El proyecto del PSOE, una agresión a la Escuela Nacional Vasca", *Egin*, 1989/X/14.
- Izagirre, Antton (1992). "Atención, se debate: Nueva Escuela Pública Vasca", *Egin*, 1992/II/15, 16. orr.
- Iztueta, Paulo (1993). "Euskal Eskolaren bila", In, Paulo Iztueta / Félix Basurco / (bil.): *Euskal Eskola Berria*. Elgoibar: EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, 124-177 orr.
- J.N. (1991). *El eterno debate: La escuela pública vasca (EILASen barne dokumentua)*.
- Jakin (1983). "EIKE eta Euskal Eskola Publikoa", *Jakin*, 28, 61-124 orr.
- LAB (1988). "Egungo egoeran, euskal eskola nazionalerantz Baskongadetan eman behar diren urratsak (I)", *Irakaskuntza*, 2, Monografikoa.
- LAB (1989). *Euskal Eskola Nazionalari buruzko zenbait gogoeta*.
- LAB (1991). *Euskal Eskola Nazionalari buruz. 91/92 kurtsoko hausnarketak*.
- LAB (1992a). *III. Biltzarra. Erabakiak*. Bilbo, Martxoak 19,20,21.
- LAB (1992b). *Euskal Eskolaren erronkan, publikotasun bidean bat eginez*.
- LAB (1997). *Euskal Irakaskuntzarako Erronkei Erantzuten*. LAB Irakaskuntzaren Lehen Biltzarra, Donostia.
- Landeta, Eduardo (1917). "El problema bizkaitarra", *Hermes*, 5, 326-331 orr.
- Landeta, Eduardo (1919). Estado actual de la Escuela en el País Vasco. Sus remedios inmediatos. Organización de la escuela vasca de conformidad con las condiciones locales, in *Eusko Ikaskuntza (bil.): Primer Congreso de Estudios Vascos*, Bilbo: J. Ausin, 875-901 orr.
- Laponce, Jean A. (1984). *Langue et territoire*. Quebec: Presses de l'Université Laval.
- Larramendi, Jose M. (1993). "Ante el acuerdo político para el pacto escolar", *Egin*, 1993/II/11, 7. orr.
- Larrañaga, Iñaki (1990). "Nafarroako egoera demolinguistikoa", *Jakin*, 56, 35-72 orr.

- Larrinaga, Ane (1996). "Diskurtsoaren interpretazio markoak", *Inguruak*, 15, 155-178 orr.
- Larrun (1985). "Dossiera: Ikastolak. Historia, egoera, etorkizuna", *Larrun*, 1, 35-54 orr.
- Larrun (1991). "Elkarrizketa: Ikastolen etorkizunaz. I. Etxezarreta - A. Izagirre", *Larrun*, 10, 5-21 orr.
- Letamendia Belzunce, Francisco (Ortzi) (1994). *Historia del Nacionalismo Vasco y de E.T.A.*, Donostia: R&B Ediciones.
- Letamendia, Jorge (1982). "La institucionalización de las ikastolas y la escuela pública vasca", *Hitz Irakaskuntza*, 5, 13-21 orr.
- Linz, Juan J. (1985). "From Primordialism to Nationalism", In Tiryakian/ Rogowski (bil.): *New Nationalisms of the Developed West*. Boston: Allen and Unwin, 203-253 orr.
- Lozano, Javier (1992). "Escuela pública a la vasca", *Hika*, 17, 18-19 orr.
- Lozano, Javier (1993). "Lo propio, lo público", *Egin*, 1993/2/9, 7. orr.
- Madariaga, Tx. / Gutierrez, J. M. / Zugadi, K. (1994). "EGIN e Ikastolas Públicas", *Egin*, 1994/III/8, 8. or.
- Martí, C. (1993). "Ikastolas y "lo público"", *Egin*, 1993/5/4, 7. or.
- Mateos Gonzalez, Socorro (1999). *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: ikastolen publikazioa*, Doktore Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaratu gabe).
- Mezo, Josu (1996). *Políticas de recuperación lingüística en Irlanda (1922-1939) y el País Vasco (1980 -1992)*. Madril: Instituto Juan March de Estudios e Investigaciones.
- Migue, Jean Luc / Marceau, Richard (1989). *Le monopole publique de l'Education*. Quebec: Presses de l'Université de Québec.
- Monés i Pujol-Busquets, Jordi (1981). *L'escola a Catalunya sota el franquisme*. Bartzelona: Rosa Sensat.
- Muinarbe (1991). "Ikastolas, ¿pesadilla del STEE/EILAS?", *Egin*, 1991/III/18, 7. or.
- Murray, Dominic (1983). "Schools and Conflict", In Darby, John (bil.): *Northern Ireland: The Background to the Conflict*. Belfast. Appletree Press, 136-150 orr.

- Nogales, Javier (1992). "Dos no confluyen si uno no quiere", *Eskola Publikoa*, 4, IV-VI orr.
- Odriozola, Joxe Manuel (1993). *Soziolinguistikaren atarian*. Bilbo: Euskaltzaindia/BBK.
- Oliveri, Inaxio (1993). "Renunciar a un sistema educativo propio", *Egin*, 1993/I/26, 9. or.
- Onaindia, Mario (1988). "Por un socialismo y una nación vasca de ciudadanos", In *Euskadiko Ezkerra 1988. Hacia el Tercer Congreso*, 20-29 orr.
- Oregi, Eneko (1991). "Earen Hizkuntz Politika", *Jakin*, 62, 53-76 orr.
- Orella Unzue, José Luis (1992). "Reflexiones sobre la Ley de la Escuela Pública Vasca", *Egin*, 1992/I/8, 9. or.
- Otano, Luis (1978). *La escuela pública vasca. Una alternativa a la enseñanza en Euskadi*. Bilbo: Adarra.
- Otano, Luis (1983). "La enseñanza en la Comunidad Autónoma Vasca", *Cuadernos de Pedagogía*, 23, 41-48 orr.
- Pérez-Agote, Alfonso (1995). "Nación y Nacionalismo: la politización de la identidad colectiva", In Benedicto, Jorge / Morán, M. Luz (bil.): *Sociedad y política. Temas de Sociología política*. Madril. Alianza, 109-138 orr.
- Pérez-Agote, Alfonso (1987). *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Pérez Díaz, Víctor (1986). "El retorno de la sociedad civil", *Papeles de Economía Española*, 27/28, 99-121 orr.
- Ramirez, Francisco O. / Boli, John (1999). "La construcción política de la escolarización de masas: sus orígenes europeos e institucionalización mundial", In F. Enguita, Mariano (bil.): *Sociología de la educación*. Barcelona: Ariel, 297-314 orr.
- Rodriguez, Fito (1996). *Ikastolak eta euskal eskolak*. Donostia: Orain.
- Rubiralta Casas, Fermí (1997). *El nuevo nacionalismo radical. Los casos gallego, catalán y vasco (1959-1973)*. Donostia: Hirugarren Prentsa.
- San Sebastian, Koldo (1984). *Historia del Partido Nacionalista Vasco*. Donostia: Txertoa.
- Sarasua Maritxalar, Jon (1997). *Aitaren etxea eta amaren sua*. Bakegintzarako Hezkuntza. IV. Jardunaldi Pedagogikoak, Bilbo, Maiatzaren 14, 15 eta 16an.

- Serrano, Araceli (1997). "Naciones y sistema educativo", In Fernandez Enguita, Mariano (bil.): *Sociología de las instituciones de Educación Secundaria*. Barcelona: ICE (Universitat de Barcelona)/Horsori, 47-58 orr.
- SIADECO (1977). *Estudio Socio-lingüístico del Euskara*. VII. liburukia: Las ikastolas.
- Smith, Anthony D. (1991). *National Identity*. Londres: Penguin Books.
- Sotelo, Ignacio (1996). "Lo estatal, lo público y lo privado", *Cuadernos de Pedagogía*, 248, 48-53 orr.
- STEE-EILAS (1989). *Euskal Eskola Publikoari buruzko debatea*.
- STEE-EILAS (1994). *V. Kongresua. Estatutos y Organización*. Donostia, Apirilaren 15,16,17an.
- STEE-EILAS (datarik gabe). *La escuela pública vasca que queremos. Documento a debate*.
- Tejerina Montaña, Benjamín (1992). *Nacionalismo y lengua*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Tokieder (datarik gabe). *El Movimiento Popular Tokieder*.
- Torrealdei, Joan Mari (1981). "Ikastola Euskal / Erdal Herrian", *Jakin*, 19/20, 6-13 orr.
- Txapartegi, Josu (1992). "¿De iniciativa privada?", *Egin*, 1992/II/5.
- Ugalde, Mikel (1976). "Irakasleen eskabideak", *Zeruko Argia*, 675, 5. or.
- Urkidi, Felipe (1993). "Nuestra escuela no es española, ¡ya vale!", *Egin*, 1993/V/17, 7. or.
- Urla, Jaqueline (1988). "Ethnic Protest and Social Planning: A Look at Basque Language Revival", *Cultural Anthropology*, 3:4, 379-394 orr.
- Xamardo González, Nicolás (1993a). "Lo propio como proceso", *Egin*, 1993/1/30, 7. or.
- Xamardo González, Nicolás (1993b). "Los cantos de sirena de la integración", *Egin*, 1993/5/17, 7. or.
- Xamardo, Nikolas / Zalakain, Jexusmari (1997). "Hezkuntza-sistema propioa", *Egin*, 1997/V/6, 5. or.

- Zabaleta Imaz, Iñaki (1997). *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*. Doktore Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaratu gabe).
- Zabalo, Julen (1994). "Bikote baten arazoak. Euskara 'versus' nazionalismoa", *Larrun*, 21, 15-27 orr.
- Zabalo, Julen (1996). *Euskal nazionalismoa eta nazio lurraldea*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Zabalo, Julen (1998). "Euskal nazionalismo motak -nazioaren ikuskeraren arabera-", *Uztaro*, 26, 27-46 orr.
- Zalbide, Mikel (1990). "Euskal Eskola, asmo zahar bide berri" Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 212-271 orr.
- Zarraoa, Iñaki (1990). "Diseño de escuela vasca", *Muga*, 75, 10-24 orr.
- Zugadi, Kepa (1995). "Ikasbatuaz. EAEko sare publikoan integratutako ikastolen elkarte", *hik hasi*, 1, 28-29 orr.

EGILEA

Txoli Mateos Soziologian lizentziatua da, 1980an. 1980/81 ikasturtetik aurrera, Euskal Herriko Unibertsitatean aritu da irakasle gisa. Ikasturte horretatik 1990era, Irakasle Eskolan, eta 1990tik gaur arte, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, betiere Soziologia Sailean. *Teoria Soziologikoa*, *Hezkuntzaren* eta *Nazionalismoaren Soziologia* izan dira urte horietan landu dituen gai nagusiak, eta azken biak uztartuz, defendatu zuen doktore tesia 1999an, aipatu unibertsitatean. Tesi horrek, *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: ikastolen publikazioa* izenekoak, urte berean jaso zuen Lehendarikatzaren *Euskal Gizartearen Egoera* Sariaren akzesita.

Idazlan honek Euskal Autonomia Erkidegoan, 1993an, ebatzi zen Euskal Eskola Publikoaren Legeak eragindako eztabaidetan du jatorria. Une hartan, ikastolek sare publikora biltzea ala sare pribatuan geratzea erabaki behar izan zuten. Aipatu legearekin eraketa aurreatomikoa ezarri zenez geroztik zetorren egoera atipikoari amaiera eman gura izan zitzaion, nola edo hala, ikastolek sare bereizi bat osatzen zuten eta.

1978tik aurrera sortutako egoera politiko berrian, eskola publikoaren arian ariko euskalduntzea eta ikastolaren onspen instituzional eskerga jazo ziren. Hori horrela, ikastola eta eskola publikoa nolabaiteko lehiakide bihurtu ziren abertzaleen begietara, eta, horren ondorioz, ahuldu egin zen frankismoaren garaitik zetorren adostasuna *euskal eskolaz* hitz egiteko orduan.

Abertzaleen arteko batasuna eta banaketa eragin zuena aztertu gura izan da. Hartara, Idazlanaren hari eroale nagusia da urte horietan zehar euskal nazionalismoak gorpuztu zituen diskurtso eta jokaera ezberdinak, hein handi batez, haren baitako diferentzia ideologikoen eta, bereziki, jokaera politikoaren emaitza izan zirela; eta, aldiz, abertzale ziren heinean, den-denek bat egin zutela hezkuntza sistema propio baten eraikuntza aldarrikatzean.

Edukiok nazionalismoaren eta hezkuntza publikoaren artean garatzen diren harremanen azterketa dute abiapuntu teorikoa.

Idazlan honek Euskal Autonomia Erkidegoan, 1993an, ebatzi zen Euskal Eskola Publikoaren Legeak eragindako eztabaidetan du jatorria. Une hartan, ikastolek sare publikora biltzea ala sare pribatuan geratzea erabaki behar izan zuten. Aipatu legearekin eraketa aurreautonomikoa ezarri zenez geroztik zetorren egoera atipikoari amaiera eman gura izan zitzaion, nola edo hala, ikastolek sare bereizi bat osatzen zuten eta.

1978tik aurrera sortutako egoera politiko berrian, eskola publikoaren arian ariko euskalduntzea eta ikastolaren onespren instituzional eskerga jazo ziren. Hori horrela, ikastola eta eskola publikoa nolabaiteko lehiakide bihurtu ziren abertzaleen begietara, eta, horren ondorioz, ahuldu egin zen frankismoaren garailik zetorren adostasuna *euskal eskolaz* hitz egiteko orduan.

Abertzaleen arteko batasuna eta banaketa eragin zuena aztertu gura izan da. Hartara, idazlanaren hari eroale nagusia da urte horietan zehar euskal nazionalismoak gorpuztu zituen diskurtso eta jokaera ezberdinak, hein handi batez, haren baitako diferentzia ideologikoen eta, bereziki, jokaera politikoaren emaitza izan zirela, eta, aldiz, abertzale ziren heinean, den-denek bat egin zutela hezkuntza sistema propio baten eraikuntza aldarrikatzean.

Edukiok nazionalismoaren eta hezkuntza publikoaren artean garatzen diren harremanen azterketa dute abiapuntu teorikoa.